

90 1918-1919  
urte 2008-2009  
Euskaltzaindia



Joan Mari Torrealdai - Imanol Murua Uria

EUSKALTZAINDIA ekin eta jarrai

EUSKALTZAINDIA

# EUSKALTZAINDIA

ekin eta jarrai

Joan Mari Torrealdai  
Imanol Murua Uria



EUSKALTZAINDIA



Eskubide guztiak jabetunak dira. Galarazia dago liburu honen kopia egitea, osoa zein zatikakoa, argitaraldi honen jabeen aurretiazko eta idatzizko baimenik gabe.

*Egileak:* Joan Mari Torrealdai – Imanol Murua Uria

*Edizio arduraduna:* Joan Mari Torrealdai

*Argazkiak eta agiriak:* Argazki eta agiri gehien-gehienak Euskaltzaindiaren artxibategikoak dira salbu eta Juantxo Egañak libururako eginak. Egañarenak orrialde hauetakoak dira: 91, 94, 95, 103-106, 113, 117/1, 119, 121/1, 123, 126, 133, 137, 154-155, 156-159, 160, 173, 175, 176/2, 177-180, 184/2, 188, 192, 194/1, 197, 198/1, 200, 204/2, 206, 210, 212, 219, 223, 225, 240-241

*Infogramak:* Joxean Apeztegia

*Diseinua eta maketa:* Imanol Tapia

*Argitaratzailea:* Euskaltzaindia

*Inprimaketa:* Leitzaran Grafikak S.L.

© Joan Mari Torrealdai, Imanol Murua Uria

© Euskaltzaindia

I.S.B.N.: 978-84-95438-98-0

L.G.: 1096-2009

# EUSKALTZAINDIA

ekin eta jarrai

Joan Mari Torrealdei  
Imanol Murua Uria



---

EUSKALTZAINDIA



## Euskaltzaindia ekin eta jarrai

Zaharrak berri: Euskaltzaindiak, ekinean jarraitu (Andres Urrutia) .....	9
Hitzaurrea .....	11
<b>HISTORIAN</b> .....	13
<b>Aurrekariak</b> .....	15
Goiztiarrak .....	17
Jose Paulo Ulibarri Galindez .....	17
Jose Francisco Aizkibel .....	18
Jean Duvoisin/Anton Abadia .....	19
Eusko Pizkundean .....	20
Jose Manterola .....	20
Aldarrikapenetatik egitasmoetara .....	21
Aristides Artiñano .....	21
Adolfo Gabriel Urkixo .....	21
Cosme Txurruka Brunet .....	22
<b>Sortzea</b> .....	25
Bizkaiko Aldundian .....	27
Oñatiko Biltzarra .....	29
Oñatitik Donostiara .....	29
Lehen promozioa .....	32
Lehen urrats instituzionalak .....	32
Egoitza .....	32
Karguak .....	34
Euskaltzainburu berriaren lehen hitzak .....	35
Izanarekin batera izena .....	35
“Yayotzez eta izkuntzaz euskaldunak” .....	36
<b>Jardunean</b> .....	39
Iker eta Jagon .....	41
Jardun akademikoa .....	41
Alfabetoa .....	43
Egin eta eragin .....	43
Hezkuntza eta hedabideak .....	44
Erakundeen babes gutxi .....	45
<b>Gerra eta gerra ostea</b> .....	47
Desgiroan .....	49
Krutwigen lekukotza .....	50
1941: berriz ere abian .....	52
Gerra osteko lehen Biltzarra .....	52
Junta de Cultura-ren erabakia .....	54
1949: Krutwigen erreforma .....	56
Azkue ondoko buruzagitza .....	58
Gabriel Arestiren proposamena .....	58
1956: urte giltzarria .....	59
Euskaltzaleen Biltzarra Arantzazun .....	60
Euskera agerkaria .....	63
Bi ekitaldi gehiago .....	63
1959: euskal hitzen adierazpena .....	64
1960an hasita, bertso txapelketak .....	65
<b>Normalizazioaren bidean</b> .....	67
Urre ezteiak Arantzazun .....	70
Arantzazurako bidean Baiona eta Ermua .....	73
Arantzazutik Bergarara .....	74
Bergaran Eleizalderen itzalpean .....	76
Bi ekimen nagusi .....	77
Bai Euskarari .....	77

Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak .....	78
Euskaltzaindiaren itzalpean .....	79
Alfabetatzea .....	80
Euskara titulua .....	81
Itzultzaile Eskola.....	81
UEU .....	82
EIE .....	82
Mamu mamitzen .....	83
Onarpen juridikoa .....	84
Onarpen soziala .....	86
<b>Aro berria.....</b>	<b>89</b>
Osterantzeko ibilbidea .....	91
Aldaketa ildoak.....	91
Kideak.....	91
Estatutuen egokitzapena eta emerituak.....	91
Euskaltzain urgazleak.....	92
Lanak .....	92
Ikerketa-egitasmo berriak.....	92
Euskalgintzarekin harremanak .....	92
Finantzabideak/Barne kudeaketa/Zabalkundea .....	93
Finantzabideak: egonkortasun ekonomikoa bermatzea .....	93
Barne kudeaketa .....	93
Komunikazio estrategia .....	93
Labur-zurrean .....	93
Andres Urrutiari elkarrizketa .....	94
Zuzendaritzako kideei hitza .....	103
Euskalgintzaren iritzia .....	107
<b>EUSKALTZAINAK .....</b>	<b>109</b>
<b>Euskaltzainburu izandakoak.....</b>	<b>111</b>
Resurreccion Maria Azkue .....	113
Inazio Maria Etxaide .....	117
Jose Maria Lojendio .....	119
Manuel Lekuona.....	121
Luis Villasante .....	123
Jean Haritzelhar (elkarrizketa) .....	126
<b>Euskaltzainak historian .....</b>	<b>131</b>
Osaera .....	133
Kopurua .....	134
Lurraldetasuna .....	137
Betikotasuna .....	139
Emakumeak euskaltzain.....	142
Nola bilakatu euskaltzain oso .....	144
<b>Euskaltzainen galeria .....</b>	<b>145</b>
Euskaltzain osoak .....	147
Euskaltzain ohorezkoak .....	160
Euskaltzain urgazleak .....	161
<b>BATZORDEAK. EGITASMOAK. LANTALDEAK .....</b>	<b>165</b>
<b>Iker saila .....</b>	<b>167</b>
Hiztegitza .....	169
Azkueren hiztegitik Orotariko Euskal Hiztegitara.....	169
Gerra aurea eta gerra ostea .....	169
Mitxelena gidari .....	170
Hogei urte talde lanean .....	170
Hiztegi Batu bukatu gabea .....	172
Hiztegi Batuko lantaldea .....	173
Hiztegi Batu Oinarriduna.....	174

Hiztegi Batua (2. itzulia) batzordea (2001-2009) .....	175
Hiztegi Batua (2. itzulia) batzorde ahaldundua (2009tik aurrera) .....	175
Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak egitasmoa .....	176
Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak batzorde ahaldundua .....	177
Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko egitasmoa .....	178
Euskal Hiztegi Historiko eta Etimologikoa egitasmoa .....	179
Lexikoaren Behatokia egitasmoa .....	179
Gramatika .....	181
Lehenengo ahaleginak .....	181
Oinarrizko gramatika: EGLU .....	181
Bestelako lanak eta asmo berriak .....	182
EGLU bildumako liburukiak .....	183
Euskal Gramatika Orokorra egitasmoa .....	183
Dialektologia .....	185
Erizkizundi Irukoitzaren arrastoa .....	185
Irizpideak finkatzen .....	186
Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa .....	186
Hizkuntz Atlasaren ezaugarriak .....	186
Atlasa zenbakitan .....	187
Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpora egitasmoa .....	188
Onomastika .....	189
'Lurrizenbatzaitetik' Udalen Izendegira .....	189
Pertsonen izendegia .....	190
Onomastika batzordea .....	190
Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoa .....	191
Exonomastika batzordea .....	193
Gasteizko Toponimia egitasmoa .....	194
Literatura .....	195
Sariketen antolatzaile .....	195
Narratiba .....	195
Poesia .....	195
Antzerkia eta beste .....	196
Literatura batzordearen sorrera .....	196
Gaur egungo sariketak .....	196
Euskal Idazleen Elkartearen sorburu .....	197
Literatura ikergai .....	197
Literatura Ikerketa batzordea .....	198
Bertsolaritzatik Herri Literaturara .....	198
Herri Literatura batzordea .....	199
Herri Literaturari buruzko jardunaldiak .....	199
Herri Literaturaren Corpora egitasmoa .....	199
Jagon saila .....	201
Corpusa .....	203
Kalitatearen jagole .....	203
Jagonet zerbitzua .....	204
Euskalkiak .....	205
Euskalkien ekarria aztertzen .....	205
Hiru adierazpen .....	205
Sustapena .....	207
Sorrerako xedeetan .....	207
Ofizialtasuna ipar .....	207
Euskaltzaindiaren ahotsa .....	208
Euskaltzaindiaren adierazpenetako batzuk .....	208
Gogoeta eta azterketa .....	209
Euskararen Historia Soziala .....	211
Joanes Etxeberri egitasmoa .....	211
Egiturezko batzordeak eta egitasmoak .....	213
Argitalpenak .....	215
Euskera, agerkari ofiziala .....	215
Bi aro .....	215



Irizpide berriak .....	215
Idazketa Kontseilua .....	216
Bildumak .....	216
Euskaltzaindiaren arauak .....	216
Iker bilduma .....	216
Hiztegiak .....	217
Gramatika.....	217
Izendegiak .....	217
Hizkuntz atlasak.....	217
Onomasticon Vasconiae .....	217
Euskaltzainak .....	217
Literatura .....	217
Sariketak.....	217
Euskararen lekukoak .....	218
Jagon .....	218
Mendaur.....	218
Argitalpen solteak .....	218
<i>Plazaberri</i> .....	218
<i>Erlea</i> .....	219
Argitalpen batzordea .....	219
Azkue Biblioteka.....	220
Azkueren liburuak .....	220
Kanpainak eta egoitza .....	220
Katalogazioak eta digitalizazioak .....	221
Ateak zabalik .....	222
Azkue Biblioteka batzordea .....	223
IKT batzordea .....	224
Garai berriak, batzorde berria .....	224
<b>Iraganeko batzorde suntsikorrak .....</b>	<b>227</b>
Aditz batzordea.....	229
Ahoskera batzordea .....	229
Alfabetatze batzordea .....	229
Bertsolaritza batzordea .....	229
Irakaslego batzordea .....	229
Elebitasuna batzordea .....	230
Oinarrizko Euskara batzordea .....	230
<b>90 URTE EKIN JARRAITUAN .....</b>	<b>231</b>
Xedeak arautegian .....	233
Jardunmoldea historian .....	234
Babes ekonomikoa .....	238
Langileak .....	240
90. urteurrena argazkitan .....	242
<b>EREMU URRIKO HIZKUNTZEN AKADEMIAK .....</b>	<b>245</b>
Galizieraren Akademia .....	247
Ikasketa Katalanen Institutuko Sail Filologikoa .....	248
Frisieraren Akademia .....	249
Frantsesaren Quebec-eko Bulegoa .....	250
Irlanderaren Erakundeko Terminologia Batzordea .....	251
Asturieraren Akademia .....	252
Faroeraren Kontseilua.....	253
Galeseraren Bulegoa .....	254
Bretoieraren Bulegoa .....	254
Kornubieraren Elkartea .....	255
Aragoieraren Akademia .....	255

## Zaharrak berri: Euskaltzaindiak, ekinean jarraitu

Lehen so batez liburu honetara hurreratzen den irakurleak berebiziko tentazioa izan dezake, letren eta irudien artean iragan hutsa soil-soilik ikusteko. Badira orrialde hauetan halakoak. Badira, bestalde ere, osterantzeko ahaleginak, Euskaltzaindia zer izan den, zer den eta zer izan daitekeen egoki azaltzeko eta gizarteratzeko.

Hasiera-hasieratik eman zitzaion enkargua Joan Mari Torrealdairi “bere” liburua egin zezan, eta honek Imanol Murua nahi zuen berarekin. Liburu hau, hortaz, ez da Euskaltzaindiaren liburu ofiziala, ezpada bi kazetari euskaldunek, Joan Mari Torrealdairi eta Imanol Muruak, Euskaltzaindiari buruz eskaintzen diguten ikuspegia, erakundeak laurogeita hamar urte betetzen dituenean.

Kazetari saiatu eta trebeak izanik, eta halako lanetan eskarmentu handikoak gainera, begi-bistakoak dira lan honen barruan batera erabili behar izan dituzten metodologia eta teknikak. Hartara, historia gorabehera, hamaika istorio kontatu dizkigute haiek, erakunde handiaren izenetik hasi eta barne ibilbidearen magalera joan arte.

Iragana ez ezik, oraina ere izan dute esku artean egileek, eta hortxe islatu dute, bizi-bizirik, aldaketa- eta eraberritze-garaian dagoen akademia. Aurpegi berriak nabarmenduko ditu irakurleak, egitasmo berriak ere bai, eta, zer esanik ez, gogo bizia, erakundeak egin asmo dituen proiektuak gauzatzeko.

Testu laburrak, dokumentu ugari, irudi-tartekatze egokiak, batzordez batzorde eta egitasmoz egitasmo taxutuak eta xehatuak... Horra hor Euskararen Akademiaren egitura, laurogeita hamar urteko ibilbidea erakusten duena.

Ibilbide horretan ere, argi-ilunak eta on-gaitzak, giza erakunde orori dagozkion bezalaxe. Gizakien fruitua izanik, horra Euskaltzaindiaren bestelako aberastasuna, urte luzeen ostean ondua eta mamitua. Horra euskaltzainak, osoak, ohorezkoak eta urgazleak. Horra Euskaltzaindiaren langileak, zeregin isil askoren ondorioz Euskaltzaindiaren bizimodua eta egunerokotasuna bermatzen dituztenak.

Egitura, pertsonak, eta, esan dezadan bidenabar, baliabide teknikoak eta materialak, horiek ezinbestekoak baitira egun Euskararen Akademiak egin behar duen lana burutzeko, hots, Iker eta Jagon sailetan sakontzeko, eta, aldi berean, euskararen goi mailako ikerketa eta gizarteratze-lana bideratzeko. Ez da Euskaltzaindia horretan bakarra. Ezta ere oso desberdin, inguruan diren hizkuntzen akademiei buruz ere berri ematen baita orrialde horietan.

Hala egin du Euskaltzaindiak laurogeita hamar urte hauetan. Horren lekukotza ere nonahi utzi du, egun errealitate bizi diren ekimenetatik hainbatetan: AEK, bertsolaritza, UEU, ikastolak... Badira biografia baten kate-begiak, hemen egoki jasoak.

Hala egin nahi du aurrerantzean ere. Horren erakusle ere bada liburu hau, itxia baino, gonbit irekia baita, modu gozo eta adierazgarri batean erakutsi nahi dituen aspaldiko erakunde baten izaera eta egitateak, asmo eta esperantzak.

Aspaldiko erakundea esan dut; ez, ordea, zahartutakoa edota ahitua. Izatez, gazetarik eta eraberriturik dator oraingoan Euskaltzaindia, eta halaxe jarraitu nahi du, euskalgintzarekin elkarlanean, eta euskaldunoi eta euskaltzaleei eskertuta, laurogeita hamar urte hauetan eman dioten/diguzuen laguntza eta begirunearengatik.

Zalantzarik ez izan: liburu honetan duzue horren frogarik agerikoena; Euskaltzaindiak bere horretan dirau, konbentziturik modu horretan egiten diela euskarari eta euskal kulturari zerbitzurik behinena.

Andres Urrutia  
euskaltzainburua

## Hitzaurrea

Zer da Euskaltzaindia, zer egin du orain arte, zer egiten ari da orain eta zer egiteko asmoa du hemendik aurrera. Galdera horiei erantzuteko ahaleginaren emaitza da esku artean duzun liburua. Euskaltzaindiari argazkia, azken batean, Euskararen Akademiaren sorreraren 90. urteurrenean ateratakoa.

Euskaltzaindia gaur egun zer den ulertzeko lehenik iraganean zer izan den ulertu behar denez, Akademiaren historian igeri egin dugu liburuaren lehen ataletan, baina ez ikerketa historikoa egiteko, ezta oraindik idatzi gabe dagoen Euskaltzaindiaren historia ofiziala idazteko ere, baizik eta istorio laburren bidez Akademiaren 90 urteen berri modu arinean emateko. Kazetari lana da, ez historiagile lana. Kontakizuna da, ez azterketa ezta txostena ere.

Euskararen akademia sortzeko asmoari buruzko lehen aipamen ezaguna Jose Paulo Ulibarri Galindezena dela irakurriko duzu istorio horietako aurrenekoan, 1832an adiskide bati idatzi zion eskutitzean bertsotan proposatu baitzuen “oguetan lau guizon” behar zirela “izentau”, “euzkeraren ganean eguiteko aleguin au”. Eta gutun hartatik abiatuta, istorioz istorioz, agiriz agiri eta argazkiz argazki, Euskaltzaindiaren historian esanguratsuenak izan diren gertaeretan barrena, gaur egungo eraldaketa garaira arte iritsi ahal izango da irakurlea.

Berritze prozesuaren erdian harrapatu du Euskaltzaindia bere sorreraren 90. urteurrenak, eta eraldatze horren nondik norakoak ere jaso ditugu urteurrenaren karietara egindako liburu honetan. Euskaltzainek beraiek hartu dute hitza horren berri emateko, Andres Urrutia euskaltzainburuarengandik hasita. Elkarrizketa luzean Euskararen Akademiaren gaur egungo errealitatearen azterketa egin du euskaltzainburuak, eta etorkizunean bultzatu nahi duen ildoaren arrastoa eman, eragin nahi dituen aldaketen zergatien azalpena emateaz gain. Zuzendaritzako gainerako kideen iritzi laburrageok osatzen dute atal hau, hala nola Beñat Oihartzabal euskaltzainburuordearen, Xabier Kintana idazkariaren, Jose Luis Lizundia diruzainaren, Andoni Sagarna Iker sailburuaren eta Andres Iñigo Jagon sailburuaren gogoetek. Euskaltzainburu izandakoen atalean, aurreko bost euskaltzainburuen biografien aldamenen, Jean Haritxelhar euskaltzainburu ohiaren lekukotza ere jaso dugu, elkarrizketa bidez.

Gaur egungo Akademiaren argazki osoa eta zehatza nahi duenak batzordeen, egitasmoen eta lantaldeen atalera jo behar du. Hor ikusten da Euskaltzaindia zertan

ari den. Eta hor nabari da argazkia ez dela finkoa, mugitzen ari dela. Batzorde klasikoek lanean jarraitzen duten bitartean, egitasmo berriak jarri ditu abian Euskaltzaindiak, erronka berriei bitartekorik egokienekin erantzuteko asmoz. Eta batzorde, egitasmo nahiz lantalde guztien berri jaso dugu orrialdeotan, batzordeburu, egitasmo zuzendari eta lantalde arduradun guztien hitzekin hornituta. Denek eman dituzte norbere ardurapeko lanei buruzko argibideak, erantzun labur eta zehatzen bidez.

Euskaltzainen galerian euskaltzain guzti-guztien berri ageri da, lehengoak eta oraingoak, osoak, urgazleak nahiz ohorezkoak, 1919an Oñatin izendatu zituzten lehengo lau euskaltzainekin hasi eta 2008an izendatu duten azkeneraino. Guztira, izandakoen eta direnen artean, 88 euskaltzain oso, 82 ohorezko eta 315 urgazle. Euskaltzain osoak, hilak eta biziak, argazki eta fitxarekin ageri dira.

Eremu urriko beste hizkuntz akademiei buruzko berriak ez dira kasualitatez ekarriak. Euskaltzaindiak bere pareko izan daitezkeen akademiekin elkarlana bultzatzea du xede berrien artean, eta asmo horrekin zerikusia du kanpoko akademia zenbaiti buruzko oinarritzko informazioa liburu honetan biltzeak.

Liburu hau Euskaltzaindiaren enkarguz egina da eta Euskaltzaindia da argitaratzailea, baina mamiaren erantzukizuna —eta, beraz, baita akatsen eta hutsuneen ardura osoa ere— egileona da. Ez da, beraz, erakundearen liburu instituzionala, ez da Euskaltzaindiaren ahotsa hitz egiten duena.

Eskerrak eman behar dizkiogu Euskaltzaindiari berari, lan hau egiteko eskuak libre utzi izanagatik, eta laguntza behar izan dugun guztietan ateak zabaltzeagatik. Eskerrak baita ere euskaltzain guztiei, gure galdera eta argibide eskaerei erantzuteko prestasunagatik, eta Euskaltzaindikoko langileei, emandako laguntza guztiagatik, bereziki Azkue Bibliotekako Josune Olabarria eta Nerea Altunari.

Joan Mari Torrealdei  
Imanol Murua Uria

# HISTORIAN





# AURREKARIAK









## Goiztiarrak

Gauza jakina da giza sorkariak ez direla gauetik egunera sortu edo jaiotzen. Prozesu mantsoak izan ohi dira, halako batean azalera agertu aurretik bide luzea egina dutenak, lurpeko uren antzera. Halaxe gertatzen da Euskaltzaindiarekin.

Euskaltzaindiarekiko aipamenetan lehenak Eusko Pizkundearen aurrekoak dira. Ezagutzen dugunetik, lehen-lehena Jose Paulo Ulibarri Galindezena (1775-1847) da, bere *Gutunliburua*-n. Akademia hitza bera aipatzen aurrenekoa, baina, Jose Francisco Aizkibel (1798-1864) dela ematen du.

Hegoaldean geroxeago gertatuko den susperraldiaren aurrekoa da, baita ere, Jean Duvoisin (1810-1891) kapitainaren eta Anton Abadiaren arteko gutunetan agertzen den akademia baten egitasmoaren aipamen zehatza. Jean Duvoisin Luis Luciano Bonaparte printze euskaltzalearen laguntzailea zen, eta Abadia irlandarra mezenas handia, lore-jokoen sustatzailea.


**DON JOSE PABLO ULIBARRI, MARISCAL VETERINARIO** conocido por sus talentos y acierto en la facultad, vive en Vizcaya en la Ante-Iglesia de San Vicente de Abando, pegante a la villa de Bilbao.

**YOSE PAULO ULIBARRI-CO, ABERE SENDATZALLEEN** yakinena orain munduan ezagutzen dana, bicida Vizcayan Yaun-done Vicente Abando-co Eleix-atétan, Bilbo Uriyaren alboan.

**MONSIEUR JOSEF PABLO ULIBARRI, RECONU PAR** ses talens et sa maniere de travailler, etre Vetrinère et marchal ferren. Son domisille est en Vizcaya dans le viloge Abando, touchan la ville de Bilbao.

### Jose Paulo Ulibarri

Arabako Okendon jaio zen eta Bizkaiko Abandon bizi.



Ogueta lau guizon  
bear dira izentau  
Guernicaco bazarrean  
euzkeraren ganean  
eguiteco aleguiñ au

### Gutunliburua

Jose Paulo Ulibarri Galindezek (1775-1847) *Gutunliburua*-n behin eta berriz agertzen ditu bere nahiak eta kezak euskararen egoera eta etorkizunari buruz. Pedro Novia de Salcedori 1832ko ekainaren 29an eskaintzen dizkion bertso hauetan bere betiko kezak azaltzen ditu, euskara behar dela salbatu, gorde, zaindu, piztu, eskolan sartu. Azken bertso honekin bukatzen du.


**Jose Francisco Aizkibel**

Agian bere izan zen academia baten ideiaz gainera terminoa bera lehendabizikoz aipatu zuena. Aizkibel Azkoitian jaio zen 1798an eta Toledon hil 1864an. *De la lengua euskera, o de los vascongados* izeneko liburuan, Madrilen 1856an argitaratuan, azaltzen da pasarte hau. Bertan kontzientzia goiztiarra agertzen du eta garbi ditu honelako erakunde baten abantailak eta onurak.



Esto mismo quisiéramos que sucediera con nuestro Euskera, que poco a poco se formase un dialecto clásico o literario, que comprendiesen igualmente los habitantes de todo el país Vascongado indistintamente, como puede suceder muy bien, si el clero del país en su predicación y publicación de devocionarios y de obras de instrucción cristiana, usase de un lenguaje puro y escogido, arreglando para ello una gramática, que reúna los elementos primitivos de esta lengua en su mayor pureza, sin hacer caso de ninguno de los actuales dialectos, y atendiendo sólo a la verdadera y genuina restauración de la lengua, aproximándose, cuanto se pueda, al estado que tenía en la época de su mayor apogeo o de su mayor pureza. Para esto es indispensable la formación de una academia compuesta de Vascongados, que hayan hecho estudios especiales sobre su lengua, o que hayan estudiado las lenguas orientales o dedicádose a estudios lingüísticos, admitiendo igualmente en su seno a todo filólogo o lingüista extranjero que se dedique al estudio de nuestra lengua. Las autoridades del país deben proteger y contribuir para la prosperidad y buen éxito de los trabajos de esta corporación, que serían sumamente útiles para el país y para la ciencia filológica, llevando a cabo el gran pensamiento de nuestro adorado patricio, el Sr. Conde de Peñafiorida, fundador de la Sociedad Vascongada de Amigos del País, que produjo tantos beneficios. De este modo estaría unida esta nación con el tiempo ethnográficamente, bajo un dialecto común literario, que al cabo de un siglo o dos predominaría, por la ventaja de ser comprendido en las siete provincias o distritos de diferentes dialectos, que hoy se conocen y no se pueden entender unos con otros, ya que es imposible reunirlos políticamente, perteneciendo a dos naciones poderosas. Progresaría muchísimo la literatura vascongada, porque habría más consumo de libros euskeranos, puesto que les será comprensible a todos el dialecto literario, y entonces se publicarían muchas gramáticas, diccionarios y obras útiles, que, por temor de falta de venta, se hallan en el día en el estado de manuscritos, unos concluidos y otros abandonados, sin ningún género de estímulo para concluirlos. [...] Quisiéramos que hubiese una Academia donde poder discutir este punto y otros muchos en que no estamos conformes los aficionados a esta lengua. Es lástima que se pierdan tantos trabajos individuales y tantos esfuerzos por no formar una sociedad literaria o filológica de esta lengua, donde discutir y consultar sobre las dudas que ocurran y combatir los errores que inocentemente por ignorancia se propagan. Deseamos que llegue el día para asegurar el buen éxito de los esfuerzos del país Vascongado.

## Jean Duvoisin / Anton Abadia



Anton Abadia

## Jean Duvoisin

Je ne cesse de regretter que vos idées sur le projet de former una académie basque n'aient pu être réalisées jusqu'à ce jour. C'est là cependant l'unique moyen d'avoir un Dictionnaire complet, avec des définitions exactes; c'est la meilleure voie pour arriver à conserver par l'impression les pièces historiques dont la parte augmente sans remède.

Que faudrait-il donc pour former cette académie si désirable? Un comité à Bayonne; et le succès ne se ferait pas attendre. Telle est ma conviction.

Or, une fois que l'académie serait constituée et que nous aurions une revue mensuelle, il serait possible d'obtenir du département et de l'Etat un certain nombre de souscriptions et probablement aussi quelque subvention. Pourquoi doc ne pas essayer?

Si vous voulez, Monsieur, donner suite à vos premières idées, je pourrai l'hiver prochain vous apporter mon concours, que j'espère rendre efficace, en demandant des adhésions particulières à tous les habitants basques ou d'origine basque que se trouvent à Bayonne.

Je vais quitter Bardos; j'ai déjà arrêté un appartement près de la Cathédrale. Une fois là, je n'aurai plus à craindre que la tiédeur, à laquelle je ferai la guerre de mon mieux avec le concours de tous mes amis. A peine un noyau serait-il formé, que le char roulerait; la propagande à bout portant et les invitations personnelles directes seraient, je crois, un moyen infaillible de succès. Me fais-je illusion? Je livre ma pensée à votre jugement. En semblables entreprises, il suffit souvent de donner ce branle. Je m'y emploierai d'autant plus volontiers, que cette diversion à mon travail habituel me sera utile à moi-même.

## Jean Duvoisin eta Anton Abadia

Ezagunak dira biak, Jean Duvoisin eta Anton Abadia, lehena Bonaparte Printzearen aginduz Biblia euskaratu zuena eta bestea Ipar Euskal Herrian lore-jokoetako norgehiagokak antolatzen zituen.

1862ko abuztuaren 20an Duvoisinek Abadiari idatzi zion gutun honetan agertzen da Euskal Akademia sortzeko asmoa Abadiak orain baino lehen bazuela.

Zerikusi gutxi daukate horien pentsamoldeak eta bere garaian Larramendirenak akademiez trufatzen denean:

Entra cada uno en su tocador; la italiana en su Crusca; la francesa en su Academia de París; la española en la suya de Madrid; unos por aquí, otros por allí andan a vestirlas, y lo que al cabo de tantos años logran tantos Componedores es descomponer la navia.

[...]

Pues qué mayor gusto para los Bascongados, que el ver que sin Academias, sin assambleas y de primera mano, sale el Bascuenze tan primoroso, tan arreglado, tan en solfa de Declinación, Conjugaciones, Syntaxis con sus ocho Partes, Prosodia, con sus acentos, y esos especiales?



## Eusko Pizkundean

Euskaltzaindiaren aldarrikapen, eskari eta proposamen gehienak Eusko Pizkundearen baitan sortzen dira. Gerra karlistak eta Foruak galtzean 1876an, euskaltzaleak berebiziko astinaldia jasan du, helduleku eta euskarri berriak asmatu beharrean aurkitzen da. Kulturaren alorrean halako susperraldi bat abiatzen da laiko kultuen aldetik, eta hiri(buru)etan. Euskal Herriaren historia, kultura, hizkuntza berreskuratzeko premia intelektual eta politikoa sentitzen dute.

Eta horretarako elkarteak, plataformak, aldizkariak sortu zituzten. Iruñean aurrena, 1877an, "Asociación Euskara de Navarra" eta honen *Revista Euskara*. Arturo Campion, Hemilio Oloriz, Juan Iturralde eta beste asko biltzen dira bertan. Hurrengo urtean, 1878an, sortzen dute Gasteizen *Revista de las Provincias Euskaras*. Fermin Herran, J. Apraiz, Baraibar, Becerro de Bengoa eta beste aurkitzen ditugu hor. Bilbon, Estanislao Labairu, Aristides Artiñano, Juan E. Delmas, Antonio Trueba jaunek lanean dihardute (*Calendario vasco navarro: especial para las cuatro provincias hermanas* (1879) zuzendu zuen Truebak). Donostian Jose Manterolak beranduxego sortzen du *Euskal-Erria* aldizkaria, 1880an, artean *Cancionero Vasco*-ko folklore bilketa amaitzen ari baita. Ipar Euskal Herrian almanakak eta *Eskualduna*, M. Elizanburu, Gratien Adema, Jean eta Louis Etxeberri, Jean Hiriart-Urruti.

Pittin bat beranduago datorren belaunaldiak, aurrekoa bezain erromantikoa barik positibistagoa denak, sortuko du Euskaltzaindia ere: Raimundo Olabide, Damaso Intza, Pierre Broussain, Georges Lacombe, Piarres Lafitte, Resurreccion Maria Azkue, Julio Urkixo, Aita Donostia, Joxe Migel Barandiaran, Manuel Lekuona.



### Jose Manterola

La falta de una Academia que regulara la parte material de la escritura, la carencia de cátedras, la escasez de obras literarias escritas en este idioma, y la misma variedad de sus dialectos y subdialectos, ha sido causa de la lamentable confusión que ha existido y existe todavía respecto a la ortografía éuskara.

#### Jose Manterola (1849-1884)

folklore biltzailea da (*Cancionero Vasco*), aldizkari sortzailea (*Euskal-Erria*) eta Hegoaldeko lore-jokoan antolatzailea. *Cancionero Vasco* delako liburuan akademia baten hutsunea salatzen du, gabezia horrixe egotziz nahasmendu ortografikoa.

Egoki adierazten du Jurgi Kintanak belaunaldi horren positibismoa. Datu enpirikoetan oinarritzen dela horiek dakarten eredu, dio: Azkuek hitzak biltzen ditu; Urkixok, liburu zaharrak; Arantzadik, hezurak; Etxegaraik, agiriak; Aita Donostiak, musika; Barandiaranek, antropologia; eta Lekuonak, herri literatura.

Tartean dago abertzaletasunaren gorakada, Sabino Arana Goirirekin. Sabinoren eragina handia da oso, politikatik harago edo honago, kulturen, hizkuntzan ere, gizarte osoan. Arana Goiri hil eta 14 urte beranduago, bere jarraitzaileek Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Aldundietan indarra hartzen dute, eta Bizkaian gobernua. 1917ko hauteskundeetan Bizkaian 20 diputatutik 17 abertzaleak ziren. Testuinguru horretantxe sortu zen Euskaltzaindia.


## Aldarrikapenetatik egitasmoetara

Ulibarri eta enparauiek agertu dituzten desio, aldarrikapen eta egin dituzten proposamenen ostean, egitasmo landuagoak datoz, proiektu mamituagoak. Bi dira ezagunak: bata, Aristides Artiñanok Durangon 1886an ospatu ziren lore-jokoetan aldarrikatu zuena. Eta bestea, 1906-1907an Adolfo Gabriel Urkixok, Bizkaiko Aldundiaren buru zelarik, aurkeztutako Akademiarako Estatutuak. Hirugarren bat ere bada, ez horren ezaguna, Cosme Txurrukak Gipuzkoako Diputazioari luzatzen dion proposamena.



### Aristides Artiñano (1874-1911)

bilbotarra zen. 1886. urtean Durangon ospatu ziren Euskal Jaietan Euskal Akademiaren asmoa aurkeztu zuen zehatz-mehatz. Akademia horrek euskara lantzea eta zabaltzea izango lituzke helburutzat, baina baita ere Euskal Herriari buruzko historia-lanak. Xedeak bakarrik ez, arautegia ere eman zuen Artiñanok.



### Adolfo Gabriel Urkixo

Julio Urkixoren anaia eta Bizkaiko Diputazioaren lehendakaria, Euskal Akademia baten arautegia idatzi zuen. Baina egitasmoak ez zuen aurrera egin, berriro ere.

Egitasmoa zehatz-zehatza da, eta Euskaltzaindiaren izenean *Euskera* aldizkarian kronika idazten duenak aitortzen du hastapeneko Euskaltzaindia Urkixok emandako arautegiaz baliatzen zela.

«.....El que suscribe somete á la ilustrada consideración de las Diputaciones vasco-navarras las siguientes bases: *Primera*. Se crea una Academia de la Lengua vascongada, compuesta de doce individuos de número y de otros académicos que tendrán carácter de honorarios, y cuyo número se fijará más adelante. Estos académicos honorarios serán nombrados por la misma Academia. — *Segunda*. Será condición precisa que entre los miembros de número haya cultivadores de todos los dialectos literarios de la lengua euskara. — *Cuarta*. Las Diputaciones de Navarra, Guipúzcoa, Álava y Vizcaya contribuirán al sostenimiento de la Academia en la proporción y forma que se fije de común acuerdo. Servirá esta subvención para la publicación de libros y para la retribución de los académicos, á los cuales se señalaran, bien sean dietas por cada sesión, bien sea una cantidad alzada por año. — *Quinta*. El nombramiento de los doce individuos de número de que ha de constar, por ahora, la Academia habrá de encomendarse á las mismas Diputaciones hasta la constitución de aquel cuerpo. Una vez que se constituya, la misma Academia irá cubriendo libremente las vacantes que ocurran por fallecimiento de alguno de sus miembros, etc.

### Cosme Txurruka Brunet

Bada hirugarren bat, oraintsu arteko kroniketan agertu izan ez dena eta Javier Diaz Nociren bidez agirira atera dena: Cosme Txurruka Brunet (1830-1898). Mutrikuko Kondearen anaia zen eta Donostiako Audientziaren buru izan zen. 1897an idatzi zuen "Proyecto de Academia Bascongada". *Euskal-Erria*, Donostiako *El Pueblo Vasco* eta Buenos Airesko *La Euskaria* aldizkarietan aipatzen da. *La Euskaria*-ko testua da hau, 1907ko ekainaren 8an argitaratua.

Akademia nola finantziatu ere proposatzen du, honela formulatuta: "pudiendo la Diputación de Guipúzcoa incluir en sus presupuestos [...] é invitar a las de Alaba, Bizcaya, Navarra y Región francesa...".

Excmo. Sr.:  
Bulle en mi mente, hace tiempo, una idea, que sencillamente la voy á exponer á V. E. que tan amante es de cuanto á nuestra querida provincia y lengua Euskara se refiere, por si pudiera llevarse á efecto, que no lo dudo, bajo el patrocinio de esta Iltre. Corporación que se honraria mucho con ello.

Es indudable que la lengua vascongada, primera que se habló en España, se va perdiendo más y más cada día, hallándose hoy reducida á las montañas de Navarra y parte francesa colindante con las mismas. En Guipúzcoa es más general su uso, pues se habla más ó menos en toda la provincia: no tanto en la de Vizcaya, en cuya capital y pueblos de las encartaciones se habla muy poco y tan solo por las personas del interior de la provincia; siendo muy contadas las que en Alava la conocen. De seguirse este camino desaparecerá pronto, por completo de las regiones en que aún se usa y las generaciones futuras nos culparán y con razón, de no haber tratado de conservarla, siquiera sea para la historia, en cuanto sea aun posible.

Los esfuerzos individuales hechos para este fin por los Aitanloas, Campiones, Lairrabeles, Campiones, Aizquiveles y tantos otros publicando diccionarios y gramáticas vascongadas, con otras clases de trabajos han sido, indudablemente, muy grandes y merecen el más sincero aplauso de todo amante de esta lengua; pero esos esfuerzos, como personales, tienen muchos vacíos y errores y carecen, además, de aquella autoridad tan necesaria en esa clase de trabajos que deben ser encomendados, más bien, á una colectividad de personas de reconocida competencia, sacada de las diversas regiones en que se habla el vasconce, las cuales, reunidas en Academia de esta lengua, fijen, previa discusión, la manera de escribir de cada palabra y su verdadero significado, tomando para ello el más usual y genuino, sin perjuicio de apuntar á continuación otros que, sin serlo tanto, se usen tambien en el vasconce de otras localidades diversas.

De esta manera entiendo yo que podría hacerse un buen diccionario de la lengua Euskara, sino con aquella amplitud de voces y pureza que fuera de desear, porque se han perdido ya muchas, á lo menos lo más perfecto posible dado el estado de las cosas del día; y este Diccionario serviría de base para hacer despues la gramática y la ortografía, elementos sin los cuales es imposible, de todo punto, conservar

**Los Sábados**

nuestra antiquísima y hermosa lengua reducida hoy á que cada uno lo escriba á su capricho inventando palabras y haciendo las conjugaciones de los verbos y la ortografía según su leal saber y entender.

Tal estado de cosas no debe continuar y á fin de remediarlo en lo posible, propongo á V. E. lo siguiente:

1.º Se formará una academia de Lengua Vascongada. El cargo de la Academia será puramente honorario.

2.º La misión de esta academia será la de hacer un Diccionario de esta lengua tomando por base el de la castellana, publicado por la de Madrid. Este Diccionario se hará poniendo en el vasconce la significación que tenga cada palabra castellana y viceversa, así como tambien sus etimologías, en cuanto sea posible, á fin de que sean conocidas la composición y origen de las palabras vascongadas.

3.º Para ser Académico de la Lengua Euskara, será requisito indispensable el de hablarla bien siendo preferidos aquellos que con la publicación de libros ú otros trabajos sobre la misma, hayan demostrado sus conocimientos y competencia en ella.

4.º La Academia se compondrá por ahora de 22 personas, seis por cada una de las provincias de Guipúzcoa y Vizcaya, por ser mayor el número de habitantes que en ellas hablan el vasconce; cuatro por cada una tambien de las regiones de Francia y de Navarra y dos por la de Alava. Estas personas que formarán la Academia, serán nombradas por las respectivas provincias ó regiones y por la iniciativa de las Diputaciones de las mismas.

5.º Habrá en la Academia un presidente que dirija las discusiones y organice los trabajos y un vicepresidente que le supla; y así mismo un secretario y un prosecretario que estarán encargados, cada uno en su caso, de llevar los libros de actas de las sesiones que se celebren y de hacer los demás trabajos que la Presidencia les encomiende, según los acuerdos adoptados por la Corporación.

6.º Tanto el presidente y vicepresidente como el secretario y prosecretario serán nombrados por los académicos y de entre los mismos, previa citación al efecto.

7.º Los Académicos se reunirán trimestralmente en la ciudad de San Sebastian, como punto más céntrico para todos, y de más fácil acceso por existir vía férrea.

8.º Para ser validos los acuerdos que se tomen deberán reunirse por lo menos ocho, procurando que haya siempre entre ellos uno siquiera de cada provincia ó región. Los Académicos que no concurren á la reunión podrán enviar sus trabajos al señor secretario, á fin de que dé cuenta de ellos á la Asamblea y puedan discutirse y tomarse en consideración si lo merecieran.

9.º Empezará sus trabajos la Academia para hacer el Diccionario de la Lengua Euskara de la manera indicada anteriormente.

Para la significación ó equivalencia de palabras, se tomarán los de uso más general en la lengua Vascongada, sin perjuicio de poner á continuación los demás que se usen tambien en otras regiones que se hable la misma lengua.

10. En los tres meses que transcurran entre cada discusión, los Académicos deberán hacer en particular, todos aquellos trabajos que su celo é ilustración le surgiera, á fin de someterlas á la aprobación de la Academia, que irá fijando así la significación definitiva de las palabras por mayoría de los congregados siendo de calidad el voto del presidente caso de empate en las votaciones.

11. Terminado el Diccionario se harán, por la misma Academia tambien, la Gramática y Ortografía vascongadas, para lo cual es indispensable la base de aquel, que fijará los significados y modo de escribirse de cada palabra.

12. Como los trabajos de la Academia ocasionarán necesariamente algunos pequeños gastos se abrirá una suscripción mensual de una peseta en toda la región vascongada por medio de los alcaldes á fin de subvenir á los mismos con lo que se recaude, pudiendo la Diputación de Guipúzcoa incluir en sus presupuestos la cantidad que estime oportuna con el mismo objeto ó invitar á las de Alava, Vizcaya, Navarra y región francesa para que procedan de igual manera en los suyos respectivos. Esto sin contar con las utilidades que más adelante se pueden obtener con la publicación de los libros referidos.

Tal es mi idea, Excmo. Sr., expuesta con sencillez como digo al principio. Yo creo que su realización no ofrece dificultades, y creo tambien que si V. E. la acepta y patrocina, prestará un gran servicio al país vascongado y á su historia conservando los restos de su hermosa y antiquísima lengua, por lo cual lo bendecirán las generaciones venideras.

San Sebastián 28 de Octubre de 1897  
COSME DE TXURRUKA  
De *El Pueblo Vasco* (San Sebastián)



A.G. Urkixoren 1906ko proposamenak badu seguruenik iritzi sendo bat azpian, alegia, pertsona soil eta elkarteen nahiak ondo daudela baina jite horretako proiektu batek ez duela lortuko gauzatzerik erakundeen bidetik ez bada. Eskarmentu handia jaso zuten mende berriko proiektuen etorkizunean sinetsi zutenek. Ortografia bateratu eta elkargo bat sortu asmoz Ipar eta Hegoko idazleen artean egin ziren saioek (Hendaia-Hondarribia, 1900-1901) porrot egin zuten. Alde guztietara sakabanatu ziren indarrak, baina ez zen hala ere desagertu elkargo bateratzailearen ideia, hainbat gutun eta idatzietan ikus daitekeenez. Azkuek bilera horietan Euskal Akademia baten hazia ikusten zuen. Eskarmentua pasatuta, 1913an *Euskal Eснаlea* aldizkaria galdezka dabil ea Euskararen Akademia komeni den, posible den eta ea onurarik ekar dezakeen.

A.G. Urkixok uste ez bazuen ere, Euskaltzaindiaren sorreraren kronika idazten duenak (Azkue segurutik) bai, horrek uste du pertsona soilen asmoek baino balio gehiago dutela dirudunen indarrek, hots, erakundeek:

Mila bederatzireun-ta-zazpi-gafen-urtean gaude. Aitatu ditugun euskaltzaleak bateratzeko indarketa guziak alpefetan galdu dira. Ofelako sail gogofa bururatzeko, asmo aundiko langileak baño, indar ta dirudunak beafago dira. Egikizun aifñ astunaren aurfian, gizonak berak makal gelditzen dira: betoz ortarako Aldundiak. Euskaltzaindia'ren jaiotza Bizkai'ko Aldundiaren lana izan da. Len-lenik, 1903'ko urtean, Adolfo Urkijo'k, Aldundia'ren buru zalarik, bere lagun ta mendekoai berak asmatu zuan Euskal Akademia'baten atala eskaiñi zien. Gure oraingo Euskaltzaindia'ren araudi geienak Urkijo'ren lan aipagafi ortan aufki litezke. Zergatik asmo ori bururatu etzan eztakigu.





# SORTZEA







## Bizkaiko Aldundian

Euskaltzaindiaren beraren iritzian, orain arteko aldarrikapen, eskari, proposamen eta saio guztietatik 1918ko urtarrilaren 25era jauzia dago, jauzi kualitatiboa.

Honela azaltzen du kronistak *Euskera* agerkariaren lehen zenbakian:

Baina beti elez ele gabiltz ta ezer egin gabe. Orra azkenez, urrezko izkiz Euskaltzaindiak bere etxeko atari-gainean ezarri bearke duan eguna: 1918'ko Urtarrilaren 25 garrena. Egun artan, Bizkai'ko Aldundia'ren jauregian, Elgezabal'tar Kosme aldun bikañak euskeraz idatzitako atalbat bere kide argitsuerei irakurri ta eskeiñi zien.

Urte askoren buruan lenbiziko aldiz, orduan, euskera Bizkai'ko Aldundia'n sartu zalako ta Elgezabal'en ageri onek gure Euskaltzaindia'ren araudi laburra dakarelako ementxe, dan bezala, josi bear dala deritzagu.

Gorago aipatu dugun ordura arteko asmo ustelen puntuari heltzen dio gero:


Bizkai'ko Aldundi'an Elgezabal'ek bere gaia agertu arteraño Euskaltzaindi bat jartzeko egin izan ziran indarketa guziak argal, mee ta makal izan ziran. Ondoresurik auxe baizik etzan izan. Orregatik Euskaltzaindia egun artan jaio izan zala esan litzake.

Bizkaiko Aldundia abertzaleen eskuetan dago 1917ko hauteskunderen ondoren, Ramon Sota delarik burua. Euskaltzaindia sortzeko proposamenari baiezkoa emateaz gain, gainerako Aldundien oniritzia eskatu zuen Bizkaiko Aldundiak. Guztien artean erabaki zuten, gainera, hilabete batzuk beranduago egin behar zen Eusko Ikaskuntzaren Lehen Kongresuan lantzea izan zitekeela egokiena. Eta halaxe egin zen.

Euskal Herri osoa aintzat hartuta, lau Diputazioen eta Iparraldeko erakunderen babespean jartzen zuen Akademia proposamenak. Helburuen artean batasuna agertzen da, baina baita ere euskara eta dialektoak zaintzea. Lurralde eta euskalki guztietako hogeitaz ordezkarik osatuko dute Akademia. Bizkaiko Aldundiak 10.000 pezetaz lagunduko du.

Hogei kide horietatik hamazazpi, izen eta guzti, proposatzen ditu: hamar gero *de facto* izango direnak.

Ez dakigu Azkuek Landaburu ilobari laguntzarik eskaini zion ala ez, baina ez zen guztiz gustura gelditu proposamenarekin: helburuak anbiguoak iruditu zitzaizkion, Iparraldeak eta Nafarroak ez zuten aski ordezkarik, gehiegizkoa zen 20tik 17 kide beraiek izendatzea (gehienak jeltzaleak, gainera); eta Aldundiak ematen zuen diru laguntza ere ez zen hainbestekoa.



**Koxme Elgezabal**  
Bizkaiko Aldundiko diputatua



**Felix Landaburu**  
Bizkaiko Aldundiko diputatua



» Asmo onek, euzko orori dagokiozalako, eztira esi beaf Bizkai egaletan. iGaraipen gixajoa geure erkian xedatuko bageunke bera! Gipuzkoa, Araba, Napafata Parantzeko 150.000 anayak entzungo dabe. orixe bai, geure deya eta ekafiko dauskue euren laguntza, gagozan eunkiyan bizi edo ilteko epaya artuko daben asaben mintzari, zof yakon maitasunaz.

» Iraskunden eustazpiyak ixango dira:

» 1.<sup>n</sup> Bizkaya, Gipuzkoa, Araba eta Napafaren Diputaziño eta Parantzeko euskeldunen ofdezkariyen keriz ta babesbian, irasten da Bazkunde bat ..... ixenaz, euzkeria ta bere izkelgi oro adiratu, garbitu, obetu, orobatu ta zabaltzeko. Bere erabakiyak, agintzañen sorospen eta almena eltzen danaña, beaf-etsiko dira; eta agintzañe oyek ukutzen daben euzkel-gaiz oroetan beragana zuzenduko dira.

» 2.<sup>n</sup> Ogei lagunek osotuko dabe Bazkandia eta izango dira Euzkadi'ko erki ta izkelgi gustiyan ofdezkariyak. Euzkeriaz lan ondoen egin daben euzko edo atzeritarak, euren zeftzeladagaitik (biztokiya, eritasuna, t. a.) Bazkunde beftan bazkide egizkoñak saftu ezin ba-dire, lagun omengariak bezela ixentau leikiue Bazkundiak. Onek eztira izango ogeitik gora. Baita be jaften dira bazkide lankidiak, Bazkundiak aldunduta zeregin mugatu batzuk egiztuteko. Onexen jaftunduntzia, ofdaindua izango da, eta bere zenbakuna beaf dan beste.

» 3.<sup>n</sup> Ilian bein gitxienez batzauko da Bazkandia; eta Araudiyak tinkotu daben sariya emongo yake batzaldira datozeanai.

» 4.<sup>n</sup> Jaften dira oraindik ..... lagun, Lhande, Campion, Azkue, Agirre, Ariandiaga, Bustintza, Etzalar, Eleizalde, Olabide, Belaustegigoitia, Basabe, Euzkelzale-Bazkunako bat, Eguzkitza, López Mendizabal, Urkixo (Julio), Agefe (Iruñakua), eta Bayona'ko «Eskualduna»ren ofdezkari bat. Jaun ofek gefutuko dabe Bazkundien Araudiya.

» 5.<sup>n</sup> Bein eratu ezkeru, bereztuko dau bere jaftokiya.

» 6.<sup>n</sup> 10.000 laurlekogaz urtian urgaziko dau Bizkai-Diputaziñuak. Zefgaiti bafiya egin arte eralgi beaf dana, Ogasun-Batzofdiak bereztuko daunundik atara.

» 7.<sup>n</sup> Asmo au ta beratraz ezafiko dan erabakiya egiztuteko jakin erazoko jakoe, euren gogozko ta txindiz laguntza eskatzen yakoela, Euzkadi'ko beste Diputaziñoeri eta Parantze aldeko euzkeldunari.

» 8.<sup>n</sup> Diputaziño bakotxak aututen daben Diputadua saftu ta izango da nagusi Batzofde geflian, Bazkandia beaf dan lez jafi arte.»

Bilbon Lotaziñeko 12.<sup>n</sup> - 1918. = 8osma Elgezabal'tafa. = Landaburu'taf Peli.» (1)

### Elgezabal eta Landabururen txostena

Txostenak 1918ko urtarrilaren 25eko data badarama ere, hil bereko 12an idatzia da, Oñatiko Biltzarrarena adostu aurretik. Aurkezleak erdaraz Koxme Elgezabal eta Ramon Rotaetxe dira; eta euskaraz Koxme Elgezabal bera eta Felix Landaburu. Landaburu hau Azkueren ilobarekin ezkondua zegoen. Uste izatekoa da Azkue ez zela ideia horretatik oso aparte ibiliko.



## Oñatiko Biltzarra

1918ko udazkenean egin zen Eusko Ikaskuntza eratzeko Biltzar Nagusia Oñatiko Unibertsitate zaharrean, irailaren batetik zortzira. Giro ederrean, politikaren zurrunbilotik landa, dirudienez.

Akademiaren gaia jorratzeko enkargua Hizkuntza Sailari eman zitzaion. Txomin Agirre zen lehendakari, eta bokal gisa zeuden Azkue, Eleizalde, Olabide; Luis Biziola zen idazkaria.

Kongresua hasi orduko Bizkaiko proposatzaile zen Elgezabalek gaia mahai gainean jar zedila eskatu zuen. Ordurako Landaburu gaztea hila zen. Boto bidez erabaki zuten elkarte sortzea, ahobatezko baiezkoaren ondoren. Elkarte horren zeregina nola mugatu zen orain kontua: euskara ikertzea ala euskara babestea edo zaintzea, zer egin behar zuen, horietako bat ala biak?

Egiteko bakoitzarentzat elkarte bana behar zela uste zuten batzuek. Azkenean, baina, zera erabaki zen, elkarteak berak hartuko zituela bere baitan bi zereginak. Alegia, bi sail izango dituela Akademia berriak: Iker saila eta Jagon saila.


Erakundea bideratze aldera Akademiaren lau kideak ere bertan aukeratu ziren: R.M. Azkue, L. Eleizalde, J. Urkixo eta A. Campion.

Hurrengoak nola aukeratu ere erabaki zen: zazpi aldizkaritako ordezkariak emango zuten boza horretarako deituko zen biltzar batean.


## Oñatitik Donostiara

Eusko Ikaskuntzak lau Diputazioen eskuetan uzten du arautegiaren asmoa, eta laurek ontzat ematen dute 1919 urtean zehar. Eusko Ikaskuntzari eskatzen diote arautegiak agintzen duen legez euskaltzainak izendatzeko modua egin dezan.

Oñatiko Biltzarretik urtebetera, 1919ko irailaren 21ean, Eusko Ikaskuntzak deituta biltzen dira Gipuzkoako Aldundiaren jauregian Oñatin izendaturiko lau euskaltzainak: Resurreccion Maria Azkue, Arturo Campion, Luis Eleizalde, Julio Urkixo. Eta horiekin batera hainbat aldizkaritako zuzendariak: Karmelo Etxegarai *RIEV*-en izenean, Pierre Brousain *Eskualduna*-ren izenean, Txomin Agirre *Euskal Esnalea*-ren izenean, Damaso Intza *Irugarrego Prantziskotarra*-ren izenean, Toribio Altzaga *Euskal-Erriaren* izenean, Gregorio Mujika *Euskal-Erriaren Alde*-ren izenean, eta Zirilo Arzubiaga biren izenean: *Jaungoiko Zale* eta *Jesusen Biotzaren Deya*.






Goian: **Resurreccion Maria Azkue, Arturo Campion**  
Behean: **Luis Eleizalde, Julio Urkixo**




**EUSKALTZAINDIAREN SORTARAUAK**

Batzorde bat eratu zen araudia hamabost eguneko epean prestatzeko. Halaxe egin zuen Raimundo Olabidek. Behin-behineko arautegiaren zirriborroa eta zuzenketa guztiak egin ostean, 1918ko azaroan bukatutzat eman zen arautegiaren auzia. Araudi proposamen hori Eusko Ikaskuntzak lau Diputazioen eskuetan utzi behar zuen, onarrezaten. Hurrengo bilera egin aurretik iradokizun eta proposamenetarako aldi bat ireki zen.



Aho batez aukeratu zituzten, estatutuek agindu bezala, hamabiko kopurura iristeko falta ziren zortziak: Txomin Agirre, Pierre Broussain, Blaise Adema, Ramon Intzagarai, Jose Agerre, Juan Bautista Eguskitza, Raimundo Olabide, Pierre Lhande.



Itsaso barea ematen du horrek guztiak. Itsaso bare horretara iritsi aurretik ibaian behera uholderik ez da falta izan, ordea. Hasteko, Oñatin izendaturiko aldizkari bat ez zen izan bileran: *Euzko-Deya*, jeltzaleetako batzuek, sabindarrek, boikota egin baitzuten. Sabindarrak ez ziren pozik gelditu Akademiari Oñatin eman zitzaion sorrerarekin: ez osaerarekin, ez geroko hautatzaileekin, ez eta Akademiaren helburuetan euskara bateratzea agertzearekin. Ongi azaldu zuen hori Oñatiko Biltzarreko erabakiei egin zien emendakinean Luis Arbeloak. Arbeloa hori Azkueren ikasle izana da eta orain sabindar ildoko eta Bilboko Euzko Gastedikoa.

Akademiaren kide bezala proposatzen ditu, hautaturiko lauez gainera, Raimundo Olabide, Manuel Arriandiaga, Ebaristo Bustintza, Salvador Etxeita eta Jose Errazti, jeltzale eta sabindarrak bostak. Horien eta aldizkarietako ordezkarien esku geldituko litzateke kide berrien aukeraketa.

Aldizkarien zerrendan ere berriak sartu ditu: *Euzkadi*, *Aberri*, *Napartarra*, *Arabarra*, soka berekoak laurak, gehi *Euzko-Deya*. Aurretik bazegoen *Irujarrenge Prantziskotarra* ere sartu egiten du. *Euskal Esnalea*, aldiz, kendu egiten du zerrendatik.

Arautegian ere, euskararen batasunari dagokion puntuan, aldaketa sartu nahi du: batasuna komeni den ala ez eztabaidatzea litzateke helburua, ez batasuna bera.

Ez orain eta ez gero jeltzaleak ez datoz bat sabindar talde horren jarrera gogorrenkin. Akademia baten premia aldarrikatzen duen jeltzale asko dago, eta zehazki Akademia honetan parte hartu eta laguntzeko prest ere bai. Akademian lehen orduko kide dira Eleizalde, Olabide, Agerre eta Eguskitza jeltzaleak.

Goian: **Blaise Adema, Jose Agerre, Txomin Agirre, Pierre Broussain**  
Behean: **Juan Bautista Eguskitza, Ramon Intzagarai, Pierre Lhande, Raimundo Olabide**



Akademiaren osaerak garaiko euskaltzaleen unibertsoan zegoen aniztasuna islatzen du, bai ideologiaren aldetik eta baita eskola linguistikoen aldetik ere. Eta batez ere gauza bat lortzen du Azkuek: Euskaltzaindia beregaina izatea, independentea, mendekotasun politiko edo linguistikorik gabe.

## Lehen promozioa

Horrelaxe jarri zen Euskaltzaindia indarrean Donostiako bilkuran.

Bai. Baina eratze prozesu hori luzatu egingo da 1920an zehar. Izan ere, kideetako batek, Blaise Ademak, ez du kargua onartzen; beste bat, Jose Agerre, kargua utzi beharrean dago, lana medio, kanpoan bizi behar eta ezin duelako biltzarretara etorri. Eta beste bi hil egiten dira: Txomin Agirre eta Pierre Broussain. Lau hutsarteok beteta, honela gelditzen da 1920an euskaltzain osoen lehen promozioa dei geneza-keena: Resurreccion Maria Azkue, Arturo Campion, Luis Eleizalde, Julio Urkixo, Ramon Intzagarai, Pierre Lhande, Juan Bautista Eguskitza, Raimundo Olabide, Martin Landerretxe, Georges Lacombe, Sebero Altube, Miguel Olasagarre *Damaso Intza*.

Hamabi euskaltzain oso horien ondoan hiru ohorezko hautatzen dira: Hugo Schuchardt, Julien Vinson, C.C. Uhlenbeck.

Eta gainera, 44 urgazle edo laguntzaile, kanpoko eta barruko. Kanpokoen artean aipagarri dira E. Dodgson, T. Linschmann, H. Urtel, H. Winkler, R. Menéndez Pidal.

Hugo Schuchardt, Christian Cornelius Uhlenbeck eta Julien Vinson



## Lehen urrats instituzionalak

Aurreneko bilerak Eusko Ikaskuntzaren babesean egin baziren ere, urritik aurrera beregaina bilakatu da Akademia.

Lehenbiziko zortzi batzarretan ez du erabaki arautzailerik hartzen. Etxea eraikitzen eta atontzen badu nahikoa lan, karguak direla, egoitza dela, finantzaketa dela, funtzionamendu arauak direla. “Primum vivere, deinde filosofare” esan ohi zen horrelakoetan.

### Egoitza

Urriaren zazpian, gaietako bat egoitzaren hiria aukeratzea izan zen. Kokagune geografikoagatik Donostiaren hautagaitza izan zitekeen faboritua. Baina Eleizalderen proposamenez Bilbo aukeratzeko da. Zergatik Bilbo? Esker onez.

Honela agertzen da agirian:

El domicilio de la Academia, a propuesta del Sr. Eleizalde y consultados los académicos de otras regiones, se resolvió establecerlo en Bilbao, como tributo debido al fuerte impulso que surge de aquella villa para todas las manifestaciones de la vida vasca. Allí radicarán las oficinas y demás dependencias estables de la Academia, sin perjuicio de que las reuniones puedan celebrarse en San Sebastián y otros puntos que se juzguen convenientes.

Honela agertzen da *Euskera* agerkarian:

Euskaltzaindi'k ¿non izango zuan bere egoitza edo bizitokia? ¿Bilbo'n edo Donostia'n? Eleizalde'k gogo ta biotz beroz Bilbo autatua izan zedilla eskatu zuan, darakuskun Euskalduntasun ta errikoitasunari erantzuteagatik. Ta ala egin zan, baña edozeñ erritan batzarrak biltzeko askatasun osoz.

Ordudanik gaurdaino Bilbon kokatu izan du egoitza Euskaltzaindiak. Hirurogei urte Erribera kalean 1919tik 1979ra; bost bat urte Arbieta kalean, 1984tik 1991ra Elkano kalean eta gaur arte, 18 urte, Plaza Barria.



Erribera kalea: 1919-1979



Arbieto: 1979-1984

Elkano kalea: 1984-1991



Plaza Barria: 1991tik aurrera

1919ko azaroaren 21ean Bilboko alkateak sinatzen du Udalaren akordioa, Euskaltzaindiari Indautxuko umeen ikastetxean leku bat ematekoa. Udalak behar zuen arte uzten zitzaiola jakinda, baliteke behin-behinekotasun hori Euskaltzaindiari ez interesatzea. 1920-1933 bitartean hamabi bider jotzen du Euskaltzaindiak Bizkaiko Diputaziora edota Bilboko Udalera toki bila, egoitatzat Arte Eder Museoa, Bilboko Institutua edo "Liceo" berria proposatzen dituelarik. Beti alferrik. 1923ko uztailaren 27ko agirian agertzen da azkenengoz "bein-beineko" egoitza.

## Karguak

Munta handiagoa zuen hurrengo gaiak: lehendakaria eta gainerako karguak aukeratu behar ziren. Azkue hautatzen dute euskaltzainburu, bigarren bozketaldian. Eleizalde eta Lhandek proposatzen dute kargua aldi baterako izan dadila, ez betiko. Azkuek, dena den, hautaketaz hautaketa, hori bai, 32 urteko iraunaldia izan zuen, bizi artekoa. Sabindarrek maite ez bazuten ere, Azkueren irudia, gainera, erraldoiaren pare nabarmentzen da gerra aurretik bezala gerra ostean.

Bilera berean hautatu ziren beste karguak: Luis Eleizalde idazkari; Julio Urkixo bibliotekari eta Sebero Altube diruzain.

Ardura akademikoak ere banatuta gelditu ziren: Ikersailburu, Julio Urkixo; Jagonsailburu, Arturo Campion; Hiztegi batzordeburu, Resurreccion Maria Azkue; Sariketa batzordearen buru, Ramon Intzagarai; Toponimia batzordearen buru, Raimundo Olabide.

Horra beraz Akademia berriko lantaldea.

*Euskera agerkarian, 1920*

## Euskaltzaindia'ren Batzorde ta Ardurak

Comisiones y cargos de la Academia.  
Commissions et charges de l'Académie.

### I. BATZORDEAK

I. *Ikersaila*.— Comisión de investigación. — Commission de recherches.  
Buru: J. de Urquijo (1920'ko urtarila'ren 8'an izendatua).

II. *Yaufsaila*.— Comisión tutelar. — Commission de propagande.  
Buru: Arturo Campión ta Pierre Broussain (G. b.) 1920'ko urtaril. 8'an izendatuak.

III. *Iztegisaila*.— Comisión del vocabulario. — Commission du dictionnaire.  
Buru: R. M. Azkue. — Kide: P. Broussain (G. b.), R. Olabide. (1920 otsail. 16'an izendatuak).

IV. *Sariketasaila*. — Comisión de premios. Commission des prix.  
Kide: R. Intzagarai, P. Lhande, F. de Belaustegigoitia, urg. (1920, otsail. 16'an izendatuak).

V. *Lufizenbatzaila*. — Comisión de toponimia. — Commission de toponymie.  
Kide: R. de Olabide, N. de Oleaga ta Odon Apraiz urg. (1920 otsail. 17'an izendatuak).


### II. ARDURAK

Buru: R. M. de Azkue (1919'ko uril. 5'ean izendatua).  
Idatzail: L. de Eleizalde (egunean berean).  
Idazki ta gutuntzail: J. de Urquijo (egunean berean).  
Diruzail: S. de Altube (1920'ko ioñail. 26'an izendatua).



## Euskaltzainburu berriaren lehen hitzak

Jasota gelditzen dira buletinean Azkue euskaltzainburu estreinatu berriak esker onez esan zituen lehen hitzak.



Azkueren jarrera aktibo, positibo eta posibilista irakur daiteke testu horretan. Lanerako adorea, baita malgutasun mezuak ere. Baina, aldi berean, gizon heldu (55 urte) eta zailduaren eskarmentua atzeman daiteke, non mugitzen den badakienarena, eta zer datorkion ere bai. Bere lagun eta kide Broussainek idatzi berri ziona ez zuen ahaztuta izango: “Vous serez, vous particulièrement et l’Académie aussi, vilemment attaqués”.

## Izanarekin batera izena

Izena jarri behar zitzaion euskararen Akademiari.

Izen bat edo beste asmatua zioten batzuek hizkuntzaren Akademiari. Kirikiñok “El(e)tzainbatz” erabiltzen zuen, eta kidea “eletzain”. Txadon-Zaya sinatzen zuen Domingo San Sebastian Astigarragako sakristauak, aldiz, beste izen bat asmatu zuen: “Euzkeralbatza”.

Ezin jakin izen horiek aintzat hartuko ziren Akademia berriaren izena eztabaidatzerakoan. Ez du ematen.

Kontuak kontu, ez zen horren erraza gertatu izenaren auzi hori. Asmatu eta kito egiteak ez zuen balio. “Euskaltzaindi”ra iristeko aurretiazko korapilo ugari askatu behar ziren. Bost gutxienez. Nola lortu eskola linguistiko desberdinen adostasuna? Ezina.

Euskaltzaindiak bere bidea egitea erabaki zuen:

- 1.- eus/euz. **Eus** erabaki zen.
- 2.- -kera/kara. **-kera** erabaki zen. Beraz, badugu: **Euskera**.
- 3.- euskel/euskal. **Euskaldun** erabaki zen.
- 4.- -zain/tzain/zai. **Euskaltzain** onartu zen.
- 5.- -di/go. Azkuek “-go”-ren alde egin bazuen ere hasieran, besteena onartu zuen gero. Beraz, dena batean: **Euskaltzaindi**.



Resurreccion Maria Azkue



### “Yayotzez eta izkuntzaz euskaldunak”

Sortarauen arabera, badirudi euskaltzain izateko nahitaezkoa dela Euskal Herrian jaio eta euskaradun izatea.

Euskaltzainen aurreneko labealdian badaude euskararen mintzapraktika eskasa dutenak. Euskalariak bai, baina euskaradunak ez direnak, alegia.

Damaso Intzak, urte asko geroago, hasierako urte haien errepasoa egiten duenean, ez dauka ahaztuta Urkixok, Olabidek eta Campionek nekez egin ohi zutela euskaraz. Artxibategian gordetzen den gutunketak ere beren arteko erdarazko komunikazioa islatzen du neurri handian.

Ezkerretik eskuinera: **Karmelo Etxegarai, Arturo Campion, Julio Urkixo, Txomin Agirre, Serapio Mugika eta Juan Carlos Guerra**



Jaiolekuarena, hau da, euskaltzain oso izateko Euskal Herrian jaioa behar izatearena, hori 1953an aldatu zen. Eta orduan bai azpimarratzen dela euskaltzainak euskalduna behar duela, euskaraduna. Euskaltzaindikiko Biltzarrak erdaretan egin ohi ziren, gerra pasatuta ere. Krutwigi zor omen zaio ohitura hori aldatu izana.

Hasiera-hasieran, euskaltzainen artean ez zegoen adostasunik zein euskara mota erabili, zein euskalki. Ondorioa? Erdara. Euskaltzaindiaren eta Eusko Ikaskuntzaren idazlariak honela zuritzen zuen urgazleei mezua erdaraz bidali izana: “euskerazko idazkera orain erabaki etzalako”. Bide beretik segitzen du Euskaltzaindi beregainak ere. Azkuek eta Eleizalde, buru eta idazkari, sinaturiko testu batean dator ohar hau: “Idazki hau erderaz bidaltzen zaitzu, Batzar aunek ez dualako oraindaño yarraituko duan idazkerarik erabaki. Barkatu, arren”.

Noiz arte? Harik eta 1920ko abenduan erakundearen komunikazio hizkuntza gisa gipuzkera hartu zen arte. Ez da luze, baina bai esanguratsu.

Erakunde gisa ezin zitekeen euskalki hauturik egin. Bai, ordea, euskaltzain bakoitzak: “Euskeraren idazkera Euskaltzaindia’k autetsi arteraño, edozeñez idatzi ditekela erabaki zan”.

Barne-gabezia horrek, kanpo eta barruko harremanetan euskararen orde z erdara ba-

rra-barra erabiltzeak alegia, erasorako aukera paregabea eskaini zion oposizioari. Baliatu zuten, baliatu zutenez, Kirikiñok eta beste batzuek.

Barruko askorentzat ere mingarria zen egoera, seguru. Azkuek eta Broussainek aurreikusia zuten kontraesan hori, Campion eta Urkixoren aukeraketa zela eta. Bi horiek euskara errazki ez hitz egiteaz larritzen da Azkue. Lasaiago hartzen du gaia Broussainek: “Espérons que la prochaine génération ne verra pas ce phénomène paradoxal de Basques traitant de la langue basque dans une langue latine”.



Ezkerretik eskuinera.  
Eserita: **Juan Bautista Eguskitza, Bonifazio Etxegarai, Resurreccion Maria Azkue, Georges Lacombe.**  
Zutik: **Orixe, Jean Elizalde, Sebero Altube, Julio Urkixo, Raimundo Olabide (1928-05-28)**





# JARDUNEAN









## Iker eta Jagon

Gerra aurreko Euskaltzaindiak bi norabidetan lan egiten du, bietan ahalik eta gehien, ahalak askotan mugatu eta urriak badira ere.

Iker eta Jagon ez daude erakundearen arautegian bakarrik. Euskararen ikerketa praktikoa bideratzea da gizartetik hartu duen aginduetako bat. Eta bestea da euskararen erabilera begiratzea eta bultzatzea. Biak ala biak garrantzitsuak. Eta biak Euskaltzaindiak berak bere baitan garatu beharrekoak, ez baitago ez unibertsitate-rik ez eta erakunde ofizial euskaltzalerik ere. Azkuek eta ingurukoek horren kontzientzia garbia bide dute. Eta, aldi berean, gabezien eta indar eskasiaren kontzientzia gardena.

Gabezien kontzientziaren bezainbat egoera gainditu nahiaren adierazle dudagabeak dira beka. Linguistika ikasteko, atzerrian ikasteko, beka sortu zituen Euskaltzaindiak. Frantziara eta Alemaniara joan ziren bekei esker Odon Apraiz eta Polikarpo Iraizotz. Gerhard Bähr-ek ere beste beka bat jaso zuen. 1920ko beken politika horrek ezin izan zuen aurrera egin zailtasun ekonomikoengatik.

Lehenbiziko unetik gaurdaino, kondaira osoan, ikertzaile eta eragile da Euskaltzaindia, biak.

## Jardun akademikoa

Lanean hasi zen orduko, arautegian oinarrituz, arazo korapilatsuetan korapilatsuen eta minbera den bati heldu zion, aurrez aurre heldu ere: euskararen batasuna gauzatzeari.


Gauzatzea, ordea, 1968 arte ez zen etorriko.

Euskaltzaindiaren eskariz, Campionek eta Broussainek txostena prestatu zuten: "Informe a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera". Arazoaren larriaz jabeturik, soluzioa bilatzeko batzordeak bideratzea proposatzen du txostenak. Iritziak biltzeko asmoz, biltzarrak muntatu, inkestak egin eta galdeketak antolatu zituen erakunde sortu berriak. Gaia monografikoki erabiltzeko egun oso bat hartu zuen (1920ko abenduaren 29an).

Baina, azkenean, joan-etorri askoren ondoren, bide hertsirik ez hartzea hobetsi zuen, ez gaia eta ez giroa ez zeudelako aski helduta. Azkuek Broussaini idazten dio 1920ko martxoan: "Nik goitzo deritzayot 'langue unifiée' ortaz

### Euskara batua

Euskaltzaindiaren eskariz Campionek eta Broussainek prestatu zuten txostena.





Euskaltzaindiaren araudiak hau dio bere 6.a puntuan:

Euskaraz: "ekingo du euskalgi oroen odolez azitako euskal-eredu bat gertutzen, itzez, itz-yoskeraz ta idazkeraz albait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-irakurketan erabiltzekoa".

Gaztelaniaz: "trabajar  preferentemente en la formaci n de un lenguaje literario unificado en l xico, sintaxis y graf a, que nutri ndose de la savia de todos los dialectos, nos permita disfrutar de una literatura com n".

gure lanak asteari. Bizkaiko 'bolchevique abertzale' onen bildurrez obe dala uste dot geroxeagorako uztea".

Kezkak bizirik iraungo du, eta eredu desberdinak bere bidea egiten, harik eta 1968an Euskaltzaindiak zezenari adarretatik heldu zion arte.


Neologismo edo hitz berrien auzia zen bestea. Hainbat eta hainbat bileratan erabiltzen da gai hau: gizarteak modernotu ahala hitz berriak behar ditu, baina nondik jo? Garaiko joera garbiza-leak arriskurik bazekarren Akademiarentzat. Idazleek egin behar omen zuten bahe-lana aurretik, horra zer erabaki zen puntu honetan 1928ko urtarrilaren 26an: "Ez duela Euskaltzaindiak itz-berri oien sortzale izan bear; baizik idazle berak ta erriak sortu ta pixtuarazi bear dituztela, idazki-lanak aurrera dijoazenez ta erriak eman litzazkenez". Hemen ere oposizioa, bistan da, indartsuegia zen, antza denez. Edo beste modu batez esanda, giroa ez zegoen aski heldua. Urte asko geroago, 1959an, heldu zion gaiari Euskaltzaindiak, eta orduan ere minak azaldu ziren.

Izenekin ere ez zen ausartu Euskaltzaindia. Euskal izendegia aztertzen hasi zelako albistea zabaldu zen orduko, 1932an, sabindarrek modu gogorrean eraso zuten Euskaltzaindia, saio hori Arana Goiriren "Ixendegi" edo Santoral Vasco-ren aurka zihoala eta. Bizkaiko Buru Batzarrak ere esku hartu zuen. Euskaltzaindiak atzera egin zuen, eta modu ofiziosoan Nikolas Ormaetxea *Orix*e-k argitu zuen "gaizki-uler-tua".

Bat-bateko gizarte-eragin handia ez zuten gaietan baketsuago zen lan egitea. Euskal morfologiaren inguruan Azkuek makina bat lan prestatu zuen gero biltzarretan batzarkideen aurrean irakurri eta guztien artean eztabaidatzeko.

**Erizkizundi Irukoitza**

Euskal Herri osoan zabaldu zuten galdeketa.



*Erizkizundi Irukoitza* delakoa beste lan handi bat da, fonetika, morfologia eta lexi-koari buruzko inkesta baita Euskal Herri osoan. Azkuerekin batera euskaltzain ugari dihardu lanean, horien artean bete-betea Gerhard Bähr, Odon Apraiz eta Orixe.

Orixe beste lan batean ere ikusten dugu 1930 inguruan, hiztegiaren prestaketan. Jada 1926an Euskaltzaindiak Orixe izendatzen du, diru eta guzti, Azkueren Hiztegiaren jarraipena segurta dezan.

*Euskera* aldizkaria lan mamitsuz betea da, ikerketa eta proposamen filologiko eta linguistikoz josita daude orrialdeak: Damaso Intza, Sebero Altube edo Eguskitzarrenak, kasurako.

Bi literatur sari ere plazaratu ditu, Eleizalde eta Schuchardt euskaltzainen izenak daramatzenak.



**Nikolas Ormaetxea Orixe**

Orixek parte hartu zuen Azkueren Hiztegiaren eta Erizkizundi Irukoitzan.

## ALFABETOA

Adostasuna bilatu nahita abiatu zen Euskaltzaindia ortografia sisteman barrena. Batzuek horrela hartu ez bazuten ere, erdibidea bilatu zen, guztizko irabazle edo galtzailerik egon ez zedin.

Azkueren eta jeltzaleen arteko grafien artean, jeltzaleen aldeko gehiago atera ziren irabazle. Hala nola, *r*, *l*, *d*, *t* gandordunak. Eta *-x-* aukeratu zen Azkuek proposatzen zuen *-s-*ren aurka.

Euskara hitzaren grafia ere jokoan zegoen, *s-*rekin ala *z-*rekin idatzi. Zortzi boto biren aurka irabazi zuen *eusk-*en aldekoak, lehen aipatu bezala. Ematen du batzuek amore eman zutela lehenbizikoan; eta besteek bigarrean.

Ohargarria da H euskal alfabetoko hizki bat gehiago dela, nahiz eta 1968 osteko polemika haietan batzuek hori ere ukatu.

Beraz, Euskaltzaindia'k beretzakotu duan euskal abeze auxe da:

*a, e, i, o, u, ü*

*a, e, i, o, u, ü* (Suduñ-aboskientzat, euskalkiren baten bea balira, izki orien gainean mafa txikibat jafi.)

*b, d, ð, f, g, h, j, k, l, ð, m, n, ñ, p, r, s, x, t, z, ts, tx, tz, y, z.*

## Egin eta eragin

Euskararen erabilera sustatzeko orduan jarrera proaktiboa du Euskaltzaindiak. Jada 1920ko urtarrilean, alderdi, udal eta elkargoei Euskaltzaindiaren erabakiak onar zitzatela eskatzen die zuzen-zuzen. Geroago, idazleei ere bai. Beste behin Aldundiei ere eskatzen die euren idatzietan euskara erabil dezatela. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundiek baiezkota erantzuten dutela agertzen da batzar agirietan, onartzen dituztela.

Egia da, Jurgi Kintanak ohartarazten duen bezala, hizkuntzaren corpusa arautzeko aukera blokeaturik ikusten duela oso goiz eta, ondorioz, jarrera arauemaileari uko egiten diola. Bi bide gehiago gelditzen zitzaizkion, lehentxeago aipatuak: ikerketa, eta Jagon sailetik bideratu nahi dituen ekimenen bidea, euskara sustatze aldera.

Euskararen estatusak arduratuta Eliza Katolikora jo du, administrazio zibilera, hezkuntza erakundeetara, besteak beste.



Eliz agintariekin saiatu da apaizgaitegietan euskara irakats zedin, idazkiak euskaraz argitara zitzaten, dotrina euskaraz irakats zezaten. Aita santua ere bisitatu zuen Erroman Azkuek, eta gustura itzuliko zituen haren entziklikak, itzulpenak euskarari emango ziokeen prestigioaren truke.

Agintari mota eta maila guztiengana jo dute, eskari bat edo beste tarteko. Udalak, Aldundiak, Gobernu Zibilak, eta Madrileko ministroak ere, bisitatu dituzte euskaltzainek euskararen estatusa hobetzeko asmoz.

Euskarazko toponimia normalizatzeko ahalegina ezin da ahaztu. Diputazio eta Udalei eskatu zitzairen toki eta baserrien izenak euskaraz jartzeko.

## Hezkuntza eta hedabideak

Ekimen horietan guztietan bi ildo estrategiko jotzen dira nagusi, hezkuntza eta komunikabideak.

Euskarazko irakaskuntza bultzatzeko agintariei eskatu ez eze, Euskaltzaindiak berak diruz lagundu ere egiten zituen ekimenak: ikastetxeetan euskarazko testuak sortzeko, esate baterako. Iruñeko irakaskuntza eskolan euskara katedra bat martxan jartzea lortu zuen. Seminarioak asko landu zituen.

Bigarren ildo estrategikoa prentsa da, komunikabideak.

Urte horietako Euskaltzaindiak harreman berezi-berezia du prentsarekin. Sorreratik hasita. Prentsako arduradunek aukeratu zituzten lehen labealdiko euskaltzainak Donostian. Euskaltzain asko prentsakoak ziren, izan. Azkue bera prentsa sortzaile da, *Ibaizabal* eta *Euskeltzale* sortu eta zuzendu dituen. Urkixo *RIEV*-en sortzaile eta zuzendaria da. Damaso Intzak eta Eguskitzak prentsa organoak daukate. Intzagarai Argia taldekoa da. Eta *Campion* prentsa-idazle oparoa.

1920ko hamarkadaren hasieran, Azkue buru, Euskaltzaindia euskarazko egunkari baten alde dago. Lizardiren 1929ko proiektu hura baino urte morderka lehenago sortu zen beste bat, Urumea egitasmoa Gipuzkoan. Azkue bete-betean zegoen Urumea egitasmoaren alde. Bi txori jotzen zituen batean: batetik, euskara komunikabideetan modu eraginkor batean agertzea; eta, bestetik, Urumea gipuzkera onartuko zuenez, aranisten ereduari gipuzkera nahiz gipuzkera osotua kontrajartzea.

Proiektu horrek liluraturik eduki bide zuen Azkue. 1921eko otsailean honela idazten dio Garitaonandiari: “[Euskaltzaindiaren egitasmoen artean zera litzateke] andiena, urte batzutan beintzat, Elazko (Prentsa Vasca), neu zuzendari nazala, sortzea”.

Euskarazko egunkariaren egitasmoak porrot egiten du, ordea, eta Euskaltzaindiak beste bide bat hartu behar du: talde txiki bat antolatzea, erakundearen baitan, prentsara artikuluak (politikaz landakoak) bidal ditzan. Hiruzpalau laguneko Idazbatzorde bat antolatzen du Azkuek, eta produktua jasoko duten egunkariei diru laguntza eskatzen die. Arrakasta neurtzeko ez dugu nahikoa informaziorik. Hauek ziren batzordekideak: Lekuona, Eguskitza, Intza eta Olabide. Hori 1920an. Eta 1922an bi erredaktore aurkitzen ditugu artikuluak prentsara bidaltzeko.



## Erakundeen babes gutxi

Batzuetan egin eta eragin, beste batzuetan nahi eta ezin, horrelaxe ibili da Euskaltzaindia urte luzetan. Ez du zorte handirik izan, hasieran aurkitu zituen agintari laguntzaileak berehala desagertu baitziren Aldunditik Bizkaian. Jarraian etorri ziren monarkikoak, Primo de Riveraren diktadura, eta gero Errepublika; eta Autonomi Estatutuaren orde, gerra zibila. Lehen orduan sortu zen esperantza handien argia berehala moteldu, eta gerra zibilarekin itzali egin zen guztiz. Erakundeen laguntzarik gabe indarrak “argal, mee eta makal” gelditzen dira, esan zezakeen orain bueltan-bueltan *Euskera* aldizkarian Euskaltzaindiaren sorreraz idatzi zuen kronistak.

Gerra aurrera arte mantendu zuen amets instituzionala Azkuek. Jose Antonio Agirre Lekuberekin Euskaltzaindiak beharko zukeen aitortpenaz solastatua izango zen. 1936an Autonomi Estatutua onartu eta mamitu izan balitz beste kuku batek joko zion Euskaltzaindiari. Jose Antonio Agirrek 1936ko uztailaren hasieran aukera aipatzen dio Azkueri:

A Ud. debemos mucho todos los amantes de nuestro País y quiera Dios que una vez aprobado el texto autonómico podamos elevar al rango merecido a la Academia de la Lengua, que debe a V. su vida, y entronizar definitivamente en la historia de nuestro pueblo a su insigne director.



# GERRA ETA GERRA OSTEA









## Desgiroan

Gerra garaiko urteak eta gerra ostekoak ez dira errazak izan Euskaltzaindiaren bizitzan, batez ere hasierakoak. Ia hamarkada pare bat “katakombetan” (Haritzelharren hitzetan) pasatu du, isilean, hildakotzat emana (“défunte Académie”, idatzi zuen Lafittek), “izoztua” Kintanaren esamoldean. “Klandestinitatean” bizi izan zen, Krutwigen iritzian. Azkuek berak, 1939an idazten duenez, ez daki Akademiaren buru den ala izana den.

Egoera hori urte askotan luzatzen da. Espainiako gerra zibilari Mundu Gerra erantsi behar zaio. 50eko hamarkadan, antza denez, Euskaltzaindia ez du inork ezagutzen, dagoenik ere, 1952an prentsa idatzian agertzen dena lekuko.


Donostiako *La Voz de España*-n (1952-06-19) Anthon Gazteluk sinatutako artikulua da: “Lección de gramática. La bomba H de nuestro alfabeto”. Hona Vicente García de Diego irakasle eta akademiko espainiarrari egindako elkarrizketaren azken galdera:

¿No considera conveniente la creación de una Academia de la Lengua Vasca que corre peligro de desaparecer? Desde luego y puede que la cátedra recientemente creada en Salamanca se ocupe de esto. Multitud de filólogos de todo el mundo han estudiado a fondo esa lengua y los españoles no podemos dejar que se pierda.

Eta jarraian, Erredakzioaren oin-ohar hau ematen dute:

Aunque en Bilbao existe una “Academia de la Lengua Vasca”, con domicilio en Ribera 1, hemos dejado la pregunta y, sobre todo, la respuesta porque ambas indican que su funcionamiento tiene tan poca resonancia que ni el reporter ni —lo que es más importante— el docto miembro de la Real Academia de la Lengua tienen noticia de ella; prácticamente es como si no existiera, y ello es claro indicio de cómo las instituciones científicas vascongadas se desenvuelven en un clima de atonía, indiferencia e ineficacia que no hacen sino confirmar lo que recientemente afirmaba José Miguel de Azaola en su famosa “Carta de Vasconia” publicada en la revista “Arbor”.

Urte horietako giroari desgiroa deitu zion Jon Etxaidek: zapalketa, zentsura, erbestea, euskararen debekua. Bete-betean jotzen zuen horrek Euskaltzaindia. Laguntzaile leial zituen Damaso Intza eta Sebero Altube deserriratuak, Azkue ia bakarrik gelditzen da lanerako. Azkue bera Bilbon gelditu da, eta Erribera kaleko bulegora joanez jarraitzen du. 1941ean idazten dio Polikarpo Iraizotzi hiru euskaltzain bakarrik gelditzen direla, bera Bilbon, eta bi Donostian, Urkixo eta Intzagarai. Krutwigek dio urte horietan ez zekitela zein kide bizi zen eta non, ez zein zen hila. Hots, elkarren berririk batere ez zutela.



### Euskararen debekua

Riestra Bizkaiko Gobernadore Zibilak euskaraz idatzitakoak Gernikako kanposantutik erretiratzeko agindu zuen. Horien artean Sebero Altube euskaltzainaren familiakoa.



Bilbao, Ribera 5, 14, IV. 1941

R. P. Policarpo de Iraizoz

Apreciado amigos Tengo mucho gusto en participarle la agradable noticia de que esta Academia empieza ya a revivir por iniciativa de la Junta de Cultura de esta nuestra Diputación.

Como no quedabamos aquí mas que tres miembros de ella (dos residentes en San Sebastián, Urquijo e Inzagaray, y este servidor) fui allá hace algunos días con objetos de preparar la reconstitución de esta nuestra Corporación.

Por ahora, según indicación de la Junta de Cultura, no figurarán entre nosotros los vascos-franceses y los nueve, que a esta nuestra región corresponden, serán en adelante, además de los tres citados, D. Juan Carlos de Guerra, D. Nazario Oleaga, D. Juan Irigoyea, usted, y Pablo Zema-rripa y otro que todavía no está elegido.

Si, como es de suponer, acepta V. este nombramiento, hágame saber pronto. De pasa podría V. citarme nombres de músicos vascos capuchinos, con datos biográficos y noticias de sus composiciones para que puedan figurar en un Diccionario de música que están ya preparando en Barcelona. La primera Junta académica tendrá lugar aquí a fines de este mes.

Afectuosos recuerdos a los P.P. Echalar, Begofia y otros conocidos míos.

Suyo affmo en el Señor.

R. M. de F.

### Izendapen proposamena

Euskaltzaindia berriz abian jartzeko asmoa azaltzen dio Azkuek Iraizotzi.

Sinesgarria da Pedro Sainzek dioena, nahiz eta agintari frankista izandakoen lekukotzek zuritu nahitik ere asko izaten duten.

Sainzen kasuan badakigu, Azkuek esanda, saiatu izan zela berarekin egoten Madrilen eta ez zuela lortu. Gutunez zuzentzen zaio gero, eta zertarako nahi zuen berarekin egon adierazten dio: gobernadoreen aurrean bere babes idatzia eman ziezaien euskal argitalpenak egin ahal izateko eta batez ere "pedirle con todo empeño la reapertura de la Academia de la lengua vasca". Ez dago erantzunik.

Zulo beltz horretatik ateratzea ez zen erraza gertatu. Villasanteren hitzetan, "une hartan ongi kokaturiko pertsonen jardunari esker lortu zen agerian berrirori lanari ekitea".

Zein ziren horiek Villasanterentzat? 1941-1942an sartu ziren I.M. Etxaide, Nazario Oleaga, Aingeru Irigarai, Federiko Krutwig izan daitezke. Edo geroago sartu ziren J.M. Lojendio, A. Arrue? Edota kanpotik eragin zuten batzuk: Tovar, Areiltza eta antzekoak.

I.M. Etxaidek J.M. Lojendio eta A. Arrueren euskaltzain izendapenari buruz Nazario Oleagari zuzendutako gutunean (1954-09-02) hara zer dioen:

... en quienes hemos pensado son don José María Lojendio y don Antonio Arrúe. La familia Lojendio la constituyen varios hermanos todos inteligentísimos, muy unidos y de gran influencia en las esferas oficiales. El nombramiento de don José María nos abriría muchas puertas hoy cerradas y aumentaría enormemente el prestigio de la Academia, pues, el apellido Lojendio es universalmente conocido. El Sr. Arrúe es íntimo del Presidente de la Diputación de Guipúzcoa y por tanto llave para las subvenciones de la Diputación y de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Es promotor del Seminario Filológico "Julio de Urquijo" que ha de constituir un puntal formidable para la Academia...

### Krutwigen lekukotza

Federiko Krutwig 1942an sartu zen Euskaltzaindian. Gerraondoko giro hori bizi izanaz gainera, Azkueren laguntzaile izan zen.

Euskararen erakunde guztien antzera, debekatuak izan ez zirenean noski, Euskaltzaindia ere falangista eta erreketeen jo-puntuari egon zen. Lehen eskuko testigantza da Pedro Sainz Rodríguez Hezkuntza Ministerioko arduradun izan zenak Jose Maria Satrustegi gutunez eman ziona 1982an:

Entonces, en plena guerra, había un sector en aquel ambiente, principalmente de falangistas y requetés, que parecían dispuestos a emplear la violencia contra las instituciones vascas de cultura. Yo decidí, para evitar cualquier acto de esa índole, simular que el Gobierno las había confiscado. Mediante esta simulación evité este peligro y cuando salí del ministerio quedaron esos organismos en su situación anterior.



1989an Jose Antonio Arana Martijari gutun moduan bidali zion txostenean, argi islatzen du zein zen urte haietako giroa, desgiora, beldurra, mesfidantza, arriskua, klandestinitate egoera.

Batzar agirietan ez omen da giro hori azaltzen, ez zirelako ausartzen:

Dada la situación política que en aquella época dominaba contra el euskara y contra toda actividad vasquista, todas esas cuestiones estaban protegidas por una semi-clandestinidad, o clandestinidad por entero. Y por ello no se redactaban actas en un 100% fiables.

Poliziaren bisita ere gogoratzen du Krutwigek. Ezin jakin 1944ko martxoaren 31ko aktan agertzen den bera ote den: “Onetan daragoiola Ertzain bi agertzen dira, Euskaltzaindia’ren zertzeladak jakin guran. Egin dabezan itaunari egoki erantzunik eskaturiko agerbideak emon jakoz”.

Polizien bisita, hori edo beste bat izan, honela kokatzen du orduko testuinguruan Krutwigek:

La situación de Euskaltzaindia en aquellos momentos de activismo anti-vasco y odio no reprimido por parte de los españoles contra el euskara eran tan evidentes que recuerdo igualmente que alguna vez, estando celebrando una reunión de Euskaltzaindia en Bilbao, se nos presentaron agentes de la policía con el ánimo de detenernos, porque pensaban que era una reunión clandestina, cosa que alguien les había soplado.

Urte haietan Euskaltzaindiak zergatik ez zuen gehiago aitzinatu, eta zein tentu handiz ibili behar zen urrats bakoitza ematean, giroa kontuan hartu gabe ezin dela epaitu, dio Krutwigek. Euskararen aurkako herra eta gerran dago azalpena:

No deberíamos olvidar que esta actividad en favor de la lengua vasca iba en contra de la política realmente practicada por las autoridades españolas en el País Vasco. A ellos les hubiera gustado hacer desaparecer para siempre el euskara del mapa. [...] Así pues el hecho de simpatizar con la causa vasca era ya en sí un delito contra la patria española. No deberíamos olvidar que las autoridades españolas en aquellos años tenían colocados en todas las oficinas sus letreros diciendo: EL BUEN ESPAÑOL HABLA CASTELLANO. Por lo tanto quienes hablaban vascuence eran malos españoles..., y quienes intentábamos defender el euskara como mejor podíamos éramos todos sospechosos de alta traición. Por esta razón si se admitió la existencia de Euskaltzaindia [...], fue como en otras que aparentemente en favor del euskara se tomaron, sólo para la galería, que adoptaban ciertas autoridades, puesto que... el genocidio o ethnocidio que ellos pretendían efectuar contra el pueblo vasco, no estaba bien visto, ni por los nazis alemanes.

Euskararen alde jardute soila kriminalizatuta zegoela mila modutan froga daiteke. Polikarpo Iraizotzek ez du onartzen euskaltzain izateko izendapena bere erlijio-kide kaputxinoei jasanarazi zitzaizkionatik: “... no me parece prudente aceptar el nombramiento [...]. Pertenezco a una Orden [...] que ha tenido que sufrir mucho porque algunos de sus miembros se han dedicado al estudio de nuestra lengua...”.


Batzar agiriak ez direla guztiz fidagarri idatzi du Krutwigek, beldurratik ezin zelako horietan egiazko bizitza jaso. Eskerrak horrela jokatu zuten, gainera, akta horiek Falangearen eskuetan erori baitziren. Honela idatzen dio 1953an Etxaide euskaltzainburuak Nazario Oleagari: “hemos hablado del libro de actas de Inzagaray. Se ha perdido; cayó en manos de la Falange. R.I.P.”.



**Jose Juan Bautista Merino Urrutia**  
Errioxan jaieriko euskaltzale hau Junta de Cultura-tik Euskaltzaindia abian jartzen saiatu zen. 1964an euskaltzain urgazle aukeratu zuen Euskaltzaindiak eta 1974an ohorezko.

**Batzar agiria**

1941eko batzar agiri honetan Azkueren berrikuntza proposamenak onartu egiten dira.

**1941: berriz ere abian****Gerra osteko lehen Biltzarra**

Gerra osteko lehen batzar agirian agertzen denez, 1941eko apirilaren 28an euskaltzainak bildu zituen Azkuek Euzkaltzaindiaren berriztapena proposatzeko.

Honela dio aktak:

Azkue jaunak, batzar onen zioa ta elburua adierazoten ditu. Diño igaroko jazoerak, euskaltzain biren eriotzeak eta beste batzuren erbestetzeak izan dirala-ta, Euzkaltzaindiaren batzarrak eta lanak eragotzita egon direala ia bost urte oneitan, noiz ta zelan barriz birrasi zitekeazan ikusten etzala. Baina "Junta de Cultura de la Excelentísima Diputación de Vizcaya"-k adierazo deusala egoki litekeala Euzkaltzaindia bafiztu ta bere lanetan ekitea, orretarako berak be diruz, urtean bost mila peseta emonaz, lagunduko leukeala-ta. Orregatik eta orretarako deitu dautsie bizi direan eta berton dagozan lenagoko euskaltzainai eta beste batzar onetara etorri direan jaunai, eurokaz ta izentau leikezan beste batzukaz Euzkaltzaindia barriztatu leitekela uste izanik.



Batuta dagozanok, aintzakotzat artzen dabez Azkue jaunaren esanak eta pozik agertzen dabe gertu dagozala bakoitzari dagokonean betetako.


Beraz, erabagiten dabe, bein-beineko ta oraingoz, Euskaltzaindia jaun oneikaz eratua izan dedila: lengoak, Azkue, Urkijo ta Intzagarai jaunak; barriak Gerra, Zamarripa, Irigoyen eta Oleaga jaunak; beste euskaltzainen izentatzea geroagorako utzirik.

Euskaltzaindia onan eraturik, bere lenengio batzarraldia egiten da.

Euskaltzaindi berrituan hiru bakarrik dira lehenagokoak. Non daude besteak? Batzuk hilda eta beste hainbat erbestean. Izendatu berriak lau dira. Horietariko bat, Juan Carlos Guerra, 81 urtekoa eta sei hilabetera hilko zena.

Agiri horrek jaso gabe uzten ditu Junta de Cultura delakoak jarritako bi (edo hiru?) baldintza: Juan Irigoi en izan zedila Juntaren konfiantzazko euskaltzaina, eta Ipar Euskal Herriko euskaltzainak "oraingoz" kanpoan utz zitezela. Gutunetan Azkuek beti bi baldintza horiek aipatzen ditu. Krutwigek hirugarren bat ere eranstu du: euskaltzain erbesteratuek euskaltzain izatea galdua dutenez, horien aulkiak bete egin behar direla.

Ez da kontu segurua Euskaltzaindiari eragiten ote dion Instituto de España-ren sorruntza dekretuak. Euskaltzaindia ez da aipatzen aulkien eskubideak galtzen dituzten artean, nahiz eta Akademia guztientzat den dekretua. Azkue Salamancan egon zen Instituto de España sortu zenean, 1937ko abenduaren 8an.



### Espainiako Akademiako kide

1928an Azkue eta Urkixo Espainiako Hizkuntz Akademiako kide egin zituzten. Izendapena onartzea erabaki zuen Euskaltzaindiak, Raimundo Olabideren iritzia aurka. 1937an Azkuek Salamancara jo zuen aulkia berreskuratzera.

Horren arabera, Intzak, Olabidek, Etxegaraik eta Altubek euskaltzain izapidea galdu al zuten?

Juan Irigoi en izendatu zuen Bizkaiko Diputazioko Junta de Cultura delakoak ordezkari Euskaltzaindian. 1941eko ekainaren 26ko bileran agertzen da lehen aldiz. 1949an horren ordez Seminario de Rojas aukeratzen dute Euskaltzaindian Junta de Cultura ordezkatzeko.



“Komisario politiko” kutsua darie izendapen horiei. Krutwigen iritzira, Areiltzak ez zuen komisario gisa izendatzeko asmorik, baina bai Gobernadore Zibilak, antza. Horrek Esteban Calle Iturrino izendatu nahi omen zuen, nahiz eta euskara ez jakin, Diputazioaren diru laguntzen ordainetan.

Batzar agirien arabera, gerra osteko Iparraldeko euskaltzainen lehen presentzia Lhande eta Elizalderena da 1949ko azaroaren 30ean. Hortik aurrera gehixeago agertzen dira, baina ez asko: 1950ean bai, badatoz batzarretara, baina 1951-1952an sekula ez, 1953an irail eta urrian bakarrik, 1954an inoiz ez, 1955ean ekain eta abuztuan. 1959 arte ez da normaltasunik berreskuratzen.


### Junta de Cultura-ren erabakia

Azkuek eta Krutwigek aipatzen dituzten baldintzetatik bat bakarra da Juntak idatzita ematen duena: Juan Irigoien izendatzea. Besteak hitzez emandakoak dira, hitzez bakarrik. Frankismo garaian, agintariak abilak zirenean, maiz edo beti erabili ohi zen estratagema hori, konstantzia dokumentaturik ez uztearren.

Ez dakigu hirugarren puntua Euskaltzaindiaren zereginak mugatzera datorren ala bestela. Juntak komenigarri ikusten du Euskaltzaindiak *Euskera* agerkaria argitaratzea, hiztegia lantzea eta euskararen intereserako diren beste zenbait. Baina ez du

#### Bizkaiko Junta de Cultura-ren akordioa

Gutunaren bigarren puntuan “izendatzen” dute Juan Irigoien euskaltzain berri.



Consejo Superior de Investigaciones Científicas  
 INSTITUTO "ANTONIO DE NEBRIJA"

Duque de Medinaceli, 4  
 Teléf. 11957  
 MADRID/

17 Jun. 1941

Sr. D. Juan Irigoyen  
 Bilbao.

Mi distinguido amigo:

Reunidos el amigo Subiñas y yo, hemos pensado escribir a V. para darle cuenta de que estamos conformes y muy entusiasmados con su plan de reorganizar los estudios del vascuence en España. Hay que comenzar antes de que nos quiten el mando en esto los franceses o cualquier otro. Sinceramente creo que, en vez de fundar algo nuevo, lo mejor sería reanimar de nuevo la Rev. Internacional de Estudios Vascos. ¿No podríamos para esto aunar los esfuerzos de las Diputaciones de Bilbao y San Sebastián, con los de nuestro Instituto de Filología? Hable V. de esto con Don Resurrección y dígame que podríamos reunirnos sobre el asunto con él y con Don Julio de Urquijo ahí en Bilbao o en San Sebastián. Yo creo que el Consejo de Investigaciones a través de nuestro Instituto de Filología "Nebrija" apoyará la cosa. Su binas y yo hablaríamos aquí con Areilza, y este mismo verano podría salir la revista. Habría modo de crear en Madrid una sección vasca en nuestro Instituto y el ideal sería llegar a una reunión mensual alternando en Madrid, Bilbao y San Sebastián.

Esperando sus noticias para plantear la cuestión ante el Consejo de Investigaciones, queda muy de V.

Antonio Tovar (firmado)

Con esta fecha escribimos a D. Julio de Urquijo.

### Tovarren esku hartzea

Euskararen ikasketak edo ikerketak bultzatzeko laguntza eskaintzen du Tovarrek.

laguntzen halakorik egiten, eta 1953an gerra osteko lehen *Euskera* agertzen denean, konfiskatu egiten dute. Jagon saileko lanei uko egiteko eskatzen ari ote da?

Aztertzeko gelditzen da gutun horren atzean zer dagokeen. Krutwigek garbi esan du galeriarako erregimenari interesatu egiten zitzaiola Euskaltzaindia bizirik eta kontrolatuta mantentzea.

Ekimen hori Areiltzak bere kasa hartua ote da ala hariak mugitzen, esan ohi den bezala, besteren bat dabil? Areiltza ez dabil bakarrik. Areiltzak berak, bestalde, Gipuzkoako Diputazioko taldearekin (Zirikiain Gaiztarro, Manso de Zuñiga) ere lanean dihardu Real Sociedad Bascongada de Amigos del País berpiztu nahian. Gipuzkoako Diputazioak babesten eta sustatzen ditu elkartearen buletina, *Munibe*, *Egan*, besteak beste. Xede bat baino gehiago du ekimen-sorta horrek, segurutik. Guixienez bi, bat politikoa eta linguistikoa bestea: batetik, erbestearen salakuntza indargabetzea, Francok euskara jazarri egiten zuela "desde la cuna hasta la tumba"; bestetik, erbesteko aldizkarietan sabindarrek zerabilten hizkuntza ereduari alternatiba ematea barruan.

Eta atzetik edo gaintetik gizon bat ari da lanean, erregimenean boterea duena eta euskaltzalea aldi berean: Antonio Tovar, 1948an euskaltzain urgazle eta 1973an ohorezko izendatua. Donostiako taldearekin badabil, eta hemen ere bai. Juan Irigoieni erantzuten dio, 1941eko ekainean, guztiz bat eta pozarren daudela bera eta Subiñas euskal ikasketak berrantolatzeke Irigoienek aurkeztu dion planarekin. Lehenbailehen hastea gomendatzen du, "antes de que nos quiten el mando en esto los franceses o cualquier otro". Frantsesak, hemen, Iparraldean babesa bilatu zuten Barandiaran, Fagoaga eta Eusko Ikaskuntza ingurukoak dira. Tovarrek bere Institutuaren babesa eskaintzen du proiektu horretarako. Nebrija izeneko Filologia Institutukoa da bera, eta elkarte hori "Consejo Superior de Investigaciones Científicas" indartsuaren baitan dago.



Antonio Tovar



1949: Krutwigen erreforma

El abajo firmante cumpliendo el encargo a él conferido tiene el honor de exponer:

Señores académicos: Los pasados conflictos que tan nefastas consecuencias han tenido en todas partes, no pudieron menos que proyectar su negra sombra sobre instituciones alejadas de toda actividad política o bélica. Así es que nuestra Academia se ha visto afectada por consecuencias que jamás se pudieron prever. Ahora que en todas partes del mundo se empieza a reconstruir y entre las ruinas vuelven a elevarse los edificios de la cultura, sería un crimen, si nosotros no reedificásemos nuestro Euskaltzaindi.

Me hizo la Academia un gran honor al confiarme la redacción de esta ponencia y sería para mí la máxima satisfacción poder estar a la altura de tan elevada misión que me fue encomendada. Si en algo fallaren mis proposiciones no es negligencia o falta de interés la causa. Desde el día en que recibí este encargo he consultado la opinión de todas aquellas personas que estimé estarían verdaderamente interesadas en un renacimiento de nuestra Academia y en consecuencia vengo en proponer:

I. Dado que actualmente y por motivos ajenos a nuestra voluntad nos vemos con mucha frecuencia privados de la valiosa concurrencia de varios de nuestros miembros titulares y teniendo presente que una nutrida concurrencia de todas aquellas personas que por su dignidad y conocimientos pueden contribuir al prestigio y esplendor de nuestra Academia para el bien del Pueblo Vasco y de su antiguo idioma, y siendo asimismo necesaria una mejora en la composición interdioma del Euskaltzaindi, propongo se eleve a 18 el número de los académicos de número, quedando de acuerdo con tal proposición cambiado el art. 7 de los estatutos.

II. Se propone que para la elección de nuevos miembros, cuando hubiere alguna baja y resultare algún sitio vacante, solo se tengan en consideración los méritos que reúna el candidato, sin tener en consideración la representación dialectal que ostentaba el causante de la baja. Debiendo solamente estimarse necesaria la existencia de una representación dialectal entre los académicos titulares que sea la siguiente: de dos miembros por cada uno de los dialectos literarios de Vizcaya, Guipúzcoa y Labort y de uno por el dialecto suletino y asimismo un representante por los dialectos rurales alto-navarros y otro por los dialectos rurales bajo-navarros, y solo en el caso que el número de tal representación dialectal no fuere alcanzado se deberá condicionar la candidatura del nuevo miembro a elegir al hecho que ha de representar el dialecto cuya representación ostentaba el fallecido académico o causante de la baja.

III. Dadas las actuales dificultades de viajes y teniendo presente que la ciudad de San Sebastián es el lugar más central y de más fáciles comunicaciones, propongo se celebren siempre en esta ciudad las reuniones ordinarias de nuestra Academia.

IV. Se propone asimismo se reedite el Boletín de la Academia, "Euskara", aun cuando solamente fuese un par de hojas cada tres meses, en las cuales se debería dar cuenta de las reuniones que se celebran y lo en ellas tratado. Es también conveniente lograr de la prensa periódica en el País Vasco, publiquen noticia de las reuniones del Euskaltzaindi.

V. Se estima conveniente se reorganicen las secciones tutelar y filológica que según el art. 2 de nuestros reglamentos deben existir y se completen los nombramientos de los cargos que se especifican en los arts. 10 a 14 de los mismos.

VI. Se den los pasos necesarios para que la Academia adquiriera cedido por las autoridades un local en consonancia con su dignidad y se estudie la posibilidad de cambiar el domicilio social de la misma a la ciudad de San Sebastián, en Guipúzcoa.

VII. Se proceda a celebrar reuniones por lo menos una vez al mes, si por razones económicas no pudieren ser celebradas las quincenales que se establecen en el art. 18 (art. 19 del texto vasco) de los Estatutos del Euskaltzaindi.

La Academia decidirá sobre las proposiciones dada la urgencia y vital interés de las mismas para el bien y el prestigio del Euskaltzaindi y del euskara.

Bilbao a 1 de Septiembre de 1949.

*F. Krutwigen*

Anexo a la ponencia.

Para el mejor cumplimiento y la mayor efectividad de las normas que se proponen en la ponencia de la cual estas proposiciones son un anexo vengo en proponer.

I. Se nombre a Don Pedro Lafitte, natural de Luhosoa, director del Semanario "Herria" sucesor de Don Jorge Lacambe.

II. Se nombre a Don Enrique Gavel, quien hasta el 20 de Octubre de 1933 fue miembro correspondiente y desde tal fecha miembro de honor, académico titular de honor en calidad de supernumerario con todos los derechos de voz y voto y todas las prerrogativas de los miembros numerarios.

III. Se nombre miembros numerarios  
a) a Don Renato Lafon, profesor de Filosofía.  
b) a Mgr. Saint Fierre, obispo de Gornus.  
c) a Don Luis de Asanza, alcalde de Ustaritz y presidente de Euskaltzaleen Biltzarra.

IV. Se admitan proposiciones para el restante puesto de académico numerario entre los Srs. Dominique Dufau, R.F. Moulier, R.F. Arotzarena, archivero del obispado de Bayona y el R.F. Epherre.

V. Se nombren miembros correspondientes a el R.F. Arotzarena, al canónigo Dominique Scubelte, al presbítero L. León, al presbítero Sr. Larzabal, al F. Guilsou, al F. Charritton, y a los doctores Srs. Labguerrie y Naureguiberry.

*F. Krutwigen*

**Federiko Krutwigen proposamena**  
Krutwigek proposatu zituen hainbat aldaketa onartu egin ziren.

Federiko Krutwig 21 urterekin egiten dute urgazle, eta berori da 26 urterekin historiako euskaltzain osorik gazteena. 1942 urteaz geroztik Euskaltzaindiko bileretara joan ohi da, eta hainbat txosten irakurtzen ditu bertan.

Txostenak batzarkideen aurrean irakurri eta eztabaidatzea izan ohi zen urte ilun askotan Euskaltzaindiaren zeregina, kanpo lanik ezin zenean. Club pribatu edo tertuliakideen zirkulua ematen du, aktak irakurrita. 1941eko berrikuntza ez da urrutiago iristen, nonbait. Hori da Krutwig gazteak aurkitu duen Euskaltzaindia.

Krutwig gaztea Azkue zaharraren begiko zen, eta horren oniritzia jaso zuen erakundea biziberritzeko plan bat egiteko asmoak. Beste batzuekin ere kontsultatu ohi zuen —Irigarai, Urkixo, Oleaga—, baina zeregin horretan beti eutsi ziona Azkue zen: "La única persona entre todos los Euskaltzaines que siempre me sostuvo en esta tarea, la cual corría al margen de la legalidad fascista, fue Resurrección M. de



Azkue, quien a pesar de su avanzada edad era más valiente y combativo que los demás”.

Zazpi puntu ditu Krutwigen proposamenak:

1.- Euskaltzain osoen kopurua 12tik 18ra gehitzea. Zertarako? Kide titular batzuk falta direlako eta barne osaera hobetzeko.

Kide berriak izendatzea erraza da berez. Baina zer egin erbesteratuekin? Horien ordezkioak ala ondokoak izendatu behar dira?

Kopuru berria onartu egiten da.

2.- Hutsarteak betetzeko, merituak hartu aintzat, eta ez euskalkien ordezkariak. Erdiak euskalkien ordezkari izango dira, eta beste erdiek ez dute zerikusirik lurralde edo euskalkiarekin.

Euskalkien pisua Euskaltzaindian honako hau izango da: literatur euskalkiek bina euskaltzain (lapurtera, bizkaiera eta gipuzkera) eta beste hirurek bana.

Izendapen irizpideen aldaketa hori iraultza txiki bat izan da, baina ez da jarraitu bide horretan, oraintsu arte. 2005ean antzeko irizpideak ezartzen dira, nahiz eta proportzio desberdinean izan.

Onartu egiten dira irizpide aldaketak.

3.- Batzarrak beti Donostian egitea, erdigunea delako eta garraio bide errazak dituelako.

4.- Akademiaren buletina den *Euskera* agerkaria argitaratzea, hiru hilean behin orri pare bat bada ere. 1953ko zenbakiaren onarpena lortu ondoren, 1956an hasten da agerkaria aldizka ateratzen.

5.- Iker eta Jagon sailak berrantolatu eta karguak izendatu.

6.- Egoitza Bilbon barik Donostian izan dadila. 1919an hartu zen erabakia aldatzea leharke horrek.

Ez da onartzen.

7.- Gutxienez hilean behin bilerak egitea, arazo ekonomikoengatik estatutuetan agertzen den hamabost eguneko maiztasuna bete ezin bada.

8.- Eranskina.


Eranskina du txostenak, eranskin harrigarria. Lehenengo puntua betetzeko ize-nak proposatzen ditu, maila guztietan, ohorezko, oso eta urgazle. Den-denak Iparaldekoak dira, salbuespenik gabe. Eta are harrigarriago dena: denak onartzen dituzte, ia salbuespenik gabe:

Ohorezkoetan Gavel proposatzen du. Kontraesanak-edo daude Gavelekin: urgazle izendatu zuten (1919-10-26) eta baietza eman zuen; berriro ere 1933ko urriaren 19an “deduzco euskaltzain” izendatzen dute eta izendapen hori berretsi egiten da (1949-09-30).

Urgazleetan sei proposatzen ditu: D. Soubelet, L. Leon, G. Epherre, P. Narbaitz, M. Labegerie, J. Jauregi berri. Seiak onartzen dira.

Eta euskaltzain osoetarako beste hauen izenak proposatzen ditu: P. Lafitte, R. Lafon, J. Saint-Pierre, L. Dassance; eta bosgarrena aukeran uzten du: Dufau, Moulier, Arotzarena eta Epherrereren artean. Bosgarren lekuan hautatzen dutena ez da Iparaldeko bat, zerrendan ez dagoen Manuel Lekuona baizik. Salbuespen bakarra.

Proposatuen artean Lafon dago, gaskoina, ez euskalduna. Estatutuen aldaketa le-



Federiko Krutwig



goke hemen, “yayotzez” euskalduna izan behar duelako euskaltzain osoak. Krutwigek Urkixori aipatzen dion nazionalitateen adiera psikologikoari esker edo Vasconia zabal handiaren teoriak baliatuz onartzen zuen berak, gaskoin euskaldun gisa edo.

Zergatik proposatu zituen hainbeste Iparraldeko? Txostenean ez da argudiatzen hori, baina idatzita utzi du joera maioritarioa lapurteraren aldekoa zela orduan. Urte horietan Hegoaldean lapurtera klasikoaren zale porrokatua bera zen.



**Inazio Maria Etxaide**

### Azkue ondoko buruzagitza

1951n hil zen Resurreccion Maria Azkue, hasierako presidentea, 32 urtez Euskaltzaindia gidatu ondoren.

Azkue desagertzean, badirudi Akademiaren buruzagitza krisian sartzen dela. Bilera asko mahaipuruak zuzentzen ditu, baina ez dakigu garbi mahaipuru hori euskaltzainburua den, buruordea den, eta behin-behineko mahaipuru.

Azkueren hurrengoa Inazio Maria Etxaide da, 1951tik 1962an hil arte iraun zuena buruzagitza. Baina urte guztietan euskaltzainburu izan al da juridikoki ere? Lehenbiziko urte askotan euskaltzainburuorde gisa sinatzen du. Aktetan 1957an agertzen da euskaltzainburu kargurako izendatua.

Hurrengo euskaltzainburua ere donostiarra da, Jose Maria Lojendio. 1963tik 1966ra doa honen gobernualdia. Badirudi gogo gutxiarekin hartu zuela kargua, urtea bukatu arte bakarrik agindu baitzuen berak. Urtea igaro ondoren behin eta berriro ari da aldaketa eskatzen. Madrilera aldatu du bizitokia, eta huts asko egiten ditu azken urteetako bileretan.

Erraz suma daiteke zergatik aukeratu eta mantendu nahi den karguan Lojendio. Hareman eta eragin handiko familia da. Haren familiaren diplomazia-tradizioa farnatzen du Gabriel Arestik 1965ean, eta berori dela guztietan egokiena euskaltzainburu izateko: “Guztirik egokiena, askotan ikusi den bezala, Lojendio jauna da, bere familiaren diplomazi-tradizioak mundu guztiarekin bake-bideak aurkitzeko birtutea eskaintzen baitio”. Berak ez du nahi, ordea.

Hirugarren euskaltzainburua Manuel Lekuona da, 1966-1970 bitartean. Horren gobernualdia ere bitan bereizten da, Arantzazuko Biltzar Nagusiak hausten duela. Euskaltzaindiak harturiko bidetik baztertu zen, eta 1970eko hauteskundeetan Euskaltzaindiak Luis Villasante hobetsi zuen.



**Jose Maria Lojendio**

### Gabriel Arestiren proposamena

Arabako Laudiotik, 1965eko martxoaren 31n, “euskaltzain jaun agurgarriari” gutun bat zuzentzen dio Gabriel Arestik. Gai askotaz ari da bertan, hala nola, Bizkaiko euskaltzain osoen azpiordezkapenaz, ohorezkoen izendapenez, erakundearen “harmarriaren” grafiaz (“yarai”: i grekoaren eta r gandordunaren grafiaz, hain zuzen).

Baina batez ere beste honetaz: Euskaltzaindiaren buruzagitza. Ikusirik Euskaltzaindiak pairatzen duen buruzagi gabezia, hori erremediatzera dator bere proposamena. Lojendioz tematzen ikusten du jendea; berarentzat ere Lojendio da hobena, baina ez du nahi, eta kito. Beste bat bilatu behar da.

Louis Dassance proposatzen du Arestik, Iparraldekoa: “Louis Dassance jauna gure buruzagitza hartzen baldin badugu, Euskaltzaindia euskararenganako amodioz



**Manuel Lekuona**



eta lanez hornituriko bizitza luze eta frutakor batez ohoratuko da”.

Iparraldekoa izanik, susmatzen du Arestik arazoak sortuko dizkiola Euskaltzaindiari Espainiako autoritateen aurrean “Louis Dassance jauna autoritate horientzat (ez guretzat), atzeritar bat delako”.

Behaztopa hori gainditzeko figura berri bat proposatzen du: ordezkotza. Kontzeptu horrek badu tradizioa Euskaltzaindian: euskaltzainen ordezkotza egon dira, idazkari ordea badago, liburuzain ordea ere bai. “Ez dirudi, beraz, desegokia edo desarrazoia, euskaltzain-buruzagi-ordezkotza batez mintza gaitzen”.

Euskaltzainburuorde izateko ere badu hautagaia. Izena eman aurretik arrazoia azaltzen du:

Espainiar ziudadania dadukan buruzagi ordezkotza bat izendatzen baldin bada, Louis Dassance jaunaren frantses ziudadaniak berekin ekarriko dizkigun kalteak eta eragotzpenak ez dira ezer izanen. Eta kargu horretarako, nire iritzian, gizon gazte baten pizkortasuna behar dugu, eta pizkortasun horri zuzentasuna eta jakituria gehitzen baldin bazaizkio, hainbat hobeki. Gainera gizon hori goikoekin eta behekoekin, ezkerrekoekin eta eskumakoekin, urdinekin eta ferdeekin bake-bidean baldin badago, kontentuz esan dezakegu gure gizona aurkitu dugula. Eta kondizio hoietan aurkitzen den gizona, Luis Villasante eta Kortabitarte aita frantziskotarra da.

Dassance ez zuten aukeratu. Villasanteri dagokionez urte batzuk itxaron behar izan zuen Arestik. Eta ordezkotzaren figura hori aintzat hartu zen nonbait, 1966an Haritzelhar buruorde izendatua agertzen baita.

## 1956: urte giltzarria

1956 frankismo aldiaren erdi-erdian dago, 1936 eta 1976 artean, 20 urte aurrera, 20 urte atzera. Balio sinbolikoa baino gehiago du urte horrek. Herrigintzan oro har, euskalgintzan eta Euskaltzaindiaren bizitzan ere bai.

Hogei urteren ondoren, frankismoak zirrikitu batzuk uzten ditu (arrakalak ote?), gutxi eta estuak, eta horietaz baliatzen da Euskaltzaindia. Pasabide mehar horietan barrena ausarturik, egin ditzake hainbat ekitaldi, ez Arantzazukoa bakarrik.

Hogei urte pasatu dira erbesteko jendearentzat ere. Garai batean pentsa zezakeen erbesteak Franco eroriko zela, aliatuek botako zutela, baina hogei urteren buruan ikusi dute ez dagoela zereginik. NBEk onartu egin du, Vatikanok ere bai. Agirre lehendakariak deituta, 1956an Parisko Kongresua egiten da. Ondorioak hitz batean laburbil daitezke: borroka politikatik kulturara igaro beharra dago, eta kanpotik barrura, erbestetik Euskal Herrira. Luzera jokatu behar da.

Gerratik hogei urtera belaunaldi berri bat ere hazi da, gerra ezagutu ez duena, pentsaeraz irekiagoa, euskalgintzan molde berriak entseatzeko ari dena, bide propioak landu nahi dituena. *Jakin* aldizkaria izan daiteke belaunaldi berri horren ikurra. Hain zuzen ere belaunaldi horri “56ko belaunaldia” deitu izan zaio. *Jakin* Arantzazun sortu zen Euskaltzaindia jardunaldietan zegoenean, eta bertako euskaltzaleei aurkeztu zitzaizen primizia gisa.

Euskaltzaindiaren ibilbidean, 1956 urtea urte seinalatua da.

Gerra ostean bere burua gutxitan agertua zuen jendartearen Euskaltzaindiak. 1954ko abenduaren 3an lortu zuen *Euskera* agerkariaren zenbaki bat ateratzeko baimena. Urte berean sariketa bat antolatu zuen, eta estatutu berriak onartu zituen. Eta



### Gabriel Aresti

Honetaz gainera, Arestik proposamen ugari egin zituen Euskaltzaindian. Urre ezteietan gai monografikotzat euskara batua hartzea izan zen horietako bat.



1956an hiru ekitaldi antolatzen ditu, kongresu bat eta bi jaialdi. Eta, gainera, *Euskera* buletina, harpidetza bidez zabaltzen dena.

### Euskaltzaleen Biltzarra Arantzazun

1956ko irailaren 14, 15 eta 16an, hiru egunetan, “Euskaltzaleen Biltzarra, Euskaltzaindiaren itzalpean” deitutako gerra osteko I. Biltzarra egin zen Arantzazun.

Egitarauaren arabera, Iker eta Jagon sailen arabera antolatu ziren hitzaldiak: Iker sailean euskalkien eta antzinako testuen ikerketa landu zen, eta Jagon sailean “euskara biziari nola eutsi”.

Lehenengo egunean L. Villasante izan zen maipuru eta berarekin Damaso Intza, Julian Elortza, Piarres Lafitte eta Nazario Oleaga, Alfontso Irigoien idazkari. Hurrengo egunetan Nazario Oleaga eta Koldo Mitxelena izan ziren maipuru.

Batzartokian liburu erakusketa eder bat jarri zuten frantziskotarrek eta Euskaltzaindiaren eta Itxaropena argitaletxearen liburuak jarri ziren salgai. Hantxe agertu zen lehen aldiz *Jakin* aldizkaria.

Santiago Montorok irakurri zuen Iruñeko euskaltzaleen proposamena prentsan ere agertu zen: “Recabar del Estado Español, una disposición legal, por virtud de la cual reconozca al euskera (o vasco) la condición y consideración de Monumento Nacional”.



Euskaltzaleen Biltzarra argazkitan (1956)





Biltzarkide asko izan ziren. Argazkian 100 inguru ikus daitezke.

Eztabaida luzeak izan ziren, horietan Mitxelenak parte handia hartzen du, eta nabarmena da frantziskotarren presentzia txostengileen artean eta eztabaidan.

1956ko irailaren 28ko bilkuran, Biltzarraren ondorio gisa euskara bultzatzeko kultur taldeekin batera zabaltzeko gutuna onartu zen.

Agian bilera horren bertuterik goren ez zen edukietan neurtzekoa. Elkarrekin egotea baino, elkar ezagutzea, komunikazioa, baloratzen ditu Villasantek. Arantzazuko Biltzar horrek bide berri bati hasiera eman zion, 1958an Bilbon egin zenak segida (hor egosten da euskal hitzen adierazpena), eta zirkulua biribilduz amaitzen da atzera Arantzazun batasunarekin.

Luis Villasante euskaltzain osoa, eta Arantzazukoa, izan zen, ongiatorria egiteaz gain, Biltzarraren mamia azaltzeko enkargua bete zuena.



domingo 14 de septiembre de 1956

**Hubo ayer, en el Congreso de Aranzazu, una viva discusión sobre la "terminología culta en el vasconce"**

**SANTUARIO DE ARANZAZU.** — de los sacerdotes y religiosos congregistas, dando opiniones y orientaciones sobre el proyecto por el señor Lejorbe. El Padre Aguirreche, franciscano, ha dicho que la Compañía está dispuesta a hacer todo lo necesario para lo que así lo ha ocurrido, si se le pide que así lo haga. Seguramente, el Sr. Villasante se ha pasado del tema. "La terminología culta en el vasconce", que ha suscitado una gran cantidad de intervenciones, presentándose diversos criterios en pugna. Durante la discusión se han ido fijando unos puntos concretos de acuerdo, para unificar en todo lo posible los criterios divergentes, para una mejor acción común. Han intervenido muy destacadamente en este tema, el P. don Dámaso de Irujo (capuchino), el P. Antonio Arribe, don Eusebio Ezpeleta y don Justo Mocoena, concretando a algunas otras más. Terminada la discusión, a las 10.30, ha empezado el tema "La vida obligacione", ha empezado el tema "La vida del vasconce", desarrollándose con gran altura e interés.

Por la tarde, a las seis, han sido suspendidas las sesiones para trasladarse los congregistas, en comunidad, a la iglesia en la que se venen a la Virgen de otros temas vasconces, los hombres que discusiones, en ellos, han escuchado amor al país y a sus cosas, han escuchado la belleza de la "Benedictina" por comendados, maravillosamente por la Salve, cantadas maravillosamente por los frailes y colegiales de Aranzazu.

Aprovechando el sábado, han venido muchos más amantes del vasconce a vivir estas jornadas, de todas las partes del país. Y se espera la llegada de otros más para esta noche y para mañana, domingo día que pasará a ser el día de mayor interés, y el de la clausura del Congreso.

Interesantes intervenciones, destacando las...

**La mesa presidencial del Congreso sobre el vasconce, que organizado por la Academia de la Lengua Vasca se está celebrando en el Santuario de Aranzazu. En la fotografía: el P. Dámaso de Irujo, capuchino; don Justo Mocoena, presidente de honor del Congreso; el Abbe Pierre Laritte; don Nasario de Olaga, secretario del Congreso. (Foto Eiorra, Oñate.) Alfonso de Irigoyen, secretario del Congreso.**

AVARRO "El pennamirado Navarra" 21 de Sept 1956 Página 3

**EL CONGRESO DE EUSKALZALES DE ARANZAZU**

Las sesiones deliberante del Congreso Pro-Euskera, bajo los auspicios de EUSKALTZAIN (Academia de la Lengua Vasca).



Euskaltzaleen Biltzarra argazkian (1956)



### Luis Villasante

Villasantek izan zuen, ongietorria egiteaz gainera, Biltzarraren xedeak azaltzeko enkargua.

### Jakin aldizkaria

1956ko Arantzazuko Biltzarraren kariatara sortu zen.



### Jardun auek zergatik edo zertarako?

Euskal urduritasuna sentitzen degun guztiok elkartzeko, edo bata bestearekin al dan neurrian urreratzeko. Denok degu yoran berdiña, kezka ta oiñaze berdiña, gure mintzoaren kezka ta oiñazea, alegia. Euskera ondamenetik gorde ta begiratu, euskera bizirik atera nai degu guztiok. Ez naiz ni emen asiko, danok buruz dakizkigun atsekabezko arrazoiak berritzen: euskera gainbera datorkigula, atzeraka dijoala, erriak gero ta gutxiago itzegiten duela, ta abar. Baiña beste aldetik, itxaropenezko bide eta arrazoiak ere ba-dira. Azken urte auetan euskal liburu ta aldizkari mordo polita sortu zaigu, eta gure izkuntzaren alde lan egin nai dutenak ugaritzen dijoztela dirudi. Zorionez, ba-dira gaur eguneon ere euskaltzaleak, euskal idazleak, euskeraren adiskideak. Eta saiatzen dira, bakoitzak al duena egiñaz, bakoitza bere saillean gogotik ekiñaz. Baiña agi danez, saiaketa guzti oiek ba-dute utsune agiri bat, gaitz ezagun bat: bakoitza bere aldetik ibiltzea, alegia. Bakoitza, bizi dan txokoan sarturik ari da lanean, albokoaren berri jakin gabe.

Denok degu xede berdiña, baiño xede ori lortzeko ibilli bear den bidez edo egin bear diren egikizunezaz, danok ez gera iritzi bateko. Batek euskera garbia bear degula, besteak berriz uste du, gaurko egokera ontan, euskera ulerterreza ta erritarra zaigula bearrezko; urliak, euskera kultur-tresna bear degula biurtu, eta orretarako idea goratueterako mintzabide egin; onek, gizon eskolatuen eta ikasien maillako liburuak falta zaizkigula esango dizu; ark, berriz, erri xearen maillako lanak baizik eztitu ondo ikusten. Eta egin bear litzakenaren gaiñean aburu berdintsuak izanda ere, aburu oiek egi biurtzeko orduan, garaiean, sarri-askotan bide ezberdiñak daramazkigula ikusten da. Zer gertatzen ote zaigu, ba? Esan deguna: elkarrengandik berezita bizi oi gerala. Elkar ezagutu gabe, elkarrekin itzezin gabe, bakoitza bere aldetik, orra.

Orregatik bear zan onelako billera bat euskaltzaleen artean egin, elkar ezagutzeko, elkar berotzeko, asmoz ta jakitez jarraitzeko. Elkarrekin egotetik, bata besteakin itzegitetik beti sortu oi dira mesede ta etekin aundiak: urruti xamar bizi ziranak, edo bizi zirala uste zutenak, elkartu, urbildu edo bata bestearen usteak bide erdira ekarri. Eta danok iritzi bateko biurtzen ezpatera ere (batzuetan komeni ere ezta egingo), beintzat adiskidetu ta elkarganatu egingo gera, ta aurrerantzean lagun urkoaren usteei lotsa ta begirune geixeago erakutsiko diegu.

*Jakin* aldizkari sortu berri-berriak bilera horren berri ematen du, lehen zenbakian, Iñaki Bereziartua sortzaileetako baten luman. Badirudi belaunaldi berrientzat ere garrantzi berezia izan zuela: “aspaldi-danik erdi-minetan edo egoniko euskaltzaletasunari egun-senti itxarona eldu zitzaiola zirudin”. Villasantek bezala horrek ere hiru helburu atxiki zizkion Biltzarrari: elkar ezagutu, elkar berotu, eta “asmoz ta yakitez jarraitzeko” adorea.



## EUSKERA ALDIZKARIA

*Euskera* agerkaria gerraz geroztik zegoen geldi, debekatuta.

1936an ale bakarra eta monografikoa argitaratu zen, Sebero Altuberen "Más sobre la vida del euskera. Barrío euskeraren bizitzari buruz", eta 1937ko urtarril-ekainerako prestatutako ale monografikoak, Justo Garatek egindako Juan Antonio Mogelen "La historia y geografía de España ilustradas por el idioma vascuence", ez zuen zabalkuntzarik izan.

Aldizkaria ez da normalizatuko 1956 arte. Normalizatzeke lehen saioa 1953an jo bazuen ere, zenbaki bakarra ateratzea lortu zuen, aurkibide soilez osatua, 1920-1937 aldiko liburukietako aurkibideez. Baimen kontuak tarteko, konfiskatuta eduki zuten. Etxaide euskaltzainburuak Antonio Tovar eta Salvatore Mitxelenarengana jo zuen laguntza eske. Zergatik Tovarrengana, badakigu. Baina Mitxelenarengana? Rocamora ezagutzen zuelako eta bere liburua haren laguntzaz kaleratu zelako.

Aldizkari sailean barik liburu sailean eman zioten baimena, argitalpen unitarioa bailitzan. Aldizkariak kontrol zorrotzagoa zuten urte horietan, edo nagusiaren begiak ziren zorrotzagoak. Kontua da bide beretik jo izan zutela lehenago ere beste aldizkari batzuek. 50eko hamarkadaren hasieran Pedro Rocamora zegoen liburuen arduradun. Zarautzen egon ohi zen udan eta lagun egin zituen, besteak beste, Patxi Untzurrunzaga editorea, Jose Artetxe idazlea, Salvatore Mitxelena euskal idazlea. Rocamorak emandako baimenei esker zabaldutako ziren, besteak beste, Orixe baten *Euskaldunak*, Salvatore Mitxelenaren *Arantzazu* poema, Bera-Mendizabalen hiztegia.




## Bi ekitaldi gehiago

Urte berean hiru aldiz agertu zen Euskaltzaindia jendaurrean. Idatzi izan da Arantzazukoa dela Euskaltzaindiak gerraren ostean egin duen lehenbiziko ekitaldia. Ez da ez lehena eta ez bakarra. Hiru antolatu ditu eta egutegian hiruren erdi-erdian kokatzen da Euskaltzaleen Biltzarra.

Ekainean antolatu zuen Bilboko Arriaga antzokian ekintza artistiko-kulturala deitua: "Acto artístico cultural". Antonio Arrue eta Koldo Mitxelena euskaltzainek hitzaldi bana eman zuten eta ondoren kantu eta dantzek osatu zuten ekitaldia.

### Kultur ekitaldia Arriagan

Euskaltzaindiak gerra ostean lehen ekitaldi publikoa Bilboko Arriaga antzokian egin zuen 1956ko ekainaren 10ean.



### *Euskera* agerkaria

1953an *Euskera* agerkariaren zenbaki bakarra argitaratzeko baimena lortu ahal izan zen.

gua Vasca, haya alguna representación de la Real Academia Española de la Lengua, en donde las actividades de esta vasca tienen el mejor eco, singularmente en su presidente, don Ramón Menéndez Pidal, que ha dicho terminantemente, su criterio respecto del vascuence, valorándolo a la altura que debe hacerse, e incluso ha realizado algunos buenos trabajos de investigación sobre el misterioso idioma de nuestro pueblo.

Y tras este acto de presentación, la Academia lanzará a la calle el primer fascículo de la obra que sobre el vascuence va a publicar de modo sistemático, la que ya anunciamos al dar cuenta a los lectores de esta etapa de actividad intensa que con la fiesta del día 10 va a emprenderse.

En el 19 aniversario de la Liberación de nuestra Villa, el comercio bilbaíno nos asombrará con sus escaparates. Primer Gran Trofeo. Premios artísticos. Entree su inscripción para tan magno certamen.

La faceta del Nite V-1956





**Azkeri omenaldia Arriagan**

Bigarrena Bilboko Coliseo Albian bi egunetan antolatu zen, 1956ko abenduaren 30ean eta 1957ko errege-egunez, Azkue euskaltzainburu izanari omenaldi gisa. Eskema bertsua zuen horrek ere: bi hitzaldi, Nazario Oleaga eta Antonio Arruerenak, abesbatzak, eta arratsaldez Francisco Escuderoren *Illeta* opera behin eta hurrenean Olaetaren balleta.

1956-1965 bitartean hainbat ekitalde artistiko-kultural antolatu zituen Euskaltzaindiak, arrakasta handiz, 300 bat ikus-entzulerekin.

Garaiko bitxikeria gisa aipa daiteke ekitaldiaren bukaeran *Gernikako Arbola* agertzen zela programan, baina egitarau berri bat inprimatu behar izan zela korrika azken orduan “Himno nacional” delakoa jartzeko *Gernikako Arbola*-ren ondoren. Artxibategian gordetzen den programa berritu batean Alfontso Irigoienek eskuz idatzia utzi zuen ohar bat esanez borondate txarrez egin zela aldaketa: “Izan ere asmo txarrez agindutakoa, ia norbaitek iskanbilla sortzen zuen. Zorionez etzen ezer urtenik gertatu. Ala ere urrungo egunean amorrualdi izugarri batek arturik zeuden. Gorrotoaren fruitua”.

### 1959: euskal hitzen adierazpena

Euskalgintza barneko giro faltaz seguruenik, gerra aurrean, araugintzan ez murgiltzea hobetsi zuen Euskaltzaindiak. Gerra ostean ere nagi ibili da, gerra amaitu eta hogeitaz baitator lehenbizikoa: euskal hitzen adierazpena, 1959an.

Oraingoan, bai; orain ausartu egin da Euskaltzaindia, nahiz eta ondotoxo jakin haserreak eta sesioak sortuko zirela. Bai sortu ere. Garaiko indar biziatarik asko haserretu zitzaizkion Euskaltzaindiari, horien artean Orixe eta orixetarrak, *Euzko-Gogoa*-ko jendea eta sabindar oro.

Alde ere bazuen jendea, baina Arantzazun 1968an gertatu zenaren kontrara, aldeko indarrak oraindik antolatzeke zeuden, gehienbat gazte zirelako. Gazte jendeak, Mitxelena eta Txillardeggi maisu hartuta, eredu horren alde egin zuen, bete-betean egin ere. Adibide izatetik harago doa Jakin taldean gertatu zena. *Jakin* aldizkaria Orixe-ren maisutzaren pean abiatu zen 1956an. Baina 1959an eredu berriaren alde ikusten dugu, hasieratik zetorren tradizio txoa hautsita. Orain Euskaltzaindia hartzen du gidari.

1959ko udan, hamargarren zenbakia kaleratzean, editorialak izenburu hau dauka: EUSKALTZAINDIARI.

Gidari baten premia agertzen du *Jakin*-ek; gazte jendea galduta balebil bezala, araugintzari ekin diezaiola eskatzen dio Euskaltzaindiari:

Gidari zaitugu. Ortarako jaio zinen; ortarako sortu zintugun euskaldunok. Euskera zaitzaille izan, euskeraren erroak sendotu ta euskal-idazleei mugarriak ezartzeko [...].

Euskaldunok, burrukaldi gogor ontan, batasuna ta gidaritza bat bear dugu, ta ori zuk bakarrik eman dezaigukezu. Onegatik zure agiri ori pozgarri izan zaio YAKIN'i. Iñork baiño bearrago dugu gazteok zure gidaritza, ta zure lenengo ekiñaldi onen ondoren, zera gogoratu nai dizugu: 'EKIN ETA YARRAI'. Bai, betoz norma zuzentzailleak. YARRAI zure maixutza ortan, entzun guraz gauzkazu-ta.

Adierazpenaren aurreko txostena Bilbon 1958an egin zen Biltzarrean aurkeztu zuen Mitxelena: “Euskal-itzak zein diren”, gero “Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz” bihurtuko zena.

Mitxelenak ikusten zuen Hegoaldeko literaturan zegoen nahaspila gainditzeko beharrezko zela Euskaltzaindiak hitzen kontu hori argitzea.

Adierazpenak zer dioten funtsean? Hauxe: hitzaren jatorria edozein delarik ere, tradizioan eta euskara bizian errota edo sustraitua den hitza euskal hitza dela. Bestela esan, ez dela bidezkoa hitz asmatuetara jozte, irizpide etimologistak ez duela balio.

### 1960an hasita, bertso txapelketak

1960tik 1982ra sei Bertsolari Txapelketa Nagusi antolatu zituen Euskaltzaindiak. Hasi, baina, 1958an hasi zen Bizkaiko Txapelketa antolatuz. Ondoren etorri ziren Nafarroakoa eta Gipuzkoakoa.

Antolaketan euskaltzain bat dabil buru-belarri lehen ordutik: Alfontso Irigoien.

Herraldeetako bertso lehiak askoz lehenago egin ziren. Oihartzun zabala izan zuten lehen txapelketek, Donostiako Euskaltzaleak elkarteak Bertsolari Eguna izenez antolatuak, gerra aurrean, 1935 eta 1936 urteetan.

Hogeita lau urteko parentesiaren ondoren, Euskaltzaindiak hartzen du Euskaltzaleak elkartearen lekukoa. 1960koa da aurrena, eta hurrenez hurren datoz 1962koa, 1965koa, 1967koa eta berriz ere, hamabi urteko parentesi luzearen ondoren, 1980koa eta 1982koa. 1984an ere hasi zen hurrengo prestatzen, baina, bertsolariekin ezin elkar ulerturik, bertan behera utzi zuen antolatzea:

Aurtengo Bertsolari Txapelketa dela eta zenbait iritzi desberdin hedatu da. Euskaltzaindiak prentsa bidez ikasi duelarik bertsolari talde batek txapelketa hobea antolatu nahi duela, gaurko bileran hauxe erabaki da:


Nahiz Euskaltzaindia aspaldi honetan aritu den Bertsolari Txapelketak apailatzen, gerra aurrean Euskaltzaleak Elkarteak ekin zion bide beretik eta bertsolaritza indartu nahirik, bertsolari talde batek, antolatzeko gogoia erakutsi duenez gero, Euskaltzaindiak ez du oraingo txapelketarik eratuko.

Bertsolari Txapelketak nahikoa gorabeheratsuak izan dira orain baino lehen ere. Arazo gehienak edo denak epaimahaiaren erabakien inguruan sortu dira.

1962ko txapelketan txapela Uztapideren buru gainean jarri zenean, batzuek ulertu zuten Basarri kendu egin zitzaioela. Basarri bera txapelketetatik erretiratu egin zen betiko, zapuztuta.

1965ean Mattin eta Lopategi azken saiora zein pasatuko zeudenean eta Mattin aukeratu, sekulako txistu saioa egin zuen jendeak.

1967an gertatutakoa historian iltzatua dago. Alegia, Uztapiderekin batera Xalbador finalerako hautatu zutenean egin zitzaion bost minutu eta erdiko txistualdia. Xalbadorren bertsoari esker txistuak txalo bihurtu baziren ere, ondorio latzak izan



### Agiria

"Euskaltzaindiaren Agiria euskal itzei buruz" euskaraz eta erdaraz zabaldu zen.



### Bertsolariaren irudia

Jorge Oteizaren irudia bertso txapelketetan erabili ohi zuen Euskaltzaindiak.



zituen txistualdiak: hamabi urtean ez zuen Euskaltzaindiak beste txapelketarik antolatu.

1980an berriro abian jarri zuenean, Euskaltzaindiak kanporaketen tradizioa hautsi zuen eta "lehen mailako" hamasei aukeratu zituen. Hurrengoan, 1982an, A eta B mailak bereizi zituen.

Txapelketa horren biharamunean hasi zen eztabaida plazaratzen, puntuatzeko sistemaren argitasun falta zela-eta, batez ere. Haustura gertatu arte. Bertsolari taldeak hiru baldintza jartzen zituen: herrialdeetako kanporaketetan esku-hartze librea, antolaketan eta epaimahaiaren osaketan bertsolariek ere esku-hartzea, eta puntuaketa agerikoa.

Baldintza horietan akordio batera ez zirela iristen ikusita, Euskaltzaindiak maiztaren 31n Bilbon egindako bileran erretiratzea erabaki zuen.

Hurrengo txapelketa bertsolari eta bertsozalez osaturiko batzorde batek antolatu zuen, eta hortik aurrera 1987an sortutako Bertsozaleen Elkarteak.



**Bertsolari Txapelketak argazkitan**



# NORMALIZAZIOAREN BIDEAN







**E**uskaltzaindiaren barruko historian garai hau (1968tik 2004ra doana) oso da inportantea. Norabidea aldatu barik sakondu egin du Euskaltzaindiak, inertziak gainetik bota eta lanari ekin dio. Batzordeen bidez. Batzordeen formula ez da berria, izatez. Formalki aitortuak ez badira ere, hasieratik zeuden Hiztegigintzan, Onomastikan, Literaturan, eta lantaldeak eratu ziren Hizkuntz Atlasa edo Dialektologia lantzeko. Orain, indartu eta definitu egiten dira.

Dinamika berezi bat sortu zen 1968an, gizarte berriarekin konektatu zuen. Esan daiteke parentesi luze baten ondoren gogo fundazionalari lotu zaiola orain Euskaltzaindia.

Bi zuzendari izan ditu Akademiak urte hauetan, urte pare bat iraun zuen Manuel Lekuonaz gainera.

Dinamika berria jarri duena Luis Villasante izan da, 1970ean agintea hartu zuenetik 1988an erretiratu zen arte. Ondoren etorri zen Jean Haritzelharrek bide arrakastatsu bera jarraitu du hamasei urtez.

1968an hasi eta hurrengo hamarkadetan euskara eta Euskaltzaindia normalizazio bidean sartu dira. Normalizazio hori ez da euskararena bakarrik, erakundearena bereziki bada. Sorrera xedeei erantzuteko bidean jartzen da erakundea, hizkuntza estandarra bideratuz eta finkatuz euskararen batasuna deitzen den horri bizitza emanez.



#### Kargu aldaketa

1989ko urtarrilaren 19an hartu zuen Jean Haritzelharrek Luis Villasanteren lekukoa.



#### Hitzarmen Orokorra

Oñatiko Unibertsitatean sinatu zen herri aginteekin Hitzarmen Orokorra, 1989ko urriaren 7an.



Normalizazio instituzionalak, bere aldetik, adiera bikoitza du. Normalki, naturaldu egin da euskararen erakundearen eta euskararen munduaren arteko harremana: Euskaltzaindiak bere lekua hartu du, eta euskalgintzaren begirunea du. Gizarteak hala eskatuta edo presionatuta, Euskaltzaindia gizarte eskakizunetara hurbildu egingen da.

Horrez gainera, normalizazio instituzionalak bestelako esangura ere badu: Euskaltzaindia aro honetan instituzio bilakatu da, dagokion nortasun juridikoarekin.

Hiru ikuspegiok daukate berebiziko garrantzia emaitzen joritasunean.

### Urre ezteiak Arantzazun

1968ko udazkenean, sortu zenetiko 50 urte zirela-eta, urre ezteiak ospatzekotan zen Euskaltzaindia. Urte hasierako bileran, urtarrilaren 26an, Gabriel Arestik euskararen batasunaren gaia proposatu zuen. Aurretik hiztegiaren gaia atera zuen beste bat. Arestiren ustetan ordua zen batasuna serio hartzeko, eta Biltzar Nagusian euskararen batasunak behar zuen gaia.

Apirilerako batzordea izendatua zegoen, Mitxelena buru eta Juan San Martin idazkari. Partaide hauekin: M. Lekuona, P. Lafitte, P. Larzabal, L. Akesolo, L. Basterretxea eta X. Garmendia. Ponentziak gertatzea horien esku geratu zen.

Egokia zen gaia, egokia zen unea.

Euskaltzaindiak mandatu estatutario bat zuen betetzeke, Euskaltzaindiaren 1920ko sortarauetan agertzen da euskararen batasuna erakundearen eginkizun:

#### Biltzarkideak

1968an Euskaltzaindiaren urre ezteietan Arantzazun bildutako biltzarkideak



## LITERATURA EUSKERAREN BATASUNARI BURUZ EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA

Arantzazuko billeren ondorean, ban ziran euskaltzainak elkaturik, argi-bide baueke eman zituzten.

Arantzazuko batzarrea egin ondoren, Euskaltzaindiak eskerrak agertu nahi dizkie etorri diren nahiz beren iritziak bidali dituzten guztiei.

Lehenik ikusi duguna da guztion ustez gure hizkuntzaren batasuna behar-beharrezkoa dugula. Batasuna, noski, ez da Euskaltzaindiak egin dezakean gauza, eta are gutxiago bat-bat in egin dezakeana. Batasun hori, euskera idatzaren batasunaz mintzatu geranez gero, euskal-idazle eta irakasleen eskuetan dago, Euskaltzaindia gidari eta laguntzaille dutelarik.

Arantzazun izan diren eta ez diren euskaltzaleak argibide bat izan dezaten, Euskaltzaindiak geroago eta astiroago argitarako dituen erabaki eta lanen aurrerapena agertu nahi du orain.

- 1) Ortografiaren hortarako hautatu zen batzordeak adierazi dituen puntu gehienak onhartuak izan dira, ikusi dugunez.
- 2) H-ren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdi-bide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak letra hori bi bokal berdinean nahiz ezberdinen artean erabiltzen hasia. Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango.
- 3) Morfologiaren erabileraz batzordeak prestatu duen aintzin-lana puntu nagusietan oinharri bezala hartuz jokatuko du, aditzarekikoa beste aldi baterako utziaz.
- 4) Aztertu dira, orobat, batzordeak euskal-hitz zahar eta berrien formaz gertatu nagusietan oinharri bezala hartuz jokatuko du, aditzarekikoa beste aldi baterako utziaz.

Atzertu dira, orobat, batzordeak euskal-hitz zahar eta berrien formaz gertatu nagusietan oinharri bezala hartuz jokatuko du, aditzarekikoa beste aldi baterako utziaz.

Atsegin hartu du Euskaltzaindiak elkar-hizketa honetan agertu den giroaz, gendetasunaz eta elkar lanerako gogoaz eta uste du, gero ere, guztion laguntzarekin, bere eginkizuna beteko duela. Hortan saiatuko dela.

EUSKALTZAINDIA  
Arantzazu-Oñati, 1968-urriaren 5-ean.

Ekingo du euskalgi orenen odolez azitako euskal-eredu bat gertutzen, itzez, itz-joskeraz eta idazkeraz al bait erabatetsuena, euskaldun guztiak idatz-irakurketan erabiltzeko.

*Gaztelaniaz:* "Trabajaré preferentemente en la formación de un lenguaje literario unificado en léxico, sintaxis y grafía, que nutriendose de la savia de todos los dialectos nos permita disfrutar de una literatura común".

Hasi lehen bileretan hasi zen Euskaltzaindia gaia jorratzen, nahiz eta ez zuen erabakirik hartu, giro soziokulturala edo hizkuntza eredia ez zeudela aski heldurik agian. Une egoki apro-

posa zen oraingoa, eskakizun handia zegoelako gizarte berrian. Eta gainera batasuna bidera-

tuta zegoen neurri batean. Hau da, 1964an Baionako Euskal Idazkaritzak proposaturiko arauak bidea eginga zuten. Idazleek eta gizarte eragileek barneratua zuten batasunaren ideia eta mamitzen ari ziren. Euskaingintzak sekulako dinamismoa zuen urte horietan: ikastolak, alfabetatzea, euskal kanta berria, argitaletxe eta aldizkari berriak. Horiek guztiak hasieran zeuden eta batasunaren erreminta premiarioa zuten. Baionan abiatutako bide horrek onarpen instituzionala behar zuen. Horixe eskatu zioten Euskaltzaindiari idazleek Ermuko Jardunaldietan.




Arantzazuko Biltzarra (1968)  
Luis Villasante hitzaldia irakurtzen



Euskaltzaindiko bilera ondoko bazkaria (1963)





**Arantzazuko Biltzarra (1968)**  
Koldo Mitxelena arbelean

Halaxe ulertu zuen Mitxelenak, batzordeburu bezala gaia jorratu zuenean. Euskaltzaindiak ere bai. Euskaltzaindiak ez zuen huts egin. Biltzarra bukatutakoan, euskaltzain osoek elkarrekin bildu eta agiri bat onartu zuten: "Literatura euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiaren agiria", non ortografiari buruzko arauak ematen ziren. Euskaltzaindiak bertan erdibidea proposatzen du, gutxienekoen akordioa esaten dena; ez du nehor behartzen, aholku edo gomendioak ematen ditu. Eta, horrezaz gainera, hamar urteko aldia hartzen du "arauok" sendo finkatu diren eba-luatzeko. Bide zuhurra, inondik ere. Zuhurregia batzuentzat. Hondamendia bes-teentzat.

Arantzazuko Biltzarra (1968)  
UNIVERSIDAD DE SALAMANCA  
EXAMEN DE MADUREZ  
Arantzazuko Biltzarra (1968)  
Euskaltzaindiaren Agiria  
Arantzazuko Biltzarra (1968)  
Euskaltzaindiaren Agiria  
Arantzazuko Biltzarra (1968)  
Euskaltzaindiaren Agiria

2. Haren kausian, isan diren  
iritziak entzun ondoren, erdi-bide  
bat aukeratu da hasteko: alefia,  
begi onen ikusiko duleala ER,  
letra hori bi bokal hitz batean  
bi bokal berdin nahia esberdine-  
artean erabiltzen hastea  
Hau ere ez du esan nahi  
gorago jo nahi duten erriak  
es direla ongi ikusirik isanjo.

**Mitxelenaren idatziak (1968)**

Makinaz idatzitakoa Mitxelenaren txostena da, eta eskuzko zirriborroan Arantzazuko arau edo gomendioak Mitxelenak idatzi bezala agertzen dira.

L. Mitxelena-k literatura euskeraren batasunari buruz  
I. OINARRIAK. ZE BATAZUNEN BILA GABILTZAN  
1. Ezin-bestekoa, are geiago il-edo-bizikoa, dela uste  
orain irakasten jartzea. Aur eta gazteei euskeraz irakasten ba  
irakastea. Nai eta bear dugun batasun ori, aurren-aurrenik i  
era idatziarena da, izkribuzkoarena. Eta, euskera idatziaren i  
akaste-lanean dugu beharrenik batasun ori.  
2. Orena, berez, besterik litzake noski: euskaldun bako  
guztiak ezagutzea, angoak eta emengoak, antzinakoak eta oraingo  
lago, ordea, ezin eska dakiokela horrelakorik euskalari bati iza  
lek berak ere aski du gehienetan bereak ez dituen euskalkiak ule  
gai izaten beste euskalkiz mintzatzeko, ahoz nahiz izkribuz.  
3. Inoiz batera bagaitz, beraz, zerbait baino gehiago gal  
lehenik ere, euskerak azal nabar hori kaltegarri duenez gero, nahi  
entzatz biziko bada behar duena edozein axaleko edertasun bain  
4. Ez luke gai honetan inor inor mintu nahi Euskaltzaindiak, bai  
atasunera jo inor --gerok lehenik gerala-- mintu gabe. Bate  
ne besteren bitartez. Gidari eta bide-erakusle agertu nahi lu  
5. Hau ere dira erabaki hauen bidez erdietsi nahi lituzkean el-  
a) Euskalkiak ez ditezen elkarrengandik gehiago hurrun eta  
b) Ahal den neurrian, elkargana bil ditezen, gero.  
6. Ez da nor Euskaltzaindia, oraingoz behintzat, oinarritzat  
hautatuko den erabakitze. Ba dirudi, halarik ere, euskera  
arretarako egokiagoak direla, besteak beste, erdi-aldeko dia-  
retakoak baino. Nolanahi ere, amor eman beharrea aurkituko  
zeinek gehiago zeinek gutxiago, horretara heldu nahi badugu.  
7. Azaleko hauzietan lortu behar dugu aurrenik batasuna, mami-  
an baino lehenago, errazago delako eta beharrezkoago gainera.  
tza bat sistema bat dela, eta sistema horren zatiak edo osaga-  
ezer sistemaz kanpora. Aitortu beharrea gera, ordea, mami-  
tera ez dela sistema bat oraingoz orain, diasistema bat baizik,  
horren itura batera behar dugula, gero mamia batuko baldin  
8. Euskaltzaindiari hemen aurkezten zaizkion eskabideak hone-  
la mugetako ditugu, errazenetik zailenera:  
a) Idazkera edo ortografia.  
b) Antzinako euskal-hitzon formak.  
c) Hitz berrien eraketa eta bestetandik hartuen itxura.  
d) Morfologia: izena (izen-ordea) eta aditza.  
e) Joskera.  
Zenbaitetan, ez dago oraingoz deus egiterik, horretarako behar  
genituzkean istudioak ez baititu inork egin. Beste zenbaitetan, berriz, eus-  
kalkien arteko batasuna egitea gaitz bada ere, batasuna behar genduke euskal-  
ki bakoitzaren barrenean behinik-behin, eta hori gure esku dago.

## Arantzazurako bidean Baiona eta Ermua

Arantzazuko bilera ez da gertakari isolatua. Badu testuinguru bat Euskaltzaindiaren historian. Bai. Baina euskalgintzan ere bai.

60ko hamarkadaren aurretik etorri bazetozen batasun eskariei belaunaldi gazteen ahobatezkoa eransten zaie. Hala agertzen da hori bai Baionan eta bai Ermuan, Arantzazukoaren aurretik. Giroa prestatzeko eta lana errazteko balio izan dute aurreko bi Biltzar hauek.

Baionako Euskal Idazkaritzaren baitan, 1963an Hizkuntza Sail bat sortzen da. Horren egiteko nagusia zera zen: euskara idatziaren batasunari bidea bilatzea. Zortzi hilabetez astero-astero zazpi gizon bildu ziren horretarako, jatorriz gipuzkoar, nafar, bizkaitar, lapurditar eta zuberotarrak; lanbidez, idazle edo irakasle: Telesforo Monzon, Jesus Solau, Eneko Irigarai, Jean Louis Davant, Jesus Mari Bilbao, Roger Idiart eta Txillardegia.

Lanaren fruitua 1964ko abuztuaren 29-30 egunetan Idazkaritzan bertan eratu zen Biltzar Nagusi batean ematen dute. Berrogei euskaltzale bildu ziren Lafitteren zuzendaritzapean. Lafitteren beraren eta Larzabal euskaltzainen bidez Euskaltzaindira bidali zituzten erabakiok, Euskaltzaindiak azter zitzen. Hala egin zen horretarako batzorde bat eratuta. Agirietan ikus daitekeenez, Mitxelena eta Villasante erabakien alde agertu ziren.

*Baiona'ko Biltzarraren Erabakiak* izenarekin eman zuten liburuxka bat argitara. Sarrerako bi hitzetako bat eskari bikoitz hau da:


Batasunari buruz, euskaltzale guziei erabaki hauek betetzen hasteko eskatzen diegu; eta bereziki Euskaltzaindiari egiten diogu dei bat, bere aipamen guziaz gure erabaki hauek aztertu ondoren onar ditzan.

Arantzazuko Biltzar bezperan ia, ekainaren 28, 29 eta 30 egunetan, idazleen gerra osteko lehenbiziko jardunaldiak atontzen dira Ermuan, Gerediaga Elkartek deia eginda. Jose Luis Lizundiaren bidez jakin dugu Juan San Martinen ideia izan zela, hain zuzen ere idazleen iritziak entzun eta Arantzazukoa bideratzeko. Adierazgarria da 1968ko apirilaren 26ko Euskaltzaindiaren agiria, non esaten den:

... Gerediaga alkarteak eraturik, euskal idazleen biltzar bat izango da Ermua'n (Bizkaia), euskal idazleei dagozkien zenbait gauza aztertzeke eta baita ere literatura euskeraren batasunari buruz idazleen iritziak aztertzeke, Euskaltzaindiari bere lanean lagundu al izateko. Oso pozik entzun da. Eta idazle bakoitzaren iritzia librea izan dedin, biltzar oietan Euskaltzaindia ez nahastatzea obe dela esan da. Baiña, Euskaltzaindiak naiko luke "Gerediaga" alkartearen txosten bat bertako aburuak jasoaz, edo Euskaltzaindikoko literatura-alkartasunerako izendatua dan batzorde teknikoak zelatari bezala bertara joan al izatea.

Hainbat txosten azaldu ziren literatur euskararen batasunari buruz idazleek onduak, tartean euskaltzainak: Juan Antonio Letamendia, Xalbador Garmendia, Imanol Laspieur, Aingeru Irigarai, Piarres Lafitte, Txillardegia. Hemengo erabakiak ez dira linguistikoak, beste maila batekoak baizik.

Erabateko sintonian dago Ermua Baionarekin eta geroko Arantzazurekin. Men egiteaz gainera, eskari sutsua egiten da batasun hori gauza dadin. Baionan eta Ermuan bildu ziren idazleen desio eta esperantzak zein ziren Txillardegiren pasarte honetan islatzen dira argi:



**Baionako Biltzarraren Erabakiak**  
*Baiona'ko Biltzarraren Erabakiak*  
izenarekin eman zen argitara  
liburuxka bat 1966an.





**Jose Luis Alvarez Txillardegia**  
Baionako Biltzarraren erabakietan  
eragile nagusietakoa izan zen  
*Txillardegia*.



Euskaltzaindia'k, aspaldiko partez, ziñez hartu du aurten eginkizun premiatsu hau; eta zuzentzailetzat Luis Mitxelena jakintsua eta euskaltzale purrukatua hautatu du.

Gauzak horrela, bidezkoa iruditzen zait Euskaltzaindia'ren azken hitzari DENOK menegitea. Zein erakunde hoberik Euskaltzaindia baiño, eta or jantziagorik Mitxelena baiño? Nik neuk bederen hala egingo dut: Euskaltzaindia'ren erabakizunak alde aurretik onartzen ditut; eta nere izkribuetan Euskaltzaindia'ren erabakien arabera idaztea agintzen dut gaurdanik.

Euskaltzaindiak berak honela laburbiltzen du Txillardegiren jarrera hau maiatzeko agirian: "... artzen dan erabakia artzen dala, bera gertu dagoala jarraitzeko, *baiña arren, batasun ori egin dezagula bein betiko*".



### Ermuko Erabakiak

Arantzazuko Biltzarraren aurretik, ekainean, antolatu zituen Gerediaga Elkarteak idazleen Ermuko Jardunaldiak.

### Arantzazutik Bergarara

Arantzazun indarrean jarri zen dinamikaren harira urtean-urtean egin ziren lanak ugari dira.

Pragmatismoa hobetsi zen, nola edo hala, eta lehenbailehen, hoberenaren zain egon gabe ere, euskal gizarteak zituen premia larriei erantzuna eman beharrak baitzuen lehentasuna. Ez barne tentsiorik gabe. Profesionalek gehiago eta gehiago eskatzen zioten erakundeari, ikastolek, alfabetatzaileek, unibertsitarioek, editoreek, aldizkariak. Eta hasiera batean erakundeak ezin zuen denetara iritsi.

Premiei erantzun egokia eman nahian, lan moldea aldatu zuen Euskaltzaindiak, batzordeka antolatuz. Egia esan, 1970eko uztaila bitarteko agiriei erreparatuz gero, ikusten da gomendio bakarra hilen izenei buruzkoa dela. Zer dago barnean? Krisialdi instituzionala, M. Lekuonak ez baitu Arantzazukoa onartzen eta erakundea hausturaren atarian dago. 1970eko uztailan Villasante euskaltzainburu izendatzen dutenean, honek eutsiko dio lan moldearen aldaketari batzordeak indartzuz.

Euskaltzaindia bakarrik ez zebilen, gainera, lan horietan. Inoiz lehiakidetzat hartu zituen elkarteak antolatuz ziren gizartearen, hala nola UZEI, Elhuyar, eta horiekiko bizikidetzeta eta lan banaketa soluzionatu behar izan ziren. Denbora aurreratu ahala lankidetzeta nagusitu da.

Euskaltzaindiak berak burutu zituen lanen zerrenda luzea da. Hona batzuk:



**Euskal Aditza lantzen (1972ko uztaila)**



Goian: Luis Mitxelena, Iratzeder, Jean Haritxelhar, Alfontso Irigoien, Luis Villasante, Jose Maria Satrustegi, Patxi Altuna eta Imanol Berriatua.

Behan: Juan San Martin, Jose Luis Lizundia, Joseba Intxausti eta Xabier Kintana.



**Euskaltzaindiaren argitalpenak**

1. Batasunerako Hiztegia (1968)
2. Aditzaren batasuna. Aditz laguntzailea (1973)
3. Euskal Izendegia edo Nomenclator Onomástico Vasco (1977)
4. Azken araudiak
5. Merkatalgo Hiztegia edo Nomenclator Comercial (1974)
6. Zortzi urte arteko Ikastola Hiztegia (1975)
7. Euskal Aditz Batua
6. Aditzaren batasuna. Aditz sintetikoa (1977)
8. Euskal Herriko Udalen Izendegia (1979)



Hizkuntzari lotuta bide berri bat ireki zuen Euskaltzaindiak, Siadeco eta Jakinen elkarlanarekin:

### Euskaltzaindiaren argitalpenak

1. *Euskararen Liburu Zuria / El libro blanco del euskara* (1977)
2. *Hizkuntz borroka Euskal Herrian / Conflicto lingüístico en Euskadi* (1979)
3. *Estudio Socio-Lingüístico del Euskara* (13 liburuki, 1977)
4. *Bases para un futuro plan de actuación a favor de la normalización del euskara* (1978)

### Bergarako Biltzarra

Ezkeretik eskuinera: Federico Krutwig, Luis Villasante, Piarres Laffite, Jose Maria Satrustegi eta Koldo Mitxelena

### Bergaran Eleizalderen itzalpean

1968an Arantzazun hartu ziren gomendioak horixe ziren, Euskaltzaindiak gizarteari luzatzen zizkion proposamen gidatuak-edo, ez erabakiak, baizik eta onarpen sozialaren zain gelditzen ziren gomendioak. Hamar urteko aldia eman zion Euskaltzaindiak bere buruari proposamen horiek behin betikotzat hartu aurretik. 1978an eratuko zen Biltzar irekian ikusi beharko zen bide hori arrakastatsua suertatu zen ala porrota, edo zertan bata eta zertan bestea.

Eta Biltzar hori Bergaran eratu zen, bertako seme Eleizalderen itzalpean, berau izan zelako 60 urte lehenago, Oñatiko 1918ko Biltzarrean, batasunaren gaia plan-teatu zuena.

Biltzarraren helburua honela azaldu zuen Villasante euskaltzainburuak sarrerakoan:

Euskararen batasuna esan dugu dela aurtengo Biltzarraren gaia. Baina hertsikiago mintzatuz orai 10 urte eman ziren arauen inguruan izango da dena edo gehiena. Arau hoiek zer harrera izan duten aztertzea, beroiei buruz zer iritzi dauden entzutea, etab. Arantzazuko Biltzarrean ez zen batasunaren auzia alde guttiarik aztertu: Ortografia, Deklinazioa eta Hiztegia aztertu ziren soilki, eta oraikoan ere ez gara alor hortatik aterako. Orduko arauak zer harrera izan duten jakiteko bidezkoa zen Biltzarrean Estadistika eta inkestari toki berezia ematea eta hala egin dugu.

Linguistak bakarrik ez, soziologoak ere han zeuden hamar urtean egin zen bidea neur-



tzeko, aztertzeke, ebaluatzeke. Hori izan zen nobedadea Bergaran. Hizkuntza baten normalizazioan linguistikarekin batera soziolinguistika aintzat hartzen zuela erakutsi zuen Euskaltzaindiak. Euskaltzainburuak esan zuen hau: "Orduko arauak zer harrera izan duten jakiteko bidezkoa zen Biltzarrean Estadistika eta inkestari toki berezia ematea eta hala egin dugu".

Mitxelena bera, Arantzazun batasuna deitzen den hizkuntza ereduaren aldeko jarrera proaktiboa agertzerakoan, arrazoi soziolinguistikoetan oinarritu zen aukeratzeko orduan. Biologia aipatu zuen: hots, jende gaztea eredu jakin baten alde zegoela zalantza izpirik gabe. Eta gero aukeratu zuen oinarritzeko eredu (gipuzkera-lapurtera) argudiatzean, irizpide soziolinguistikoak ez ziren falta: eredu horren zentralitate geografikoa, onarpen soziala...

## Bi ekimen nagusi

### Bai Euskarari



Ordura arteko ekimen mota horretako marka guztiak ondu zituen Bai Euskarari kanpainak 1978an. Espero ez zen arrakasta soziala izan zuen Euskaltzaindiak bultzatu zuen ekimen horrek. Bi helburu zituen: euskararen alde kontzientziatzea, eta plangintza egin ahal izateko diru-bilketa.


San Mames futbol zelaian eman zitzaion amaiera, 40.000 lagun bildu zirelarik. Euskadi-Irlanda lagun arteko partida jokatu zen bertan.

Luis Villasante euskaltzainburuak hitz hauek egin zituen bildutakoan aurrean:

Benetan harriturik eta txunditurik nago eta pozez gainezka, kanpaina honek izan duen erantzun bikain-bikaina ikusirik. Horrek esan nahi du Euskal Herria bizi dela oraino, eta gure herri honetan badela gogo eta borondate euskera onik ateratzeko, dagoen egoera kaskarretik beste egoera hobea batera aldatzeko.

#### Bai Euskarari (1978)

Kanpainan erabili zen logoa Nestor Basterretxearena da. Kanpaina amaierako jaialdia San Mames futbol zelaian ospatu zen.



#### Bergarako adierazpena

1978an hamar urte lehenago Arantzazun onarturiko bidearen berriskuspena egin ondoren Euskaltzaindiak argitaratutako adierazpena





### Bai Euskarari Jaialdia (1978)

[...]

Euskaltzaindia euskeraren alde lan egiteko eta euskal arazoetan gidari izateko jarri eta izendatu zuen gure herriak bere ordezkarien bidez. Eta gaur, kanpaina honek herriagandik izan duen erantzun ezin hobea ikusi ondoren, nik Euskaltzaindiaren beraren izenean hauxe esan nahi dizuet: Hemendik aurrera, zuen laguntza eta atxikimenduari eskerrak, gure Elkarte hau oldar berriz eta gogotikago lotuko dela bere zeregin handi hoiak betetzera.

*Bai Euskarari* kanpaina honen ondorio eta fruitu bezala, Euskaltzaindiak lehen-bai-lehen plangintza orokor bat antolatuko du, era askotako egintzak bultzaturik euskararen eta euskal kulturaren alde.

### Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak

Handikiro hasi ziren 1980ko abuztuaren 25ean Gernikako zuhaitzaren itzalpean bilduz nazioartetik etorritako euskalariak, bertoko euskalari eta euskaltzaleak eta agintari autonomikoak.

Baina lanerako Leioako Unibertsitatera bildu ziren. Abuztuaren 29 arte iraun zuten Jardunaldiak.

### Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak

1980ko udan Gernikan eman zitzaizkien Jardunaldiei hasiera eta Leioako Unibertsitatean jarraipena.



Euskaltzainburuak sarreran esan zuenetik lau xede edo helburu zituzten Jardunaldiok Euskaltzaindiaren ikuspegian: kanpokoekiko dugun zorra aitortu, esker ona agertu, haien eta barrukoaren artean lokarriak sendotu, eta euskal ikasketak bulzatu. Are laburrago esanda, bi: eskerrak eman eta urrats bat aurrera egin.

Bost gai nagusien ardatzean izan ziren azalpenak: I. Euskal ikasketen egungo egoera eta geroa; II. Euskararen fonologia; III. Euskararen hiztegia; IV. Euskararen morfosintaxia; V. Euskal dialektologia.

Txosten nagusien egileak, bi kenduta, kanpokoak ziren denak: André Martinet, Antonio Tovar, Terence H. Wilbur, Jacques Allières eta Robert L. Trask. Etxeko biak Jean Haritxelhar eta Koldo Mitxelena izan ziren, hasierako eta amaierako txostenekin.

Entzule ugari izan zen, uste baino askoz gehiago, eta gizartean ere oihartzun handia izan zuten hedabideetatik.

## Euskaltzaindiaren itzalpean


Euskaltzaindiak abantaila handia izan du urteetan euskalgintzaren baitan: bera izan da onarpen juridiko eta soziala izan duen konfiantzazko instituzio nagusia edo bakarra. Gaur egun ere badu abantaila ez txikia: bera da Euskal Herri osoa bere baitan hartzen duen erakunde nagusia.

Diktadura garaian etengabea izan da Euskaltzaindiari babes motako laguntza eskatzea: zentsura gaintzeko, liburu edo aldizkarien argitalpena gomendatzeko, dantza taldea abian jartzeko, eskolak emateko, euskara irakasteko...


Euskaltzaindiak Jagon saila baliatu du zeregin horietarako. Jagon saila euskararen gizarte alderdiaz arduratzen da.

60ko hamarkadan hasita, ezaugarri bereziko laguntza eskatu izan zaio: har ditzala bere altzoan ez ekimenak baizik eta egitasmoak eta horiek gauzatzeko elkarreak. Bere kasa finkatu aurretik, sortzeko prozesua bideratzeko laguntza eskatzen zaio Euskaltzaindiari, hala alfabetatzeak nola idazleen elkarreak edo itzultzaileenak edo irakasleenak. Behialako eskaerek babes legala behar zuten; oraingoek, horrezaz gainera, azpiegitura. Indartu bitarteko laguntza eskatzen dute. Abagune jakin bat da hori. Herri ekimenak indarra du baina baliabiderik ez (ez legal, ez ekonomikorik) eta herri erakundeak ez dira euskaltzaleak, frankismoaren azken hamarkadan, esate baterako. Erakunde autonomikoak agintean sartu berritan ere gertatu da horrelakorik. Ordukoak dira Itzultzaile Eskola edo EIE bat.

Bere baitan sortu edo hazi diren elkarte horietaz jabetzeko gogorik ez du sekula azaldu Euskaltzaindiak. Kontrara baizik. Esan eta idatzi izan du —ez behin bakarrik— behin-behinekotzat hartzen duela jokabide hori. Aukera izan orduko erakutsi du gogoia betetzeko asmoa, gainera. Erakunde autonomikoak indarrean sartu zirenean bere babesetik aske utzi zituen AEK, EGA...



Bertsolari Txapelketarako deia



## Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak

Eduardo Chillidak egin zuen Jardunaldietako logoa.



## Hitz egin metodoa



Oinarrizko euskara ikasteko metodoa prestatu zuen Euskaltzaindiko batzorde batek.



Urte hauetako kasu aipagarrienen artean daude bertsoalaritza, alfabetatze-euskalduntzea, euskara titulua, itzultzaile eskola, idazleen elkarte.

### Alfabetatzea

**Euskaldunen alfabetatzea**  
1966ko urtarrilean eskatu zitzaion Euskaltzaindiari alfabetatzea bere gain har zezala.



**Juan San Martín**  
Juan San Martinek Euskaltzaindiaren barrutik indartu zuen alfabetatzearen aldeko eskaria. Euskal Idazleen Elkartearen sorreran ere Juan San Martinen bultzada erabakigarria izan zen.

1956tik aurrera euskalduntze-alfabetatzea indartzen hasten da Resurreccion Maria Azkue Katedraren itzalpean, eta hainbat herritan euskarazko klaseak antolatzen dira. 1966an Alfabetatzea Euskaltzaindiaren baitan sortzen da, halaxe eskatuta Rikardo Arregirekin batera Iñaki Beobide eta Mikel Lasak. 1966ko urtarrilean egin zen eskaria. Jagon sailaren baitan kokatzen da Alfabetatze batzordea, 1964az geroztik urgazle zen Rikardo Arregi idazkari zelarik. 1969an, Euskaltzaindiko bilerara zetorrela hil zenean, Rikardoren lekua Jose Luis Lizundia eta haren arreba Begoñak hartzen dute.

Bide luzea egin du alfabetatzeak Euskaltzaindiaren baitan: 1970ean euskalduntzea gehitzen zaio, geroago AEK sortzen da, hots, Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea.

1981eko ekainean Euskaltzaindiak hartutako erabakia ofizialki jakinarazten da:



AEKren ardura utzi egiten duela, Eusko Jaurlaritzak adinekoen euskalduntzea bere gain hartu duelako. Hor bukatzen da Euskaltzaindiaren konpromisoa: hutsune bat bete du eta normalizazio garaietan ez luke agintariekin lehia edo konpetentzian sartu nahi.

### Euskara titulua

Euskal Irakasle Titulua, gero EGA (Euskararen Gaitasun Agiria) ematen 1972an hasi zen. Irakaskuntza indartu behar zela ikusten zen, eta horretarako irakasleak prestatu eta gaitu behar zirela. Agintarien aldetik nork egin ez zegoen. Nahiz eta gerra aurretik ere tituluak eman izan dituen, eta nahiz eta arautegian horretarako baimena aitortzen den (honela baitio lehen artikulua j hizkiak: “expedir los oportunos títulos y certificados”), ematen du Euskaltzaindiak ez duela bere-berea ikusten zeregin hori, Luis Villasanteri irakurrita behintzat. Dena den, 1981eko abenduan eskutik utzi arte makina bat titulu eman izan ditu, milaka asko (zehazki, 2008ko azaroan emandako azken tituluak 7.115 zenbakia zuen). Eta ez bakarrik irakaskuntzarako tituluak, hainbat administrazio publikotan euskaraz aritzeko gaitasun agiriak ere bai.

Uztea bera ez da izan horren sinplea, euskararen lurraldeen zatiketa administratiboaren erruz. Iparraldean zer egin? Iparraldean nola jokatu bertako euskaltzainen baitan uzten da, harik eta 2009ko martxoaren 3an Euskararen Erakunde Publikoak, Paue eta Aturriko Unibertsitateak eta Bordeleko Michel de Montaigne Unibertsitateak bere gain hartu duten arte. Nafarroan? Lehen bezala jarrai dezala oraingoz. Eta Euskal Autonomia Erkidegoan? Eusko Jaurlaritzaren eskuetan uzten du, bai, baina zenbait baldintzekin, “lehen eta geroaren artean inolako etenik ez urradurik gerta ez dadin”.


### Itzultzaile Eskola

Euskaltzaindiak, Juan San Martin Jagon sailburuaren bitartez, 1979aren azken aldera, Itzultzaile Eskola bat sortzeko aurre txosten bat presta zezala eskatu zion Xabier Mendiguren Bereziarturi. Honek 1980ko martxoaren 28an jarri zuen eskaturiko aurre proiektua Euskaltzaindian. Izenburua: “Itzulpenaren Mundua eta Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskola”. Hiru atal nagusitan banaturik zegoen: a) Itzulpena munduan; b) Itzulpena gurean; c) Itzultzaile Eskolaren zuinak.

Itzulpenaren gaia jadanik agertua zen urte bereko abuztuan Foruan egin ziren Barne Jardunaldietan. Hantxe hartu zen eskola sortzeko erabakia. Honela kontatzen du Jose Maria Satrustegiren kronikak:

Euskaltzaindiari aspaldidanik datorkion itzulpenen iskanbila aztertu ondoan ikusi da, lehenik, ez dela Akademiaren eginkizunetan sartzen itzulpenak egitea. Itzultzaileen eskola sortu behar luke, edo sortzen lagundu, eta erakunde ofizial bakoitzak bere itzultzaileak izan beharko ditu.

Aurreproiektua aurkeztu eta berehala onartu zuen Euskaltzaindiak eskola sortzea; eta urte berean, 1980an, ireki zituen atek, Donostiako Aurrezki Kutxa Municipalak behin-behingo Arbide dorreetan utzitako geletan.



D mailako ziurtagiria



Ziurtagiriak



### Lehenengo UEU (1973)

Lehenengo UEUko ikastaroetako entzuleak, tartean Piarres Lafitte eta Andolin Eguzkitza, esperientzia eta gaztetasuna (*Herria* aldizkaria)



### Lehenengo UEU (1973)

UEUren lehenengo ikastaroetako programaren azala



### UEU

1973ko udan Udako Euskal Unibertsitatea sortzen da. Lehen ikastaroak Iparraldean izan ziren IKAS batasunak antolatuta eta Euskaltzaindiaren babesean. Jean Hartzelhar euskaltzainak hartu zuen ardura, eta horren berri eman zuen 1973ko maiatzaren 25eko Euskaltzaindiaren bilkuran. Ipar Euskal Herrian, Donibane Lohizunen aurrea eta gero Landagoienekin egin ziren ikastaroak. Hegoaldera igaro zenean 1977an ere Euskaltzaindiaren babesean izan zen, ez lege aldetik bakarrik, baizik eta baita antolakuntza aldetik ere.

### EIE

Euskal Idazleen Elkartearen sorrera desberdinetan Euskaltzaindia dago beti, zuzen edo zehar. Ezagutzen dugun egitasmo zaharrena 1956koa da, Jokin Zaitegiren "Euskal-idazle Alkartasuna". Idazleen etxe bat sortu nahi izan zuen. Euskaltzaindiak, Arantzazun 1956ko Biltzarrean, "euskaldun ikasiei" egin zien deialdiari erantzuteko modu eraginkorra deritzaio Zaitegiri "Euskal-idazle Alkartasuna".

1968an antolatu ziren Ermuko Jardunaldietan, Arantzazuko batasun giroa prestatzeko, Juan San Martin euskaltzainak aineratu zuen elkartearen asmoa. Batzorde bat osatu ere egin zen.

Hurrengo urtean, Baionan, izen bereko elkartearen arautegia eratu zen, Txillardegiren eraginpean. Ermuko asmo hartatik abiatua agian, baina elkarte sortu berri horrek bilatzen zuena ez zen idazleen interesen defentsa, baizik eta Euskaltzaindiak Arantzazun 1968an irekitako bidea garatzea.

Euskaltzaindiak berak, Juan San Martin Jagon sailburuak, 1979an beste saio bat jo zuen, eta nortasun juridikoa lortzeko gelditu zen. Protagonista berak 1982an saiatzen dira berriz. Oraingoan bai erdiesten dira helburuak.

Kasu honetan Euskaltzaindiaren egitekoa ez da izan EIE babespean hartzea proioki, baizik eta lehen urratsetan laguntzea. Juan San Martinek agindua zuen aurretik: "Nortasun juridiko hori lortzen duen une beretik utziko du Euskaltzaindiaren babesa beraren bidea jarrai dezan".





## Mamu mamitzen

Euskaltzaindiak hizkuntza ereduren baten alde egiten duenero sekulako kritika zaparrada jaso izan du. Gogoangarriak dira batasuna zela-eta aranistek eman zioten egurra. *Euskera* aldizkari ofizialaren lehen zenbakietako batean atal bat agertu zen izenburu esanguratsu honekin: “Euskaltzaindiari agurka eta aurka”. “Egurka” esan zezaketen.

1959an euskal izenei buruzko adierazpena dela-eta ere, sabindarrez gainera, *Euzko-Gogoa* eskolakoak eta Orixe eta orixezaleak pipertu zitzaizkion.

Hirugarren erasoaldia izan da gogorrena, zalantzarik gabe, 1968an abian jarri zen hizkuntza ereduaren aurkako erreakzioan.

Neurri batean ulergarria ere bada jendea nahastea eta aurka erreakzionatzea. Prozesu baten zehar-kaltetzat jo liteke hori. Jendea mintzea ere bai. Manuel Lekuonak berak sarrera hitzaldian esan zuen batasunak agian beso bat moztea eskatuko zuela bizia salbatzeko. Besoa mozteak min ematen du, jakina. Baina zer ez dute esan edo idatzil!

Aurkari horiek une batean pentsa zezaketen Euskaltzaindia bera bitan zatikatzea. Ez ziren gutxi eta ez ziren normahi, euskaltzain osoak, urgazleak eta kultur eragileak zeuden aurre-aurrean. Garaipen handi bat da Manuel Lekuona euskaltzainburua euren taldera erakarri izana, Arantzazu ondoren. 1970eko hauteskunde bitartean presidente gisa zegoen, gainera. Urte horietan barrutik saiatu ziren Arantzazuko erabakia aldatzen: batasuna eragitea ez dela Euskaltzaindiaren lana, hizkuntza eredia idazlearen kontua dela, gazte jendea erabaki eta gomendioetatik harago zihoala, Mitxelena ez dela jakintsu bakarra.

Horraino gizalegezkoa da kontua. Sekulako legenda beltza ere zabaldu zuten: afari batean erabaki omen zen Lekuona baztertzea; “H” ETaren ikurra eta amarrua omen da, ez alfabetoko hizkia; euskara batua erlijioaren etsaia omen, marxista, maioista, marcusearra; euskara batua euskara ez baino euskarantoa omen da. Irain pertsonalak, mehatxuak eta erasoak tartekatu ohi ziren maiz, batez ere Luis Villasante, Koldo Mitxelena eta Juan San Martinen aurka.

Eraso mediatikoak luze iraun zuen, artikulua eta liburu bidez. Beren bitarteko proiektu baliatu ziren, hala nola, Kardaberaz bazkuna eta aldizkaria, Euskerazaleak elkarteak, edota *Zer*, *Saski-Naski* eta *Agur* aldizkariak. Baina ez dute horietan bakarrik argitaratu, kalte gehien egiteko moduan aritu ziren komunikabide handietan, eta erdaraz.

Demokrazia ahotan hartuta autoritatea bana zezala eskatzen zioten Euskaltzaindiari oso modu integristan. Euskaltzaindia, horien tesian, elkarte bat gehiago zen, ez euskararen erakunde ofiziala. Erabakigunea ondoko sektore hauen artean banatu edo konpartitu behar zuen Euskaltzaindiak: Eusko Ikaskuntza, Begiraleak, Araba-Bizkai eta Gipuzkoako Euskerazaleak, Lituji-Itzultzaile Taldea, Kardaberaz Bazkuna, Erribide, Euskera lagunak, Bilboko Hizkuntz Eskola Ofiziala. Alegia, proposatzaileen aldeko taldeak, euskara batuaren kontra zeudenak, euskararen normalizazioarekin zirikusi gutxi zeukatenak berorietako batzuk; eta batez ere, askoz ugariago eta biziago ziren talde eta eragileetarik bat bakarra ere ez.

Olazarrek kontatzen du Kardaberaztarrek Tolosan egin zuten bilera batean bi erabaki hartu zituztela: Euskaltzaindiari “expedientea” egitea, epaiketa. Lekuonak berak proposatu omen zuen. Eta bestea: akademia berri bat sortzea.

Bai egin ere. Bixente Latiegi eta Oñatibiak 1982an idatzi zuten liburua: *Euskaltzaindia, el batua y la muerte del euskera* edo *Euskaltzaindiari epaiketa*.



### *Euskaltzaindia el Batua y la muerte del euskera*

Liburu hau Kardaberaztarren enkarguz idatzi zuten Latiegi eta Oñatibiak 1982an.

Akademia berria ere sortu zuten 1978an, Bergarako Biltzarraren ondoren. “Euskerazaintza. Euskeraren Erri Akademia”, horra izena. Akademia horrek Euskaltzaindiaren alternatiba izan nahi zuen, bai, akademia paraleloa.

Arrazoi osoz da kexu Euskaltzaindiko burua, Bergarako Biltzar atarian, 1978an, jasan behar izan duenaz.

Bitartean zenbat irain, mehatxu eta eraso ez ditugu irentsi behar izan! Gezurra ere badirudi honelako gauzak era horretaraino bere onetik eta tentutik atera nahi izatea! Baina Euskaltzaindiak bere betebeharrari ez dio uko egin, eta ez du amorerik eman.

**Euskaltzaindia Zarzuela Jauregian**  
1994an, Euskaltzaindiaren 75. urteurrenaren kariatara, Zarzuela Jauregian errege-erreginari Euskaltzaindiko ordezkariak zabal batek egin zion bisita.

## Onarpen juridikoa



Beraz, Heziera eta Jakintzako Ministroak proposaturik, eta mila bederatzirehun eta hirurogei eta hamaseigarren urteko otsailaren hogeiko batzarrean Ministroen Kontseiluak gauza aztertu ondoan,

ORDENATZEN DUT:

Lehenbiziko artikulua. Euskaltzaindiaren onartzea egiten da, beronen lan-eremua Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko probintziak direlarik.

Bigarren artikulua. Akademia hunen izena hemendik aurrera hunela izanen da: «Euskaltzaindia», Euskeraren Erret Akademia.

Hirugarren artikulua. Euskaltzaindiaren Arautegia ontzat ematen da. Beronen testua hemen dator, Dekreto hunen eraskin bezala.

Hala agintzen dut Dekreto hunen bidez. Madrilen emana, mila bederatzirehun hirurogei eta hamaseigarren urteko otsailaren hogeiei eta seian.

JUAN CARLOS  
Heziera eta Jakintzako Ministroak,  
CARLOS ROBLES PIQUER

Euskaltzaindiak, sortze beretik, euskararen erakunde ofiziala izatearen kontzientzia izan badu ere, nortasun juridikoz jabetu beharrik ez du ikusi izan nonbait, ez gerra aurrean eta ez gero berandu arte. Azkuek berak, edo Etxaidek zein Lojendiok egin zituzten saioek ez zuten helburua jo, ikusten denez.

Franco bizi zela hasi ziren gestiotan Arrue abokatu eta euskaltzainaren bidez, eta Marcelino Orejaren konplizitatez. 1969an eman zirela lehen urratsak, dio Villasantek. Lor zitekeen toki bakarrean lortu nahi zen nortasun juridikoa, Madrilen. Elkarte bezala erregistratzea bazegoen bertoko Gobernu Zibiletan ere, baina hori zalditik astora jais-tea zen Luis Villasanteren esanean.

Arrazoi bat baino gehiago daude segurutik erabaki horren atzetik. Bat, txikia edo koium-



### EUSKO KONTSEILU NAGUSIAREN AKORDIOA

Mila bederatzirehun eta hirurogeita hemezortziko martxoaren seian Eusko Kontseilu Nagusiak egin zuen batzarrean, Hezkuntza eta Kultur kontseilarien proposamenduari jarraiki, akordio hau hartu zen:

1. Lau Probintzietako Diputazioen tradizioa Kontseilu Nagusiak bere gain hartzen duelarik eta Estatuak Euskaltzaindia eta honen helburu eta funtzioak onartzen dituela ikusirik, Gorporazio agurgarri hau Euskal Herri mailan organo ofizialtzat hartzea erabakitzen du euskara landu, zehaztu eta batzeko arazoetarako; bidenabar, Kontseiluak Euskaltzaindiari laguntza eskatzen dio bere zereginak ahal denik ondoena betetzeko.
2. Eusko Kontseilu Nagusiak gaurgero bere eskutan dauden neurri praktikoak hartuko ditu Euskaltzaindiaren lana babesteko eta erakunde honen helburu prestu eta garaiei dagokien ohorea, hedakuntza eta indarra emateko.
3. Aldizkaria bi hizkuntzatan argiratzeko erabakia bete asmoaz, Kontseiluak Euskaltzaindiari eskatuko dio Kontseiluko itzultzaile ofizial gisa kandidatuak aurkez ditzala. Ondoren, kandidatuaren arteko bat izendatuko da egiteko hori betetzeko. Itzultzaile ofiziala izendatu ondoren, itzultzaileen Ganbara antolatuko da Itzultzaileen ardurapean, berau buru delarik.
4. Itzulpen lanak betetzeko behar den presupostua egiteko, Ekonomi eta Herri-finantza kontseilariari eskubide osoa ematen zaio.

Kontseiluaren izenean dudak karguagatik eta beronek honela agindurik, Dekretu bihurtzen da. Donostia, mila bederatzirehun eta hirurogeita hemezortziko martxoak hamairu.

Presidente, RAMON RUBIAL CAVIA  
Hezkuntza kontseilari, CARLOS SANTAMARIA ANSA  
Kultur kontseilari, JOSE ANTONIO MATURANA PLAZA

II.a

**3/1979 LEGE ORGANIKOA, ABENDUAREN 18koa, EUSKAL HERRIRAKO AUTONOMIA ESTATUTUARENA (1979)**

6. artikulua

4. Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-emale.

IV.a

**18/1986 FORU LEGEA, ABENDUAREN 15koa, EUSKARARI BURUZKOA**

3. artikulua

3. Hizkuntz arauak ezartzeko ondorioetarako, Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku-emale ofiziala, eta berari eskatuko dizkiote botere publikoek aurreko idaztiaz ezarritakoa betetzeko beharrezko zaizkien txosten eta diktamenak.

### DÉCRET DU 20 FÉVRIER 1995 PORTANT RECONNAISSANCE D'UNE ASSOCIATION COMME ÉTABLISSEMENT D'UTILITÉ PUBLIQUE

Ministère de l'intérieur et de l'aménagement du territoire

Par décret en date du 20 février 1995:

- est reconnue comme établissement d'utilité publique l'association dite "Académie de la langue basque Euskaltzaindia", dont le siège est à Bayonne (Pyrénées Atlantiques), 37, rue Pannecau;
- sont approuvés les statuts de cette association.



turala baina esanguratsua, Jose Maria Martin de Retana editoreak Azkueren Hiztegia ateratzean Euskaltzaindiak ezin izan zuen jabegoa eskatu nortasun juridikorik ezaren erruz. Min handia egin zuen gertakari horrek barruan.

1968 ondoren batasunaren aurkariak noraino joateko prest zeuden jakitea ez zen motibo txikia izango. Hirugarren arrazoi bat ere egon daiteke, Villasantek buru instituzionala zuela, J.L. Lizundiak dioenez.

Joan-etorri guztien ondoren, 1976an, Franco hil eta hiru hilabete eta sei egun beranduago lortzen du Erret Akademia izatea.

Erregearen titulu eramatea arazo iturri bihurtuko zela pentsa zitekeen. Ez zen hala gertatu, ez Euskaltzaindiaren baitan, ezta ere euskal gizartean.

Beste puntu minbera bat ere ukitu zen: Iparraldeko erreferentziak desagertu behar zuen, Erregearen aginte eremua Espainiako Estatua baita. Lurralde erreferentzia zahatzak ezabatuz bideratu zen hori.

Gero, aginte autonomikoarekin Euskaltzaindiak lekuan lekuko aitortpenak izan ditu Hegoaldean: 1979ko abenduaren 18an Euskal Autonomia Erkidegorako onartutako Autonomia Estatutuko 6. artikuluko 4. atalean aitortzen da: "Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-emale". Nafarroako Gobernuaren 1982ko abuztuaren 10eko Foru Hobekuntza legean ez da Euskaltzaindia aipatzen, nahiz eta bertan aitortzen den euskararen ofizialtasuna. 1986ko abenduaren 15eko Foru Legean, aldiz, Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofizial izendatzen da.

Ipar Euskal Herrian Euskaltzaindiak maila juridiko apalagoa du. 1987an Ipar Euskal Herriko Euskaltzaindia 1901eko legearen arabera elkarte gisa deklaratu izan zen. Eta 1995ean urrats bat gehiago egin zen, onura publikoko elkarte izaera baitu harrez gero.

Hala ere, estatutu juridikoak tarteko, Euskaltzaindia bitan banatua dago legearen ikuspegitik Europa bateratuan. Erronka polita du aurrean: bi molde juridiko horiek nola batera ekarri?

## Onarpen soziala

Gizartearen aldetik Euskaltzaindiak jaso dezakeen saririk hoberena konfiantzazko botoa da, eskuzabaltasunez emana. Esan nahi baita, hizkuntza kontuetan erakunde gidarizat hartzea eta jaramon egitea. Garai guztietan izan du horrelakorik, aurka ari zirenen kontrapisu. Euskaltzaindia sortu berritan Gregorio Mujikak erabateko obedientzia agindu zion:

Está fundada la Academia de la Lengua Vasca. Le saludo con radiante alborozo y con delectación amorosa. Pero le saludo sobre todo con la promesa de mi adhesión firmísima y mi absoluto acatamiento. Desde ahora me rindo a sus decisiones con la obediencia más cordial y más firme.

1959an ikusi dugu Jakinek ere gidarizat hartu eta arauak emateko eskatzen diola, goitik behera beteko dituela eta: "Beto norma zuzentzaileak".

1919ko Mujikaren konfiantza maila bera erakutsi zuen Txillardegik ere, 1968an, Ermuko Jardunaldietan, gutxi barru Arantzazun emango ziren arauak burutik orpora beteko zituela agindu baitzuen: "Euskaltzaindia'ren erabakizunak alde aurretik onartzen ditut".

### 75. urteurrena

1994an, Euskaltzaindiaren 75. urteurrenaren ospakizun nagusia Gipuzkoako Foru Aldundian egin zen.





Hizkuntza kontuetan Euskaltzaindiak lortu duen erreferentzialtasuna ehuneko ehun da gaur egun. Itzalaz gainera autoritatea ere aitortzen zaio.

Onarpen soziala sarritan bestela neurtzen da, sarien bidez, edo diplomak, esku-erakutsiak, opariak. Horietatik ere badu. Horiek ere azken batean onarpenaren frogak dira.

Erakunde batekiko onarpen afektiboaz gainera, efektiboa eta benetakoa bestea da, ordea, markaturiko bidea jarraitzen duenak erakusten duena, hizkuntzaren GPS baitlitzan jaramon egitea, alegia.

Euskaltzaindiak 1968ko Arantzazu ondoren zorte handia izan du: kultura biziko eragile guztiek aitortu diote erreferentzialtasunaz gainera autoritatea. Erabakiak har ditzala, eskatzen zaio. Bidea marka dezala. Eta dirudienez, Euskaltzaindiak asmatu egin du. Euskalgintzaren eta Euskaltzaindiaren artean, Euskaltzaindiaren eta herri erakundeen artean, ez dago ez etenik ez pitzadurarik. Hori bera nahikoa mirari da herri zatikatu honetan. Badirudi euskal gizarteak izan ez dituen erakunde komunen betebeharra bete duela Euskaltzaindiak.







# ARO BERRIA







## Osterantzeko ibilbidea

Osterantzeko ibilbidetzat jotzen du 2005ean Euskaltzaindiaren gidaritza hartzen duen ekipo berriak bere proposamena. Lan egitarau eta guzti egin du bere aurkezpena, eta bai Argomaizko Jardunaldietan (2005) eta bai Etxalarkoetan (2007) egitarau hori zabaldu du.

Egitaraua bere osoan hemen aurkezten den zatitxo hau baino konplexuagoa bada ere, eta ñabarduraz hornituagoa, oker handirik gabe esan daiteke ondoko puntu nagusi hauek nabarmentzen direla besteen gainetik.

Osterantzeko proposamen hau, Andres Urrutiaren hitzetan, aurreko ibilbidearen moldapena da, ez etendura.



### Euskaltzaindiko kideak

Euskaltzainak solasean 2009ko martxoan, Urkiolan, Barne Jardunaldietan

## Aldaketa ildoak

Euskaltzaindia hizkuntza akademia moderno eta dinamikoa antolatzeko asmoz, hainbat berrikuntza edo aldaketa planteatu ditu zuzendaritza berriak. Berorien gauzatze fasean aldeak daude batetik bestera.

Hiru ardatz nagusi bereiz daitezke:

### Kideak

#### *Estatutuen egokitzapena eta emerituak*

Oraingoz aldaketak euskaltzain osoen artekoak dira. Kategoria berri bat sortu da, emerituena, 75 urtetik gorakoentzat, kide osoen eskubiderik galdu gabe. Kide berriak hartu ahal izatea ekarri du horrek, euskaltzaingoa berritzeko.

Emerituak izendatu ahala, hutsarte berriak aldarrikatu dira eta hutsarteok betez euskaltzainen kopurua handitu egin da. Abantaila hirukoitza du handitzeak: quoruma osatzeko estutasun gutxiago izango dela, batetik; bestetik, odol berritu eta gaztetu egingo dela Akademia; hirugarrenik, gainera, baliabide pertsonal gehiago lortzen da proiektu eta lan berriei aurre egin ahal izateko. Sei lagun berri sartu dira dagoeneko, euskalgintzako alor desberdinetakoak: hizkuntzalaritza, literatura, ingeniariaritza, hezkuntza, idazletza.

Nobedade bakarra ez da kopuru aldaketa. Hautapen irizpidea ere berria da, 1949an Krutwigek planteatu zuen ildo bertsukoa: 24 kideetatik hamarrek ez dute zertan euskalkien ordezkari izan behar. Beren merituengatik aukeratzen dira, jatorrizko euskalkia kontuan hartu gabe. Euskaltzainen profil intelektual eta profesionala zabaltzearekin batera desberdindu egin daiteke modu horretan.



### ***Euskaltzain urgazleak***

Gainerako euskaltzainak, urgazleak bereziki, Euskaltzaindiaren zereginetan integratzeko, esku-hartze zabalagoa emateko borondatea du zuzendaritzak. “Euskaltzaindiratu” beharra aipatzen du euskaltzainburuak. Errelebuari begira kide berriak sartzea ere planteatua dauka. Sartze horrek, ordea, ordenatua behar du, ez nolana egin, proiektuen arabera.

### **Lanak**

Bi helburu ezarri dira horretarako. Lehen, goi-mailako ikerketa bultzatzea, hizkuntzaren arau, gomendio eta abarren oinarri izan behar duena. Hartara, egitasmo berriak proposatu dira. Horrekin batera ere, bigarren helburua da Euskaltzaindiaren lan akademikoa euskalgintzan ari direnekin kontrastatzea, harreman sendoak izan daitezen bi-bion artean.

### ***Ikerketa-egitasmo berriak***

Egitasmoen formula berez ez da berria Euskaltzaindiaren jardunean. Egitasmo gehiago eta beste eite batekoak proposatzen dira orain.

Hiru moldetan lan egin ohi da Euskaltzaindian: lantaldetan, batzordetan edo egitasmotan integratuta. Oraingo zuzendaritzak egitasmoen ildo bultzatu nahi du, batzordeak baztertu gabe. 70eko hamarkadatik hona batzordetan lan egin izan da gehienbat. Ez dira desagertuko. Baina lan egiteko bestelako sistema bat indartu beharra ikusten du zuzendaritzak: egonkorragoa, eraginkorragoa, sistematikoagoa, profesionalagoa, nolabait esan. Egitasmoetan aritzen direnak kontratupeko langileak dira, eguneroko ordutegi laborala dutenak.

Barne kudeaketa ere orain artekoaren guztiz berria da. Proiektuaren arduraduna ez da delegatu edo ordezkari soil, baizik eta zinezko kudeatzaile erantzukizun guztiekin bere taldearekiko eta hartzen dituen konpromiso guztiekiko. Merkataritza-kontratua egiten da arduradunarekin.

Zertarako egitasmoak? Gizarte modernoak Euskaltzaindiari eskatzen dizkion emaitzak ganoraz eta garaiz burutzeko, modu egokia izan liteke egitasmoena, bere garaian batzordeena izan zen bezala. Hori bateko. Eta besteko: Euskaltzaindiak bere esparru propioa errebindikatu eta landu behar du, bere-berea dena, euskaltzainburuaren hitzetan hau: “goi-mailako ikerketa-bideak eta horien aplikazioak uztartu eta gizarteratzea, euskararen normatibizazio eta normalizazioa bultzatu nahian”. Eta horretarako ere lan-molde eraginkorra izan liteke egitasmoena.

### ***Euskalgintzarekin harremanak***

Euskaltzaindi berriak ez dio errealitateari muzin egin nahi eta ez du bolizko dorrean bizi nahi. Aitzitik, euskalgintzan ari diren erakunde anitzekin harremanak estutu nahi ditu, hitzarmen bidez nahiz beste formularen bat erabiliz.

Zuzeneko harreman horiek helburu bat baino gehiago lortu nahi dute: elkarren berri jakitea, Euskaltzaindiak bere arau eta gomendioak zabaltzea, eta baita ere euskalgintzako eragileen iritziak, kritikak, iradokizunak biltzea. Elkarrekin lan egin, lankidetzaren oinarriak finkatu.

Lauzabost urteotan dozena pare bat talde edo elkarte zein erakunderekin lotu ditu harremanak Euskaltzaindiak, kasuan kasuko helburuak finkatuz, zehaztuz. Tar-



### **Osoko bilkura**

Euskaltzaindiaren osoko bilkura arrunta, 2006ko urriaren 27an



tean daude euskalgintzakoak: editorialak, egunkariak, irratiak, telebistak, irakaskuntzakoak.

Oraintxe bertan euskalgintzarekiko sintonia areagotze aldera, bidean da galdeketa zabal bat Euskaltzaindiaren irudia euskalgintzan nola islatzen den jakiteko. Emaitza horiek erakutsiko diote Euskaltzaindiari gizarteak nola ikusten duen, nola baloratzen duen bere lana, zer eskatzen dion aurrera begira.

### **Finantzabideak/Barne kudeaketa/Zabalkundea**

Erakundearen kudeaketari dagokionez, hiru esparrutan ari da lantzen une honetan Euskaltzaindia:

#### ***Finantzabideak: egonkortasun ekonomikoa bermatzea***

Egitasmoak aurrera eraman ahal izateko, finantziario nahikoa beharko da, bistan da. Eta gehiago: jarraitutasuna eskatzen duten proiektuak izaki, epe ertain edo luzeak, kontratu baldintza estuegiek *de facto* ukatu egiten dute proiektuen garatzea. Horiek malgutzea proposatzeko asmoa du Euskaltzaindiak. Saihestu beharko litzateke proiektua burutu aurretik moztu behar izatearen arriskua, kontratu motaren erruz, zurrunegia dela eta.

#### ***Barne kudeaketa***

Orain arteko egiturak premia berriei erantzun beharko die aurrerantzean. Horretarako hobetu behar dira erabakimen prozesuak eta barne-kudeaketa azkartu. Bide horretan dabil Euskaltzaindia azken urteetan, kudeaketarako baliabide berriak barruratuz eta berebiziko ahaleginak gauzatu, gizarteari zor zaion zerbitzua bermatzeko.

#### ***Komunikazio estrategia***

Erakunde moderno batek ezin du bere baitan itxia egon. Etxeko hedabideen birtatez bideratu ohi den informaziotik harago doa komunikazioa. Harremana eskatzen du, feedbacka. Erakundea gizarteratzea nahi bada, euskararen mundutik kanpo ere, horrek estrategia bat eskatzen du. Komunikazioa areagotu beharko du Euskaltzaindiak hedabideekin, unibertsitateekin, erakunde publiko eta pribatuekin, industria kulturalarekin, eta batez ere euskararen eta euskal kulturaren arlokoekin.

Euskaltzaindiaren irudia eta posizionamendua hobetzea dute helburu arlo honetako ekintzek.

#### **Labur-zurrean**

Lehenbiziko egunean ideia programatiko huts zirenak jada mamitzen ari dira, gorpuztuz doaz, bidea egiten. Kontua da nola asmatu, nola asmatu aldi berean auzo globalean eta euskalgintzaren auzo txikian.





**Andres Urrutia**  
Euskaltzainburua

## Andres Urrutiari elkarrizketa

“Aldatze bidean da Euskaltzaindia”

Andres Urrutia, 1954ko abenduaren 21ean Bilbon jaioa, notarioa da lanbidez. Deustuko Unibertsitatean Zuzenbide ikasketak egin zituen, ondoren oposizioak prestatu zituen eta, gairitu ostean, Ondarroako notarioa izan zen, 1981etik 1994 arte. Geroztik, Bilbon ari da notario lanean, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean irakasle aritzeaz gain. Zuzenbidea eta euskara, euskara eta zuzenbidea, bi mundu horietan mugitu da beti Urrutia, bi mundu horiek uztartzeko ahaleginean. Eta, bere hitzetan, “hortik etorri da beste guztia”.

Euskaltzaindian baino lehenago, UZEIn aritu zen Urrutia, arlo juridikoko lan lexikografiko eta terminologikoan, besteak beste *Administrazio Zirkulazio Hiztegia* (1983), *Zuzenbide Hiztegia* (1984) eta *Hirigintza Hiztegia* (1994) egin zituzten lan taldeetan. Nabarmentzekoak dira zuzenbidearen alorreko euskara teknikoari buruz idatzi dituen liburuak ere: *Euskara legebidean* (1990), bakarka, eta *Euskara, Zuzenbidearen hizkera* (1995), Gotzon Loberarekin batera. Testu juridikoen itzulpenean ere Gotzon Loberarekin batera aritu da, Deustuko Unibertsitateak argitaraturiko euskarazko zuzenbide eskuliburuak koordinatzen: Zuzenbide zibila, Merkataritza zuzenbidea, Zuzenbidearen historia, Lan-zuzenbidea... Eta Urrutiaren ardurapean argitaratu dira hainbat legeren euskarazko bertsiot eguneratuak, hala nola Espainiako Konstituzioa (2004), Zigor Kodea (2004), Kode Zibila (2004) eta Foru-lege zibilak (2002).

Zuzenbideari lotuta egin du lanik handiena, baina literatura sormenean eta itzulpenengintzan ere aritu da Urrutia. Bi narrazio liburu ditu argitaratuak —*Orrialdeak* (1992) eta *Berbondo* (2004)— eta, besteak beste, James Joyce, J.R.R. Tolkien, Méndez Ferrín eta Alvaro Cunqueiro idazleen hainbat testu itzuli ditu. Gainera, euskarazko autore klasiko batzuen edizioak ere prestatu ditu: Juan Bautista Eguskitzaren *Gizarte-auzia. Ugazaba ta langille arteko goraberak* (1991) eta Eusebio Erkiagaren lanen bilduma, *Berbalauaren kulunkan* (2001).

1991n izendatu zuten euskaltzain urgazle, eta handik sei urtera, 1997ko martxoaren 21ean, euskaltzain oso. Alfontso Irigoienek lekua hartu zuen eta sarrera hitzaldia Bilbon egin zuen: “Legearen zirrikituetatik barrena: ahozkotik idatzizkora”. Jose Antonio Arana Martijak erantzun zion. Akademiaren barnean hainbat ardura izan ditu geroztik: Jagon sailburu, Sustapen batzordeburu, Corpus batzordeburu, Egungo Euskararen Bilketa Sistematiakoaren azpibatzerdeko buru, Lege azpibatzerdeko buru...

2004ko abenduaren 17ko batzarrean hautatu zuten Andres Urrutia Euskaltzaindiko zazpigarren lehendakaria. Jean Haritzelharren lekukoa hartu zuen horrela, 2005eko urtarrilean agintaldiari ekin zionean. Euskaltzaindia biziberritzeko eta garai berrietara egokitzeko asmoarekin heldu zion ardura berriari, eta asmo berarekin jarraitzen du orain, 2009an bigarren agintaldiari ekin dionean.

**1997an euskaltzain oso izendatu zintuztenean, nolako Euskaltzaindia aurkitu zenuen zure hasiera hartan?**

Adinez nahiko aurreratua eta lan erritmo geldo edo lasaian. Argi ikusi nuen, eta ni bezala beste jende askok ere bai, bazela halako *decalage* bat han egiten zenaren eta gizarteak eskatzen zuenaren artean. Erakunde hauek badute euren dinamika, bere-

### BERRITZEA

“Behar-beharrezkoa zen jende berria sartzeko formula bat asmatzea, eta emerituen bitartez lortu genuen”



berezkoa, eta dinamika horrek batzuetan geldotasuna ekartzen du. Tradiziotik datozen inertzia handiak dira, baina XIX. mendean eta XX. mende hasieran akademiak modu batean ulertzen ziren, eta beste ulerkerak eman behar diogu Euskaltzaindiari, XXI. mende hasieran hizkuntza bera eta hizkuntzaren beraren egoera soziolinguistikoa, soziologikoa eta politikoa ez baitira akademia klasiko batenak bezalakoak. Gizarteak eskabide batzuk baditu, eta akademiak, beste eragileekin batera, horiei erantzun egin behar die. Bide horretan ari gara, hain zuzen ere *decalage* hori ahal den neurrian eta moduan orekatzeko ahaleginetan.

***2005. urtean euskaltzainburu izendatu zintuzten, eta Jean Haritzelharri lekukoa hartu zenion. Zein ziren orduan zure asmoak?***

Hiru helburu nagusi nituen. Lehen helburua zen Euskaltzaindia eraberritzea, pertsonen ikuspegitik. Bigarren helburua zen euskararen ikerkuntza eta euskararen instituzionalizazioan sakontzea, hau da, Euskaltzaindiak hasiera-hasieratik dituen bi sailetan, Iker eta Jagon sailetan, sakontzea. Eta hirugarren helburua zen Akademiaren finantziarako eskema orekatu eta egonkorra sortzea.

***Goazen helburuz helburu. Zer neurritan bete da lehen helburua, Euskaltzaindia berritzearena?***

Behar-beharrezkoa zen jende berria sartzeko formula bat asmatzea, eta emerituen bitartez lortu genuen: 75 urte betetzen dituen euskaltzaina emeritu bihurtzen da eta, emerituak Euskaltzaindian euskaltzain oso jarraitzen badu ere, euskaltzain oso berri bat izendatzeko hutsartea aldarrikatzen da. Horrek egundoko iraultza ekarri dio Euskaltzaindiari. Bestela, egongo ginateteke orain dela bost urte geunden moduan: 24 euskaltzain, baina urtetan oso aurreratuak, eta adin piramide oso desorekatua. Pertsonen berriztatze prozesu hori bukatutzat eman dezakegu, lau edo bost urteko eperako.

***Orain 29 euskaltzain oso zarete, haietako bost emeritu. Kopuru egokia da, Euskaltzaindiaren eginkizunetarako?***

Ez nintzateke ausartuko esaten egokia zer den. Nahikoa da, Euskaltzaindiak eskuartean dituen lanei erantzuteko.

***Urte gutxitan kide berri batzuk sartu dira, eta euskaltzainaren soslaia aldatu egin da, neurri batean. Zer ezaugarritako euskaltzainak bilatu dituzue?***

Batetik, gizartean mugitzen ari den euskalgintzaren jendea sartu da, eta bestetik, euskararen ikerkuntza dabilen jendea. Jende askok uste du akademia bat filologoen bilkura bat dela, eta gehien-gehien jota, idazle galduren bat. Ez. Hori ere bada, dudarik gabe, baina horrekin batera, eta askoz gehiago euskara bezalako hizkuntza minorizatu batean, gizarteak daraman martxa horri nola edo hala isla egin behar diogu hemen. Oreka bilatu da: batetik, ikerkuntza, eta bestetik, gizartearen arlo ezberdinak, hala nola irakaskuntza, euskararen industriak, komunikabideak eta abar. Oreka horri eutsi behar diogu. Euskara ez da bukatzen ikasgeletan. Euskara kalean bizi da.

***Euskaltzain urgazleak Euskaltzaindiko parte dira, formalki behintzat. Praktikan ere bai?***



**Euskaltzaindiko kideak**

Euskaltzainburua euskaltzainekin solasean 2009ko martxoan, Urkiolan, Barne Jardunaldietan

---

**EUSKALTZAIN BERRIAK**

“Batetik, gizartean mugitzen ari den euskalgintzaren jendea sartu da, eta bestetik, euskararen ikerkuntza dabilen jendea”





Ez behar bezainbeste. Nonbaiten defizita baldin badugu, hor da: urgazleen aberastasun hori nola ekarri, nola barruratu, zer bide eman, gure zereginetan parte izan daitezten. Horretan ez da asmatu. Batzordeetan eta egitasmoetan lan egiten dute, baina ahots gehiago izan beharko genituzke. Oso jende prestatua dago: literaturan, filologian, gramatikan, informatikan eta beste lanbide askotan... Neurri batean lortzen dugu batzordeetan-eta sartzea, baina ez dugu sortu sare bat, modu bat, jende hori ekartzeko.

***Zure bigarren helburua Iker eta Jagon saileko lanetan sakontzea zela esan duzu. Aldaketa garrantzitsuak egin dituzue arlo horietan, ezta?***

Gauza batzuk aldatuta daude, edo aldatze bidean. Etxalarko Barne Jardunaldian ere landu genuen gai hori eta oraintxe bertan Urkiolan ondu dugu aldaketa prozesua, barne erregelamenduaren eta funtzionamenduaren ikuspegitik. Esaterako, batzorde klasikoan aldamenean, egitasmoak ere ari gara sortzen, hau da, ikerketa guneak. Eta jakin behar dugu osoko bilkurak arinago egiten, osoko bilkura horietatik gauza batzuk ateratzen, batzorde espezializatueta landuak izan daitezten. Hori da akademia guztietan dagoen eskema. Barne egituratzearen ikuspegitik lehen pausoa eman zen, pertsonak berritzearena, eta orain markoa bizkortu behar dugu, gure erabakiak eta mezuak ahalik eta lasterren irits daitezten gizartearengana.

***Batzorde klasikoetatik egitasmoetara: zergatik eta zertarako?***

Luis Villasantek jarritako eskema dugu batzordeena: gaiak banatu eta gaien arabera lan egin. Batzordeak ondo daude, lanean jarraitu egin behar dute, baina batzordeak biltzen dira hilean behin edo bi hilean behin, gehienez ere. Euskaltzaindiak, berak lantzen dituen alorretan, eguneroko lana egin behar du: egitasmo zehatz batzuk, zuzendari batzuk eta langile batzuk. Lehen ere hasi ziren halakoak bi proiektu nagusitan: Orotariko Euskal Hiztegia eta Hizkuntza Atlas. Baina hori areagotu egin behar da.

Zertarako galdetzen duzu. Hain zuzen ere, Euskaltzaindiari normatibizazio eta normalizazio lanean bere bidea bermatzeko, oinarri bat izateko gure gaietan. Espazio bat, gune bat, bermatu behar diogu Euskaltzaindiari egitasmoen bidez. Baina ez eskusibitatez aritzeko, oso zabal baizik. Alfer-alferrik ariko da Euskaltzaindia, isolaturik baldin badago.

***Egitasmo horietan, zer neurritan aritu behar du Euskaltzaindiak bere kabuz eta zer neurritan elkarlanean?***

Bi eratarik jokatu behar dugu. Egitasmo batzuk etxean egitekoak dira. Adibidez, Euskal Corpus Onomastikoa, Nafarroako, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Iparraldeko toponimia eta onomastika baliabide guztiak informatikaren arabera biltzen dituen corpusa. Baina badira beste egitasmo batzuk gaur egun Euskaltzaindiak berez egin ezin dituenak: demagun, Lexikoaren Behatokia. Hedabideetan hitzek gaur egun zer ibilbide egiten duten aztertzen duen Behatokia, dela *Berria*-n, *ETBn*, *Argia*-n eta abarretan. Adi egon behar dugu lexikoaren ikuspegitik hitz berriak nola sortzen diren. Lexikografia eguneratu egin nahi dugu, eta premien arabera jokatu. Euskaltzaindiak berak bere kabuz ezin du egin, baina horretan ari diren beste batzuk koordinatu ditzake. Lexikoaren Behatokian, Euskaltzaindiaren koordinaziopean jarri ditugu IXA taldea, Elhuyar eta UZEI. Gu ez gara merkatuan, eta nola-halako espazio neutroa eta itzal handikoa eskaintzen dugu, indarrak biltzeko, kasu honetan hirurentzako onuragarria izango den proiektua gauzatzeko. Eskema honetan ere sartu behar dugu gure burua.

---

## URGAZLEAK

“Neurri batean lortzen dugu batzordeetan-eta sartzea, baina ez dugu sortu sare bat, modu bat, jende hori ekartzeko”

---

## LAN EGITURA

“Batzorde klasikoan aldamenean, egitasmoak ere ari gara sortzen, hau da, ikerketa guneak”



***Hizkuntzaren normatibizazioaren arloan inork ez dio Euskaltzaindiari itzalik egiten, eta garbi dago zein den bere eginbeharra. Baina hizkuntzaren ikerkuntzaren arloan, bakarrik ez dagoenez, garbi dauka zein den bere lekua, bere lan eremua?***

Argi dauzkagu, gutxienez, bizpahiru ardatz nagusi. Bat, Euskaltzaindiak ikerketa orokorra ez du egingo, ez baita bere zeregina. Ikerketa helburutua egingo du, hau da, gure eginkizunetarako behar ditugun ikerketak. Bi, egitasmo batzuk egingo ditu etxean, ahal duen neurrian eta egingarri ikusten duen moduan, batez ere corpusaren ikuspegitik, baina beste egitasmo batzuk egingo ditugu ari direnekin kolaborazio bete-betean. Esan dizut adibide bat lehen. Hiru, eta garrantzitsua: Euskaltzaindiak ikerketa egiten duenean, ikerketa nazionala egiten du. Hau da, sakabanatuta dagoen herri honetan badira proiektuak inork gutxik egingo dituenak, eta baten batek egin behar dituenak. Proiektu horiek batasuna eskatzen dute, euskararen eta Euskal Herriaren aldetik. Toponimia eta onomastika egin behar baldin badugu, egin behar dugu ikuspegi oso batekin. Eta berdin, beste hainbat arlotan eta egitasmotan. Nazional hitza ez dut erabiltzen une honetan zentzu administratibo-politikoan. Erabiltzen dut esanahi kulturalen. Horretan aritu gara azken urteotan, eta horretan aritu beharko dugu hurrengoetan. Zentzu honetan Euskaltzaindiak egin behar duen koordinazio lana garrantzitsua da, batzuetan lotu egin behar ditugulako, batu eta koordinatu, lurralde desberdinetako botere politiko-administratiboak.



#### **Kargu aldaketa**

2005eko urtarrilean hartu zuen Andres Urrutiak Jean Haritzelharren lekukoa.

***Euskararen profesionalak badira irakaskuntzan, idazkuntzan, kazetaritzan, itzulpengintzan... Euskaltzaindiak haien beharrei ondo erantzuten diela uste duzu?***

Neurri batean erantzun bat ematen diegu. Neurri batean. Hobetu daiteke dudarik gabe, eta hobetu behar dugu. Eta bilatu behar ditugu bideak interaktibitatea, bien arteko harremanak, errazteko. Gure webgunean ahalegin berezia egin dugu, nahiz eta oraindik asko falta informazio gehiago izateko, eskuragarriago izateko eta abar. Baina ez dut uste lortu ditugunik mundu profesional horren eta Euskaltzaindiaren arteko komunikazio bide errazak. Oraindik goiz da, beharbada gauzak ez daude umotuta, baina bide horiek bermatu egin beharko lirake, eta bide errazak izan beharko lukete, arinak. Siadecorekin azterketa bat egiten ari gara, hain zuzen ere, bide honetan. Jendeak zer esaten du? Diagnostikoa izango dugu, orain arte izan ez duguna. Eta diagnostiko horren aurrean, neurri batzuk hartu beharko dira.

***Zer eratako neurriak?***

Baldin eta etortzen bada Siadecoren diagnostiko hori, nire asmo bete-betea izango litzateke euskalgintzaren behatoki bat sortzea, hain zuzen ere interaktibitate hori bermatzeko. Adibidez, euskalgintzaren erakunde eta elkarte zenbaitzuk urtero edo bi urtean behin egingo lukete txosten bana esanez, "hau ez dugu ondo ikusten eta hau bai..."? Kanalak behar dira, kanal eragingarriak. Errespetuzko kanalak badira hor: urgazleak badira, hemen hiruro edo lau txapel ditugu bakoitzak, leku askotan gaudelako, baina kanal bat-batekoagoak behar ditugu, arinagoak. Baina, oraingoz, diagnostia falta dugu. Horretan ari gara.

---

#### **ELKARGUNEA**

***"Gu ez gara merkatuan, eta nolahalako espazio neutroa eta itzal handikoa eskaintzen dugu, indarrak biltzeko"***

### Euskaltzaindia eta Instituto Cervantes

Euskaltzaindiak eta Instituto Cervantesek lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten 2005eko uztailaren 28an.



#### *Euskaltzaindiaren osoko bilkuretako funtzionamendua aldatu nahi duzu. Zertan?*

Osoko bilkurak subiranotasun osoa dauka, hori gauza bat da. Baina beste gauza bat da formula batzuk bilatu behar direla egiten den lana eragingarri izan dadin. Gaur egunean oso jende gutxi ulertuko luke, esaterako, lan lexikografikoa 30 pertsonaren artean egitea batzar batean. Ez. Ezin dugu horrela egin. Hori batzorde baten bidez egin behar da, eta batzorde horri eman behar zaio ahalmen osoa. Gure batzarrek askoz gehiago izan beharko lukete lurralde desberdinetako kezka jasotzeko eta euskaltzainek informazioa jasotzeko.

#### *Funtzionamenduaren ikuspegitik, beste akademiaren baten eredurik baduzu?*

Niretzat eredugarria Kataluniakoa da: Institut d'Estudis Catalans eta, horren barruan, Secció Filològica. Ereduak Katalunia eta Galizia dira, aspaldiko akademiak. Gramatikaren, hiztegiaren eta literaturaren ikuspegitik beste erritmo bat dute, batez ere Kataluniakoak. Horrelako eskema batera joan behar dugu.

#### *Teknologia berrietara egokitze horretan zer moduz ari da Euskaltzaindia?*

Euskaltzaindiak izan ditu bere ajeak puntu honetan. Orain dela bi urte Etxalarren Informazio Teknologiarren Batzordea sortu zen. Batzorde txikia, baina eraginkorra. Pausoak eman dira, webgunea hobetu egin dugu, oraindik gauza asko daude hobetzeko, baina horren beharra barruratu dugu Euskaltzaindian. Behar-beharrezkoa dugu teknologia berrien mundua. Lehen corpus erreferentzialak aipatu ditut, uste dudalako corpus lexikografiko horiek eta bestelako corpusak direla gauzarik nabarmenenak. Oro har, filosofiaren ikuspegitik, corpusen bila goaz. Nahi dugu lan egin, baina lan egin gaurko teknologien arabera. IKT batzordea bete-betea doa. Ondarroan esaten dugun bezala, *abantin* doa.

#### *Euskaltzainburu gisa helburutzat dituzun eginkizunen artean aipatu duzu, el-karrizketa hasieran, euskararen instituzionalizazio mailan sakontzea ere. Zer esan nahi duzu?*

Sarri ahaztu egiten dugu euskara non bizi den, eta ahaztu egiten dugu zorioneko Euskal Herri honetan hiru errealitate juridiko-administratibo baditugula. Instituzionalizazio horrela ulertzen dut: presentzia eta eragina, bai Iparraldean bai Na-

---

### NAZIO IKUSPEGIA

“Euskaltzaindiak ikerketa egiten duenean, ikerketa nazionala egiten du, nazionala ikuspegi kulturalen”



farroan bai Euskal Autonomia Erkidegoan, beharrezkoak ditugulako euskararen ikuspegitik instituzio batzuk, inorenak baino guztionak direnak.

***Ikerkuntzan bezala, Jagon saileko lanetan edo hizkuntzaren instituzionalizazio arlo honetan ere Euskaltzaindia ez dago bakarrik. Hor dira erakunde publikoak eta euskararen gizarte erakundeak eta elkarteak... Arlo honetan Euskaltzaindiak zer eginkizun du?***

Batetik, presentzia hiru lurralde politiko-administratiboetan. Bigarrenik, kolaborazioa; hau da, hitzarmenak elkarte horiekin. Eta hirugarrenik, sustapena; hau da, Euskaltzaindiaren ahotsa entzunaraztea, jardunaldien bitartez, argitalpen bitartez eta abar. Ari gara zabaltzen, eta ikusten Euskaltzaindiak ez duela izan behar gauza itxi bat, non lau jakintsu biltzen diren, baizik eta besteek euskararen ikuspegitik sortzen dutena barruratzen duen erakunde.

Euskaltzaindiak hizkuntza politikaren ardura ez du, baina hizkuntza politika horretan lagungarri izan daiteke. Eta lagungarri izan daitekeen neurrian, lagungarri izan nahi du. Euskaltzaindiak ez du errebindikatu behar hizkuntza politika jakin bat. Euskaltzaindiak egin behar du euskararen ikuspegitik aurrerakuntza posible guztietan egon, bere ahotsa sentiarazi, beste erakunde eta elkarteekin elkarlana sustatu, eta gero, ahal dugun neurrian, sentsibilitate ezberdinak bildu.

***Sustapen lanean adierazpenak egin izan ditu Euskaltzaindiak eta gobernuen erabakiak kritikatu ere bai. Zein da Euskaltzaindiaren irizpide nagusia? Euskararen ofizialtasun osoa da iparra?***

Dudarik gabe. Euskaltzaindiaren jokoa, behintzat zuzendaritza honen ikuspegitik, euskararen ofizialtasuna bermatzea da, eta euskararen aitzinamenduaren aldeko ekintza guztietan ahal den neurrian parte hartzea. Adierazpenak horren lekuko dira. Euskaltzaindiak bere ustea planteatzen du horrelakoetan. Eta, aldi berean, Euskaltzaindia erakunde ofiziala baldin bada, jakin egin behar du botere publikoekin batera lanean aritzen, bakoitza bere nortasunetik abiatuta. Eta, aldi berean, euskalgintzan dabilen jendearekin ere lan egiten jakin behar du. Ez da beti erraza izaten. Euskaltzaindiak dituen baldintzen artean, mugez artean, hori sartzen da: erakunde ofiziala eta publikoa den neurrian hala jokatu behar du, baina ofizial eta publiko izate horrek ez dio ahantzarazi behar euskalgintza ere badela. Hori ahazten baldin badu, esklerotizazioa dator. Jakin egin behar du Euskaltzaindiak euskalgintzan zer dagoen: hori hartu eta gero, beharbada, maila instituzionalean defenditu, babestu, itzala eman.

***Beste hizkuntzen akademiekin harremanak estutzeko eta elkarlana bultzatzeko asmoa ere baduzue. Zer dela eta?***

Garrantzitsua izango litzateke beste akademia batzuekin lan egitea. Baditugu gai batzuk erkide direnak, lexikografiaren ikuspegitik, gramatikaren ikuspegitik, hizkuntza minorizatuen instituzionalizazio mailan eta abar. Badaukagu zer esana eta zer egina. Bide horretatik joan nahi nuke, ez bakarrik Estatu mailan, Europa mailan ere bai, hasteko behintzat. Uste dugu gauzatu behar dela bi urtean behin to-

## EREDUA

“Niretzat eredugarria Kataluniakoa da: Institut d’Estudis Catalans eta, horren barruan, Secció Filològica”



## OEhren aurkezpena

Orotariko Euskal Hiztegiaren aurkezpena egin zen 2005eko azaroaren 18an.

## SUSTAPENA

“Euskaltzaindiak hizkuntza politikaren ardura ez du, baina hizkuntza politika horretan lagungarri izan daiteke”

### Nafarroako Unibertsitatean

Iruñean, Nafarroako Unibertsitatearen Udako Ikastaroan Andres Urrutiak parte hartu zuen 2005eko ekainaren 28an.

paketak, biltzarrak edo mintegiak antolatuz, esperientziak trukatzeko eta esperientzia horiek gizarteari transmititzeko. Egingarri da hori. Zerbait egin dugu, baina hori indartu egin behar da. Gure artean harremanak baditugu, eta onak, baina harreman horiek gauzatu egin behar dira beste modu batez. Beste ardatza Europa mailakoa da: egoera berean gauden hizkuntzen akademien artean, edo parekide izan daitezkeen erakundeen artean, harremanak egitea. Oraindik lantzeko dago.

*Zure hirugarren helburua Euskaltzaindiaren finantziarioa sendotzea eta egonkortzea zen. Zertan da hori?*

Euskaltzaindiak bost diru iturri ditu: Eusko Jaurlaritzarekin eta hiru foru aldundiekin dugun hitzarmen markoarekin Euskaltzaindiaren aurrekontu orokorra bermatzen da, eta egitasmoen zati handi esanguratsu bat; bigarren multzoan, Madriletik etortzen diren diru-laguntza orokorrak daude; hirugarrenean, proiektu zehatz batzuetarako eta proiektu orokorretarako Nafarroako Gobernuak ematen dituenak; laugarrenean, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikotik datozenak; eta



bosgarrenean, gure salmentak, pertsona partikularren ekarpenak, udalenak, pertsona juridiko batzuenak...

Eskema horretan, garrantzitsuena da Eusko Jaurlaritzarekin eta diputazioekin egindako finantziario hitzarmena. Horren barruan komeniko litzateke hitzarmen arrunt batetik kontratu programa batera joatea. Kontratu programa horrek helburu jakin batzuk baditu, eta helburu jakin horien arabera jokatuko litzateke.

*Une honetan baldintza ekonomiko egokietan ari da Euskaltzaindia?*

Bai, baina hobetu daiteke, ez horrenbeste diruaren ikuspegitik, ez bada antolakuntzaren eta egituratzaren ikuspegitik. Zuzendaritzak asmoa dauka ikerkuntza proiektuak bilduko dituen ikerlegiak bultzatzeko, lurraldez lurralde. Horrek aha-lerin bat eskatzen du instalazioen ikuspegitik.



### Hitzarmena herri erakundeekin

Euskaltzaindiak 2005eko urriaren 7an hitzarmen berria sinatu zuen Eusko Jaurlaritza eta hiru Foru Aldundiekin.

***Euskaltzaindiak lege aitortpen osoa du Hego Euskal Herrian, baina Frantzian onura publikoko erakundea da. Zer neurritaraino asetzen du Euskaltzaindia aitortpen horrek?***

Euskaltzaindia Frantzian aitortua izan da, berrikitan, orain dela urtebete Euskararen Erakunde Publikoarekin sinatu duen hitzarmenaren bitartez. Hona etorri ziren prefeta eta abar. Orain, Euskaltzaindia aitortua izango dela Frantzian hemen aitortua den moduan? Horretarako urte batzuk pasatuko dira, Frantziako mentalitatea oso ezberdina baita. Irabazi asmorik gabeko elkarte estatusa dugu. Ofiziala ez bada, nahiko harreman sendoa dugu Euskararen Erakunde Publikoarekin. Nahiko genuke beste ofizialtasun bat eskuratu, baina nahiko genuke ere euskara ofiziala izatea Iparraldean, eta horretarako adierazpenak egin ditugu behin baino gehiagotan.

***Harreman gorabeheratsuak izan ditu Euskaltzaindiak Nafarroako Gobernuekin. Orain zer moduz?***

Harremanak ondo daude, egonkortuta, badago elkarrekiko errespetua, joko zelaia markatua dago. Komeniko litzateke hitzarmen horretan aurrerapauso batzuk ematea, eta beharbada komeniko litzateke Nafarroako euskalgintzako eragile kulturalak horretan ere inplikatzera. Ez da izango bide erraza, Nafarroan dauden ezaugarriak kontuan hartuta, baina egin beharra dago. Euskaltzaindiak hor bitartekaritza eta arartekotasun lana egin behar du.

***Eusko Jaurlaritzan aldaketa garrantzitsua gertatu berri da, Patxi Lopezek lehendakaritza hartzearekin. Eragin diezaioke ezertan Euskaltzaindiari? Egokitu beharko du Euskaltzaindiak egoera berrira?***

Pertsonen izateko erak eta tenoreak beti ezberdinak izaten dira. Beraz, pertsona ezberdinak ditugu aurrean eta pertsona ezberdinekin hitz egin beharko dugu. Euskaltzaindiak bere konpromisoei eutsiko die, pentsatzen dut gobernu berriak ere gauza bera egingo duela. Euskara gure gizarte honetan balio bat da. Ez dut espero inongo kontrako politikarik.

***Hizkuntzaren normatibizazioa izan da Euskaltzaindiaren lanaren ardatza sortu zenetik eta, bereziki, Arantzazuko Biltzarretik. Lan horietan aurrera egin duen***




### EITBrekin hitzarmena

Euskaltzaindiak eta EITBk lankidetzara hitzarmena sinatu zuten 2007ko urtarrilaren 23an.

### ELKARLANA

“Euskaltzaindiak jakin egin behar du botere publikoekin batera lanean aritzen eta,aldi berean, euskalgintzan dabilen jendearekin”



### **EKTrekin hitzarmena**

Euskaltzaindiak eta Euskarazko Komunikazio Taldeak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten 2008ko urriaren 31n.

### **ARAUGINTZA**

“Euskaltzaindia eskertuta dago: eman dituen orientabideak, kritikak kritika, ondo hartzen ditu gizarteak”

*eta egingo duen neurrian, Akademiak etorkizunean beste lehentasun batzuk izango dituela uste duzu? Beste akademia eredu bat izango da?*

Lan hori oraindik bukatu gabe dago. Eta ez dago bukatzeaz. Normatibizazio lana ez da sekula santan amaitzen. Beste gauza bat da erritmoa zer nolakoa den. 1968an behar-beharrezkoa zen normatibizazio lana egitea. Modu behar-bada gogor batean beharrezkoa zen arau berria ateratzea eta gureratzea. Marko hori badugu, normatibizazioak joko zelaia ematen digu. Euskaldunok badakigu joko zela horren barruan jokatu ahal dugula. Baina, jakina, joko zela horretan badira batzuk aurrean jokatzen dutenak eta beste batzuk atzean jokatzen dutenak. Batzuek, esaterako, lege gotorren itzulpenak egingo ditugu,

beste batzuek olerkiak egingo dituzte, beste batzuek testu esperimentalak, eta beste batzuek irakaskuntzaren testuak... Euskaltzaindiak egingo balu araukeria, besterik gabe araua-araua... alferrik jokatuko luke. Euskaltzaindiak markoa eman behar du, joko zelaia zehazten jarraitu behar du.

*Euskaltzaindiaren irizpideek, oro har, harrera ona dutela uste duzu?*

Euskaltzaindiak nahiko harrera ona izan du. Jendeak arauak eta gomendioak bete izan ditu. Oso zabal eta oso abegikor jokatu du gizarteak Euskaltzaindiarekin. Euskaltzaindia eskertuta dago: eman dituen orientabideak, kritikak kritika, ondo hartzen ditu gizarteak. Beste batzuek esango dute: ez, orain grafia ez da errespetatzen, gazteen *euskalkikeria* hor dago... Baina hori belaunaldiaren arazoa da askoz gehiago, hizkuntzaren normatibizazioaren arazoa baino.

## Zuzendaritzako kideei hitza



Euskaltzainburuarekin batera, euskaltzainburuordeak, idazkariak, diruzainak, Jagon sailburuak eta Iker sailburuak osatzen dute Akademiaren Zuzendaritza. Bi galdera hauei erantzun diete guztiek.

### Egungo Zuzendaritza

Andres Iñigo, Beñat Oihartzabal, Andres Urrutia, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia eta Andoni Sagarna, Urkiolan, 2009ko martxoan

- 1) Euskaltzaindiak egin duen eta egiten ari den lanari buruzko zer balorazio egiten duzu?
- 2) Etorkizunari begira, zein izango dira zure ustez Euskaltzaindiaren lehentasunak?

**Beñat Oihartzabal.** Euskaltzainburuordea

“Garai bateko lan zikloa burutzera doa”

- 1) Galdea erakundearen sortzearen urtemuga kari egiten denaz gero, Euskaltzaindiaren lanari epe luzeko ikuspegi batean behatu behar zaiola uste dut. Gauzak horrela harturik, eta obra orori beti akatsak, edo zenbait gauza hobeki egin zitekeenik ere, kausi dakizkiokeela onartuz, ez da dudarik enetzat, Euskaltzaindiaren lana, azken lau hamarkadetan bereziki, biziki emankorra izan dela. Bai, gaurko gizarteari doakion hizkuntza eredu baten agerrarazteko baitezpadako norabideak eman dituelako, baita ere bere gain hartu dituelako bertzelako zenbait eginkizun, oinarrizkoak eta bertze nehork egin ez zitezkeenak, hala nola, bertzeak bertze, orenen euskararen moldatzeko baliagarri diren hiztegi eta gra-





matika lanak, herri hizkeren altxorra biltzen duen atlasa (azkenean laster argitaratzekoa), edo oraino onomastikakoak. Nire ustez, abiatzean gauzak zertan zeuden gogoan izanik, euskal gizarteak euskararen alde egin dituen lan handietan Euskaltzaindiak bere-bereak zituenak, garrantzizkoenak behintzat, franko ongi bete ditu.

- 2) Aitzineko galdeari jarraikiz, badirudi garai bateko lan zikloa bururatzera doala, egiteko nagusiak, edo bururatuak, edo gutienetik bidean jarriak izan direlako. Gisa horretan galde daiteke epe erdira zein izan daitezkeen Akademiaren lehentasunak. Dudarik gabe, seinale ona litzateke, etorkizunean gure Akademia, frantses edo espainol hizkuntzen akademiak bezala, mintzaira kontuetan gizarte ezagutza adierazten eta gorpuzten duen erakundea bertzerik ez balitz, edo pixkanaka ikerketa etxe bilaka baledi, araberako hautuak eginez lehentasunak finkatzerakoan. Horrek herri agintariak eta gizarteko bertze erakundeek osoki hizkuntzaren aldera duten erantzukizuna betetzen dutela adieraz lezake. Neurri batean horrelako zerbait gertatzen hasia da. Halere, urrun gaude hizkuntz egoera sano eta segurtatu bat izatetik, eta munduaren lasterrak mintzairak berak ere harrapatzen ditu, mila moldetan. Are urrunago, haizu banaiz erratera, gauzak Frantziako partetik ikusiz, non legeetan beretan molderik nabarmenean ukatuak baitira egun ere gurea bezalako hizkuntzei dagozkien oinarrizko eskubideak, eta hizkuntzaren galerak aitzina segitzen baitu. Nire iduriko, Euskaltzaindiak luzaz oraino segitu beharko du, bere izaeragatik berak bakarrik egin ditzakeen, edo euskararen lurraldearen aniztasun juridikoagatik hari bereziki dagozkion zerbitzuen egiten, haiei lehentasuna emanez.



**Xabier Kintana.** Idazkaria

“Desafioa baliabide informatikoetan daukagu”

- 1) Argi dago, batetik, Euskaltzaindiak egiten duen lanarekin, lerro nagusietan, bat gatzela euskaltzain gehienok. Bestela ez ginateke itsasontzi honetan sarturik egongo. Bere ahalaren arabera jarduten du Euskaltzaindiak, eta ez, beti, bere nahiaren arabera. Kontuan hartu, bizimodua aurrera ateratzeko, euskaltzainok, oro har, nork bere lanbidean jardun beharra dugula, eta horrek asko mugatzen du Euskaltzaindiari eta euskarari eskain diezaiokegun denbora. Diru eta giza baliabideak ere mugatuak ditugu. Edonola ere, euskararako liberaturik ez gauden arren, ahalik eta gehien saiatzen gara geure lanean.
- 2) Munduko gainerako hizkuntz akademien antzera, guk ere, teknologia berrien aurrerapenez baliatzen ikasi behar dugu euskararen eta euskal kulturaren onerako, maiz behar diren egokitzapenak eginez. Esanetatik eginetara igaro beharra daukagu, beste kultura-hizkuntzetan egiten diren lanak ere egiaz euskaraz burutzeko gai garela erakutsiz. Gaur egun desafioa baliabide informatikoetan daukagu, eta zinez esan dezakegu horretan buru-belarri ari garela.



**Jose Luis Lizundia.** Diruzaina

**“Programa-Hitzarmen egoki bat adostu behar genuke”**

- 1) Euskaltzaindiak egin duen lanen balorazioa oso ona da, nahiz eta, nire kasuan ezin nintekeen objektiboegia izan. L. Villasante, J. Haritxelhar eta A. Urrutiaren garaietako Zuzendaritzak ezagutu ditut eta, neurri baten edo bestean, parte hartu eta, gure hizkuntza Akademia euskal erakundeen esparruan aurreneko tokian jarri dute. Egiten ari dena ezagutzeko, pasa den martxoan egindako Barne Jardunaldietan aurkeztutako lan errendapen eta txostenak, martxan dauden edo berrikitan aurrean jarriko diren egitasmoak lirerateko lekukotasunik hobereenak. 1979an, Foruan, egin ziren lehen Barne Jardunaldietan hasi eta, aurretik, Urkiolan izan berri ditugun hamaseigarrenak aztertuz eta konparatuz, perspektiba historiko aberasgarria nabarmentzen da.
- 2) Etorkizunari begira, ene ustez, Euskaltzaindiaren lehentasuna, erakundearen gobernamentutik, alegia, Zuzendaritzatik, batez ere Diruzaintzatik, begiratuta, Herri Administrazioekin Programa-Hitzarmen egoki bat adostea litzateke, giza eta diru baliabideen jardura normalizatu bideratuz. Orokorri begiratuta, euskalgintzari zerbitzatzea, zeren eta euskara, gure aldameneko hizkuntza nagusi biek ez bezala, XIX. mendetik estatu administrazio boteretsuen babes eta guzti, egoera ez-normalizatu batetik atera beharra dagoelako eta, arlo horretan, bere Akademiak askoz eginkizun gehiago du. Langintza horretarako, hain zuzen, bere organigrama, Iker eta Jagon sailetarako batzorde akademiko espezializatuetan antolatua du, ikerketak bideratzeko; arauak, gomendioak eta irizpenak prestatzeko; egitasmoei segizioa egiteko eta, noski, egungo teknologiek baliatuz.



**Andoni Sagarna.** Iker sailburua

**“Berrikuntza eta hobekuntza aldia bizitzen ari da”**

- 1) 1968tik hona egin duen lanaren emaitza nagusia Euskara Batuak egin duen aurrerapena izan da. Denbora horretan egitasmo handiak ere izan ditu: OEH edo Atlasak, esate baterako. Orain berrikuntza eta hobekuntza aldia bizitzen ari da: jende gaztea sartu da, emakumeak ere bai, egitasmoen kudeaketa hobetzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiei etekin handiagoa ateratzeko, herri-erakundeekin eta euskalgintzako agenteekin harreman estuagoak izateko ahalegiarekin dihardu.
- 2) Euskaldunok hizkuntza normalizatu bat izateko behar ditugun tresnak garaiz garatzea eta gizartearen eskutan jartzea, hizkuntzaren jendaurreko erabileran garrantzitsuak diren entitateei (komunikabide, herri-erakunde, zerbitzuetako enpresa eta abarri) kalitatezko euskara erabil dezaten aholku ematea, ikerketa-arloan ereduagarria izatea egitasmoen kudeaketa aldetik.





**Andres Iñigo.** Jagon sailburua

“Euskaltzaindiak ezin dio euskalgintzari hutsik egin”

- 1) Ikuspegi orokor batetik erranen nuke Euskaltzaindiaren lanik handiena euskara batuaren erabakia hartu zenez gerotik egindakoa dela. Akademia gisa onarpen ona izan du herri erakundeetan eta gizartean. Berari dagozkion alorretan: ortografia, hiztegia, gramatika, onomastika eta abarretan egin duen lana eta eman dituen arau eta gomendioak erreferentzia eta gida izan dira Euskal Herriko alfabetatze-euskalduntze prozesuan, irakaskuntza sisteman eta, oro har, euskalgintzan: idazle, kazetari, irakasle, itzultzaile, teknikari, kultur eragile... Akademiak horretan segitzen du, baina azkenaldi honetan, bere barne estruktura berregituratzearekin batera, bulkada eta abiadura berri bat hartu du (euskaltzainburuaren gidaritzapean), jabeturik egungo beharrei erantzun egokia emateko bide berriak jorratuz joan behar dela, lan prozeduraren abiada azkartuz.
- 2) Akademiaren gidaritza erabat onartua izatea ez da abantaila txarra dagokion lanari ekinez, euskararen normalizazioaren bidean, gizarteari hizkuntzaren erabilerrako ahalik eta zerbitzurik onena eta egokiena eskaintzen segitzeko. Euskalgintzak hori espero du eta Euskaltzaindiak ezin du horretan hutsik egin. Xede horretarako hiru mailatako lehentasunak begiztatzen ditut.
  - a) Erakundearen egonkortasun ekonomikoa modu finkoan ziurtatzea eta barne estruktura egokitzea. Urrats batzuk egin badira ere, herri aginteen esku dagoen lehenbiziko puntua ziurtatzea eta finkatzea beharrezkoa da bigarrenaren modu operatibo egonkorerrako.
  - b) Akademiari dagozkion ikerketa nagusietarako nahitaezko diren egitasmo edo proiektuak bideratu eta elikatzea, hala nola, egin berri diren XVI. Barne Jardunaldietan onartu eta berretsi izan direnak: Corpus linguistikoak, Corpus onomastikoak eta abar, beti ere prozedurak, epeak eta kronogramak betez eta teknologia berrien bidetik.
  - c) Euskalgintzarekin, euskararen industriarekin eta gizartearekin oro har, harreman estuak izatea eta zerbitzu eguneratua eskaintzea, bai arau eta gomendio mailan, bai eta hizkuntzaren kalitatea bermatzeari buruzko ahaleginetan.



## Euskalgintzaren iritzia


### Euskalgintzari galdeketa

90. urteurrenaren karietara, euskalgintzaren iritzia jaso nahi izan du Euskaltzaindiak, hots, gizarteak nola ikusten duen erakundea eta zer eskatzen dion etorkizunari buruz.


Siadecok gauzatu du enkargua informatzaile kualifikatuen lagin adierazgarri bati kontsulta luze-zabala eginez.

Landa-lana 2009ko udaberrian egin da. 1.047 galde-sorta eman dira ontzat. Galdeketa landa-lanaren balidazio eta trataera informatikoan dago, baina erantzun batzuen tratamendua aurreratu digu Siadecok. Liburuaren denbora berean kaleratuko da ikerketa.

Zenbateraino zaude ados (Otik 10era) Euskaltzaindiari buruz egindako ondorengo adierazpenekin (batez besteko balioen rankinga)




Azken 5 urteetan zein da zure ustez Euskaltzaindiak IKERKETARI eskaintako garrantziaren maila? Eta zein da datozen 5 urteetan eskaini beharko liokeena? (%)






Azken 5 urteetan zein da zure ustez Euskaltzaindiak ERABILERAREN SUSTAPENARI eskaintako garrantziaren maila? Eta zein da datozen 5 urteetan eskaini beharko liokeena? (%)



Ondoko jarduerari, datozen 5 urteetan, Euskaltzaindiak gaur egun baino garrantzia handiagoa eman beharko liekela irizten dutenak (%)



# EUSKALTZAINAK





# EUSKALTZAINBURU IZANDAKOAK









## RESURRECCION MARIA AZKUE

### Akademiaren arima

Resurreccion Maria Azkue izan zen Euskaltzaindiko lehenengo buruzagia. 1919an izendatu zuten euskaltzainburu, eta kargu horretan egon zen 1951n hil zen arte. Akademia bi aldiz jarri behar izan zuen abian Azkuek: sortu berritan, 1919tik aurrera, eta gerrako etenaldiaren ondoren, 1941etik aurrera. Ospe handiko euskalaria eta gaitasun ikaragarriko langilea izaki, Akademiaren arima izan zen urte horietan guztietan Azkue.

1918an Oñatin Eusko Ikaskuntzaren sorrera batzarrean Euskaltzaindia eratzeko erabakia hartu zutenean, erakundea abian jarriko zuten lehen lau euskaltzainak izendatu zituzten: Arturo Campion, Julio Urkixo, Luis Eleizalde eta Resurreccion Maria Azkue. Beste zortzi euskaltzain izendatu zituzten horiek hurrengo urteko irailean, eta zuzendaritza 1919ko urriaren 5eko batzarrean hautatu zuten, bozketa bidez.

Bi bozketa behar izan zituzten euskaltzainburua aukeratzeko. Lehenengoan, Azkuek 5 boto izan zituen, Campionek 3, Raimundo Olabidek 2, eta Urkixok 1. Bigarren bozketan, Azkuek 7, Campionek 3 eta Olabidek 1. Agintaldia bi urtekoa izango zela zehaztu zuten eta, orduz geroztik, bi urtez behin egin zen bozketa, 1936ko gerraren osteko etena salbu, eta beti Azkue aukeratu izan zuten, heriotzak eraman zuen arte.

Euskaltzainburu izendatu zutenerako, parekorik ez zuen lan itzela egina zeukan Azkuek hizkuntzalaritzaren arloan. Lanik bikainena, 1905ean eta 1906an bi liburukitan argitaratutako *Diccionario Vasco-Español-Francés* zen, luzaroan molde hone-tako hiztegirik osoena eta aberatsena izan dena, mende bat geroago *Orotariko Euskal Hiztegia* argitaratzea bukatu den arte.

Gramatika liburu bat ere argitaratua zuen ordurako, *Euskal Izkindea* (1891), Bilboko Institutuko Euskal Katedrako ikasleentzat prestatua, baina gaztaroko “lehen alaba eskasa” izan zen lan hori, Azkueren beraren hitzetan. Arlo honetako lan sakonagoa eta sendoagoa, euskaltzainburu egin zituen lehen urteetan burutu zuen: *Morfología Vasca*. Akademiaren batzarretan irakurri ohi zituen Azkuek *Morfología Vasca*-ren atalak, aktetan ageri denez, eta gainerako euskaltzainen oharrak eta iritziak jaso ondoren eman zuen argitara, 1923an.

### Gipuzkera osotuaren alde

Euskararen batasunaren premia hasiera-hasieratik izan zuten hizpide euskaltzainek. 1921eko apirilaren 26ko batzarrean, esate baterako, “Euskararen batasunaz” txostena irakurri zuen Azkuek. Txosten hartan, Bilbon, Donostian, Lekarozen eta Haz-



**Resurreccion Maria Azkue**  
Euskaltzaindiaren Batzar Aretoko koadroa

parnen egindako bilera batzuetan euskararen batasunari buruz jasotako iritzien berri eman zuen Azkuek, ondoren gipuzkera osotuaren aldeko iritzia emateko: “Sendoen bizi dan euskalkia ar bezate etorkizuneko euskaldun orok berentzat”. *Morfología Vasca* lanarekin egin zuen bezala, *Gipuzkera osotua* liburua 1935ean argitaratu aurretik Euskaltzaindiaren batzarretan atalez atal irakurri zuen, eta euskaltzainen iritzia jaso.

Buruzagi nagusia ez ezik, langile amorratuena ere bazen Azkue Euskaltzaindian. Goizean goiz San Nikolas elizan meza eman ondoren joan ohi zen egunero bulegora eta, bazkaltzeko tartea hartuta, gauera arteko orduak Euskaltzaindiko bulegoan egin ohi zituen. Batere ordainik gabe, lehenengo hiru urteetan. 1923ko otsailaren 28ko batzarreko aktan ageri da, azkenean, euskaltzainburuaren lana diruz saritzea erabaki zutela: “Azkue jauna batzarretik atera dan txolarte batean, Kanpion jaunak beste euskaltzañai gogorazo dizkie Euskaltzainburuak egiten dituen lanak. Euskaltzaindiaren bein-beineko etxeak zerbait esango luke, izketan baleki. Goiz ta arratsalde lanean ari da Euskaltzaindiarentzat ta lan asko ta sari gutxi. Erabaki bat artu bear da ta langilea, bear zaion sariz, ordaindu. Euskaltzaindiaren erabakia auxe da: Azkue jaunari, bere lan askoren ordain, 4.000 pezeta emango zaizkio urte-urtero, Euskaltzaindiaren dirutzak al lezaken bitartean”.



**Resurreccion Maria Azkue**  
Telesforo Arantzadi eta Aita  
Donostiaren erdian

### Batez ere euskaltzale

Itzal handiko hizkuntzalaria zen Azkue, eta itzala hartzen ari zen Euskaltzaindia, baina ez zuten euskal idazle guztiengan ospe bera. Sabino Aranaren jarraitzaileek, izan ere, ez zioten ez Euskaltzaindiari ez Azkueri aitzindaritzarik aitortzen. Ebaristo Bustintza *Kirikiño* zen idazle sabindarren arteko ahots nagusietakoa: “Arana

Goiritar Sabin andijak marrazturiko bidetik jarraituko dogu euzko abertzaliak geure elia lantzen, eta berez-berez, ‘Academia’ barik, batu gara danok [...]. Argi ta garbi, Academia ori guk eztozu ezautzen geutartzat”, adierazi zuen Euskaltzaindia sortu berritan. Azkuek abertzaletzat zuen bere burua —“Soy en el fondo lo que me hizo Arana Goiri: nacionalista”, idatzi zuen 1906an—, baina ez zen EAJko kide. Batez ere, euskaltzale zen.

Politikan batere nabarmendu ez zen seinale da, hain zuzen, 1936ko gerraren ostean Bilbon gelditu ahal izana eta, bost urteko geldialdiaren ondoren, 1941ean Euskaltzaindia berriro sortzen asmatu izana, orduko agintarien baimenarekin eta dirulaguntzarekin. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Batzordearen baimenarekin abiatu zuen berriro Euskaltzaindia Azkuek. Baina baldintza batzuk jarri zizkioten: erbesteetan zeuden euskaltzainak Akademiatik kanpo gelditzea, Ipar Euskal Herriko euskaltzainak bileretara ez deitzea eta euskaltzain berrien artean Juan Irigoien izendatzea, Diputazio frankistaren ordezkari.

Euskaltzaindiaren garairik ilunena izan zen. Hiruzpalau euskaltzain batu ohi ziren garai hartako batzarretan, eta bi baino elkartu ez ziren batzarrik ere izan zen. Baina Euskaltzaindiaren etxeak zutik iraun zuen, eta ateak zabalik. Azkue bakardade handi samarrean ari zela iritsi zen Federiko Krutwig gaztea Erribera kaleko 6. zenbakiko egoitza hartara, 1942an. Euskaltzaindia berriro antolatzen eta sendotzen lagundu zion iritsi berriak eta, 1949an, Krutwigek proposatutako berregituratzea-

rekin indarberritu egin zen Akademia: Ipar Euskal Herriko euskaltzainak berriro deitzen hasteaz gain, euskaltzain berriak izendatu zituzten, hemezortziko taldea osatu arte.

Odolberrituta Euskaltzaindia lehengoa izaten hasi zenean, hain zuzen, joan zen Azkue. 1951ko azaroaren 9an hil zen, 87 urte zituenean.

### Musikari, idazle, folklorista...

Hizkuntzalari eta euskaltzain izan ez balitz ere, euskal kulturaren arloan izen handia izango luke Azkuek: idazle, hizlari, irakasle, musikagile, folklorista... Sormen eta bilketa lan izugarria egin zuen Azkuek bere bizialdian, eta ondare paregabea utzi, hainbat alorretako ikertzaileei.

Lekeition jaio zen, 1864an. Ama mundakarra zuen eta aita, Eusebio Maria Azkue poeta, lekeitiarra. Itsas-ikasketak egin zituen herrian, 14 urterekin Bilbora joan zen batxilergoa ikastera, eta ondoren Gasteiza eta Salamancara teologia eta filosofia ikastera. 1888 urtean apaiztu zen.


Urte berean, Bilboko Institutuko euskara erakusteko katedrarako lehiaketa irabazi zuen, besteak beste Sabino Aranari eta Miguel Unamunori gailenduta. Bilbo hartu zuen bizileku, geroztik. Bilboko Institutuan irakasle ari zelarik, haurrentzako euskarazko ikastaldiak ere antolatu zituen, aurrena Jardines kaleko ikastetxean, eta 1896tik aurrera, Balentin Berrio-Otxoa ikastetxearen sorkuntza bultzatuta. *Euskal Izkindea* gramatika ez ezik, irakurgaiak, ortografia proiektuak eta euskara ikasteko metodoak sortu eta argitaratu zituen, Institutuko ikasleentzat batik bat. Garai hartan bultzatu zituen euskarazko bi aldizkari ere: aurrena *Euskalzale* (1897-99), eta ondoren *Ibaizabal* (1902-03).

Literatura lanik ere idatzi eta argitaratu zuen, garai hartan eta gerora: besteak beste, *Bein da betiko* (1893), *Tsirristadak* (1899), *Ardi galdua* (1918) edota *Latsibi* (bizi zen artean argitaragabea, Euskaltzaindiak 1989an argitaratua).

1904 urtean Azkuek irakaskuntza eta Bilbo utzi zituen, aldi baterako, eta European ibili zen bost urtez, lehenik Tours-en (Frantzia), bi urte luzetan moldiztegian bere hiztegi nagusia argitaratzeko probak zuzentzen, eta ondoren Belgikan eta Alemanian, musika ikasketak egiten. Ordurako beste hainbat konposizio eginak zituen musikagile gisa, hala nola *Vizcaytik Bizkaira* (1895), *Eguzkia nora* (1897), *Sasi eskola* (1897) eta beste hainbat, eta Alemaniatik etorrita bi opera konposatu eta taularatu zituen: *Ortzuri* (1911) eta *Urlo* (1914). Opera horiek, azkenak batik bat, ez zuten batera arrakastarik izan.

Musikagile ez ezik musika biltzaile ere izan zen. Hiztegia egiteko herriz herri bilketa lanean ibili zen urteetan, kantuak, ohiturak, ipuinak, herri olerkiak eta folkloreakin zerikusia zuten bestelako hamaika kontu ere bildu zituen. *Cancionero Popular Vasco* izan zen bilketa lan horretako emaitza nagusietakoa, 1.800etik gora kanturen bilduma erraldoia, 1922 eta 1925 artean argitaratua.

*Euskalerraren Yakintza* izan zen bilketa lan emankor haren beste fruitua. 1932an hasi zen urte askoan bildutako materiala atontzen, eta 1935etik 1947ra bitartean argitaratu zituen



### Azkueri omenaldia

Bi egunetako omenaldia egin zitzaion Azkueri Bilboko Arriaga antzokian: aurreneko zatia 1956ko abenduaren 30ean eta bigarrena 1957ko urtarrilaren 6an.

### BARRIZTU LEITEKELA USTE IZANIK

1941eko apirilaren 28an egin zuen Euskaltzaindiak gerra osteko lehenengo batzarra. Hara aktan nola jaso zituen Azkueren azalpenak:

“Azkue jaunak batzar onen zioa ta elburua adierazoten ditu. Diño, igaroko jazoerak, euskaltzain biren eriotzeak eta beste batzuren erbesteratzeak izan dirala-ta, Euskaltzaindiaren batzarrak eta lanak eragotzita egon direala ia bost urte oneitan, noiz ta zelan barriz birrasi zitekeazan ikusten etzala. Baina ‘Junta de Cultura de la Excelentísima Diputación de Vizcaya’-k adierazo dautsala egoki litekeala Euskaltzaindia barriztu ta bere lanetan ekitea, orretarako berak be diruz, urtean bost mila peseta emonaz, lagunduko leukeala-ta. Orregaitik eta orretarako deitu dautsie bizi direan ta bertan dagozan lenagoko euskaltzainai eta beste batzar onetara etorri direan jaunai, eurokaz ta izentau leikezan beste batzukaz Euskaltzaindia barriztu leitekela uste izanik. [...] Beraz, erabagiten dabe, bein-beineko ta oraingoaz, Euskaltzaindia jaun oneikaz eratua izan dedila: lengoak, Azkue, Urkijo ta Intzagarai jaunak; barriak Gerra, Zamarripa, Irigoyen eta Oleaga”.



**Resurreccion Maria Azkue**

lau liburukiak, bestela galdu egingo litzatekeen euskal folkloreari eta etnografiari buruzko bilduma aberatsa.

Istripu baten ondorioz hil zen Azkue. 1951ko urriaren 22an, etxera zihoala, Nerbioi ibaira erori zen. Bizirik atera zuten uretatik baina, urak kutsatuta zeudenez, larri gaixotu eta azaroaren 9an hil zen.

**Resurreccion Maria Azkue (1864-1951)**

Euskaltzain oso: 1918-1951

Euskaltzainburu: 1919-1951

Idazlanetako batzuk: *Euskal Izkidea* (1891), *Bein da betiko* (1893), *Tsirristadak* (1899), *Diccionario Vasco-Español-Francés* (1905-06), *Ardi galdua* (1918), *Cancionero Popular Vasco* (1922-25), *Morfología Vasca* (1923), *Gipuzkera osotua* (1935), *Euskalerraren Yakintza* (1935-47), *Latsibi* (1989).

## INAZIO MARIA ETXAIDE

### Frankismo betean

Inazio Maria Etxaide 1884. urteko abenduaren lehenean jaio zen Donostian. Resurreccion Maria Azkue 1951ko azaroan hil ondoren hartu zuen Euskaltzaindiko buruzagitza, eta hil arte iraun zuen karguan, 1962ko azarora arte.

Garai zailetan egokitu zitzaion Etxaideri Akademiaren buruzagitza hartzea, frankismo bete-betean, baina hainbat urrats eraginkor eman zuen Euskaltzaindiak Etxaideren agintaldiaren 11 urteetan. Lehenengo pausoa erakundearen araudia berriztatzea izan zen, 1954ko abuztuaren 27an onartua. *Euskera* agerkaria orduan hasi zen berriro argitaratzen —1953an zenbaki bat, eta 1956tik urterero—, gerra garaitik mutu egon ondoren. Gainera, Etxaide buru zenean hasi zen Akademia biltzar irekiak egiten. Bera euskaltzainburu zela egin ziren lehenengo lau biltzarrak: Arantzazun (1956), Bilbon (1958), Eibarren (1959) eta Donostian (1961).

Bertsolaritza txapelketak antolatzen ere orduan hasi zen Euskaltzaindia: 1958tik aurrera antolatu zituen herrialdeetako hainbat txapelketa, eta Euskal Herriko lehenengo txapelketa nagusia (1960) eta bigarrena (1962) ere Etxaide euskaltzainburu zenekoak dira. Eta Euskaltzaindiak gaur egun ere antolatzen dituen literatura sariketek Etxaideren garaian dute gerra osteko hasiera: 1954an antolatu ziren lehenengo aldiz eleberri, ipuin eta biografia sariak.

Etxaidek hogeitau urte egin zituen euskaltzain, eta hamar urtetik gora Euskaltzaindiko batzarretako mahaiburua. Batzar agirien arabera, dena den, urte batzuetan formalki euskaltzainbururik ez zuen izan Akademiak.

Azkue 1951ko azaroaren 9an hil zen. Euskaltzaindiak hurrena egin zuen batzarreko aktan, azaroaren 30ekoan, Etxaide mahaiburua ageri da. Hurrengo urte eta erdiko batzarretan mahaiburua agertzen jarraitzen du, baina euskaltzainburuorde gisa. Eta 1953ko apirilaren 24ko aktan ageri da, lehenengo aldiz, euskaltzainburu. Baina 1955eko otsailaren 25eko batzarrean berriro euskaltzainburuorde sinatzen du. Euskaltzainburu, formalki, 1957ko ekainaren 28an izendatu zuten.

### Kristautasuna, telefonoa eta euskara


Kristau integrista zen Etxaide, integrista militantea. Donostiako Gazteria Integristako buruzagia izan zen 1910etik 1914ra eta, *Cruz y Verdad* aldizkarian artikulua ugari argitaratzeaz gain, hainbat liburu idatzi zituen, mugimendu eta ideologia integristaz: *Sobre la organización de las Juventudes Integristas* (1911), *Las Juventudes Integristas y su labor interior* (1914), *El espíritu cristiano y el integrismo* (1917), *Apuntes razonados sobre el Programa Integrista* (1923), besteak beste.

Mugimendu integristaren barruan euskal ikasketak antolatu zituen, Ramon Intzagararekin batera, baita antzerki talde bat osatu ere, gizonaezkoekin bakarrik, integristen legera. Afizioz musikagile ere bazenez, *euskal-eres-antzegintza* ere sustatu zuen, zarzuelaren tankerako euskarazko emanaldiak, alegia: *Azienda Publikoa*, Manuel Lekuonaren letra eta Etxaideren beraren musikarekin, eta *San Juaneko gereziyak*, Jose Beñaranen letra eta Etxaideren musikarekin.

Industria ingeniaria zen Etxaide lanbidez. 1907an Gipuzkoako Diputazioan hasi zen lanean Katastro Industrialaren zerbitzuan, eta urte berean hasi zen berriro euskara ikasten, haurtzaroan jasotako hizkuntza ahaztua baitzuen ordurako. 1909an Diputazioko Industria ingeniari izendatu zuten; izendapen horren barruan zegoen Gipuzkoako telefono-sarearen zuzendaritza ere. Hurrengo urteetan,



**Inazio Maria Etxaide**  
Euskaltzaindiaren Batzar Aretoko koadroa




**Inazio Maria Etxaide**  
Euskaltzaindiaren Batzar Aretoko bustoa

telefoniari buruzko hainbat lan idatzi eta argitaratu zituen: *Apuntes sobre telefonía* (1921), *Medidas eléctricas y mecánicas* (1924), *Comunicaciones de Guipúzcoa* (1925), *Disposiciones legislativas sobre Telefonía* (1926), *La corriente Telefónica* (1927) eta *Telefonoaren sortze eta aurrerapena* (1929).

41 urtez izan zen Gipuzkoako telefono sarearen arduradun nagusi, 1949an Diputazioa arlo horretan eskumenik gabe geratu zen arte, Compañía Telefónica Nacional-ek sarearen jabetza eta administrazioa hartu zituenean. Amorrazioa eta nahigabe handia eragin zion erabaki hark Etxaideri, foru eskumenen defendatzaile sutsu baitzen. Beste zazpi urte egin zituen Diputazioan lanean, 1954an erretiroa hartu zuen arte.

Ordurako alargunduta, Euskaltzaindiari eguneko ordu guztiak eskaintzeko moduan zen Etxaide. Yon Etxaide semeak halaxe adierazi zuen, 1984ko azaroaren 30ean aitaren jaiotzaren mendeurrenean Euskaltzaindiak eskaini zion omenaldian: “Gure aitarentzat Euskaltzaindia izan zen bere zahartzaro bizitzaren betegarri, haurrak hazi, emaztea galdu eta telefonotik ostiko polit batez —baina ostikoa beti ostiko— bota zutenez gero. Euskaltzaindia izan zen bere atsekabe eta samintasunaren eztiagarri, eta batez ere ogi-lanaro amaituz gero, berari eskaini zizkion gelditzen zitzaizkion kemenak oro”.



Inazio Maria Etxaide

### Hizkuntzalari

Ordurako dozena bat urte zeramatzan euskaltzain, eta hiru urte euskaltzainburu. Etxaide 1942an izendatu zuten euskaltzain, Juan Carlos Guerrak utzitako hutsunea betetzeko. Bere sarrera hitzaldiaren izenburua “Jatorrizko euskeraren azterpenaldia (*ensayo sobre el primitivo euskera*)” izan zen. Akademian sartu baino askoz lehenagotik, euskarari buruzko hainbat idazlan argitaratu zituen: *Tratado de subfijación, Prefijación y Composición en el idioma Euskaro* (1911), *Tratado de Sintaxis del idioma Euskaro* (1912), *El verbo vascongado* (1923), *Sobre el origen y parentesco del pueblo Euskaro y su idioma* (1935) eta *Desarrollo de las conjugaciones Euskaras Perifrásticas y Sintéticas, respetuosas y familiares* (1943).

Heriotzak eraman zuen arte ez zituen utzi Euskaltzaindian hartutako lanak eta ardurak. 1954an, erretiroa hartu berritan osasun arazo larria izan zuen: enbolia bat zela eta, ezkerreko hanka moztu behar izan zioten. Baina onik atera zen trantze hartatik, hurrengo urtean berriro hasi baitzen Euskaltzaindiaren batzar eta ekitaldi guztietara joaten. Eta halaxe jarraitu zuen, 1962ko udazkenean arte. 1962ko urriaren 26an zuzendu zuen, azkenengoz, Euskaltzaindiaren batzarra. Handik hiru astera hil zen, ohean, Ategorrieta auzoko Villa Aldatzain etxean, azaroaren 14ko goizaldean.

#### Inazio Maria Etxaide (1884-1962)

Euskaltzain: 1942-1962

Euskaltzainburu: 1951-1962

Idazlanetako batzuk: *Tratado de subfijación, Prefijación y Composición en el idioma Euskaro* (1911), *Tratado de Sintaxis del idioma Euskaro* (1912), *El verbo vascongado* (1923), *Sobre el origen y parentesco del pueblo Euskaro y su idioma* (1935), *Desarrollo de las conjugaciones Euskaras Perifrásticas y Sintéticas, respetuosas y familiares* (1943).

## JOSE MARIA LOJENDIO

### Agintariekin harreman ona

Jose Maria Lojendio Irure 1910eko urriaren 10ean Donostian jaio zen. 1954. urtean izendatu zuten euskaltzain, eta 1963ko otsailean euskaltzainburu. Hamar hilabetez baino ez zen izan euskaltzainburu, urtea amaitu arte alegia, zenbait lekutan 1966ra arte buru izan zela argitaratu den arren. Buruzagitza utzi ondoren ere Euskaltzaindian jarraitu zuen lanean. 1978ko uztailan hartu zuen parte, azkenengoz, Euskaltzaindiaren batzarrean. 1979ko abenduaren 30ean hil zen, eritasun luze baten ondorioz.

Inazio Maria Etxaide zenak utzitako hutsunea betetzeko aukeratu zuten Lojendio euskaltzainburu. Aurreko urteko azaroan hil zen Etxaide, artean euskaltzainburu zela, eta 1963ko apirilaren 5eko batzarrean aukeratu zuten Lojendio: bederatzi euskaltzainek eman zioten botoa berari, eta boto bana jaso zuten Koldo Mitxelena, Antonio Arruek eta Louis Dassancek. Aktan jasota gelditu zen Lojendio kargua nola onartu zuen: “Lojendio jaunak adierazi du bera dala kargu ortarako meritu gutxiena daukana; baiña Euskaltzaindiak bere naia ain garbi agertu duen ezkerro, azkenean onartu du izendapena, eta beraz, euskaltzainburu egiñik gelditu da”.

Euskaltzaindiarentzat itxirik zeuden hainbat ate zabaltzeko esperantzan izendatu zuten euskaltzainburu Lojendio. Esquindar integrista zen eta, legegizona izanik, harreman ona zuen garaiko agintariekin, besteak beste foru aldundiekin. Anaia bat diplomazialaria zuen, politikari ezaguna; eta beste anaia bat, apaiza, Elizaren hierarkian ondo kokatuta zegoen, Valle de los Caídos-eko basilikako abadea zenez.

Lojendio buru zela utzi zion Euskaltzaindiak bilera guztiak Donostian egiteari, Lojendioren beraren proposamenez. Bera izendatu ondokoa Donostian egin zuten, apirilean, baina hurrengoak Beloken eta Gernikan egin zituzten. Bera euskaltzainburu zen bitartean izendatu zituzten euskaltzain oso Jean Diharce *Xabier Iratzeder*, Alfontso Irigoien, Piarres Larzabal, Jose Maria Satrustegi, Antonio Zabala, Antonio Labaien, Juan San Martin eta Jean Haritzelhar.

### Karguan jarraitu nahi ez

Aukeratu zutenean, bozketa egin aurretik, euskaltzainburu berriaren aginte muga 1963ko bukaera izango zela zehaztu zuten euskaltzainek eta, horrenbestez, urtea bukatzeaz zutenean, abenduaren 27ko batzarrean, agintaldia bukatu zitzaizola ohar-tarazi zuten Lojendio. Euskaltzaindia barne arautegia aldatzekotan zenez, arautegia berritu bitartean karguan jarrai zezan eskatu zioten euskaltzainek aho batez, baina kargua uzteko borondateari eutsi zion Lojendio.

1964an, 1965ean eta 1966an, artean Lojendioren ordezkorik izendatu ez zutenez, batzarrera etorritako euskaltzainen artean zaharrenak hartu ohi zuen euskaltzainburuaren lekua. 1964an aktak inork ez zituen izenpetu, baina 1965 eta 1966ko bileretako aktak euskaltzain zaharrenek izenpetu zituzten, idazkariarekin batera, euskaltzainburuorde tituluarekin: Louis Dassance, Aingeru Irigarai, Manuel Lekuona eta Piarres Lafitte izan ziren jarduneko buru, urte haietako batzarretan, baita Lojendio bileran parte hartzen bazuen ere. 1966ko abenduaren 30ean Manuel Lekuona euskaltzainburu izendatu zutenean bukatu zen behin-behinekotasuna.



**Jose Maria Lojendio**  
Euskaltzaindiaren Batzar Aretoko  
koadroa





Jose Maria Lojendio

### Legelari

Lojendiok lanean jarraitu zuen Euskaltzaindiaren barruan, buruzagitza utzi ondoren ere. Legelaria zen ikasketez eta lanbidez —Gipuzkoako Adin Txikikoen Auzitegiko presidentea zen—, eta Euskaltzaindiaren lege arazo gehienetan bera aritzen zen, Antonio Arruerekin batera, hori ere legegizon izaki. Besteak beste, arautegia gaurkotzeko eta berritzeko lan handia egin zuten Lojendiok eta Arruek, eta Gipuzkoako Diputazioarekin izandako harremanak beraiek bideratzen zituzten.

Noizbait euskaltzainburu gisa ere agertu behar izan zuen, hala nola Espainiako Hezkuntza ministroari eskutitz ofiziala bidali zionean Akademiak, bere sinadurarekin joan baitzen gutuna, azken euskaltzainburua bera izan zenez hala egiteko eskatu ziolako batzarrak. Hezkuntza sisteman euskararen irakaskuntza sartzeko proposamena egin zion Euskaltzaindiak Espainiako Gobernuari, 1966ko azaroaren 15ean bidalitako gutun haren bidez: euskara irakasgai izan zedila, eskola pilotu batzuetan hezkuntza elebiduna eman zedila, eta irakasle eskolatan irakasleak trebatzeko hizkuntza, literatura eta gramatika sailak sor zitezela, Euskaltzaindiaren gidaritzapean. Eskaria aztertuko zutela erantzun zuten, idatziz, Ministeriotik.

### Gipuzkera hutsaren alde

Euskara batuari buruzko eztabaidan Lojendiok izan zuen parte-hartzearen lekuko da Arantzazun 1968an egindako biltzarrerera bidali zuen txostena (“Batasunari batzuk agurka eta beste batzuk aurka. Arantzazuko Batzarrera eldu ziren txostenen berri”, *Euskera*, 1968). Gipuzkera proposatu zuen Lojendiok, “idatz-izkeraren batasunerako”. Hara bere txosteneko pasarte bat: “Batasun billa gabiltza. Aldez aurretik, ontzat ematen ditut, zuek artutako erabakiak eta nere iritzia jakin nai izan ezkeror, orra bera: Idatz-izkeraren batasunerako, Giputz euskalkira jo bear genuke danok. Gipuzkera idatzi, alegia. Ez gipuzkera osatu batean. Gipuzkera utsez baizik”.

Valladoliden lizentziatu zen Zuzenbidean, eta doktoregoa Madrilan eta Parisen osatu zuen. Julio Urkixo Euskal Filologia Mintegiko kidea izan zen, baita Luistar Euskal Idazle Bazkunaren sortzaile eta lehen idazkaria ere. 1930ean sortua, euskal idazleen arteko lehenengo bilgunea izan zen luistarren babesean sortutako elkar-tea. Gerra aurretik artikulua argitaratu zituen *Junior*, *Gure mutillak*, *Argia* eta *El Pueblo Vasco* aldizkarietan, Bidasoro, Matia Polloe eta Mazkelet goitizenekin. Gerra ondoren, *Egan*, *Euskera* eta *Arantzazu* aldizkarietan argitaratu izan zituen idazlanak.

## MANUEL LEKUONA

### Hiru urteko hutsartearen ondoren

Manuel Lekuona 1894ko otsailaren 9an jaio zen, Oiartzungo Etxetxiki baserrian. Akademia 1919an sortu zenetik izan zen euskaltzain laguntzaile, 1950. urtean izendatu zuten euskaltzain oso, eta 1966tik 1970era izan zen euskaltzainburu. Bera euskaltzainburu zenean egin zen, beraz, Arantzazun 1968ko Biltzar erabakigarria, euskararen batasunerako bidean mugarri izan zen bilkura.

Hiru urteko hutsartearen ondoren hautatu zuten Euskaltzaindikoko presidente Lekuona, Jose Maria Lojendiok 1963. urtearen bukaeran kargua utzi zuenetik beste inor ez baitzuten aukeratu, 1966ko abenduaren 30ean bozketa egin zuten arte. Lekuonari 14 boto eman zizkioten, Lojendiori hiru, eta Joxe Migel Barandiaran, Koldo Mitxelena eta Luis Villasanteri, bana.

### Gatazkaren erdian

Garai gatazkatsuak egokitu zitzaizkion Lekuonari Akademiaren buruzagitzan, batasunerako lehenengo urratsak ez baitziren errazak izan. Euskaltzaindiak Arantzazun hartutako bidetik gerora aldentu egin bazen ere, euskara idatziaren batasunaren aldekoa zen Lekuona, Arantzazuko Biltzarraren hasieran eta bukaeran euskaltzainburu gisa egin zituen hitzek adierazten dutenez. “Min oiek gora-beera, egin-beharreko lana [da], batasun-lana. Ebakuntza bat, operazio bat egin bear danean, min izaten da; bañan operazioa, egin-beharreko gauza izan oi-da askotan, bi-ziari laguntzeko, bizirik irauteko”, adierazi zuen sarrera hitzaldian. Eta Biltzarraren bukaeran, ortografia batuari buruzko ondorioak onetsita zeudenean: “‘Batasuna egina dago’ esango da. Esan dezagun obeto: ‘Batasunerako bidea ebakia dago’. Gure billera oiek ez dute, bidea ebaki, bidea autsi besterik egin. Batasuna bera egin, orain egin behar da, ibillian, joanean, praktikan: idaztean eta Ikastoletan azken-itx oiek beteaz, azken-itx oien neurrian idatziaz eta erakutsiaz. Zuena da, beraz, lana, batez ere: Idazleona, Andereñoona”.

Bidearen hasiera besterik ez zen, Lekuonak iragarri zuenez, eta hurrengo urteetan Euskaltzaindiaren batzarretan ere agerian gelditu zenez. Arantzazun onartutako irizpideei buruz ez zuten denek irakurketa bera egiten, eta “h”-ri buruzko auziak eztabaida iturri izaten jarraitu zuen. Manuel Lekuona euskaltzainburuak berak, “h”-rik gabe idazten jarraitu zuen, eta 1970eko urtarilaren 30ean Arantzazun onartutako irizpideak berrikusteko gogoia agertu zuen. Batzarreko aktan horrela dago jasota: “Euskaltzain-buruak txosten bat irakurri du, bere hiru urteko burutzaren kontuemanenez. Batasunari buruz gertatu diranei adierazpenak Euskaltzaindiak ez dituela gauzak *por decreto* bezala eman behar, *normativo* baizik. Eta Euskaltzaindiak neutral izan behar duela holako gauzetan. Mitxelena jaunaren iritziaz gainera, beste iritzi gehiago ere entzun beharra zegoela. Batasunak oinarri zabala eta denbora eskatzen dituela eta abar. Ondoren zenbait eztabaida sortu da”.

Baina Lekuona gutxiengoan zegoen, Arantzazuko bidea berrikusi nahi horretan. Urte bereko uztailearen 29ko batzarrean egiaztatu zen hori, Akademiaren buruzagitzaren berritzeko bozketak egin zirenean. Bozketa egin aurretik, Arantzazuko Biltzarraren bukaeran irakurritako agiria “bertan ziren jaun euskaltzain osoen artean harturiko erabakia zela” berresteko eskatu zuen Mitxelenak. Eztabaida luzearen ondoren, Mitxelenaren proposamena onartu egin zen, baina Lekuonaren ñabardurarekin: “Azkenean denak onhartzen dute Mitxelenaren proposamendua, bakarrik



**Manuel Lekuona**  
Euskaltzaindiaren Batzar Aretoko koadroa

### GARBI EDO MORDOLLO, EGIN

1967ko urtarrilaren 27an euskaltzainburu aukeratu zutenean Manuel Lekuonak egindako hitzak honela jaso zituen, aktan, idazkariak:

“Leenbizi, Lekuona jaunak, Euskaltzaindikoko buruzagitzaren aulkia artzen duelarik itz berezi batsuek esan ditu batzarkideentzat, bere izendatzeagatik eskerrak emanaz, eta Euskaltzaindiaren zer-egitari buruz zerbait esanaz. Euskaltzaindiak bi zeregin dituala esan zuan: ikaskuntzakoa, eta babesle edo aldezia. Euskerak ere, bere aldetik, bi auzi dituala: bizi izatea, ta garbi izatea. Euskaltzaindiak, Euskeraren biziari lagunduko dio, bere zati aldeziaren bidez batez ere: lagundu; bañan egin, erriak egin bear du, guztiok egin bear dugu: garbi edo mordollo, egin. Egiten degun arte, Euskera biziko da”.



Manuel Lekuona

Lekuona jaunak ohar bat ezartzen du esanaz Arantzazuko erabakia kontseilu era-koa zela eta ez agindu erakoa, Labaien jaunak ere hori uste du”.

Luis Villasante aukeratu zuten euskaltzainburu batzar hartan. Euskaltzain izaten jarraitu zuen Manuel Lekuonak 1987ko uztailaren 30ean hil zen arte, baina urrundu egin zen Akademiaren bizitzatik, eta urte askoan ez zen batzarretara joan. Kardaberaz Bazkuna berpiztu zuen 1970ean, eta handik bideratu zituen euskararen aldeko bere lanak. 1924an sortu zuten Kardaberaz Bazkuna Gasteizko Seminarioan, eta 1936ko gerrara arte iraun zuen bizirik, lehen aroan.

### Gasteiz, Calahorra, Andoain, Oiartzun

Gasteizko Seminarioan ekin zion Manuel Lekuonak euskal kulturaren aldeko ibilbide oparoari. 1916an hasi zen irakasle, 22 urterekin, eta 1936. urtera arte iraun zuen bertan, gerrak ezkutura eta gerra osteak erbestera bidali zuten arte. Gai askotan aritu zen irakasle, baina batez ere Euskal Literaturan eta Arkeologian sakondu zuen. Garai honetako idazlanak hiru arlotan sailka daitezke: literatura irakaskuntzari lotutakoak —*Métrica vasca* (1918), *Poesía popular vasca* (1930) eta *Literatura oral euskérica* (1935)—, literatur kreaioak —*Eun dukat* eta *Iesu Aurraren bizitza* (1936)— eta, azkenik, *Anuario de Eusko-Folklore-n* Oiartzuni buruz idatzitakoak.

Gerra urteak Lasarteko Brijiden Kaperau-Etxean egin zituen, ezkutaturik, eta hurrengo 14 urteak, 1956ra arte, Calahorran egin behar izan zituen, etxetik gutxienez 200 kilometrora aldentzeko zigorra ezarri ziotelako. Urte haietan historia lanetan murgildu zen, artxibo zaharrak beste langairik ez zeukanez. Garai horretakoak ditu Lasarteko Parrokiaren eta Komentuaren historiak, Calahorrako elizetakoak eta *Del Oyarzun antiguo* idazlana. Calahorran zegoela izendatu zuten euskaltzain oso —“Euskal-Toki izenetan Kurutzearen izena” izan zen bere sarrera hitzaldiaren izenburua—, eta garai hartan prestatu zuen *Gero* liburuaren argitalpena, Akademiaren babesean.

1956tik 1975era Andoain izan zuen bizileku. Ahozko literaturaren ikerkuntzan eta bestelako gaietan ere ari zen bitartean, liturgi arloan lan handia egin zuen urtealdi hartan: liturgia testu berriak euskaratzeko eginkizunean idazkari orokorra izan zen. 1975ean jaioterrira itzuli zenez geroztik, *Idazlan Guztiak* prestatu eta argitaratzea izan zuen lan nagusia. 11 liburukitan bildu zituen idazlan guztiak, eta Kardaberaz Bazkunak argitaratu zituen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Lekuonak bere bizialdian landu zituen gaien ugaritasunaren erakusgarri dira 11 liburukiak. Ahozko literaturaren ikerkuntzan eta arte-ezagutzan nabarmendu zen beste ezertan baino gehiago, baina beste mila gai landu zituen bere idazlanetan, hala nola etnografia, historia, euskerologia, antzerkia, haur-kantak edota gabon eta eliz-kantak.



Lafitterekin

Piarres Lafitte eta Manuel Lekuona

#### Manuel Lekuona (1894-1987)

Euskaltzain: 1950-1987

Euskaltzainburu: 1966-1970

Idazlanetako batzuk: *Métrica vasca* (1918), *La poesía popular vasca* (1930), *Eun dukat* (1935), *Literatura oral euskérica* (1935), *Zigor* (1963), *Literatura oral vasca* (1964).

## LUIS VILLASANTE

### Krutwigen eskutik

Luis Villasante 1920ko martxoaren 22an jaio zen, Ajangizko Errenteria auzoan. 1950eko otsailean izendatu zuten euskaltzain urgazle eta, urte bereko irailean, euskaltzain oso, Julio Urkixo hilberriaren orde. Handik hogeitun urtera euskaltzainburu hautatu zuten, eta 18 urtez izan zen Akademiaren lemazain, euskara batua finkatu zen garaian hain zuzen ere, 1988an Jean Haritzelharrek lekukoa hartu zion arte.

Arantzazuko Apaiztegia teologia irakasle hiru urte zeramatzanean gerturatu zen Villasante Euskaltzaindira, 1950. urte inguruan. Anjeles Sorazuren erlijio biziari buruzko tesia argitaratzeko bidean zuela-eta Bilbora moldiztegia probak zuzentzera joaten hasi zenean, Federiko Krutwigen Euskaltzaindirako sarrera hitzaldiaren berri izan zuen, gaia erakargarria egin zitzaion —kulturako hitzak nola erabili euskaraz— eta zuzenean Krutwigengana jo zuen. Haren bitartez hasi zen Villasante orduko Euskaltzaindia ezagutzen eta Akademiako lanetan sartzen. Eta urtebete nahikoa izan zen euskaltzain izenda zezaten. 1952ko maiatzaren 23an irakurri zuen sarrera hitzaldia: “Literatur-euskara Laphurrterrak Klassikoaren gain eratu”.

“Literatur euskara” ez zen, azkenean, garai hartan Villasantek eta Krutwigek proposatu bezala lapurtar klasikoan oinarrituta eratu, baina eratu, eratu zen, eta Villasantek zerikusi handia izan zuen horretan, bai euskaltzain soil zenean eta bai, batez ere, euskaltzainburu izan zenean.

### Batasun bidean lemazain

1968ko Arantzazuko Biltzarrerako euskararen batasunari buruz aurrez prestatu zituzten bost txostenetatik bi Villasantek egin zituen: txosten nagusia, ortografiari buruzkoa, Koldo Mitxelena egin zuen, batasunaren behararen zergatieri buruzko sarrera hitzaldia Manuel Lekuona euskaltzainburuak prestatu zuen, Xalbador Garmendiak deklinazioari buruzkoa ondu zuen, Ambrosio Zatarainek hitz berriei buruzkoa eta, Villasantek, hitzen formei buruzkoa ez ezik, batasunari buruzko bibliografia ere prestatu zuen.

Txosten guztiak onartu ziren, Mitxelenarenak eztabaida luzea eragin bazuen ere, batez ere “h”-ren erabilerari buruzko atalak. Euskara batua eratzeko bidean jarri zen horrela Akademia. “H” zela eta ez zela eztabaida bizitu eta are gaiztotu ere egin zen, ordea, hurrengo urteetan. Eta, 1970eko uztailaren 29an, Akademiako karguak berritza egokitu zenean, Arantzazun hartutako bidean sakondu nahi zutenek Luis Villasante aukeratu zuten euskaltzainburu, Manuel Lekuonaren orde. 11 euskaltzainek eman zioten botoa Villasanteri, hiruk Lekuonari, beste hiruk Antonio Arrueri eta batek Joxe Migel Barandiarani.

Aro berri baten hasiera izan zen Villasanteren hautatzea. Bate-tik, Arantzazun onartutako irizpideak oinarri hartuta, euskara batua finkatze bidean egin beharreko lanak eta urratsak egiteari ekin zion Euskaltzaindiak. Batasunaren aldeko konpromisoaren eta lanaren lekuko dira 1970eko hamarkadan Luis Eleizalde sailean Villasanteren beraren eskutik argitaratutako lanak: *Hacia la lengua literaria común* (1970), *La declinación del vasco li-*



**Luis Villasante**  
Euskaltzaindiaren Batzar Aretoko koadroa

### EUSKALTZAINDIA ZERTARAKO

Luis Villasantek Maulen egindako ekitaldian hartu zuen kargua, 1970eko azaroaren 25ean. Euskaltzaindiaren egitekoaz jardun zuen bere hitzaldiko pasarte honetan:

“Euskera zaindu eta lantzeko: Euskaltzaindia horra zertarako den. Hau da hunen eginkizun bakarra. Ez du beste politikarik. Euskera da beraren politika eta bandera. Euskeraren ona, euskeraren iraupena eta osasuna eragin, euskera gaur eguneko eginkizunetarako tresna zalui eta egoki bihurtzea. Hartarako behar diren bideak bilatu eta arauak eman. Hain zuzen ere, bere egiteko nagusi hori beteko baldin badu, ahal dela, alderdikierietatik hastandu eta bere lan bereziari lotua egon behar du. Eta bi erresumen mugez gainetik, euskaldun guztien artean, mugaz hango eta hemengoan artean, lokarri bat izan behar du. Eta ahal bada, eta ahal ditaken neurrian, guztiontzat literario hizkuntza bat muntatzen bermatu eta enseiatu”.



Luis Villasante

*terario común* (1972), *Palabras vascas compuestas y derivadas* (1974), *Sintaxis de la oración compuesta* (1976), *Estudios de sintaxis vasca* (1978), *Sintaxis de la oración simple* (1980) eta *La H en la ortografía vasca* (1980). Hamarkada osoan iraun zuen euskara batuari buruzko eztabaidak, baina 1978an Bergaran egindako Biltzarrean ondorioa garbia izan zen: Arantzazuko irizpideek oro har harrera ona izan zuten euskara idatziaren erabiltzaileen artean, eta Akademiak berretsi egin zituen erabakiak.

### Egitura berriaren arkitektoa

Villasanterekin Euskaltzaindian aro berria zabaldu bazen, lan egitura eraginkorragoa hartu zuelako ere izan zen. Euskaltzainburuaren proposamenez, Akademia Sailka eta batzordea antolatu zen 1980ko hamarkadaren hasieratik aurrera. Iker saileko batzordeak batetik, eta Jagon sailekoak bestetik, lan arloak ondo bereizi eta lantaldeak antolatu zituzten, hileroko batzarrean hartu beharreko erabakiak aurrez landuta etor zitezten.

Batzordea antolatze horrek beste ondorio bat izan zuen, gainera: Euskaltzaindia gizartera zabaldu eta hurbildu egin zuen, euskaltzain ez zirenei Akademiaren atea ireki baitzitzairen, batzordetan lan egiteko aukera emanda. Egitura berri honen eskuetik ekin zien Euskaltzaindiak azken urteotako lan nagusiei, hala nola Orotariko Euskal Hiztegiari, Hizkuntz Atlasari edota gramatikaren azterketari.

Euskaltzaindia aitoren ofizialeko erakunde izatera ere pasatu zen Villasante euskaltzainburu izan zenean, garaia ere halakoa egokitu zelako: 1976an Espainiako Erregeak erakunde ofizial bilakatu zuen erret dekretu bidez, eta Gernikako Estatutuak (1979) nahiz Nafarroako Foru Hobekuntzak (1982) euskara kontuetan aginpidea aitortu zioten gero.

Villasanteren gidaritzapean Euskaltzaindia bide onean abiatua zelakoan hartu zion buruzagitzan lekukoa Jean Haritzelharrek 1988an. Hain zuzen ere, Villasanteren omenez argitaratutako *Iker 6* liburuaren aurkezpenean haxe adierazi zuen Haritzelharrek, 1992an: "Horiek guziak [OEH, Atlas, Gramatika, Onomastika eta Literatura ikerketak] sortu dira Aita Villasante euskaltzainburu zelarik. Eta orain zer egin? Aldi bat baino gehiagotan erran dut eta errepikatzen dut egun ere, urratu bidetik ibili behar duela Euskaltzaindiak, hasiak diren lan luzeak behar direla bultzatu eta burura eraman, ez baita lan ttipia eta ez lan erraza".



### Iker 1 liburuaren aurkezpena

Euskalariaren Nazioarteko Jardunaldien liburuaren aurkezpenean izan zen, besteak beste, Marcelino Oreja, Espainiako Atzerri ministroa.

Euskaltzainburu izateari utzi ondoren ere lanean jarraitu zuen Villasantek Akademian. Besteak beste, 1989tik 1992ra Iker sailburu izan zen, eta 1991tik 1992ra Euskara Batua batzordeko buru. 2000ko maiatzaren 5ean parte hartu zuen, azkenengoz, Akademiaren batzar batean. Urte bereko abenduaren 2an hil zen, Arantzazun.

### Erlijioa eta klasikoak

Euskara eta Euskaltzaindia bezala, erlijioa ere Villasante frantziskotarraren bizitzaren ardatzetakoa izan zen, ardatz nagusia ez bazen. 11 urterekin joan zen ikasle Arantzazuko Apaiztegira, 1931n. Handik Foruko ikastetxera joan zen, 1934an, ikasketekin jarraitzea eta, 1936an, gerra piztu berrian, Zarautza, nobiziatua egi-



tera. Baina gerra giroa zela eta, fraidegaiei etxera itzultzeko agindu zieten. Gernikako bonbardaketa zuzenean bizitzea egokitu zitzaion, familiarekin gordeleku batean babes hartuta.

Hurrengo hilabeteen Zarautza itzuli zen, fraide jantziak hartu zituen; handik Burgozera urtebetez soldadutza egitera, 1939an atzera Arantzazura, gero Oliteko komentura ikasketekin jarraitzea eta, azkenik, Comillasera, Teologia ikasketak egitera. Comillasen apaiztu zen, 1945ean. Eta handik bi urtera, ikasketa guztiak amaitutzat emanda, Arantzazura itzuli zen, Teologia irakasle jardutera. Eta lan horretan jardun zuen, 1978 arte.

Comillasen hasitako tesia Arantzazun bukatu zuen, 1951n: *La Sierva de Dios M<sup>a</sup> Angeles Sorazu, Concepcionista Franciscana (1873-1921). Estudio místico de su vida*. Erlijioari buruzko beste hamaika lan ere argitaratu zituen Villasantek. Artikuluak, oso ugariak, *Arantzazu* aldizkarian plazaratu zituen gehienak. Eta liburuen artean daude *Kristau fedearen sustraiak. Jainkoa* (1962), *Kristau fedearen sustraiak. Jesukristo* (1969), *Kristau fedearen sustraiak. Eliza* (1984) eta *Kristau Fedea. Teologi-saileko azalpena* (1986). Villasantek erlijioari buruzko lanei ematen zien garrantziaren lekuko dira bere hitz hauek: “Euskal Herriari eman diodan gauzarik ederrena eta balioetsuena erlijioaz idatzi dudana da”.

Euskal literaturako klasikoek ezagutzara ere bideratu zuen Villasantek bere ikerketa grina. Euskaltzaindian sartu berritan hasi zen egile klasikoek azterketan sakontzen, hala nola Añibarro, Bonaparte, Beobide anaiak, Etxeberri, Etxepare, Larramendi, Leizarraga, Mogel, Txomin Agirre... baina, batez ere, Axularren aztertzaile fin eta zorrotza izan zen. Idazlan ugari plazaratu zituen *Gero*-ren egileari buruz: “Despojo sistemático de la lengua de Axular” (1956, 1957, 1959, 1961), *Euskal gizonak: Pedro Axular* (1959), *Gero (Después). Introducción, edición y traducción* (1965), *Axular. Mendea. Gizona. Liburua* (1972) eta *Axular-en Hiztegia* (1973)—. *Euskararen Lekukoak* bilduman ere bost liburu apailatu zituen: Etienne Lepeyre, Pierre Guillaume de Lavieuvville-Harosteguy eta Juan Antonio Mogel egileen liburu bana, eta Aita Juan Mateo Zabalaren bi liburu.

Euskal literaturaren historiari buruz zuen ezagutza sakonaren lekuko da, gainera, *Historia de la Literatura Vasca* (1961) lana, ordura arteko osoena.

Villasanteren idazlanen zerrenda ez da orrialde hauetan errenditzeko modukoa. Jose Antonio Arana Martijak *Iker 6* omenaldi liburuan Villasanteren bio-bibliografia plazaratu zuenean, 1992an, 744 idazlan argitaraturen zerrenda eman zuen. Eta beste zenbait lan ere argitaratu zituen Villasante nekazekin hurrengo urteetan, 2000. urtean heriotzak eraman zuen arte.



#### Omenaldia Villasanteri

Korrikak bere 10. edizioan omenaldia egin zion Villasanteri. 1997ko martxoaren 23an, Villasantek egin zuen Arantzazun lehen kilometroa.

#### Luis Villasante (1920-2000)

Euskaltzain: 1950-2000

Euskaltzainburu: 1970-1988

Idazlanetako batzuk: “Despojo sistemático de la lengua de Axular” (*Euskera*, 1956, 1957, 1959, 1961), *Euskal gizonak: Pedro Axular* (1959), *Gero (Después). Introducción, edición y traducción* (1965), *Hacia la lengua literaria común* (1970), *La declinación del vasco literario común* (1972), *Axular. Mendea. Gizona. Liburua* (1972) eta *Axular-en Hiztegia* (1973), *Palabras vascas compuestas y derivadas* (1974), *Sintaxis de la oración compuesta* (1976), *Estudios de sintaxis vasca* (1978), *Sintaxis de la oración simple* (1980) eta *La H en la ortografía vasca* (1980).



**Jean Haritzelhar**  
Euskaltzaindiaren Batzar Aretoko  
koadroa

**Jean Haritzelhar.** Euskaltzainburu ohia

“Jadanik urratua zen bidean segitu nuen”

Jean Haritzelhar, 1923ko maiatzaren 13an Baigorri jaioa, ez da adinez euskaltzainik zaharrena, baina bai Akademian denbora gehien daramana: 1962an izendatu zuten euskaltzain oso, Jules Moulier *Oxobi*-ren orde, Jose Maria Lojendio euskaltzainburu zen garaian.

Handik lau urtera, Manuel Lekuona buru izendatu zutenean, Haritzelhar izendatu zuten buruorde. 22 urte egin zituen euskaltzainburuorde, lehenengo lau urteak Lekuonarekin, eta hurrengo hemezortziak Luis Villasante buru zela. 1988ko abenduaren azkenean utzi zion buruorde izateari, buruzagitza hartzeko: Villasanteren ordekoa aukeratzeko bozketan, 18 boto jaso zituen Haritzelharren hautagaitzak, bi boto Alfontso Irigoientzat izan ziren, eta boto bat zuri izan zen. 16 urte egin zituen euskaltzainburu, 2005ean lekukoa Andres Urrutiak hartu zion arte.

Guztira 38 urte egin ditu, beraz, Euskaltzaindiaren zuzendaritzan, beste inork baino gehiago, Resurreccion Maria Azkuek berak 31 egin baitzituen buru. Zuzendaritza ardurarik gabe da orain, baina Euskaltzaindian lanean jarraitzen du, besteak beste Literatura Ikerketa batzordeko buru. Euskaltzain emeritua da, 75 urtetik gora dituzten euskaltzain guztiak bezala.

Irakaslea izan da, lanbidez. 1952tik 1959ra Agen-eko Lizeoan aritu zen, eta 1962an Bordeleko Unibertsitatean hasi zen: 1969ra arte gaztelera irakasle, eta 1969tik 1986ra euskal hizkuntza eta literatura katedradun. Aldi berean, 1962tik 1988ra hain zuzen, Baionako Euskal Erakustokiko zuzendari ere izan zen, baita Baigorriko auzapez ere, 1971tik 1980ra.

Sari eta omenaldi ugari jasotakoa da: 1988an doctor honoris causa izendatu zuen Euskal Herriko Unibertsitateak, 2004. urtean Manuel Lekuona Saria eman zion Eusko Ikaskuntzak, eta 2005ean Manuel Irujo Saria jaso zuen. Euskaltzaindiak omenaldia egin zion 2008an, Baigorri egindako ekitaldiaren bidez eta *Iker 21* argitalpenaren bidez.

### ***Gogoan duzu euskaltzain aukeratu zintuztetela esan zizuten eguna?***

Bai. 1962a zen. Baionako Euskal Erakustokiko zuzendaria nintzen, eta egun batez iritsi zitzaidan Piarres Lafitte erranez: “Orain euskaltzain oso zara”. Eta erran nion: “Ni? Ez dut ezer egin nik! Gutxi egin dut”. Eta berak: “Baina egingen duzu!”. Hala gertatu zen. Egun berean ere hartu zuten Jean Diharce, *Xabier Iratzeder*.

### ***Nolako zen orduko Euskaltzaindia?***

Biltzen ginen, elkarrekin mintzatzen ginen, baina ez zen horrelako helburu zehatzik. Beste aro batean ginen. Hor ezagutu ditut orduko euskaltzainak: Koldo Mitxelena maisua, Jose Maria Lojendio, Manuel Lekuona, Ramon Maria Labaien, Aingeru Irigarai, Antonio Arrue, Luis Villasante, Piarres Lafitte, Louis Dassance, Guillaume Epherre...

### ***Sartu eta lau urtera izendatu zintuzten euskaltzainburuorde. Nolatan?***

Bizkaiko, Arabako, Nafarroako eta Gipuzkoako diputazioen ezagutza bazuen, baina nahi zuten baita ere Frantzian ezagutua izan. Orduan, 1966an, sortu zuten eus-

## **BERRIKUNTZA**

“Villasante izan da euskaltzainburu handia, berarekin osoki aldatu zen Euskaltzaindia”



### 75. urteurrena

Euskaltzaindiaren 75. urteurrenari hasiera Oñatiko Unibertsitatean eman zitzaion, herri aginteekin batean, 1993ko urriaren batean.



kaltzainburuorde delako hori, Frantziarentzat pentsatuta, han ere erakusteko zer zen Akademia. Ni ez nintzen han egun hartan, baina pentsatzen dut Lafittek proposatu zuela nire izena.

*Arantzazuko Biltzar famatuaren garaian buruorde zinen, beraz.*

Egiazko iraultza izan zen Euskaltzaindian 1968an, hala nola izan zen Frantzian, maiatzean. Urte hasieran Bilbon egin genuen batzarrean, Euskaltzaindiaren urrezko ezteiak behar bezala ospatu behar zirela erran zuen Gabriel Arestik, orduan biltzen baikinena bai euskaltzain osoak eta bai urgazleak, eta proposatu zuen behar zela zerbait egin euskara batuari buruz. Berehala onartua izan zen. Urrian egin zen Arantzazuko kongresu famatua... ezagutu ez dudana!

*Ez zinen han?*

Ez nintzen!

*Zergatik?*

Beste iraultzarengatik! Maiatzeko iraultzarengatik. Lizeoko katedrak ukaiteko oposizioak izaten dira Frantzian maiatzean, baina ahozko frogak ez ziren egin, eta irailean egin ziren. Ni epaimahaian nintzen. Hamabost egun egin behar izan nituen Parisen, etxera iritsi nintzen nekatua, emaztea eta haurrak hor ziren... eta deliberatu nuen ez nintzela joaten ahal Arantzazura, ez zela posible berriro denon uztea. Erran nahi baita, lan gehiegi nuela: unibertsitatean, Euskal Erakustokian, Euskaltzaindian...

*Pena emango dizu Arantzazun egon ez izanak, ezta?*

Bai, alde batetik. Eta ez, bestetik, ikusiz han zer egin zen: Mitxelenak behar bezala prestatua zuen, hartuz ere 1964an Baionan bildutako idazleek egina zutena, baina aktak-eta ikusiz, han izan ziren elkarriketak ene ustez ez ziren hain hein handikoak izan. Baina, gero, zinez parte hartu dut hurrengo hamar urteetako segida horietan.

### AITORTZA

“Onura publikoko erakundearen aitortza François Bayrouri eta Alain Lammassoureri esker ukan genuen”





Jean Haritzelhar

## EKONOMIA

“Villasanteren eta nire denboran ez gara aberats izan, eta behar zen dirua bilatu eskuin eta ezker”

### *Bergarako Biltzarrera arte, esan nahi duzu.*

Bai, Bergaran ni nintzen Biltzarra kudeatzeko. Villasante zen egiazko mahaiburu, baina nahiago zuen gibelean egon, eta ni nintzen elkarrizketak gidatzeko, hitza emateko... Lehendabiziko eguna ikaragarria izan zen. Kontra zirenak aritu ziren gogor, eta beste batzuk haien kontra. Ez zen aise behar bezala kudeatzea. Bukatu zelarik, gaueko bederatziak ziren... Nekatua nintzen. Eta erran nion Jose Luis Lizundiari: “Hemendik goiti segitu behar bada horrela, nik galde egiten dut beste norbait ere aritu dadin nire ordeztan”. Erran zidan: “Ez, gizona, ez. Ez zaitela inketa. Bihar ez dute ezer esango, gauza zientifikoetan sartuko baitira”. Eta hala izan zen! Erran nahi baita, zientifikotasuna ez zela gero Euskerazaintza sortuko zuten horriengan.

### *H-ri buruzko eztabaidan zuzenean parte hartu zenuen?*

Beti h-ren banderaren eramailea ni izan nintzen! Bildu nituen hemengoak, eta egin genuen txosten bat elkarrekin. Komiki batean erraten zuten: “Haritschelhar, segi horrela eta ez gal zuk daukazun hiru h horiek” [barrez].

### *Hasieratik ikusi zenuen Mitxelena hartutako bidea zela jarraitu beharrekoa?*

Bai. Eta denek. Maisu gisa agertzen zen Mitxelena. Jakituria ikaragarria zuen.

### *Manuel Lekuonaren ordeztan euskaltzainburu Luis Villasante hautatu zenuteanean, Lekuona Arantzazuko erabakiekin guztiz ados ez egoteak izan zuen zerikusirik, ezta?*

Ados zen alde batetik, baina ez osoki ados. Duda-mudan egon zen. Eta hori ikusi zelarik, aldatu zen. Baina Manuel Lekuona errespetu handiz hartzen genuen.

### *Luis Villasante buru zelarik, zertan aldatu zen Euskaltzaindia?*

Villasante izan da euskaltzainburu handia. Berarekin sortu ziren bost batzordeak, Bergarako Biltzarraren ondoren: hiztegi-gintza, gramatika, atlasa, onomastika eta, azkenik, literatura. Osoki aldatu zen Euskaltzaindia. Hartu zuen beste bide bat, bai ikerketen aldetik eta bai administratiboki.

### *Zu zeu Gramatika batzordean buruorde, Euskararen Lekukoak batzordean buru eta Hizkuntz Atlasaren proiektuko arduradun izan zinen.*

Bai, horiek guztiak egin ditugu orduan. Ez dut uste sekula Euskaltzaindiak hainbeste lan egin zuen, nola orduan eta orain.

### *Euskaltzainburu izendatu zintuzten 1988ko abenduaren 30ean. Zergatik zu?*

Villasantek ukan zuen istripu bat mendian, eta ikusten zuen pixka bat flakatu zela. Eta egun batez erran zidan: “Zuk beharko duzu nire segida hartu”. Erran nion: “Baina... ahal dea? Posible dea frantses batek ukan dezan kargu hori?”. Zeren, ordura arte, beti Hegoaldekoak ziren. Erran zidan: “Ikusiko dut, eta erranen dizut”. Hortik bizpahiru hilabeteren buruan, iritsi zitzaidan eta erran: “Denek onartuko zaituzte”. Ni ez ninduten euskaltzainek arduratzen, baizik eta administrazioek eta horiek guztiek.

### *Zer asmorekin hartu zenuen kargua?*

Jarraipena. Argi eta garbi erran nuen, kargu aldaketa egin zelarik. Jadanik urratua zen bidean segitu nuen.

***Euskaltzaindiak Frantzian ere aitormen ofiziala izan dezan aspalditik saiatu izan zara. Nondik nora?***

Euskaltzainburu izendatu nindutelarik jadanik hasia nintzen. Suprefetarekin mintzatzen nintzen. Frantzian ere behar genuen erakutsi Euskaltzaindia zer den, eta behar genuen sortu adar bat hemen. Azkenean, onartu zuen eta egin zen. Eta, emeki-emeki, guk ere hobeto ezaguturazi dugu hor ginela.

***Frantziako administrazioak Euskaltzaindia onura publikoko erakundetzat onartzea nola gertatu zen?***

François Bayrou eta Alain Lamassoure ministro zirelarik arduratu ziren horretaz, konbentzitu zuten Charles Pasqua Barne ministroa, eta Barne ministroak sinatu zuen. 1995ean izan zen. Onura publikoarena Bayrouri eta Lamassouneri esker ukan genuen. Gerora, 2008an, niri omenaldia egin didatelarik, denbora berean sinatu zen hitzarmena Euskararen Erakunde Publikoaren eta Euskaltzaindiaren artean, eta egun horretan prefeta ere hor zen. Bada hor aldaketa ikaragarri bat gertatzen ari dena orain.

***Baliabideen arloan ere onera aldatu da Euskaltzaindiaren egoera, ezta?***

Villasanteren eta nire denboran ez gara aberats izan, eta behar zen dirua bilatu eskuin eta ezker. Berrikitan sartua nintzelarik, 1989an, sinatu genuen hitzarmen bat Jaurlaritzarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta hiru diputazioekin. Baina, gerora, sinatu da gure aurrekontu arrunta Eusko Jaurlaritzak eta hiru diputazioek euren gain hartzen dutela. Ez da guti. Nire garaian prestatu zen, eta Urrutiak sinatu du. Orain ikusiko da segituko duten ala ez, baina nire ustez beharko dute segitu, zeren eta ez da Euskaltzaindiarekin jostatzen ahal. Hori da Euskaltzaindiaren indarra. Edozein izan dadin buru, guk kontsideratzen dugu buru dela, eta politikan zertan den igual zaigu. Buru da. Eta joaten gara Sanzen ikustera, nola joaten garen Ibarretxeren ikustera, eta Ardantza eta Garaikoetxea ikustera lehenago. Eta orain



**Hezkuntza ministroarekin**

Euskaltzaindiko Zuzendaritza Mariano Raxoi Espainiako Hezkuntza ministroarekin 1999ko irailaren 16an



**EUSKALTZAIN BERRIAK**

“Ez da sekula izan hainbertze euskaltzain unibertsitatetik etorriak, eta horiek daukate jakituria, nahi ala ez”

**Eusko Legebiltzarrean**

Legebiltzarreko euskal obren kopia digitalizatuak eskura eman zizkion Eusko Legegiltzarak Euskaltzaindiari 2002ko apirilaren 18an.

**ARO BERRIA**

“Egun batez, euskara batzeko lana bukatua izango delarik, beste Euskaltzaindi bat beharko dugu, beste bide bat hartuko du”

**Atlantikoetako Kontseilu Orokorrarekin batzarra**

Paben, Nafarroako Parlamentuan, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak deituta egin zuen Euskaltzaindiak Batzar irekia 1993ko uztailearen 30ean. Mahaian bildu ziren: Javier Markotegi, Nafarroako Kultur eta Hezkuntza sailburua, Juan Cruz Alli Nafarroako gobernuburuaren izenean; Jean Haritxelhar, euskaltzainburua; François Bayrou, Kontseilu Orokorreko burua, eta Jose Antonio Ardantza, EAEko lehendakaria.

Aretoan bildu ziren, besteak beste: J.A. Pradera, Bizkaiko diputatu nagusia; Eli Galdos, Gipuzkoako diputatu nagusia; Pedro Ramos, Arabako kultur diputatua, Alberto Ansola diputatu nagusiaren izenean; Mari Karmen Garmendia, Eusko Jarlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia; Jose M. Rodriguez Ochoa, Nafarroako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia; Pierre Molères, Baionako apezpikua.

Euskaltzainburuak azpimarratu zuen lehen aldiz biltzen zirela Euskaltzaindiari esker euskararen lurretako agintari nagusi guztiak.

Euskaltzaindia berdin-berdin joanen da Patxi Lopezengana. Politikatik kanpo gaude, eta hori da gure indarra.

**Denboraren poderioz euskaltzainen ezaugarriak asko aldatu dira, ezta?**

Ez da sekula izan hainbertze euskaltzain unibertsitateetik etorriak. Horiek daukate jakituria, nahi ala ez. Garai batean bi ginen unibertsitatekoak: Mitxelena eta ni. Eta orain, 29 euskaltzainetatik, hamabostek bederen unibertsitatean lan egiten dute, edo lan eginak. Ez ditut besteak baztertzen batere, horiek ere beren jakituria baitute: ez dira unibertsitatekoak Joan Mari Torrealдай edo Mikel Zalbide, baina zer-bait badakite! Edo Bernardo Atxagak eta guztiak. Emeki-emeki gero eta gehiago beharko dira idazleak sartu Euskaltzaindian. Euskaltzaindiak ukan du lan ikaragarria egiteko, euskara batua, eta horretarako beharrezkoa zen jakituria zuen jendea. Horrela egin da. Eta egun batez, lan hori bukatua izango delarik, beste Euskaltzaindi bat beharko dugu. Beste bide bat hartuko du.

**DEPARTAMENDUKO ORDEZKARIEN ETXEAN  
EUSKALTZAINDIA OHORETAN**

Aroa dudagarria ostirale aratsaldean Pauen, bildu direlarik berrogeitamar lagun Nafar Parlamentuan, hots Kontseilu Nagusiaren egoitzan. Beren ilabeteko lanen bilkura lehenik finantzen barnean eginez goizean, eta bazkaria alde aldean, ez zuten haiek euriaz axolarik. HERRIAK ematen du ezkerreko lerroan akta horren sentsua.

Bost hizlari aritu dira orolara Euskaltzaindiaren gorensten, frantsesez bistan dena, baina ere espainolez, euskaraz eta biarnez ere. Eztatiztikarik ezagutu gabe erran daiteke inoiz ez dela Kontseilu Nagusiaren egoitzan hainbeste euskara eta biarnez mintzaira entzun.

**Bayrou hizlari lehena :**

Lirisma handia erakutsiz, hurbildu ditu Erdi Aroko Nafarfar erregeen ametsak : herri bat bedera Pirineo mendilerro osoa hartuko zuenarena batetik. Bestetik gaur egun sortzeko xedea erakusten duen Europa. Bakoitzaren nortasun eta mintzairak onar-

tziaren izateak ez duela galdatzen gehiago euskarari uko egitea. “**Frantziak euskararen eta beste herri hizkuntzen beharra du**”, atera zuen Bayrouk.

Ondotik mintzatu ziren Xabier Markotegi Nafarroako president laguna espainolez eta Jose Anto-



Markotegi, Haritxelhar, Bayrou eta Ardantza Pabeko ekitaldian.(Arg. Egunkaria)

tuz eginen dena.

Bide nabar Bayrouk aitortu du jakobinismoarenak egina duela. Erran nahi baita, Frantsesa eta Fran-

nio Ardantza euskaraz, egunaren balio historikoa erakutsiz.

# EUSKALTZAINAK HISTORIAN







## Osaera

2005ean proposatu eta egun indarrean dauden estatutuen arabera, euskaltzain mota hauekin osatzen da Euskaltzaindia:

Hogeita lau euskaltzain osoz, euskaltzain emerituz, euskaltzain urgazlez eta euskaltzain ohorezkoz osatua da Euskaltzaindia. Euskaltzain urgazle eta ohorezkoentzat ez da muga jakinik.

Lehen orduko hura, 1920ko sortarauetan agertzen denez, ez da oso desberdina, kopuruak gorabehera:

Bitariko lagunak Euskaltzaindia osotuko dute; edozertarakoak edo euskaltzaiñak, eta zerbaitetarakoak, edo urgazleak. Euskaltzaiñak eskubide orotaz, urgazleak urriagotaz euskaltzaingoan ari izatekoak dira.

Amabi euskaltzain ta zortzi urgazle bederen, beti izan bear dira, yayotzez ta izkuntzaz euskaldunak oro. Baña urgazle kopuruari beste lagun batzu ere, erdaldunak izan arren, geitu datzazkioke, dedurako ala lanerako egokiak izatekotan.

Bi hizkuntzatan argitara eman zenez hona gaztelaniaz:

La Sociedad consta de doce socios numerarios y ocho correspondientes, todos vascos de naturaleza e idioma, y de un número variable de socios honorarios y correspondientes, aun extraños al País.

Hasierako arautegietan ez dagoen figura berri bat sartu da indarrean azken arautegian: emerituen figura, alegia. 2005ean erabaki zen maila berri hori sortzea, euskaltzaingoari berritasun airea emateko edo. Emerituak, izan, euskaltzain osoak dira, ezintasuna edo adina tarteko euskaltzain emeritu mailara pasatuak. Ezintasunaz gainera adinaren muga dago, 75 urte. Euskaltzain emerituak euskaltzain osoaren kideko maila gordeko dute, baldin eta batzarretan badaude, zeren barne erregelen arabera ezin dute ahaleko botorik eman.

Euskaltzain izateko hiru mota nagusiek aldatu gabe iraun dute hastapenetik gaurdaino: euskaltzain osoak, urgazleak eta ohorezkoak (lehen, deduzkoak).

Zirkuluaren muinean euskaltzain osoak daude. Eta zirkulua zabalduz agertzen dira ohorezkoak eta urgazleak.



Osoko bilkura gela



Estatutuen arabera, ohorezkotasuna euskararen alde nabarmendu diren euskalari edo euskaltzaleei eskaintzen die Euskaltzaindiak, etxeko izan ala kanpoko.

Historia osoan kanpoko euskaltzain ohorezkoak %28 izan dira.

Urgazleak, euskararen aldeko langileak, kopuruz gehiago dira. Euskalgintzan eta euskalaritzan ezagunak eta lan eginak izango dira urgazlegaiak, diote arauak. Euskaltzain “laguntzaile” deitu izan zaie urtetan. 1920ko sortarauak zioen “lanerako egokiak” aukeratu behar zirela. Euskaltzaindiaren proiektu eta lanetan esku hartzen dute eta euskaltzain oso izateko gaiak dira.

Zirkuluak azal bat gehiago izan zuen 1980ko hamarkadaren hasieran. 1981ean onarturiko Barne Erregeletan figura berri bat agertzen da, hots, “Euskaltzaindiaren lagun”. Honela zehazten da: “Elkargoak izan ditzake ‘Euskaltzaindiaren lagun’, betirako ez direnak”.

Villasante euskaltzainburuak 1979ko abenduan, Arrasateko bileran, jendaurrean agindu zuen figura berri baten sortzea, jende gaztea lanean hartzeko. Antza denez, Foruko Barne Jardunaldietan hitz eginga izan zen, baina erabaki, Loiolan erabaki zen 1981ean.

Luis Villasanteren proposamenean “lagun” hauek ez ziren betirako, batzordeetako lankideak izendatuko ziren horretarako eta euskaltzain oso izateko aukera izango zuten.

Hurrengo Barne Erregeletan, sustrairik bota gabe, desagertu egingo da figura juridiko-akademiko hau.

## Kopurua

Euskaltzain osoek *numerus clausus* izan dute beti, kopuruak aldatu badira ere. 88 euskaltzain oso dira 1918tik 2009ra bitartekoak.

Beste biek, ohorezko eta urgazleak, ez dute kopuru aldetiko mugarik.

Ohorezko euskaltzainak ez dira ugari izan. Tantaka hautatu izan dira, kontu handiz bezala. Hasieratik gaurdaino 82 dira.

Euskaltzain urgazleak kopuruz askoz gehiago dira, ez baita ohorea baizik eta lanerako deia. Bidezko da kopuruz haziagoa izatea: guztira 315. Arestian ikusi dugu eus-

---

### Genealogia akademikoa

Jose Antonio Aranak Euskaltzaindian sartzeko hitzaldia, 1989an, gai honekin egin zuen: “Euskaltzaindikoen aulkien historiaz hurbiltze bat”. Luis Villasantek, erantzunean, esan zion “ez da makala izan lan honekin Euskaltzaindiari egin diozun mesedea... Benetan baliotsua eta argitsua da guretzat”.

Uste baino zailagoa gertatu zitzaion argitze-lana egileari, gezurra badirudi ere, ez baitzegoen argi aulkien segidatasuna, dokumentazio ezagatik, batez ere gerra eta gerraondo luzearen erruz.

1968az geroztik jarraitutasuna segurua da. Baina aurretik ez beti: izendapen politikoak daude, exiliatuak, haien ordez izendatuak, *numerus clausus*en legea hautsia izan da, etab. Jose Antonio Aranak emandako akademi genealogia zuzentzeko bi eskari pertsonal izan dira, Federiko Krutwig eta Joan San Martinen aldetik.

Hemen agertzen dena Jose Antonio Aranak egindako bera da.





## Aulkiak

<p><b>1</b></p> <p>R.M. Azkue ↓ K. Mitxelena ↓ I. Sarasola</p>	<p><b>2</b></p> <p>L. Eleizalde ↓ K. Etxegarai ↓ B. Etxegarai ↓ Orixe ↓ J.M. Satrustegi ↓ J.L. Lizundia</p>	<p><b>3</b></p> <p>J. Urkixo ↓ L. Villasante ↓ A. Eguzkitza ↓ A. Arejita</p>	<p><b>4</b></p> <p>A. Campion ↓ J.C. Guerra ↓ I.M. Etxaide ↓ P. Larzabal ↓ Tx. Peillen ↓ X. Bidegain</p>	<p><b>5</b></p> <p>Tx. Agirre ↓ S. Altube ↓ P. Zamarripa ↓ J. Gorostiaga ↓ J.A. Arana</p>	<p><b>6</b></p> <p>P. Broussain ↓ G. Lacombe ↓ P. Lafitte ↓ P. Xarriton</p>
<p><b>7</b></p> <p>B. Adema ↓ M. Landerretxe ↓ J. Elizalde ↓ J. Diharce</p>	<p><b>8</b></p> <p>R. Intzagarai ↓ M. Lekuona ↓ J.M. Lekuona ↓ B. Atxaga</p>	<p><b>9</b></p> <p>J. Agerre ↓ D. Intza ↓ E. Espartza ↓ J.M. Seminario de Rojas ↓ P. Zabaleta</p>	<p><b>10</b></p> <p>J.B. Eguskitza ↓ N. Oleaga ↓ E. Erkiaga ↓ X. Kintana</p>	<p><b>11</b></p> <p>R. Olabide ↓ A. Irigarai ↓ P. Salaburu</p>	<p><b>12</b></p> <p>P. Lhande ↓ G. Epherre ↓ J.L. Davant</p>
<p><b>13</b></p> <p>J. Irigoien ↓ F. Krutwig ↓ A. Iñigo</p>	<p><b>14</b></p> <p>R. Lafon ↓ E. Larre</p>	<p><b>15</b></p> <p>J. Saint-Pierre ↓ Oxobi ↓ P. Narbaitz ↓ J. Haritxelhar</p>	<p><b>16</b></p> <p>L. Dassance ↓ J. Hiriart-Urruti ↓ B. Oihartzabal</p>	<p><b>17</b></p> <p>J.M. Lojendio ↓ P. Altuna ↓ M. Zalbide</p>	<p><b>18</b></p> <p>A. Arrue ↓ H. Knörr ↓ P. Uribarren</p>
<p><b>19</b></p> <p>L. Akesolo ↓ J. San Martin ↓ A.M. Toledo</p>	<p><b>20</b></p> <p>A. Irigoien ↓ A. Urrutia</p>	<p><b>21</b></p> <p>A.M. Labaien ↓ P. Goenaga</p>	<p><b>22</b></p> <p>A. Zabala</p>	<p><b>23</b></p> <p>J.M. Barandiaran ↓ M. Azkarate</p>	<p><b>24</b></p> <p>P. Iraizotz ↓ P. Ondarra ↓ P. Salaberri</p>
<p><b>25</b></p> <p>A. Arkotxa</p>	<p><b>26</b></p> <p>A. Sagarna</p>	<p><b>27</b></p> <p>S. Aleman</p>	<p><b>28</b></p> <p>J. Lakarra</p>	<p><b>29</b></p> <p>J.M. Torrealdai</p>	<p><b>30</b></p> <p>L. Oñederra</p>





### Karguak

Karguen kronogramak begien bistako hutsuneak dauzka. Ia beti gerra ondoren. Bi eratakoak izan daitezke hutsuneak: kargu izendaturik ez delako egon, edota horren dokumentazioa falta delako Euskaltzaindiaren artxibategian.

Informazio guzti-guztiek ez dute fidagarritasun bera. Badira ongi dokumentatuak eta beste kasu batzuetan zeharkako informazioz osatuak. Hurbiltze bat da.

Buruordearen izendapenetan ez dago hutsunerik, 1966koa baita hasiera. Diruzainaren kasuan zalantza egoera bat baino gehiago dago, baina sei bat urte kenduta osatu ahal izan da. Idazkariaren karguan urtebete gelditu da aidean. Iker eta jagon sailletako buruen karguetan urte asko dira hutsune bezala emanak. Karguak egongo ziren baina ez daude izendapenetan ongi dokumentatuta, antza denez.

Kronograma saio hau lehen hurbilketa denez, ondoko ikerketek zuzendu eta beteko dute.

kaltzain osoen kopuruak ez direla beti berak izan. Hasierako 12ko talde hura 24ra (32) pasatu da.

Hasieran hamabi zergatik izan ziren jakin ez dakigu, agian garaiko kultura erlijiosoak eraginda, Ebanjelioko apostoluen antzera. A.G. Urkixok Bizkaiko Aldundian egitasmoa aurkeztu zuenean ere, 1906an, zifra bera eman zuen, hori bai. Zergatik ez dakigu.


Hamabiko kopuru horrek 1954ko estatutuetaraino iraun du legez. Baina jada 1949an Krutwigen proposamenak 18ra pasea zuen kopurua, eta *de facto*-ko kopurua legeztatu bide zuten estatutu berriztatuek. Hori dio behintzat Villasantek.

Hurrengo jauzia 1971ko arautegian ageri da, 24ko zifra ematen baita. 24ko kopurua, 12ren bikoitza izateaz gainera, 1832an Ulibarrik proposatua da.

Elgezabalek eta Landaburuk 20ko talde proposatu zuten 1918an.

Eta gaur egun? Arautegian egun ere 24ko kopurua agertzen da. Egungo euskaltzain osoen zerrendak ikusita, aldiz, zifra hori gainditu egiten da. Egia da, eta horregatik jarri dugu parentesi artean 32: euskaltzain osoak gehi emerituak gehienez ere 32ra iritsi baitaitezke, nahiz eta egun guztira 29 izan. Barne-erregelen arabera, izan ere, emerituak gehienez herena izan daitezke.

### Euskaltzaindiko karguak





## Lurraldetasuna

Euskalki guztietako ordezkari osatzen dela euskaltzaingoa uste izan da. Eta halaxe da, izan. Baina ez da horrela zehaztuta agertzen arauetan. Idatzi gabeko legea gehiago ematen du. A.G. Urkixok egin zuen planteamenduari jarraitu zion Euskaltzaindiak, Lhandek *Euskera*-ren lehen zenbakian adierazten duenez. Honela dio: "Gure oraingo Euskaltzaindia'ren araudi geienak Urkijo'ren lan aipagarri ortan aurki litezke". Eta oin-oharrearik Urkixoren hitzak dakartza: "Segunda: Será condición precisa que entre los miembros de número haya cultivadores de todos los dialectos literarios de la lengua euskara...".



### Bizkaia eta Arabako euskaltzain osoak

Joseba Lakarra, Jose Luis Lizundia, Patxi Uribarren (Arabako kidea), Jose Antonio Arana, Andres Urrutia, Adolfo Arejita, Joan Mari Torrealdai (Xabier Kintana falta da)



### Ipar Euskal Herriko euskaltzain osoak

Beñat Oihartzabal, Jean Haritzelhar, Piarres Xarriton, Aurelia Arkotxa, Txomin Peillen, Emile Larre, Jean Louis Davant (Xarles Bidegain falta da)



### Gipuzkoako euskaltzain osoak

Lourdes Oñederra, Andoni Sagarna, Miren Azkarate, Mikel Zalbide, Ana Toledo  
(Falta dira: Ibon Sarasola, Patxi Goenaga, Bernardo Atxaga)




### Nafarroako euskaltzain osoak

Patxi Salaberri, Sagrario Aleman, Pello Salaburu, Andres Iñigo  
(Patxi Zabaleta falta da)



## Euskaltzainen jatorria



## Euskaltzainen mapak

Lurralde bakoitzaren esku hartzea Euskaltzaindian zein izan den erakutsi nahi dute grafikoek. Euskalgintzako alor guzti edo gehienetan bezala, Gipuzkoa da nagusi. Hamar bat puntu behetik dago Bizkaia, gehienetan. Euskaltzain osoen kasuan Gipuzkoatik ez urruti dago Ipar Euskal Herria, Bizkaiaren gainetik.

Esku hartzea modu argiagoan azaltzen da ehunekotan emanda. Euskaltzain osoen kasuan ez dugu inor kanpokotzat hartu, lurralde bati atxikiak gelditzen baitira denak.

Lurraldea	Osoak	Ohorezkoak	Urgazleak
Gipuzkoa	30,5	27,-	38,-
Bizkaia	21,5	18,-	22,-
Ipar Euskal Herria	27,5	13,5	18,5
Nafarroa	17,-	8,5	12,-
Araba	3,5	5,-	2,5
Kanpokoak	-	28,-	7,-



Aurreneko sortaruetan “yayotzez eta izkuntzaz euskaldunak” izan zitezela esaten da. Beste zehaztasunik gabe.

Lehenbiziko promozioa osatu zenean, 1920an, alegia, tartean izan ziren uko eta heriotzek eragindako egoera birmoldatu eta gero, Bizkaiko eta Gipuzkoakoak hiruna ziren, bina Nafarroa eta Lapurdikoak, Arabako bat eta Paristik zetorrena bestea. Euskalkien planteamenduen zera horrek nahiko huts egiten du hasieran bertan ere, are eta gehiago galdetuko bagenu zein euskalki ordezkatzzen zuten Urkixo, Campion edo Olabidek, hirurak euskaldun berriak.

Berariaz hautsi zuen idatzi gabeko lege hori Krutwigek, 1949an hainbat izen bestelako irizpideekin proposatu zituenean. Bederatzi izango ziren euskalkietako ordezkariak, erdiak.

Gaur egungo Euskaltzaindian euskalkiek badute bere ordezkapena, eta euskalgintzako beste jardun-molde batzuek ere bai berea. Hamalau dira euskalkien irizpidez hautatuak eta hamar bestelakoez. Honela zehazten dute barne-erregelek 4. puntuan:

A. Art.

Euskaltzain osoak:

4.1. Euskaltzain osoek, sortzez edo jatorriz, Euskal Herri guztikoak izan behar dute, euskalki guztiek Euskaltzaindian beren ordezkaria izan dezaten. Horretarako hautagaiak euskaran edo euskal literaturan adituak izango dira.

4.2. Euskaltzainak hautatzeko garaian euskalkien ordezkariak kontuan hartuko da, banaketa honen arabera: Arabak, bat; Bizkaierak, hiru; Gipuzkerak, hiru; Nafarrerak, hiru; Behenafarrera-lapurterak, hiru; Zubererak, bat.

4.3. Beste hamar euskaltzainak euskalki irizpide hau kontuan hartu gabe hautatuak izan daitezke. Nolanahi ere, euskalki bateko ordezkariak ezin dezakete kopuru orokorraren herena gaindi.

Ez araez baina bai ohituraz, Euskal Herriko zazpi herrialdeak ordezkaturik egon dira euskaltzain osoen artean, salbu eta 1942-1977 urteetan, Arabak Olabide hil ondoren eta H. Knörr izendatu arte ez zuela izan. Eta urte askotan gainera euskaltzainen heriotzean, bere jaioterriaren probintzia bereko euskaltzain berria izendatzen zen. Krutwigen heriotzaren ondoren, 1998an, apurtu zen guztiz ohitura hori.

## Betikotasuna

“Les immortels” esaten zaie frantses akademikoei, ez ironiarik gabe. Richelieu kardinal eta politikaria izan zen Akademia frantsesaren sortzailea, eta horrek 1635ean Akademiari eman zion seiluan “À l’immortalité” jartzen du. Hortik dator gainerakoa, makina bat irri eta zirto tartean.

Euskaltzaindiaren kondairan eztabaidarako gaia izan da betikotasuna. Hilezkorrak al dira euskaltzain osoak? Betiko hautatuak? Ukorik egin al dezakete? Baja emateko eskubiderik ba ote dute? Erakundetik kanpora egotz al daitezke? Behin aukeratuta Euskaltzaindiak “betikotzat” hartzen ote ditu beti?

Kontua da euskaltzainen zerrendan badirela baja emandakoak, uko egin dutenak, eta beste.

*De facto*-ko egoerak aparte, gai horrek badu bere isla arautegietan.



### Izendapenak

Historian zehar egin izan diren izendapenak agertzen dira laukian, hamarnaka urtez emanda. Izendapen politika, kuantitatiboa behintzat, atzeman daiteke. Euskaltzain osoen kasuan ez da horren nabaria, hutsarteak betez egiten baitira izendapenak arrunki. Salbuespenak ikusten dira laukian: hasieran bateratsu izendatu zirenak, gerra ondoren Krutwigek proposatu zituenak (18ko kopurua osatuz), geroago belaunaldi erreleboari dagokiona (24ko kopurua), eta oraintsu arautegi berrietuen ondorengoa.

Ohorezko eta urgazleen izendapenak une jakinetan egin ohi dira, kopuru aldetik mugarik gabe.

Egin dezagun errepaso arin bat. Noiz aldarrika daitezke hutsarteak? Hau da, noiz aukera daiteke euskaltzain bat (kopuru handitzeak salbuetsirik)? Euskaltzain oso bat hiltzen delarik bakarrik ala gehiagotan?

1920ko arautegian bi modutara amaitzen da euskaltzainaren bizitza akademikoa: heriotzagatik edo lankidetzaren ezinagatik.

1954ko arautegian kausa bat bakarria agertzen da: heriotza.

1971n eta 1976an, bietan, heriotzak bakarrik uzten du kargua libre.


1974ko barne erregeletan berriro agertzen dira hastapeneko bi motiboak, heriotza eta lankidetzaren ezintasuna. Villasanteren ustez, arautegiaren aurka dago puntu hau.

Eta gaur? Baldintzatua bada ere, utz liteke euskaltzain oso izatea. Ezindurik behar du, eta uzteko gogoia adierazi. Eta, gainera, Euskaltzaindiak onartu.

58.1. Nahiz bizi guztirako izendatua izan euskaltzaina, bere burua euskaltzain osoari dagozkion eginkizunak betetzeko ezindurik ikusten badu, bere gogoz utz dezake euskaltzain oso izatea. Euskaltzaindiak hiru hilabeteko epea emango dio, dituen arazoak adierazteko, eta gero erabakiko du onartzen duen ala ez. Onetsia delarik, hurrengo bilkuran iragarriko du euskaltzainburuak hutsartea.

58.2. Euskaltzain oso izatea utzi ondoren euskaltzain ohorezko izendatuko da, euskaltzain ohien zerrendan.

### Euskaltzainen izendapenak hamarkadaka





### **Pasadizoak**

Gai honen inguruan pasadizoz josia dago Euskaltzaindiaren kondaira. Goiz hasi ziren kontuak.

- Blaise Adema ez zuen onartu izendapena.
- Jose Agerre nafarrak bi bilkuretara bakarrik etorri ahal izan zuen. Lanagatik kanpora joan beharra izan zuen, Sevillara hain zuzen. Egia ala gezurra, “el que fue a Sevilla perdió su silla” esan omen zion Azkuek. Dakiguna da karguari uko egin ziezaion bultzatu zuela Zuzendaritzak. Eta halaxe egin zuen. Euskaltzain urgazle gisa gelditu zen. Kurioski, 1950ean, Krutwigek ez zuen nonbait ahaztua orduan gertatua eta ez gustuko, Damaso Intzaren ordezkari Agerre aukeratzea proposatu zuen. 1920an Intzak hain zuzen hartu zuen hark utzitako postua. Krutwigen proposamenak ez zuen aurrera egin.
- 1941: Areiltzaren eskutik dator Euskaltzaindiara Juan Irigoien. Behin-behinekotzat hartu zutela izendapena esan ohi da. Kontua da nola interpretatu 1941eko apirilaren 28ko esaldi hau: “Beraz, erabagiten dabe, bein-beineko ta oraingoz Euskaltzaindia jaun oneikaz eratua izan dedila: lengoak Azkue, Urkijo ta Intzagarai jaunak; barriak Gerra, Zamarripa, Irigoyen eta Oleaga jaunak; beste euskaltzainen izentatzea geroagorako utzirik”. Krutwigek zioen Euskaltzaindiak ez zuela behin betikotzat hartu Irigoien. Baina Irigoien jauna bizitza akademikoan esku hartzen ikusten dugu.
- 1949an Espartza nafarrak dimisioa eman zuen, lan kargagatik eta bestelako eragozpenengatik. Urgazle gisa gelditu zen, eta Seminario de Rojasek hartu zuen haren aulkia.
- 1962an Mirandek ez du onartu euskaltzain oso izatea. Urgazle diploma itzuli egiten du, gainera. Euskaltzaindiak dio urgazle betiko dela.
- 60ko hamarkadaren erdialdera, Gorostiaga, Erkiaga eta Akasolo euskaltzain osoek Euskaltzaindiarekin harremanak bertan behera uzten dituztela esanez idatzi diote Euskaltzaindiari. Gorostiaga eta Erkiagarenak bere onera datoz. Baina Lino Akasolok ez du nahi aurrerantzean osoko izan (1963tik zen), nahiz eta prest dagoen urgazle eta liburuzain gisa jarraitzeko.
- Iratzederrek eta Txomin Agirrek ere momenturen batean baja eman ote zuten, baina froga dokumentalik ez dugu aurkitu.
- Badira aurretiazko ezezkoa eman dutenak, hots, ez dutela euskaltzain izan nahi: Txillardegik hori esan zuen, Jon Etxaidek lehenago esan zuen, eta bada gehiagorik.

### **Adina eta ausentzia auzigai**

Bi eztabaida nagusik Euskaltzaindiaren kondaira aldenik alde zeharkatu dute, Guadiana bailiran. Bata, adina; eta bileretan ez agertzea, bestea.

Gaur egun badirudi adinarena konponduta dagoela, baina ez da izan erraza honaino iristea.

Adinagatik estatus berezi bat emateko saioak bat baino gehiago egon dira Euskaltzaindiaren historian.

- 1971n arautegiak berritzean norbaitek proposatu zuen 80 urterekin “ohorezko” egin behar zela euskaltzain osoa, eta kito.

---

### **HAUTATU GAZTE ETA ZAHARRENAK**

Hautagaiak euskaltzain oso izateko izendatu zutenean zer adin zuen? Historia osoan euskaltzain izendatu-uneko adinaren batez bestekoa 50,5 urte da. Batez bestekoaren azpitik 46 euskaltzain daude (%52). Eta batez bestekoaren goitik 42 (%48).

#### **Hautatu zaharrenak**

Juan Carlos Guerra: 81 urte  
 Martin Landerretxe: 77 urte  
 Joxe Migel Barandiaran: 76 urte  
 Nikolas Ormaetxea *Orix*: 69 urte

#### **Hautatu gazteenak**

Federiko Krutwig: 26 urte  
 Jose Agerre: 30 urte  
 Henrike Knörr: 30 urte  
 Luis Villasante: 31 urte  
 Jose Maria Satrustegi: 33 urte



- 1986an ere hamalau sinadurek eskatu zuten gauza bertsua, baina orain 75 urterekin "ohorezko" egiteko, eskubideak murriztuz.
- Urte berean, baina beranduago, adin handia edo osasun txarra tarteko, "emeritus" izendatzea proposatzen da, eta haren ordezkoa jartzea.

Asistentziarik eza, bilkuretara ez etortzea, ez ote da baja emateko nahikoa motibo? Villasantek berak dio nahiko tentatuta egon zela 1968 ondoren hainbat euskaltzain osok boikota egin zionean Euskaltzaindiari, boikot aktiboa. Gutxi batzuk bakarrik biltzen omen ziren.

- 1920an bertan agertu zitzaien arazoa nonbait, eta erabaki zuten urtean hogeit alditik hamar batzarretara ez datorrena kanpoan utz dezakeela Euskaltzaindiak. Paperean gelditu omen zen, dio Villasantek.
- Azkue bizi zela ere quorum arazoa bazuten. Azkue bileran zegoen urgazle bati boto eskubidea emanda moldatzen omen zuen. Bidenabar esan, quoruma ez zen Azkueren kezka bakarra, Damaso Intzari zuzendutako gutunetan ikus daitekeenez euskaltzainek aportaziorik edo lanik ez egiteak ere kezkatzen zuen.
- Gerra oste luzean areagotu egin zen ausentzia, ausentzia behartuak baitzeuden tartean, hala nola, Intza, Altube edo Olabide erbestera ihes eginda zeuden. Etxaide buru zela, printzipioei uko egin gabe, hots, euskaltzainaren izapidea inori kendu gabe, falta ziren haien ordezkoak izendatu zituzten. Horrelaxe aukeratuak omen dira Arrue eta Lojendio bera. Horiek osoen maila bera zuten, eta aulkien titularrek ez zuten lekua galtzen.

Gaurko arautegietan ez da horrelakorik ageri, zera besterik, batzarretara joatea euskaltzain osoaren eginkizuna dela. Eta hilerio egingo den ohiko barrengo bilkurara joatera behartua dagoela, eta joaterik ez badu ezin etorria agertu behar duela.

Ez adinaren handia, ez "piper" nahiz joateari boikot egitea da aski motibo euskaltzain bati bere izapidea kentzeko, Villasanteren ustez. Euskaltzainburu zela ezezko biribila eman ohi zuen kasu guztietan. 1986an, kasurako. Berak egiten du galdera eta berak ematen erantzuna, muturreko kasu bat bere buruari jarrita:

Eta orduan norbaitek euskaltzaingoari bere gogoz edo borondatez uko egiten badiño, zer? Nik, egia esan, printzipioei leialtasuna gordetzeagatik, orduan ere ez nuke onartuko. Printzipioei leialtasuna gordetzeagatik, eta noraino eramango gaituen ez dakigun zirrikitu bat ez zabaltzeagatik.

Malguagoa da egungo bidea, bai adinari dagokionean eta bai bestelakoetan.

### Emakumeak euskaltzain

Euskaltzaindiko ekitaldietan 1923an Donezteben ospatu ziren Euskalegunetan agertzen da lehenengo emakumea: "... Iruñeko Instituto euskal-ikasguko ikasle dan Julia Fernández-Zabaleta andere azkarraren itzalditxoa...", ekitaldi horretan ere parte hartu zuen "... Katalina Elizegi euskal idazle jatorra dan anderearen itzalditxoa ...". Beraz, Euskaltzaindiko ekitaldi berean bi emakumeren hitzaldiak izan ziren 1923an.

Gerra ostean ere bada emakumeen presentzia bileretan: 1956ko uztailaren 27ko bilkuran Concha Gori eta Angeles Egidazu Bilboko laguntzaileen izenean, euskararen aldeko ekintzak Euskaltzaindiaren zuzendaritzapean izan daitezela eskatzen



### Euskaltzain urgazleak

Ezkerretik eskuinera:  
Maria Paz Ziganda 1951n aukeratu  
zuten urgazle, Madeleine Jauregiberri  
eta Maria Dolores Agirre 1957an.

dute, euskarazko irakaskuntza eta haur hezkuntza bereziki aipatzen dutelarik. Ondoren, Concha Goiri Euskaltzaindiko mezenas gisa sarri agertzen da. Urte horretan berean Arantzazun ospatutako Euskaltzaleen Biltzarrean 112 partaidetik 13 emakumeak dira.

1992an euskaltzain oso izendatua izan zenean, Miren Azkarate izan zen Euskaltzaindiaren baitan kategoria hori zuen emakume lehena. Ondotik datoz Ana Toledo 13 urte beranduago (2005), Aurelia Arkotxa (2007), Sagrario Aleman (2007), Lourdes Oñederra (2007).

Bostetik lau berri-berriak dira, agian 2005ean Argomaizen egin ziren Barne Jardunaldietan Zuzendaritza berriak abian jarri zuen politika berriaren ondorio. Euskaltzain berrien hautapen irizpideei dagokienez, hirugarren puntua da hain zuzen "andrazkoen eta gizonezkoen berdintasun-politika aintzat" hartzea.

Euskaltzaindia, jakina da, euskaltzain osoez gainera ohorezko eta urgazlez osatua da. Urgazleen artean lehen aukeratua Maria Paz Ziganda nafarra izen zen, 1951n; hamarkada berean, 1957an hain zuzen, Madeleine Jauregiberri zuberotarra izan zen bigarrena. Urte berekoa da hirugarrena ere, gipuzkoarra hau: Maria Dolores Agirre.

60ko hamarkadan, 1964an aukeratu zituzten Julene Azpeitia eta Marie Jeanne Minaberriren ondotik, gehiago datoz: Milagros Bidegain, Julita Berrojalbiz, Arantza Idiazabal, Karmele Esnal, Pakita Arregi, Antoinette Lakarra, guztiak 1967ko abuztuan batera sartuak. Rikardo Arregi hiltzean alfabetatze ardurak hartu zituen bere arreba Begoña ere azaroan hartzen du Euskaltzaindiak.

70eko hamarkadaren azken urtean emakume bakarra aukeratzen da: Karmele Rotaetxe (1979). 80ko hamarkadan lau berri izendatzen dira, 1983an: Arantza Urretabizkaia, Ana Maria Etxaide, Miren Azkarate eta Maria Pilar Lasarte.

90eko hamarkadan kopuruak gora egiten du: Itziar Idiazabal eta Rosa Miren Pagola 1991n; Georgiako Natela Sturua eta Salome Gabunia 1996an; labealdi berean, Igone Etxebarria, Ana Toledo, Lourdes Oñederra, Pilar Etxebarria, Tokioko Suzuko Ainhoa Tamura.

Mende berrian nabarmen hazten da kopurua, Zuzendaritza berriarekin, eta aurretik. 2003an: Miriam Urkia, Koro Segurola, Lourdes Otaegi, Mari Jose Olaziregi, Koro Navarro, Izaskun Etxebeste, Aurelia Arkotxa. Eta hiru urte beranduago, 2006an, zazpiko beste multzo hau: Dorleta Alberdi, Elixabete Perez Gaztelu, Odile Kruzeta, Paula Kasares, Sagrario Aleman, Bernardette Soulé, Agnès Dufau.

Mende berrian nabarmen hazten da kopurua, Zuzendaritza berriarekin, eta aurretik. 2003an: Miriam Urkia, Koro Segurola, Lourdes Otaegi, Mari Jose Olaziregi, Koro Navarro, Izaskun Etxebeste, Aurelia Arkotxa. Eta hiru urte beranduago, 2006an, zazpiko beste multzo hau: Dorleta Alberdi, Elixabete Perez Gaztelu, Odile Kruzeta, Paula Kasares, Sagrario Aleman, Bernardette Soulé, Agnès Dufau.

Mende berrian nabarmen hazten da kopurua, Zuzendaritza berriarekin, eta aurretik. 2003an: Miriam Urkia, Koro Segurola, Lourdes Otaegi, Mari Jose Olaziregi, Koro Navarro, Izaskun Etxebeste, Aurelia Arkotxa. Eta hiru urte beranduago, 2006an, zazpiko beste multzo hau: Dorleta Alberdi, Elixabete Perez Gaztelu, Odile Kruzeta, Paula Kasares, Sagrario Aleman, Bernardette Soulé, Agnès Dufau.



### Euskaltzain ohorezko

Tene Mujika 1975ean hautatu  
zuten ohorezko.



### Euskaltzain oso

Miren Azkarate da euskaltzain oso  
izendaturiko lehen emakumea (1992).





Guztira 42 urgazle izendapen emakumezkoenak.

Ohorezko euskaltzainen multzoan zortzi emakume daude, Tene Mujika kenduta aurretiaz urgazle izendaturikoak denak: 1975ean Robustiana Mujika, Julene Azpeitia, Madeleine Jauregiberri; 23 urte beranduago dator hurrengo labealdia: 1998an Julita Berrojalbiz, Karmele Esnal, Marie Jeanne Minaberri; eta mende berriari bi gehiago: Suzuko Ainhoa Tamura (2000) eta Karmele Rotaetxe (2004).

## Nola bilakatu euskaltzain oso

Nola bilakatu euskaltzain oso? Ez dago aurretiazko kanpainarik, ez baitago hautagaitza aurkezterik, ez norbere burua proposatzerik.

Hutsartea suertatzen denean, hau da, euskaltzain oso bat hil edo ezinaren poderioz erretiratu egin delako, orduan euskaltzainburuak aldi bat irekitzen du euskaltzain osoek proposamenak egin ditzaten.

Hiru euskaltzain osok idatziz aurkeztu behar dute hautagaia, bere meritua eta guzti.

Euskaltzainen batzarrak egin ohi du aukeraketa bozketa ezkutukoaz. Hiru botaldi egin daitezke.

Hautatu berriari hautapenaren berri ematen zaio eta hilabeteren buruan eman dezan onarpenaren baiezkua eskatzen.

### Olabideren araudia

Olabidek idatzi zuen Euskaltzaindiaren barne erregelen jatorrizko testua. Araudi estarian argitara eman zena hizkuntza aldetik moldatua agertu zen.

1919

34. Ageria ta yaitzu batzar' or' izan bear' da. Asibidetzat, batzariaren tpedea idozlariak laburki iragariko du. Datsohola, bi euskaltzain atozgayaren bila irtego dira, ta, batzar'otegian sartuta, arentzako mairano lagun bebilkiote. Buruzagiak itarantzun liokenean, asiko da lagun beria bere itzaldia irakurtzen. Azen ondoren, erantzun bear' dionak, berea ere irakuriko du. Eta oso zutik daudelarik, euskaltzainburuak oraindantsko lagunaya euskaltzaintzat aitortuko du; ta ageria ta ezautalua emanik, eskua eskua ertoko dio; anai-agui berape beste euskaltzain guziak ere daziotelarik.

Sarrera hitzaldia paratzeko, eta berdin erantzunezko idazkia egin behar duen euskaltzainak berea presta dezan, zortzi hilabeteko denbora ematen zaie.

Horren buruan harrera ekitaldia dator.

Hona ekitaldiaren deskribapena, bi bertsiotan emana, hastapeneko barne erregeletarako Raimundo Olabidek egin zuena bata eta orain indarrean dagoena bestea.

2009

Harrera batzarra, ageriko bilkura berezia izango da. Hasteko, idazkariak bilkura hura zertarako den aditzera emango du, laburki. Berehala, bi euskaltzain aurkezleatariko bat eta sarrera-hitzaldia azken egina duen euskaltzainkidea joango dira euskaltzain berriaren bila, batzar-tokian sarrarazi eta mahairaino lagunduko diote; eta han, buruzagiak adieraz diezaionean, bere hitzaldia irakurtzen hasiko da. Honen hurrengo erantzun behar duenak irakurriko du berea. Bukatu ondoren, denak zutik direlarik, euskaltzainburuak gaia euskaltzain aitortuko du, eta euskaltzainak aginduko du Euskaltzaindiaren xede eta helburuei, eta euskaltzain oso izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela, eta ageria eta ezaugarria emanez, eskua hertsiko dio; anitasunezko erakuspen hau beste euskaltzain guztiek ere egingo diote.

# EUSKALTZAINEN GALERIA







## Euskaltzain osoak

### Hildakoak



**Azkue Aberasturi,  
Resurreccion Maria**  
Lekeitio  
Jaio: 1864.08.05  
Hil: 1951.11.09  
Euskaltzain oso: 1918.09.05



**Campion Jaimebon, Arturo**  
Iruñea  
Jaio: 1854.05.07  
Hil: 1937.08.18  
Euskaltzain oso: 1918.09.05



**Eleizalde Breñosa, Luis**  
Bergara  
Jaio: 1878.06.09  
Hil: 1923.07.24  
Euskaltzain oso: 1918.09.05



**Urkixo Ibarra, Julio**  
Bilbo  
Jaio: 1871.04.03  
Hil: 1950.10.28  
Euskaltzain oso: 1918.09.05



**Agirre Badiola, Txomin**  
Ondarroa  
Jaio: 1864.05.04  
Hil: 1920.01.14  
Euskaltzain oso: 1919.01.01



**Broussain, Pierre**  
Hazparne  
Jaio: 1859.09.08  
Hil: 1920.04.01  
Euskaltzain oso: 1919.01.01



**Adema, Blaise**  
Senpere  
Jaio: 1861  
Hil: 1936  
Euskaltzain oso: 1919.09.21



**Agerre Santesteban, Jose**  
Iruñea  
Jaio: 1889.12.29  
Hil: 1962.10.19  
Euskaltzain oso: 1919.09.21




**Eguskitza Meabe, Juan Bautista**  
Lemoa  
Jaio: 1875.11.28  
Hil: 1939.08.12  
Euskaltzain oso: 1919.09.21



**Intzagarai, Ramon**  
Donostia  
Jaio: 1878.11.21  
Hil: 1947.11.29  
Euskaltzain oso: 1919.09.21



**Lhande Hegi, Pierre**  
Baiona  
Jaio: 1877.07.09  
Hil: 1957.04.17  
Euskaltzain oso: 1919.09.21



**Olabide Carrera, Raimundo**  
Gasteiz  
Jaio: 1869.03.15  
Hil: 1942.09.09  
Euskaltzain oso: 1919.09.21



**Landerretxe, Martin**  
Ezpeleta  
Jaio: 1842.07.26  
Hil: 1930.01.29  
Euskaltzain oso: 1919.10.07



**Lacombe, Georges**  
Ortheze (Bearn)  
Jaio: 1879.01.31  
Hil: 1947.07.01  
Euskaltzain oso: 1920.06.22



**Altube Lertxundi, Sebero**  
Arrasate  
Jaio: 1879.11.08  
Hil: 1963.08.27  
Euskaltzain oso: 1920.07.22



**Olasagarre Zubeldia, Miguel**  
*Damaso Intza*  
Intza  
Jaio: 1886.10.19  
Hil: 1986.09.21  
Euskaltzain oso: 1920.07.23




**Etxegarai Korta, Karmelo**  
Azpeitia  
Jaio: 1865.07.03  
Hil: 1925.11.04  
Euskaltzain oso: 1923.11.22




**Etxegarai Korta, Bonifacio**  
Zumaia  
Jaio: 1878.06.05  
Hil: 1956.12.24  
Euskaltzain oso: 1926.01.29



**Elizalde, Jean**  
Azkaine  
Jaio: 1883.08.29  
Hil: 1961.05.05  
Euskaltzain oso: 1930.06.26




**Espartza Aginaga, Eladio**  
Lesaka  
Jaio: 1888.02.18  
Hil: 1961.03.23  
Euskaltzain oso: 1941.04.28



**Guerra, Juan Carlos**  
Donostia  
Jaio: 1860.12.27  
Hil: 1941.10.02  
Euskaltzain oso: 1941.04.28




**Irigoien Gerrikabeitia, Juan**  
Bergara  
Jaio: 1884  
Hil: 1964.04.12  
Euskaltzain oso: 1941.04.28



**Oleaga Muguruza, Nazario**  
Bilbo  
Jaio: 1884.07.28  
Hil: 1961.12.05  
Euskaltzain oso: 1941.04.28



**Zamarripa Uruga, Pablo**  
Laredo (Kantabria)  
Jaio: 1877  
Hil: 1950.08.17  
Euskaltzain oso: 1941.04.28



**Irigarai Irigarai, Aingeru  
A. Apat-Etxebarne**  
Bera  
Jaio: 1899.03.01  
Hil: 1983.11.28  
Euskaltzain oso: 1941.05.29



**Etxaide Lizasoain,  
Inazio Maria**  
Donostia  
Jaio: 1884.12.01  
Hil: 1962.11.14  
Euskaltzain oso: 1942.03.26



**Krutwig Sagredo, Federiko**  
Getxo  
Jaio: 1921.05.15  
Hil: 1998.11.15  
Euskaltzain oso: 1947.11.29



**Seminario de Rojas,**  
**Juan Miguel**  
Bera  
Jaio: 1904  
Hil: 1968  
Euskaltzain oso: 1949.03.25



**Dassance, Louis**  
Uztaritze  
Jaio: 1888.08.20  
Hil: 1976.04.14  
Euskaltzain oso: 1949.09.30



**Lafitte, Piarres**  
Luhuso  
Jaio: 1901.05.21  
Hil: 1985.02.23  
Euskaltzain oso: 1949.09.30



**Lafon, Mathieu-René**  
Mérignac (Akitania)  
Jaio: 1899.08.04  
Hil: 1974.02.04  
Euskaltzain oso: 1949.09.30



**Lekuona Etxebeguren,**  
**Manuel**  
Oiartzun  
Jaio: 1894.03.09  
Hil: 1987.07.30  
Euskaltzain oso: 1949.09.30




**Saint-Pierre, Jean**  
Milafranga  
Jaio: 1884.03.28  
Hil: 1951.12.18  
Euskaltzain oso: 1949.09.30



**Gorostiaga Bilbao, Juan**  
Bilbo  
Jaio: 1905.03.05  
Hil: 1988.06.07  
Euskaltzain oso: 1950.12.29



**Villasante Kortabitarte, Luis**  
Gernika  
Jaio: 1920.03.22  
Hil: 2000.12.02  
Euskaltzain oso: 1951.09.28



**Mitxelena Elizalt, Koldo**  
Errenteria  
Jaio: 1915.08.20  
Hil: 1987.10.11  
Euskaltzain oso: 1952.06.27




**Moulier, Jules Oxobi**  
Bidarra  
Jaio: 1888.04.07  
Hil: 1958.02.07  
Euskaltzain oso: 1952.06.27



**Arrue Zarautz, Antonio**  
Asteasu  
Jaio: 1903.03.26  
Hil: 1976.11.17  
Euskaltzain oso: 1954.09.24




**Lojendio Irure, Jose Maria**  
Donostia  
Jaio: 1910.10.18  
Hil: 1979.12.28  
Euskaltzain oso: 1954.09.24



**Ormaetxea Pellejero, Nikolas Orixe**  
Orexa  
Jaio: 1888.12.06  
Hil: 1961.08.09  
Euskaltzain oso: 1957.06.28



**Epherre, Guillaume**  
Altzürükü  
Jaio: 1911.10.19  
Hil: 1974.10.17  
Euskaltzain oso: 1959.08.29



**Narbaitz, Pierre P. Arradoy**  
Azkarate  
Jaio: 1910.03.25  
Hil: 1984.08.16  
Euskaltzain oso: 1960.01.29



**Diharce Lassegue, Jean Xabier Iratzeder**  
Donibane Lohizune  
Jaio: 1920.01.04  
Hil: 2008.10.13  
Euskaltzain oso: 1962.07.27



**Akesolo Olivares, Lino**  
Dima  
Jaio: 1911.04.07  
Hil: 1991.09.17  
Euskaltzain oso: 1963.04.05



**Erkiaga Alastra, Eusebio**  
Lekeitio  
Jaio: 1912.09.04  
Hil: 1993.05.31  
Euskaltzain oso: 1963.04.05



**Irigoien Etxebarria, Alfontso**  
Bilbo  
Jaio: 1929.11.14  
Hil: 1996.12.16  
Euskaltzain oso: 1963.05.18






**Larzabal, Piarres**  
Azkaine  
Jaio: 1915.05.07  
Hil: 1988.01.14  
Euskaltzain oso: 1963.05.18



**Satrustegi Zubeldia, Jose Maria**  
Arruazu  
Jaio: 1930.11.15  
Hil: 2003.03.27  
Euskaltzain oso: 1963.05.18



**Labaien Toledo, Antonio Maria**  
Tolosa  
Jaio: 1898.01.12  
Hil: 1994.10.12  
Euskaltzain oso: 1964.12.18




**San Martin Ortiz de Zarate, Juan**  
Eibar  
Jaio: 1922.06.23  
Hil: 2005.05.30  
Euskaltzain oso: 1964.12.18




**Zabala Etxebarria, Antonio**  
Tolosa  
Jaio: 1928.01.23  
Hil: 2009.01.02  
Euskaltzain oso: 1964.12.18



**Barandiaran Aierbe, Joxe Migel**  
Ataun  
Jaio: 1889.12.31  
Hil: 1991.12.21  
Euskaltzain oso: 1965.07.27



**Zarrantz Bermejo, Agustin Polikarpo Iraizotz**  
Ultzama  
Jaio: 1897.01.31  
Hil: 1980.04.05  
Euskaltzain oso: 1968.12.04



**Hiriart-Urruty, Jean**  
Hazparne  
Jaio: 1927.02.11  
Hil: 1990.05.13  
Euskaltzain oso: 1976.07.30



**Knörr Borràs, Henrike**  
Tarragona  
Jaio: 1947.03.02  
Hil: 2008.04.30  
Euskaltzain oso: 1977.02.26



**Altuna Bengoetxea, Patxi**  
Azpeitia  
Jaio: 1927.09.08  
Hil: 2006.01.20  
Euskaltzain oso: 1980.07.31



**Ondarra Erdozia, Patxi**  
Bakaiku  
Jaio: 1925.05.19  
Hil: 2005.07.30  
Euskaltzain oso: 1980.07.31



**Lekuona Berasategi, Juan Mari**  
Oiartzun  
Jaio: 1927.11.11  
Hil: 2005.12.05  
Euskaltzain oso: 1987.12.18



**Eguzkitza Bilbao, Andolin**  
Santurtzi  
Jaio: 1953.12.06  
Hil: 2004.03.24  
Euskaltzain oso: 2001.03.31





Euskaltzainak Barne Jardunaldietan, Urkiolan, 2009ko martxoan





## Biziak



**Haritzelhar Duhalde,  
Jean Gratien**  
Baigorri  
Jaio: 1923.05.13  
Ikasketak: Letretan doktorea  
Lanbidea: Bordeleko  
Unibertsitateko euskal  
hizkuntza eta literaturako  
irakaslea  
Euskaltzain oso: 1962.07.27



**Larre Otsobi, Emile**  
Baigorri  
Jaio: 1926.01.03  
Ikasketak: Apaiz ikasketak  
Lanbidea: Apaiza, kazetaria  
Euskaltzain oso: 1975.01.01



**Davant Irtzabal, Jean Louis**  
Ürrüstoi-Larrabile  
Jaio: 1935.07.05  
Ikasketak: Laborantza  
ingeniaritza  
Lanbidea: Ingeniaria, idazlea  
Euskaltzain oso: 1975.02.18



**Salaburu Etxeberria, Pello**  
Arizkun  
Jaio: 1951.07.03  
Ikasketak: Euskal Filologian  
lizentziaduna eta doktorea,  
Soziologian lizentziaduna  
Lanbidea: EHUko Euskal  
Filologiako irakaslea  
Euskaltzain oso: 1984.03.30




**Xarriton Zabaltzagarai,  
Piarres**  
Hazparne  
Jaio: 1921.10.19  
Ikasketak: Teologian eta Euskal  
Ikasketatan doktorea, Filosofia  
ikasketak  
Lanbidea: Filosofia irakaslea  
Euskaltzain oso: 1985.07.19




**Zabaleta Zabaleta, Patxi**  
Leitza  
Jaio: 1947.05.20  
Ikasketak: Zuzenbidean  
lizentziaduna. Filosofia eta  
Letretan lizentziaduna  
Lanbidea: Abokatu, idazlea  
Euskaltzain oso: 1987.03.27



**Sarasola Errazkin, Ibon**  
Donostia  
Jaio: 1946.07.11  
Ikasketak: Industria  
Ingeniaritzan lizentziaduna.  
Filosofia eta Letretan  
lizentziaduna eta doktorea  
Lanbidea: EHUko Euskal  
Ikasketetako irakaslea,  
hiztegigilea  
Euskaltzain oso: 1988.01.29




**Peillen Karrikaburu, Txomin**  
Paris  
Jaio: 1932.11.17  
Ikasketak: Biologian  
lizentziaduna. Letretan  
lizentziaduna. Estatuko  
doktorea Euskal Ikasketetan  
Lanbidea: Biologia eta euskara  
irakaslea, idazlea  
Euskaltzain oso: 1988.04.29




**Arana Martija, Jose Antonio**  
Gernika-Lumo  
Jaio: 1931.03.10  
Ikasketak: Zuzenbidean eta  
Ekonomi Zientzian  
lizentziaduna  
Lanbidea: Euskaltzaindiko  
bibliotekaria  
Euskaltzain oso: 1988.10.28




**Oihartzabal Bidegorri, Beñat**  
Paris  
Jaio: 1949.03.17  
Ikasketak: Zuzenbidean  
lizentziaduna eta doktorea.  
Linguistika orokorrean  
lizentziaduna. Euskal  
Estudioetan doktorea  
Lanbidea: CNRSko ikerlaria  
Euskaltzain oso: 1990.09.28




**Azkarate Villar, Miren**  
Donostia  
Jaio: 1955.11.27  
Ikasketak: Euskal Filologian  
doktorea  
Lanbidea: EHUko Euskal  
Filologiako irakaslea  
Euskaltzain oso: 1992.04.24



**Kintana Urutiaga, Xabier**  
Bilbo  
Jaio: 1946.10.13  
Ikasketak: Filosofia eta Letretan  
lizentziaduna  
Lanbidea: EHUko Irakasle  
Eskolako irakaslea, hiztegigilea  
Euskaltzain oso: 1993.10.29




**Goenaga Mendizabal, Patxi**  
Azpeitia  
Jaio: 1948.05.05  
Ikasketak: Filologia  
Erromanikoan lizentziaduna  
eta doktorea  
Lanbidea: EHUko Euskal  
Filologiako irakaslea  
Euskaltzain oso: 1995.01.27



**Urrutia Badiola, Andres Maria**  
Bilbo  
Jaio: 1954.12.21  
Ikasketak: Zuzenbidean  
lizentziaduna  
Lanbidea: Notarioa, Deustuko  
Unibertsitateko zuzenbide  
irakaslea  
Euskaltzain oso: 1997.03.21



**Iñigo Ariztegi, Andres**  
Ituren  
Jaio: 1945.02.17  
Ikasketak: Filosofia eta Letretan  
lizentziaduna eta doktorea.  
Geografia eta Historian  
lizentziaduna  
Lanbidea: Iruñeko Hizkuntza  
Eskola Ofizialeko euskara  
irakaslea  
Euskaltzain oso: 1999.02.26




**Lizundia Askondo, Jose Luis Demetrio**  
Iruñea  
Jaio: 1938.04.09  
Ikasketak: Merkataritza  
ikasketak  
Lanbidea: Euskaltzaindiko  
idazkariorde-kudeatzailea  
Euskaltzain oso: 2003.06.27



**Arejita Oñarte-Etxebarria, Adolfo**  
Bilbo  
Jaio: 1953.09.09  
Ikasketak: Euskal Filologian lizentziaduna eta doktorea  
Lanbidea: Deustuko Unibertsitateko Euskal Filologiako irakaslea  
Euskaltzain oso: 2004.06.25



**Toledo Lezeta, Ana Maria Antzuola**  
Jaio: 1954.04.03  
Ikasketak: Filologia Hispanikoan lizentziaduna. Euskal Filologian lizentziaduna eta doktorea  
Lanbidea: Deustuko Unibertsitateko Euskal Literaturako irakaslea  
Euskaltzain oso: 2005.10.21



**Salaberry Zaratiegi, Patxi Uxue**  
Jaio: 1959.04.24  
Ikasketak: Filologia Hispanikoan lizentziaduna. Euskal Filologian lizentziaduna eta doktorea  
Lanbidea: NUPeko Filologia eta Hizkuntzaren Didaktikako irakaslea  
Euskaltzain oso: 2005.12.16




**Irazu Garmendia, Joseba Bernardo Atxaga Asteasu**  
Jaio: 1951.07.27  
Ikasketak: Ekonomi Zientzietan lizentziaduna. Filosofia eta Letretan lizentziaduna  
Lanbidea: Idazlea  
Euskaltzain oso: 2006.03.31




**Zalbide Elustondo, Mikel Donostia**  
Jaio: 1951.05.09  
Ikasketak: Industria Ingeniaritzan lizentziaduna  
Lanbidea: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuaren burua  
Euskaltzain oso: 2006.04.27



**Sagarna Izagirre, Andoni Donostia**  
Jaio: 1947.07.11  
Ikasketak: Industria Ingeniaritzan lizentziaduna  
Lanbidea: Elkar enpresataldeko I+G+b arloko zuzendaria, entziklopediagilea  
Euskaltzain oso: 2006.12.22




**Arkotxa Mortalena, Aurelia Baigorri**  
Jaio: 1953.10.03  
Ikasketak: Espainol Filologian lizentziaduna eta Euskal Filologian doktorea  
Lanbidea: Bordeleko Unibertsitateko Euskal Letretako irakaslea, idazlea  
Euskaltzain oso: 2007.03.30



**Aleman Astiz, Sagrario Etxaleku**  
Jaio: 1952.03.05  
Ikasketak: Farmazian lizentziaduna  
Lanbidea: Arturo Campion euskaltegiko zuzendaria  
Euskaltzain oso: 2007.06.01




**Lakarra Andrinua, Joseba Andoni Arratzu**  
Jaio: 1962.01.01  
Ikasketak: Euskal Filologian lizentziaduna eta doktorea  
Lanbidea: EHUko Euskal Filologiako irakaslea  
Euskaltzain oso: 2007.06.01




**Oñederra Olaizola, Lourdes Donostia**  
Jaio: 1958.06.09  
Ikasketak: Filologia Hispanikoan lizentziaduna. Euskal Filologian doktorea  
Lanbidea: EHUko Euskal Filologiako irakaslea  
Euskaltzain oso: 2007.11.30



**Torrealdei Nabea, Joan Mari**  
Foru  
Jaio: 1942.11.24  
Ikasketak: Soziologian  
dokorea. Informazio  
Zientzian lizentziaduna  
Lanbidea: Jakin-eko zuzendaria  
Euskaltzain oso: 2007.11.30



**Uribarren Leturiaga, Patxi**  
Aramaio  
Jaio: 1942.10.31  
Ikasketak: Filosofia eta Letretan  
lizentziaduna. Teologian  
lizentziaduna  
Lanbidea: Itzultzailea,  
hiztegigilea  
Euskaltzain oso: 2008.09.26



**Bidegain Castet, Xarles**  
Baiona  
Jaio: 1947.06.30  
Ikasketak: Letretan  
lizentziaduna eta dokorea  
Lanbidea: Paueko eta  
Aturrialdeko Unibertsitateko  
Euskal Literaturako irakaslea  
Euskaltzain oso: 2009.03.26







## Euskaltzain ohorezkoak

Agirretxe Azpillaga, Eugenio (1998)  
 Aire, Fernando *Xalbador* (1977)  
 Allières, Jacques (1984)  
 Andiazabal, Pierre (2000)  
 Apezetxea Zubiri, Pello (2004)  
 Apraiz Buesa, Odon (1968)  
 Artola Kortajarena, Koldo (2004)  
 Atxa Agirre, Jesus (1998)  
 Azpeitia Gomez, Julene (1975)  
 Barrenengoa Arberas, Federiko (2004)  
 Berrojalbiz Berrojalbiz, Julita (1998)  
 Bilbao Azkarreta, Jon (1987)  
 Bouda, Karl (1973)  
 Braun, Jan (2000)  
 Camino, Joseph (2004)  
 Caro Baroja, Julio (1979)  
 Casenave-Harigile, Junes (2000)  
 Corominas i Vigneaux, Joan (1995)  
 de Rijk, Rudolph (1991)  
 Dirassar Hiriart-Urruti, Jean Baptiste (2004)  
 Douglass, William Anthony (1998)  
 Eizmendi Manterola, Iñaki *Basarri* (1984)  
 Enbeita Goiria, Balendin (1984)  
 Esnal Zulaika, Karmele (1998)  
 Estornes Lasa, Bernardo (1993)  
 Etxaide Itharte, Yon (1991)  
 Etxaniz Aranberri, Nemesio (1979)  
 Etxeberri, Jean Baptiste (1993)  
 Etxenagusia Uribe, Karmelo (1998)  
 Gandiaga Artetxe, Bitoriano (2000)  
 Garate Arriola, Justo (1979)  
 Garmendia Larrañaga, Juan (2002)  
 Gereño Arrarte, Xabier (1998)  
 Holmer, Nils Magnus (1984)  
 Ibagutxi Agirre, Juan Kruz (1968)  
 Intxausti Rekondo, Joseba (2004)  
 Intza Arbeo, Casto *Jorge Riezu* (1979)  
 Iratchet, Jean Pierre (1988)  
 Irizar Barnoya, Pedro (1987)  
 Izeta Elizalde, Mariano (2000)  
 Jauregiberri, Madeleine (1975)  
 Jimeno Jurio, Jose Maria (1991)  
 Kerexeta Gallaiztegi, Jaime (1998)  
 Larrakoetxea Agirrezabala, Benito Juan (1979)  
 Larrarte Garmendia, Jose Mari (2002)

Leizaola Sanchez, Jesus Maria (1984)  
 Loidi Bizkarrondo, Jose Antonio (1998)  
 Lopategi Lauzirika, Jon (2004)  
 Lopez de Gereñu Galarraga, Gerardo (1979)  
 Lopez Mendizabal, Ixaka (1957)  
 Manterola Aldekoa, Ander (2002)  
 Manterola Urigoitia, Gabriel (1968)  
 Martinet, André (1984)  
 Menéndez Pidal, Ramón (1968)  
 Merino Urrutia, Juan Bautista (1974)  
 Minaberrri, Marie Jeanne (1998)  
 Mokoroa Mujika, Justo Maria (1979)  
 Mujika Egaña, Robustiana (1975)  
 Olasagarre Zubeldia, Miguel *Damaso Intza* (1968)  
 Onaindia Baseta, Santiago (1979)  
 Orkaiztegi, Patricio Antonio (1919)  
 Oroz Arizkuren, Francisco J. (2004)  
 Orpustan, Jean Baptiste (2004)  
 Pujana Agirregabiria, Pedro (1995)  
 Rebuschi, Georges (2002)

Retolaza Iburguengoitia, Jose Antonio (2000)  
 Rotaetxe Amusategi, Karmele (2004)  
 Salaberri, Etienne Joseph (1979)  
 Santamaria Ansa, Karlos (1993)  
 Sarkisian, Vahan (2002)  
 Schuchardt, Hugo (1919)  
 Tamura, Suzuko Ainhoa (2000)  
 Tauer, Norbert (1973)  
 Tovar Llorente, Antonio (1973)  
 Trask, Larry (2002)  
 Ugalde Orradre, Martin Andoni (1993)  
 Uhlenbeck, Christianus Cornelius (1919)  
 Vinson, Julien (1919)  
 Wilbur, Terence Harrison (1984)  
 Zaitegi Plazaola, Jokin (1977)  
 Zubikarai Bedialauneta, Augustin (1993)  
 Zytzar, Yuri Vladimirov (1991)





## Euskaltzain urgazleak

- Aduriz Zabala, Jose Antonio (1991)  
 Agerre Santesteban, Jose (1934\*\*)  
 Agirre Aizpurua, M<sup>a</sup> Dolores (1957)  
 Agirreazkuenaga Zigorraga, Joseba (2003)  
 Agirretxe Azpillaga, Eugenio (1957\*)  
 Akesolo Olivares, Lino (1965\*\*)  
 Alberdi Aretxederreta, Dorleta (2006)  
 Aleman Astiz, Sagrario (2006\*\*)  
 Alfaro, Gexan *Gexan Lantziri* (1975)  
 Allières, Jacques (1963\*)  
 Altonaga Sustatxa, Kepa (2003)  
 Altuna Bengoetxea, Patxi (1965\*\*)  
 Altzaga Anabitarte, Toribio (1919)  
 Altzibar Aretxabaleta, Xabier (1996)  
 Altzola Gerediaga, Nikolas *Bitaño* (1957)  
 Alvarez Enparantza, Jose Luis *Txillardegi* (1957)  
 Ametzaga Aresti, Bingen (1957)  
 Amundarain Sarasola, Dionisio (1996)  
 Amuriza Zarraonaindia, Xabier (1967)  
 Anabitarte Irazu, Agustin (1959)  
 Andiazabal, Pierre (1964\*)  
 Andrinua Lariz, Martzel (1961)  
 Apalategi Idirin, Ur (2006)  
 Apezetxea Perurena, Juan (1979)  
 Apraiz Buesa, Odon (1919\*)  
 Arana Martija, Jose Antonio (1979\*\*)  
 Aranalde Olaondo, Joxe Mari (1975)  
 Aranbarri Alberdi, Iñigo (2006)  
 Aranberri Mendizabal, Luis Alberto *Amatiño* (2006)  
 Aranburu Bengoetxea, Antton (1996)  
 Aranburu Sagartzazu, Xabier (1975)  
 Arbelbide Mendiburu, Xipri (1987)  
 Arburua Irisarri, Teodoro (1919)  
 Arejita Oñarte-Etxebarria, Adolfo (1983\*\*)  
 Arenaza Lekerikabeaskoa, Josu (1957)  
 Aresti Segurola, Gabriel (1957)  
 Arkotxa Martija, Jose Antonio (1983)  
 Arkotxa Mortalena, Aurelia (2003\*\*)  
 Arozarena, Xalbat (1950)  
 Arregi Aranburu, Begoña (1969)  
 Arregi Aranburu, Rikardo (1964)  
 Arregi Goenaga, Frantziska (1967)  
 Arriandiaga Gorozika, Manuel (1919)  
 Arrieta Ugartetxea, Joxe Austin (1996)  
 Arruza Egia, Miguel (1950)  
 Artetxe Aranburu, Jose (1961)  
 Artola Sagartzazu, Fernando *Bordari* (1961)  
 Artola Zubillaga, Xabier (2006)  
 Arzubiaga, Zirilo (1960)  
 Astiz Iglesias, Miguel Angel (1958)  
 Atxa Agirre, Jesus (1967\*)  
 Atxaga Fernandez, Mikel (1975)  
 Aulestia Txakartegi, Gorka (1996)  
 Aurre Azurmendi, Jon Angel (2003)  
 Aurrekoetxea Olabarri, Gotzon (1991)  
 Azkarate Etxandi, Jose (1950)  
 Azkarate Villar, Miren (1983\*\*)  
 Azkue Goñi, Jose Maria (1930)  
 Azpeitia Gomez, Julene (1964\*)  
 Azpiroz Zabaleta, Jose Maria (1958)  
 Azurmendi Otaegi, Joxe (1965)  
 Badiola Uriarte, Ricardo (1983)  
 Bähr, Gerhard (1921)  
 Baraiazarra Txertudi, Luis (1996)  
 Barandiaran Aierbe, Joxe Migel (1928\*\*)  
 Barandiaran Balanzategi, Salbador (1961)  
 Barandiaran Kortazar, Julian (1965)  
 Barrenengoa Arberas, Federiko (1979\*)  
 Barrenetxea Uribasterra, Nikolas *Julen Yurre* (1983)  
 Barriola Irigoien, Iñaki (1965)  
 Basauri Arteaga, Serafin (1969)  
 Basterretxea Matoni, Jose *Oskillaso* (1964)  
 Baussani, Alessandro (1948)  
 Baxok, Erramun (1996)  
 Baztarrika Munduate, Isidro (1964)  
 Belaustegigoitia Landaluze, Federiko (1919)  
 Beloki Ezeiza, Juan Jose (1965)  
 Beobide Agirrezabalaga, Iñaki (1965)  
 Berriatua Ibieta, Imanol (1961)  
 Berrojalbiz Berrojalbiz, Julita (1967\*)  
 Berrondo Lasarte, Pedro (1967)  
 Berrueta Altzola, Antonio (1957)  
 Bidegain Barkaitzategi, Milagros (1967)  
 Bidegain Castet, Xarles (1983\*\*)  
 Biguri Otxoa de Eribe, Koldo (1996)  
 Bijueska Basterretxea, Josu Koldobika (2006)  
 Bilbao Azkarreta, Jon (1973\*)  
 Bilbao Monasterio, Antonio (1965)  
 Bilbao Monasterio, Felix (1965)  
 Bilbao Telletxea, Gidor (2003)  
 Bordazarre, Pierre *Etxahun-Iruri* (1967)  
 Bouda, Karl (1950\*)  
 Bozas Urrutia, Rodolfo (1971)  
 Brettschneider, Gunther (1991)  
 Bujanda Oñederra, Mikel (2006)  
 Bustintza Lasuen, Ebaristo *Kirikiño* (1919)  
 Butron Jauregi, Joseba (1996)  
 Camino, Joseph (1961\*)  
 Camino Lertxundi, Iñaki (2003)  
 Caro Baroja, Julio (1947\*)  
 Carrasquedo Olarra, Jacinto (1966)  
 Casenave, Jon (2003)  
 Casenave-Harigile, Junes (1979\*)  
 Castro Quesada, Américo (1930)  
 Chabagno, Jean (1950)  
 Commandant de Marien (1930)  
 Constantin, Albert (1923)  
 Constantin, Jean Baptiste (1919)  
 Cortes Izal, Jorge (1969)  
 Coyos Etxebarne, Jean Baptiste (2006)  
 Daranatz, Jean Baptiste (1919)  
 Darricarrere, Jean Baptiste (1919)  
 Dassance, Louis (1930\*\*)  
 Davant Iratzabal, Jean Louis (1965\*\*)  
 de Rijk, Rudolph (1965\*)  
 Diez de Ulzurrun Etxarte, Pedro (1958)  
 Diez de Ulzurrun Ezkurdia, Pedro (1957)  
 Diharce Lassegue, Jean *Xabier Iratzeder* (1953\*\*)  
 Dirassar Hiriart-Urruti, Jean Baptiste (1965\*)  
 Dodgson, Edward Spencer (1919)  
 Dourisboure, Pierre (1991)  
 Dufau, Agnès (2006)  
 Dufau, Dominique (1950)  
 Duhour, Pierre (1965)  
 Duny Petre, Pierre (1963)  
 Egaña Makatzaga, Andoni (2006)  
 Eguzkitza Bilbao, Andolin (1991\*\*)  
 Eiheramendi, Pierre (1931)  
 Eizmendi Manterola, Iñaki *Basarri* (1961\*)  
 Elgezabal Urrengoetxea, Koxme (1922)  
 Elizalde, Jean (1920\*\*)  
 Elozegi Irazusta, Jesus Ramon (1965)  
 Eltzaurdia Zubieta, Eusebio (1919)



- Enbeita Ealo, Kepa (1969)  
 Ensunza Lekunberri, Martzel (1991)  
 Epaltza Ruiz de Alda, Aingeru (2006)  
 Epherre, Gregoire (1973)  
 Epherre, Guillaume (1950\*\*)  
 Erdozaintzi-Etxart, Manex (1983)  
 Erdozia Landa, Xabier (2003)  
 Erdozia Mauleon, Jose Luis (2006)  
 Erkiaga Alastra, Eusebio (1952\*\*)  
 Errazti Saratxo, Jose Maria (1919)  
 Esnal Ormaetxea, Pello (1991)  
 Esnal Zulaika, Karmele (1967\*)  
 Espartza Aginaga, Eladio (1949\*\*)  
 Estornes Lasa, Bernardo (1966\*)  
 Estornes Lasa, Jose (1969)  
 Etxaburu Etxaburu, Jose Maria *Kamiñazpi* (1966)  
 Etxaide Itharte, Ana Maria (1983)  
 Etxaide Itharte, Yon (1957\*)  
 Etxamendi Gezainburu, Eñaut (1966)  
 Etxaniz Aranberri, Nemesio (1955\*)  
 Etxarren, Jean Baptiste (1979)  
 Etxeandia Beaskoa, Jose (1961)  
 Etxebarria Aiesta, Juan Manuel (1991)  
 Etxebarria Bilbao, Jose Ramon (2006)  
 Etxebarria Ibarbia, Toribio (1965)  
 Etxebarria Lejarraga, Jose Maria (1983)  
 Etxebarria Martin, Juan Angel (1966)  
 Etxebarria Zamalloa, Igone (1996)  
 Etxeberri, Jacques (1965)  
 Etxeberri, Jean Baptiste (1966\*)  
 Etxeberri Tolosa, Joseba Pantzeska (1956)  
 Etxeberria, Francisco (1957)  
 Etxeberria Murua, Pilar (1996)  
 Etxeberria Sarasketa, Peter (1959)  
 Etxebeste Zubizarreta, Izaskun (2003)  
 Etxegarai Korta, Karmelo (1919\*\*)  
 Etxehandi Gezanburu, Joseph Marcel (1964)  
 Etxenagusia Uribe, Karmelo (1965\*)  
 Etxepare Bidegorri, Jean (1919)  
 Etxezaharreta, Luzien (1996)  
 Etxezarreta Sudupe, Jesus Mari *Izazpi* (1996)  
 Etxezarreta Zelaia, Eustasio (1979)  
 Ezkerra Beltza, Santiago (1957)  
 Fagoaga Ariztia, Blas (1950)  
 Farrell Darragh, Patrick (1966)  
 Fernandorena Setien, Jazinto (1967)
- Gabunia, Salome (1996)  
 Galé Garcia, Patxi (2006)  
 Gaminde Terraza, Iñaki (1996)  
 Gandiaga Artetxe, Bitoriano (1964\*)  
 Garate Arriola, Justo (1960\*)  
 Garde Villafranca, Marcelino (1964)  
 Garitaonandia Ariño, Bitor (1925)  
 Garmendia Arruebarrena, Joxe (1979)  
 Garmendia Etxeberria, Xalbador (1965)  
 Garmendia Kortadi, Juan *Zeleta* (1965)  
 Garmendia Larrañaga, Juan (1975\*)  
 Garro Basterretxea, Bernardo Maria *Otxolua* (1950)  
 Gartzia Isasti, Pruden (2006)  
 Gartzia Trujillo, Sebastian (1996)  
 Gavel, Henry (1919)  
 Gereño Arrarte, Xabier (1965\*)  
 Goenaga Gorriti, Angel (1965)  
 Goenaga Mendizabal, Patxi (1979\*\*)  
 Goienetxe, Manex (1975)  
 Goikoetxea Arrieta, Juan Luis (1983)  
 Goikoetxea Maiza, Jon (1965)  
 Goikoetxea Olaondo, Juan Inazio *Gaztelu* (1965)  
 Goikoetxea Zabalo, Juan (1965)  
 Goiti, Bernard (1983)  
 Gomez Lopez, Rikardo (2006)  
 Gonzalez Etxabarri, Luis (1919)  
 Gorostiaga Bilbao, Juan (1932\*\*)  
 Gorrotxategi Nieto, Mikel (1996)  
 Gorrotxategi Txurruka, Joakin (2006)  
 Guerra, Juan Carlos (1925\*\*)  
 Guilsou, Paul (1950)  
 Hegi, Julien (1919)  
 Hegiaphal, Marzelin (1957)  
 Hiriart-Urruti, Jean (1955\*\*)  
 Holmer, Nils Magnus (1957\*)  
 Ibagutxi Agirre, Juan Kruz (1919\*)  
 Ibinagabeitia Idoiaga, Andima (1961)  
 Ibisate Lozares, Angel (2006)  
 Idiart, Roger (1966)  
 Idiazabal Gorrotxategi, Arantza (1967)  
 Idiazabal Gorrotxategi, Itziar (1991)  
 Igerabide Sarasola, Juan Kruz (2003)  
 Iñigo Ariztegi, Andres (1987\*\*)  
 Iñigo Ariztegi, Patxi (2003)  
 Intxaurren Arriaran, Mikel (1927)  
 Intxausti Rekondo, Joseba (1961\*)  
 Irazabalbeitia Fernandez, Inaki (2003)
- Irazu Garmendia, Joseba *Bernardo Atxaga* (1991\*\*)  
 Iribarren Rodriguez, Jose Maria (1955)  
 Irigarai Goizueta, Pablo Fermin *Larreko* (1919)  
 Irigarai Imaz, Jose Angel (1975)  
 Irigarai Irigarai, Aingeru *Apat-Etxebarne* (1929\*\*)  
 Irigoien, Dominique (1953)  
 Irigoien Aranberri, Joan Mari (1996)  
 Irigoien Etxebarria, Alfontso (1957\*\*)  
 Iriondo Unanue, Joxe Mari (1975)  
 Irizar Barnoya, Pedro (1947\*)  
 Ithurriaga, Jean (1950)  
 Iturbe Barrenetxea, Jazinto (2006)  
 Iturralde Uria, Jose Mari (2006)  
 Itzaina, Michel (1967)  
 Ixurko Astiz, Fermin (1975)  
 Izeta Elizalde, Mariano (1961\*)  
 Jauregi Etxenagusia, Luis *Jautarkol* (1966)  
 Jauregiberri, Jean (1950)  
 Jauregiberri, Madeleine (1957\*)  
 Jimeno Jurio, Jose Maria (1987\*)  
 Jorajuria Ithurria, Pello (2006)  
 Juaristi Galdos, Felipe (2006)  
 Jud, Jakob (1930)  
 Kaltzakorta Elortza, Jabier (1996)  
 Kanblong, Ramuntxo (1975)  
 Kasares Corrales, Paula (2006)  
 Kerexeta Gallaiztegi, Jaime (1964\*)  
 King, Alan Roy (2003)  
 Kintana Urriaga, Xabier (1966\*\*)  
 Knörr Borràs, Henrike (1975\*\*)  
 Kortazar Uriarte, Jon (1983)  
 Krutwig Sagredo, Federiko (1942\*\*)  
 Kruzeta Olañeta, Odile (2006)  
 Kurutxeta, Jean Pierre (1965)  
 Labaien Toledo, Antonio Maria (1950\*\*)  
 Labegerie Iratzet, Michel (1960)  
 Lafitte, Piarres (1928\*\*)  
 Lafon, Mathieu-René (1935\*\*)  
 Laka Mugartza, Itziar (2006)  
 Lakarra, Antoinette (1967)  
 Lakarra Andrinua, Joseba Andoni (1991\*\*)  
 Landart Urruti, Daniel (1979)  
 Lardizabal, Pedro (1919)  
 Laramendi Del Puerto, Ignacio (1950)  
 Larrañaga, Guillermo (1970)  
 Larrañaga Lasa, Ignacio (1957)



- Larrarte Garmendia, Jose Mari (1987\*)  
 Larrasket, Jean (1928)  
 Larre Otsobi, Emile (1967\*\*)  
 Larreta, Juan Bautista (1919)  
 Larrieu, Felix (1919)  
 Larzabal, Piarres (1950\*\*)  
 Lasa Alegria, Mikel (1965)  
 Lasarte Mugiro, Jose Manuel (1964)  
 Lasarte Zubitur, Maria Pilar (1983)  
 Laspiur Zabala, Imanol (1975)  
 Lekuona Berasategi, Juan Mari (1963\*\*)  
 Lekuona Etxebeguren, Manuel (1919\*\*)  
 Leon, Albert (1919)  
 Leon, Leon (1950)  
 Lertxundi Elizalt, Joani-Batista (1963)  
 Lertxundi Esnal, Anjel (1983)  
 Letamendia Perez de San Roman, Juan Antonio (1975)  
 Lete Bergaretxe, Xabier (1966)  
 Linschmann, Theodor (1919)  
 Lizundia Askondo, Jose Luis Demetrio (1966\*\*)  
 Loidi Bizkarrondo, Jose Antonio (1957\*)  
 Lopez de Gereñu Galarraga, Gerardo (1964\*)  
 Lopez Mendizabal, Ixaka (1919\*)  
 Maidagan, Gregorio (1941)  
 Makatzaga Eizagirre, Jesus Mari (2003)  
 Manterola Urigoitia, Gabriel (1919\*)  
 Mantzisor Seguro, Ignacio Maria (1958)  
 Martin Latorre, Peli (1969)  
 Meabe Plaza, Miren Agur (2006)  
 Mendiguren Bereziartu, Xabier (1975)  
 Menditte, Justin (1919)  
 Mendizabal Muxika, Fernando (1964)  
 Menéndez Pidal, Ramón (1919\*)  
 Merino Urrutia, Juan Bautista (1964\*)  
 Minaberri, Marie Jeanne (1964\*)  
 Mintegi Lakarra, Laura (2006)  
 Mirande Aiphasorho, Jon (1957)  
 Mitxelena Elizalt, Koldo (1950\*\*)  
 Mitxelena Lazkano, Salvatore (1952)  
 Mokoroa Mujika, Justo Maria (1957\*)  
 Monzon Olaso, Telesforo (1966)  
 Mujika Berrondo, Plazido (1957)  
 Mujika Casares, Jose Antonio (1979)  
 Mujika Etxeberria, Alfontso (2006)  
 Mujika Mujika, Gregorio (1919)
- Mujika Urdangarin, Luis Maria (1965)  
 Muniategi Elortza, Abel (1987)  
 Narbaitz, Jean (1959)  
 Narbaitz, Pierre *P. Arradoy* (1950\*\*)  
 Navarro Etxeberria, Koro (2003)  
 Odriozola Pereira, Juan Carlos (1991)  
 Oiartzabal Oiartzabal, Martin (1958)  
 Oihartzabal Bidegorri, Beñat (1983\*\*)  
 Olaizola Gabarain, Jose (1965)  
 Olaizola Urbiet, Manuel *Uztapide* (1973)  
 Olaziregi Alustiza, Maria Jose (2003)  
 Oleaga Etxeberria, Jesus (1965)  
 Oleaga Muguruza, Nazario (1919\*\*)  
 Omaetxebarria Martitegi, Ignazio (1957)  
 Onaindia Baseta, Santiago (1957\*)  
 Oñatibia Audela, Jon (1966)  
 Ondarra Erdozia, Patxi (1979\*\*)  
 Oñederra Olaizola, Lourdes (1996\*\*)  
 Orabe, Charles (1923)  
 Oregi Aranburu, Josu (1965)  
 Oregi Goñi, Eneko (2006)  
 Ormaetxea Pellejero, Nikolas *Orix* (1919\*\*)  
 Orpustan, Jean Baptiste (1996\*)  
 Ortiz de Urbina, Jon (1991)  
 Otaegi Imaz, Lourdes (2003)  
 Otegi Lakuntza, Karlos (1983)  
 Pagola, Manex (1996)  
 Pagola Petrarena, Rosa Miren (1991)  
 Peillen Karrikaburu, Txomin (1961\*\*)  
 Peña Albizu, Xabier (1960)  
 Peralta Lapuerta, Celestino (1919)  
 Perez de Senosiain Otxoteko, Buenaventura (1921)  
 Perez Gaztelu, Elixabete (2006)  
 Perurena Loiarte, Patziku (1996)  
 Pujana Agirregabiria, Pedro (1979\*)  
 Rebuschi, Georges (1991\*)  
 Rekalde Irigoien, Paskual (2003)  
 Retolaza Ibarquengoitia, Jose Antonio (1975\*)  
 Rollo, William (1925)  
 Rotaetxe Amusategi, Karmele (1979\*)  
 Ruiz Urrestarazu, Manuel Maria (1969)  
 Sagarna Izagirre, Andoni (1987\*\*)  
 Sagartzazu Sagartzazu, Klaudio (1966)  
 Saint Jayme, Frédéric (1919)  
 Saizarbitoria Zabaleta, Ramon (1966)  
 Salaberri, Etienne Joseph (1957\*)
- Salaberri Zaratiegi, Patxi (1996\*\*)  
 Salaburu Etxeberria, Pello (1983\*\*)  
 San Martin Ortiz de Zarate, Juan (1957\*\*)  
 Sanchez Carrion, Jose Maria *Txepetx* (1983)  
 Sancristoval Murua, Pedro (1979)  
 Santamaria Ansa, Karlos (1964\*)  
 Saralegi Lizarraga, Vicente (1949)  
 Sarasola Errazkin, Ibon (1966\*\*)  
 Saroihandi, Jean (1919)  
 Sarraillet, Jakes (2006)  
 Sarrionandia Uribelarra, Joseba (1991)  
 Satrustegi Zubeldia, Jose Maria (1957\*\*)  
 Seguro Amutxastegi, Iñaki (1991)  
 Seguro Azkonabeitia, Koro (2003)  
 Slaby, Rudolf J. (1935)  
 Soloeta Iturrondobeitia, Saturnino (1920)  
 Sota Aburto, Manuel (1957)  
 Soubelet, Dominique (1950)  
 Soulé, Bernardette (2006)  
 Sturua, Natela (1996)  
 Tamura, Suzuko Ainhoa (1996\*)  
 Tauer, Norbert (1954\*)  
 Telleria Zeberio, Pello (2003)  
 Telletxea Idigoras, Jose Ignacio (1979)  
 Thalamas Labandibar, Juan (1950)  
 Tirapu Retegi, Francisco (1961)  
 Toledo Lezeta, Ana Maria (1996\*\*)  
 Torrealdei Nabea, Joan Mari (1975\*\*)  
 Torres Ibañez, Francisco (1961)  
 Tournier, André (1955)  
 Tovar Llorente, Antonio (1948\*)  
 Ugalde Orradre, Martin Andoni (1973\*)  
 Uribarren Leturiaga, Patxi (1971\*\*)  
 Urkia Gonzalez, Miriam (2003)  
 Urkixo Olano, Ignacio (1957)  
 Urkizu Sarasua, Patri (1991)  
 Urmeneta Ajarnaute, Miguel Javier (1966)  
 Urrestarazu Landazabal, Antonio Carmelo *Umandi* (1961)  
 Urretabizkaia Bejarano, Arantza (1983)  
 Urriolabeitia, Amantzi (1919)  
 Urrutia Badiola, Andres Maria (1991\*\*)  
 Urruztoi, Jean (1919)  
 Urruzuno Salegi, Pedro Miguel (1919)  
 Urtel, Hermann (1919)  
 Uthurri, Thomas Jean (1961)  
 Vallejo Sánchez, José (1948)  
 Valverde Casas, Antonio (1961)



Velez de Mendizabal Azkarraga, Josemari (1983)  
Villasante Kortabitarte, Luis (1951\*\*)  
Winkler, Heinrich (1919)  
Xarriton Zabaltzagarai, Piarres (1950\*\*)  
Zabala Etxeberria, Antonio (1961\*\*)  
Zabala Garai, Pedro (1949)  
Zabaleta Kortabarria, Josu (2006)  
Zabaleta Zabaleta, Patxi (1975\*\*)  
Zaitegi Plazaola, Jokin (1950\*)

Zalbide Elustondo, Mikel (1983\*\*)  
Zamarripa Uruga, Pablo (1919\*\*)  
Zapiain Urretabizkaia, Gabriel (1965)  
Zarate Lejarraga, Mikel (1973)  
Zarrantz Bermejo, Agustin *Polikarpo Iraizotz* (1930\*\*)  
Zatarain Etxebeste, Ambrosio (1964)  
Zearreta Urigoitialekozea, Juan Jose (1975)  
Ziarsolo Gironella, Manuel (1965)

Ziganda Ferrer, Maria Paz (1951)  
Zinkunegi Arruti, Jose Indalecio (1919)  
Zuazo Zelaieta, Koldo (1996)  
Zubikarai Bedialauneta, Augustin (1961\*)  
Zubimendi Imaz, Joxe Ramon (1996)  
Zubiri Lujanbio, Juan Jose (2006)  
Zugasti Iriondo, Anizeto (1957)  
Zulaika Arregi, Jose Gonzalo *Aita Donostia* (1932)  
Zumalabe Mendiburu, Jose Migel (1973)

\* Urgazle + Ohorezko

\*\* Urgazle + Oso

BATZORDEAK  
EGITASMOAK  
LANTALDEAK





# IKER SAILA







## HIZTEGIGINTZA

### Azkueren hiztegitik Orotariko Euskal Hiztegiara


Euskaltzaindiak lehentasuna eman dio, sorreratik, hiztegegintzari. Akademia sortu berriak 1920an eratu zituen bost batzordeetako bat, hain zuzen, *Iztegisaila* izan zen: Resurreccion Maria Azkue izendatu zuten batzordeburu, eta Pierre Broussain eta Raimundo Olabide batzordekide. Beste lau batzordeak *Ikersaila*, *Yaursaila* (Jagon), *Sariketasaila* eta *Lurizenbatzailea* (Onomastika) ziren.

Euskal hiztegegintzak, dena den, Akademia sortu baino askoz lehenago jarri zuen lehen mugari garrantzitsua, hain zuzen ere gerora euskaltzainburu izango zenaren eskutik, Resurreccion Maria Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés* (1905-06) euskal hiztegegintzako erreferentzia nagusia izan baitzen baita Euskaltzaindia sortu ondoren ere, luzaroan. Azkueren hiztegi handia oinarri hartuta ekin zion lanari, beraz, Euskaltzaindiko *Iztegisailak*.

“Iztegia atontzea” zen batzordearen lana, batzar agirien arabera, eta urtez urteko batzarren agirietan jasota dago lehen hamarkada haietan ere inoiz ez zutela alde batera utzi “euskal iztegi aundia”, “iztegi nagusiya” edo “iztegi berria” egiteko asmoa: hiztegia egiteko oinarritzko irizpideez lan bat prestatu zuen Azkuek 1921ean, Gipuzkoako Aldundiari hiztegia egiteko diru-laguntza eskatu zioten 1922an eta hiztegirako “zer gai, zer bide ta zer taju artu litezkeen” azaltzeko txostena egin zuen Olabidek 1923an. 1926tik aurrera, hamarkada osoan, euskaltzainak batzarretara hiztegirako hitz eta adiera berriak ekartzen aritu ziren, Azkueren hiztegi handiak jaso gabeko hitz eta adierak, alegia. Batzarretara hitz berriak ekarri zituztenen artean daude, akten arabera, Damaso Intza, Nikolas Ormaetxea *Orix*e, Juan Bautista Eguskitza, Justo Mokoroa, Sebero Altube eta Azkue bera.

### Gerra aurea eta gerra ostea

1927an Orixek hartu zuen hiztegi berria bideratzeko ardura, eta batzorde berezi bat eratu zuten, “itz-berriak sortu edo lendik diranak aztertzeke eta Iztegi berriaren gertu-lanak eragiteke”: Azkue, Altube eta Eguskitza izendatu zituzten batzordekide, baina hurrengo batzarrean Olabide sartu zen batzordean, Altuberen orde. Handik bi urtera, Eguskitzak batzordea utzi eta Orix bera sartu zen. Baina Orix eta batzordea ez ezik, euskaltzainen batzar osoa aritu izan zen hiztegirako lanetan eta eztabaidatan, gerra zibileko etena bitartean batzar agiri ugaritan ageri denez: hitz zerrendak aztertzen gehienetan, eta irizpideez eztabaidan beste askotan.



### Azkueren hiztegia

Resurreccion Maria Azkueren hiztegia, lehenengoz 1905 eta 1906 urteetan argitaratua, berriro argitaratu zuen Euskaltzaindiak 1984. urtean.



### Koldo Mitxelena

Koldo Mitxelenaren gidaritzapean hasi ziren Orotariko Euskal Hiztegia egiteko lanak.

1932 bukaeran lanek aurreratuta behar zuten, Orixek “Iztegiaren aurreitz edo prologoa” irakurri baitzuen azaroaren 17ko batzarrean, eta hiztegia non argitaratu aztertzen hasi baitziren hurrengo urteko otsailean, baina lana bukatzeko zegoen, batzarretan hitz sortak aztertzen jarraitu baitzuten. Eta horretan ari zirela etorri zen gerra, eta gerrarekin, etena.

Gerraren ostean Euskaltzaindiak egin zuen lehenengo batzarrean, 1941eko apirilaren 28an, bukatu gabe utzitako hiztegi lanari berriro ekitea erabaki zuten, baita horretarako batzordea izendatu ere: Azkuek, Juan Irigoienek eta Nazario Oleagak osatu zuten taldea. Hasieratik hasi ziren berriro, A letratik, eta badirudi aurreko garaian baino lan erritmo geldoagoz aritu zirela, hiztegi lanei buruzko aipamenak askoz urriagoak baitira batzar agiritan. Batzordea izendatu eta bost urtera, 1946an, B letra amaitu zutela jakinarazi zioten batzarrari batzordekideek eta, 1949an, F letraraino iritsita zeuden.

### Mitxelena gidari

Baina egitasmo hura ere ez zuten inoiz bururaino eraman. 1951n Azkue hil zenean, euskaltzainburu ohiaren hiztegia berriro argitaratzea erabaki zuen Euskaltzaindiak eta, handik lau urtera, Azkueren hiztegia osatu eta gaurkotzeko egitasmoa proposatu zion Koldo Mitxelenak euskaltzainen batzarrari. Geroztik, Mitxelenarena izan zen hiztegiaren ardura nagusia.

1959an Mitxelena hiztegiako idazketa lanak egiten ere hasi zen, urtarrilaren 29ko batzar agiriaren arabera: “Orainarte Mitxelena jauna iztegirako gaia biltzen ibili da, baiña asi da idazten”. 1967an hiztegiaren argitaratze kontuei buruz mintzatzen hasi ziren batzarretan: hiru liburukitan plazaratzea proposatu zuen Mitxelenak, 25x15 zentimetroko formatuan. Eta hurrengo urtean batzorde bat izendatu zuten, hiztegia non eta nola argitaratu aztertzeko. Argialetxeek eskaintzak egiteko epea zabaldu zuten eta, 1969an, Financiera Comercial del Libroren eskaintza onartu zuen Akademiak.

Baina urte berean, ustekabean, Jose Maria Martin Retanak La Gran Enciclopedia Vasca argialetxean argitaratu zuen Azkueren hiztegia, bi liburukitan. Euskaltzaindiak, hiztegiaren jabetza baitzuen, protesta gogorra igorri zion Retanari, eta auzitara jotzekotan ere egon zen, baina Akademiak garai hartan behar bezalako nor-tasun juridikorik ez zuenez, ezin izan zion Retanaren esku hartzeari aurre egin.


Bitartean, Euskaltzaindia beste maila bateko hiztegi gintzan ere aritu zen, alorrez alorreko hiztegi eta izendegi espezializatu txikiak lantzen. 1960ko hamarkadaren bukaeran hasi zen Euskaltzaindia alorrez alorreko hiztegi gintzan, hala nola geometria eta geografia, etxegintza, zuzenbide, musika, arkitektura, matematika, zientzia-teknika, banka, arte, administrazio eta merkataritza arloetako izendegiekin. *Merkatalgo izendegia*-k (1974) eta *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia*-k (1975) ikusi zuten argia hurrengo hamarkadan.

### Hogei urte talde lanean

Retanak Azkueren hiztegia berriro argitaratzeko egitasmoa zapuztu zuen arren, Mitxelenak lanean jarraitu zuen Euskaltzaindiaren hiztegi orokorraren egitasmoarekin. Baina ez zen pertsona bakarrarentzako lana. 1982an “zuzendaritzarako laguna” izendatzea erabaki zuen Euskaltzaindiak, eta Ibon Sarasolari eman

### ZER DA OEH?

Hiztegi deskriptiboa eta historikoa da Orotariko Euskal Hiztegia (OEH), ez arauemailea. Helburua euskararen hitz-ondarea jasotzea duenez, garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea bildu du 16 liburukitan. Euskaldunak, mende eta euskalkietan zehar, zein hitz eta esapidez baliatu diren eta nola baliatu diren ahalik eta osokien eta zehatzen azaltzea da hiztegiaren xedea. Ia hirurehun liburutatik jasotako corpusetik lau milioitik gorako hitz-altxorrean oinarritutako hiztegia da.



zión ardura hori, baita “fitxak betetzeko eskulaguntza eta tresnak” agindu ere. Gari hartan, gainera, Villasante euskaltzainburuaren eskutik Euskaltzaindiaren egitura berri eta arloz arloko batzorde berriak abian jartzen ari ziren, baita Hiztegi-gintza batzordea ere: 1983. urtetik aurrera, Koldo Mitxelena izan zen batzordeburu. Bestelako hiztegi-gintza lanak ere bere ardurapean zituen batzorde horrek, baina egiteko nagusia Orotariko Euskal Hiztegia bideratzea zen.

Hiztegi handia behingoz burutzeko bitartekoak eta baldintza egokiak lortzen eta jartzen 1984. urtean hasi zen Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritzarekin eta foru aldundiekin hiztegiaren finantziatorako hitzarmena sinatu zuenean. 1985. urtean lanerako egoitza prest zuen eta, hurrengo urtean, sei laguneko lan taldea lanean hasi zen, Mitxelenaren eta Sarasolaren gidaritzapean. Hiru urteren buruan eman zuen lehenengo fruitua lan taldeak, 1987ko abenduan lehen liburukia argitaratu zuenean. Baina Mitxelenak ez zuen argitaratuta ikusi: bi hilabete lehenago hil zen. Sarasola izan zen geroztik arduradun nagusia.

2005. urtean argitaratu zen azken liburukia, hamaseigarrena. 85 urte joan ziren Euskaltzaindiak “iztegi aundia” egiteko asmoa hartu zuenetik, eta hogeitauro Orotariko Euskal Hiztegiaren lantaldea beharrean hasi zenetik.

### Orotariko Euskal Hiztegia

Hamasei liburukik osatzen dute Orotariko Euskal Hiztegia. 1987an argitaratu zen lehen, eta 2005ean azkena.



### Orotariko Euskal Hiztegia

1987ko abenduaren 17an aurkeztu zen Orotariko Euskal Hiztegiaren lehen liburukia Bizkaiko Foru Aldundian.

## Hiztegi Batu bukatu gabea

Orotariko Euskal Hiztegia bideratu eta argitaratzen hasia zenean, hiztegi gintzaren arloko beste lan nagusiari ekin zion Euskaltzaindiak: euskara batuaren oinarritzko hiztegiari, Hiztegi Batuari, alegia. 1968ko *Batasunaren Hiztegia*-rekin irekitako bideari jarraiki, Lexiko Erizpideen Finkapena (LEF) azpibatzerdeak 1986tik aurrera egindako lanean oinarrituta, eta OEHren corpora eta Egungo Euskararen Bilketalan Sistematiakoaren (EEBS) corpora baliatuz, 1992an ekin zion lanari Hiztegi Batuko batzordeak.

### Hiztegi Batua

1993tik 1997ra bitartean onartu zituen Euskaltzaindiak Hiztegi Batuaren lehen itzuliko 20.000 hitz eta aldaerak, eta *Euskera* agerkarian argitaratu zuen emaitza, 2000. urtean. Bigarren itzuliko hitz eta formekin lanean ari dira orain Hiztegi Batuko lantaldea eta Hiztegi Batua (2. itzulia) batzorde ahaldundua.



### LEF

Gerora lantzekoa zen Hiztegi Baturako aurrelan gisa, euskal hitzen erabideak aztertu zituen Lexiko Erizpideen Finkapena (LEF) azpibatzerdeak 1986an hasi eta 1995. urtera bitartean, hala nola eratorpena, eratorpen-atzizkiak, hitz-elkarketa, erdal atzizkien euskal ordainak... Miren Azkarate izan zen azpibatzerdeko buru.

Lanaren metodologia eta irizpideak zehazten aritu zen batzordea lehen urtean, eta 1993an hasi zen lehen hitz-zerrendak aztertzen eta ontzat ematen. Zerrendak Hiztegi Batuko batzordeak lantzen zituen, Euskara Batuko batzordeari helarazten zizkion gero, eta horrek Euskaltzaindiaren batzarrera bideratzen zituen, azken hitza eman zezan. 1997an bukatu zuen batzordeak Hiztegi Batuaren lehen zatia, edo lehen itzulia, 20.000 hitz edo forma aztertu ondoren. *Euskera* agerkarian argitaratu zen Hiztegi Batuaren lehen uzta, 2000. urteko 2. zenbakian.

Baina lana ez zen hor bukatu. Lehen itzulian forma erabilienak edota hedatuena jasota eta erabakita gelditu dira, baina erabilera urriagokoekin lanean ari da, 1997. urtetik, Hiztegi Batuko batzordea. Euskaltzaindiak bigarren itzuliko hitz edo formak onartu, osatu eta argitaratzean, guztira 40.000 hitz inguru izan ditzake Hiztegi Batua. Lehen itzuliko metodologia berarekin ari dira lanean, baina Hiztegi Batuko



lantaldeak prestatzen dituen zerrendak jasozten dituen batzordeari izena aldatu zitzaion 1997. urtean: Euskara Batuko batzordea beharrean, Hiztegi Batua (2. itzulua) batzordea.

2009an Urkiolako Barne Jardunaldietan aldaketa garrantzitsuagoa erabaki da, ordea: forma bakoitzari buruzko azken erabakia osoko batzarrean hartu beharrik ez izateko, Hiztegi Batua (2. itzulua) batzorde ahaldundua sortu da. Hemendik aurrera batzorde horrek izango du azken hitza.

Jose Antonio Aduriz da Euskara Batuko lantaldearen arduraduna, 1996tik —aurretik Ibon Sarasola izan zen buru—, eta Pello Salaburu izan da oraintsu arte Hiztegi Batua (2. itzulua) batzordeko burua, 1995etik —aurretik, Luis Villasante eta Patxi Altuna—. 2009tik aurrera, Iker sailburuari dagokio Hiztegi Batua (2. itzulua) batzorde ahaldunduaren ardura nagusia.

## EEBS

Orotariko Euskal Hiztegiaren corpusak testu historikoak biltzen dituen bezala, Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistemakoa (EEBS) egitasmoak XX. mendeko testuak bildu ditu. Hiztegi Batuaren lanak bi corpus horietan oinarritzen ari dira, hain zuzen. 1986tik 1991ra bitartean, EEBSk bi milioi hitzeko corpusa bildu zuen. 1991n azpibatzerdeak lan nagusia amaitutzat eman zuen, baina corpus estatistikoa etengabe eguneratzen jarraitzen du Euskaltzaindiak, UZEIrekin lankidetzan. Gaur egun, *XX. Mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa* izena du, eta eskuragai dago Euskaltzaindiaren webgunean. Andres Urrutia izan zen EEBS azpibatzerdeko buru.

## Hiztegi Batuko lantaldea

**Arduraduna:** Jose Antonio Aduriz. **Kideak:** Irene Arrarats, Luis Baraiazarra, Jean Louis Davant, Antton Gurrutxaga, Koro Navarro, Paskual Rekalde, Andoni Sagarna, Miriam Urkia, Xarles Bidegain.

“ Hiztegi Batuko lantaldearen egiteko nagusia euskara batuaren oinarritzko hiztegia bideratzea da. Idazleek-eta batu dituztenak bere hartan berretsiz eta, batasunik ez dagoenean, batasun hori nola lor litekeen ikusiz: idazleen erabilerak ezagutzea dago oinarrian, tradizioko ondarea eta orainagoko ekarriak ezagutzea, eskura izan diren corpus biak (OEH eta EEBS) aztertuz eta irizpide lexikologikoak talde-lanean zehaztuz, adostuz eta formalizatuz.

Euskaltzaindiak hiztegi gintzan orain arte egin dituenetan, bi alderdi nabarmenduko nituzke: aparteko lekua dagokio Orotariko Euskal Hiztegiari, euskarazko ondarearen bilduma guztiz aberatsa jaso baitu eta hori izango baita ondoko lanen oinarri sendo eta ezin baztertuzkoa. Bestalde, modu nabarmenean eragin dio euskara batuak gaur duen itxurari, horren norabidea adierazi duten formak proposatuz, 1968ko Batasunaren Hiztegia-rekin hasi eta oraingo Hiztegi Batua arte.

Hartutako bidetik jarraituz, eta corpus berriez baliatuz, adi egon beharko du Euskaltzaindiak idazleen jokabideari, izango baita zuzendu beharrekorik, edo argitu beharreko zalantzarik eta ekarpen baliozko eta aberasgarririk. Beren adierazpideak etengabe berritu behar dituzte idazleek, eta horiek galbahetzea izango da Euskaltzaindiaren egiteko nagusia, forma egokiak berretsiz eta euskara batuaren bidea zein den seinalatuz, horretan dihardutenean lagungarri.



**Jose Antonio Aduriz**  
Hiztegi Batua lantaldeko  
arduraduna



## Hiztegi Batu Oinarriduna

Hiztegi Batuko formak erabakitzeke, hainbat datu bildu izan ditu Hiztegi Batuko lantaldeak urte luzeetan zehar: aztertu beharreko formak, horien erabilera tradizioan eta gaur egun, alegia, zer idazlek, zer euskalkitan, zer motatako testutan, zer testuingurutan, zenbateko maiztasunez erabili izan diren, hiztegi eta entziklopedietan agertu diren, etab. Hainbat iritzi-maileri iritsarazi izan dio bere garaian proposatuko lukeen forma, eta hori aztertu ondoren, eta jasotako erantzunak kontuan hartuz, Euskara Batuko batzordeari eta azkenik Osoko Bilkurari aurkeztu izan dizkio hileroko-hileroko lan horren emaitzak, Hiztegi Batuaren erabakiak hartzeko garaian Osoko Bilkurak eskura izan zezan informazio aberasgarri eta esanguratsu hori. Horietan harturiko erabakiak ere gordeta daude.

Informazio hori era egituratu batean antolatatu da oraingoan, IKT batzordearen ekimez; Interneteko erabiltzaileen irispidean jarrita dago Euskaltzaindiaren webgunean, Hiztegi Batu Oinarriduna titulupean. Hartara, Hiztegi Batuak ematen duen informazioa osatu da, sarrera eta azpisarreraren historia lexikografikoa eskaintzen dela, hiztegi arau-mailean sartzeko ibilbidea, hain juxtu ere.

**Hiztegi Batu Oinarriduna**

Hiztegi Batuko formak erabakitzeke erabili izan den prozedura zehar sortu den dokumentazioa modu egituratuan gordeta dago datu-base batean. Horri esker, Euskaltzaindiaren webgunean kontsultagai daude erabakitako formak ez ezik, baita, erabaki horiek hartzeko, kontuan izan diren arrazoiak ere.

Hiztegi Batu Oinarridunean kontsultak egiteko orriak itxura hau du:

**Hiztegi Batu Oinarriduna**

A · B · C · D · E · F · G · H · I · J · K · L · M · N · Ñ · O · P · Q · R · S · T · U · V · W · X · Y · Z

Forma:

Kat. gramatikala:  Numero-marka:

Aditz-mota:

Erabilera:

Euskalkia:  Erregistro-maila:

Garaia:

Onarpen:

Hiztegi Batuko forma batzuk erabakitzeke ez da arazo handirik izan, baina kasu batzuetan, azken erabakia hartzeko, hainbat irizpide izan dira kontuan.

Hainbat iritzi-maileri eta euskaltzain osoci aukera ematen zaie beren oharrak egiteko. Hiztegi Batuko Lantaldeak, Orotariko Euskal Hiztegiaren jasotako informazioa, XX. mendeko Corpus Estatistikoa bildutako erabilerrari buruzko datuak, hainbat hiztegi, etab. kontsultatu ondoren, dokumentazioa prestatzen du Euskaltzaindiaren Osoko Bilkurari toestengile batek proposamen arazoitu bat aurkez diezaion. Azken aldiari, prozedura hori arintzeko, Batzorde Ahalgandua bat izendatu du Osoko Bilkurak behar-beharrezkoa ez denean salbu, forma bakarak ez, baizik eta zerrenda osoak onar ditzan.

Hemen behean adibide jakin bat erakusten da, sarrera-sorta jakin bati dagokiona:

**amore** iz. g. er. 'maitasuna, amodio'  
**amoreagatik** 1 Batez ere *lpar*: Jainkoaren amoreagatik. 2 Batez ere *lpar*: beti gehiago eta hobeki maizta zultzadan amoreagatik.  
**amorcarrren**  
**amore** egin h. **amore eman**  
**amore eman**  
**amoretz** 1 *Zah.* h. **amoreagatik** 2 *Zah.* h. **amodioz**  
**amoretzko** izlag. h. **amodiozko**

Kontsultaren emaitzak dituen atalak eta bertan dagoen informazioa horrela interpretatu behar dira:

**Iturriak:**

	Kodea [2]	Data	Proposamena
<b>Hiztegi Batuko Lantaldea:</b>	Z1:BatHitz	1992-07-23	Lantaldeak erabaki gabe utzia
<b>Hiztegi Batuko Lantaldea:</b>	Z3:EEBS:05		
<b>Hiztegi Batuko Lantaldea:</b>	Z4:HBL	1997-07-09	Lantaldeak onartua, informazio bat gehituz

"Kodea" ataleko informazioa ulertzeko, aski da "?" zeinuan klik egitea. Beste orri bat irekitzen da esaten diguna zer adierazten duen kode bakoitzak. Kasu honetan:

Z1: Hiztegi Batua, lehen aztergia  
 Z3: Hiztegi Batua, hirugarren aztergia  
 Z4: Hiztegi Batua, laugarren aztergia  
 BatHitz "Batasunerako hiztegia" (1968)  
 EEBS:05 EEBS:xx EEBSko corpusen 05. heineko forma (maiztasunaren ideia ematen du horrek)  
 HBL Hiztegi Batuko lantaldeak gehitu duen forma, aztergia lantzean

### EEBSko datuak [laburduren azalpena]

**a) amor/amore** banaketa: **amor** IE 1 (Barb); **amor egin** 3, B-G-IE (S. Onandia; Zubizarreta; *Eskualduna*); **amor emaitte** 1 (Vill); **amor eman** 38: G 7 (A. Zugasti, Txill, J. Etxaide, J. Gaztañaga, S. Onandia, Mde), IE 17 (Zerb, E. Salaberry, D. Dufau, Vill, P. Duny, *Euskera* 1978, Iratzeder, P. Lafitte, Otoizlari, Herria, *Eskualduna*), EB 12 (J.M. Arrieta, J. Azurmendi, J. Intxausti, G. Garate, Bereterretxe, J.A. Agirre, D. Landart), EgAs 2 (*Euskera* 1968); **amor eman** G-EB 2 (J.I. Uranga; J.M. Mendizabal); **amorra egin** EB 1 (E. Berazubi); **amore** 11: B 2 (*Cristiñau doctriña bere esplicaciño laburragaz*, X. Kaltzakorta), G 4 (Azkue, *Eliz-cantachoac*, *Jesus gure Jaunari eta Ama sortzez garbiari*, I. Lopez Mendizabal), IE 1 (*Luzaideko eliz kantak*), EB 4 (E. Etxezarreta, J. Azurmendi, Euskaltzaindia, J.K. Igerabide); **amore egin** EB 1 (Txill); **amore eman** 55: G 1 (A.M. Labayen), EB-EgAs 54 (*Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakia*, R. Manjón, B. Urkizu, J. San Martin, Zutabe, M. Pagola, J.A. Fernandez, E. Garmendia, G. Aldabaldetreku, K. Alkorta, J. Zabaleta, J.M. Irigoien, B. Lekuona, *Elhuyar*, J. Aztaparretako, X. Gereño, *Itun Berria*, J.A. Arrieta, J. Urkijo, X. Egireun, P. Ezkiaga, X. Galarreta, X. Aduriz, G. Aresti, J. Etxaide, J. Zeruko Argia, DV Atxaga, K. Fdz. de Larrinoa, J.A. Aduriz, G. Aresti, J. Etxaide, J. Zeruko Argia, DV Mendiguren, J.L. Lekunberri, J.M. Irigoien; **amorean** G 1 (P. Berrondo); **amoremate Zabalik**, Argia, *Idatz & Mintz*, Urraspide); **amoremone** B 1 (F. Zubiaga); EB 2 (E. Lopez, M. Legasse), EgAs 1 (M. Ezkurdia); **amorekatik** IE 1 (M. Heguiphall); **amoreagatik** (amorea gatik 1) 7: IE 5 (L. Diharassarry, G. Alfaro, Iratzeder), EB 2 (J. Intxausti); **amoreagatik** EB 1 (J. Goikoetxea); **amorekatik** IE 1 (M. Heguiphall); **amoregatiz**, EB 1 (G. Nazabal); **amorekaitz** 3: G 1 (B. Latiegi), EB 2 (J. Intxausti); **amoretzu** G 1 (*Aita San Ignacio Loyolacoaren exercicio santuac*); **amodio** / **amorio**: **amodio** forma eta konposatuak (**amodio-dantza**, **amodio hitz**, **amodio kantu**...) 216 aldiz ageri dira: B 18 (B. Garitaonandia, *Cristiñau doctriña*, Mariya Jaungoikoaren Amak emoten dausan irakatsiak, D. Bernaola, J. Gorostiza), G 11 (T. Egibar, *Euskeraren berri onak*, G. Aresti, J. Etxaide, J. Azurmendi, L. Akeso, Vill), IE 103 (J. Barbier, *Euskaltzaleen Biltzarra*, J. Etchepare, P. Duhour, *Jesusen Bihotz Sakratuari giristinoen debozioa*, Michel Garicoitz *aita misionestaren bizia*, L. Diharassarry, B. Joannateguy, M. Leon, S. Erramouse, Iratzeder, E. Salaberry, G. Eppherre, A. Erdozaincy, J. Heguy, L. Lekuona, *Ene populua entzun*, D. Soubelet, G. Aresti, P. Larzabal, *Gure Herria*, E. Laxague, *Luzaideko eliz kantak*, Othoizlari, Zutabe, E. Kortadi, P. Pochelu, Xalbador), EB 59 (I. Seguro, Vill, Otoizlari, Zutabe, E. Kortadi, P. Xarriton, J. Bujanda, H.A.B.E., J.M. Satrustegi, M. Pagola, J.A. Irigarai, J. Hiriat-Urruty, A. Eguzkitza, J. Etxaide, P. Zabaleta, A. B. Atxaga, I. Borda, J.A. Irigarai, P. Aristi, X. Amuriza, J. Etxaide, P. Zabaleta, A. Belmonte, I. Mendiguren, F. Juaristi, P. Aristi, X. Garmendia, M. Legasse, M.A. Unanua, A. Lasa, X. Gereño, D. Landart, G. Aresti, S. Garmendia, M. Legasse, M.A. Unanua, A. Arana), EgAs 25 (*Aizul*, *La Voz de Euskadi*, Argia, *Habe*, Herria, *Punto y Hora de EH*, DV *Zabalik*, *Hemen*, *Aburu*, *Plazara*); **amorio** (eta **amoriotsu**) 3) 26 aldiz: G 16 (J.J. Kortazar, E. Furundarena, Segur, *Aita San Ignacio Loyolacoaren exercicio santuac*, P.M. Urruzuno, *Jesus gure Jaunari eta Ama sortzez garbiari*..., *Eliz-Cantachoac*, J. Etxaide, G. Aresti), IE 4 (E. Inchauspe, *Luzaideko eliz kantak*), EB 5 (*Baiez* 2, A. Urceclay, I. Urbieta, T. Peillen, P. Zabaleta: "amorio suspertzale"), EgAs 1 (*Eguna* 1989).

### Hiztegi Batua (2. itzulia) batzordea (2001-2009)

**Burua:** Pello Salaburu. **Idazkaria:** Jose Antonio Aduriz. **Aholkulariak:** Miren Azkarate, Xabier Kintana.

“ Hiztegi batuaren lehenbiziko itzulian 20.000 sarrera ingururen idazketa erabaki zuen Euskaltzaindiak. Batez ere sarrera horien ortografia zehazten da, oinarriko informazio bat gaineratuz: kategoriak, adibide batzuk, aditz erregimena, eta abar. Bigarren itzulian beste 25.000 sarrera gaineratzeko asmoa dago, eta aurretik emandakoak osatzeko. Gero, lan hori bukatu ondoren, berriz ere osorik aztertuko da, lanaren koherentzia ezak konpontzeko. Lan hau, oro har, arauemailea da, deskriptiboa baino gehiago.

.....

Euskara batuari euskarri handia eman dio Hiztegi Batuak. Lexikoko puntu askotan batasuna egin gabe zegoen, eta lan horrek bideratzen ditu idazleek zituzten hainbeste kezka eta zalantza. Bestetik, batzuetan informazioa ere ematen da, behar denean, batez ere aditz erregimenari buruz, erabilerari buruz... eta abar. Hori da hitz zerrenda horren ekarpenik handiena.

.....

Sistema aldatu behar da, bestela ez baita inoiz ere bukatuko. Hiztegi Batuaren bigarren itzulia oraingo irizpideekin bukatu behar da, bestela lanak ez bailuke batasunik izango. Alde batetik, hau bukatu behar da, baina gero egungo euskararen datuak erabiliz osatu beharko da.



**Pello Salaburu**  
Hiztegi Batua (2. itzulia)  
batzordeko burua 2009 arte

### Hiztegi Batua (2. itzulia) batzorde ahaldundua (2009tik aurrera)

**Burua:** Iker sailburua (Andoni Sagarna). **Idazkaria:** Euskaltzaindiaren idazkaria (Xabier Kintana). **Kideak:** Hiru euskaltzain oso (Miren Azkarate, Pello Salaburu, Patxi Uribarren), eta Hiztegi Batuko lantaldearen arduraduna, ahotsaz bai baina botorik gabe (Jose Antonio Aduriz).

“ Orain arte, Euskaltzaindiak oso prozedura astuna zuen Hiztegi Batuko erabakiak hartzeko, hainbat sarrerari egindako oharrak osoko bilkuretan, euskaltzain oso guztien artean, eztabaidatzen baitziren. Prozedura horrekin jarraitzekotan, izugarri atzeratuko zen lana. Bestalde, ikusi dugu beste akademietan (Espainiakoan, Galiziakoan, Kataluniakoan) ez dela horrela egiten. Horregatik, 2009ko apirilean eta maiatzean, Batzorde Ahaldundu bat sortu da, lana bizkortzeko, 2011. urtearen bukaeran Hiztegi Batuaren 2. itzulia amaituta egon dadin. Lehen, bidearen bukaera oso urrun ikusten zen, orain, berriz, helmuga begien bistan dugu, horretarako batzordeak lana latz egin beharko badu ere.



**Andoni Sagarna**  
Hiztegi Batua (2. itzulia) batzorde  
ahaldunduaren burua 2009tik





## Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak egitasmoa

OEH amaitu ondoren, Euskaltzaindiak euskara-euskara hiztegia egitea erabaki zuen, Hiztegi Batuko lehen itzulian argitaratutako hitzekin eta formekin, bakoitzaren adieraren azalpenarekin eta adibideekin hornituta. Egitasmoaren izen osoa: Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. 2005. urtean abiatu zen egitasmoa, Ibon Sarasolaren zuzendaritzapean.

### Azkueren Hiztegia

Azkueren Hiztegiaren berrargitalpena aurkeztu zen Donostian, 1983ko maiatzaren 20an.



### Egitasmoa

**Zuzendaria:** Ibon Sarasola. **Teknikariak:** Hitzarmen bidez (Hitzerean, SL).



### Ibon Sarasola

Euskaltzaindiaren Hiztegia egitasmoa zuzendaria

“ Duela bederatzi urte Euskaltzaindiak Hiztegi Batua argitaratu zuen. Hiztegi hori, batez ere, hiztegi ortografikoa zen, hots, euskal hitz usuenak nola idatzi behar diren adierazten zuen. Orain, Euskaltzaindiaren Hiztegia egitasmoarekin, ortografia-hiztegi hori hiztegi ‘normal’ bihurtu nahi dugu. Hortaz, Hiztegi Batuko hitz guztiak definizioz, adieraz eta erabilera-adibideez hornituak agertuko dira Euskaltzaindiaren Hiztegian.

Inongo zalantzarik gabe, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua mugarri bat izan zen euskara batuaren estandarizazioan. Dena dela, Euskaltzaindiak sustatu dituen hiztegi lanen artean inork gutxik ukatuko du K. Mitxelenaoren Orotariko Euskal Hiztegiak leku berezia merezi duela. Izan ere, Orotariko Euskal Hiztegiak azpiegitura berri, zabal eta seguru bat eskaini die Euskaltzaindiaren normatibizazio lan guztiei ez ezik, euskal ikergintza osoari ere, oro har.

Jakina denez, hizkuntza guztien estandarizazioan hiztegi kontuek dute axola batez ere. Alde horretatik erronka handia du Euskaltzaindiak maila eta alor guztietako egungo hitzen forma eta edukia erabakitzen, eta hitz bakoitzaren adiera eta erabilmoldeak moldatzen, eta orobat euskal hitz altxorrean zaharkituak gertatu diren hitz eta adierak markatzen. Gainera, edozein hizkuntzako hitz altxorra etengabe aldatzen den eta biziberritzen den gauza bat denez gero, inoiz bukatzen ez den lan bati ekin behar dio Euskaltzaindiak alor horretan.

# Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak batzorde ahaldundua

## Batzorde ahaldundua

**Burua:** Iker sailburua (Andoni Sagarna). **Idazkaria:** Euskaltzaindiaren idazkaria (Xabier Kintana). **Kideak:** Egitasmoaren zuzendaria (Ibon Sarasola), hiru euskaltzain oso (Adolfo Arejita, Beñat Oihartzabal, Patxi Salaberri), eta Hiztegi Batuko lantaldearen arduraduna, ahotsaz bai, baina botorik gabe (Jose Antonio Aduriz).

“ Lantalde bat Hiztegi Batutik abiatu eta horko sarrera eta azpisarrereri adieren definizioak, kategoria gramatikalak, erabileratik jasotako adibideak, marka dialektalak, espezialitate- eta erregistro-markak erantsiz, Euskaltzaindiaren Hiztegia prestatzen ari da. Hiztegi horren lehen idazketa 2010. urtearen bukaeran amaituko da.

2009ko ekainean hasi zen batzorde bat, Euskaltzaindiaren osoko bilkurak ahaldunduta, lehen idazketa horren jarraipen- eta ikuskatze-lanean, hilero bi bilkura eginez, 2011ko maiatzerako oniritzi orokorra eman eta ondoren osoko bilkurari aurkezteko. Batzorde horren partaideak, ahotsez eta botoz, Iker Sailburua, Idazkaria, Euskaltzaindiaren Hiztegia: adierak eta adibideak egitasmoaren zuzendaria eta osoko bilkurak izendaturiko hiru euskaltzain oso dira, eta Hiztegi Batuko lantaldeko idazkariak ahotsez baino botorik gabe hartzen du parte eta hiztegia lantzen ari den lantaldeko teknikari batek ere bai.



**Andoni Sagarna**  
Batzorde ahaldunduaren burua



**Hiztegi batua**  
Hiztegi Batuaren lehen itzuliko hitz eta aldaeren zerrenda, 2008. urtean Elkar argitaletxeak argitaratua

## Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko egitasmoa

Euskara batuaren hiztegia zientziazko, teknologiazko eta jakintzako terminoez aberasteko asmoarekin Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko egitasmoa eratzea erabaki zuen 2007an Euskaltzaindiak. Lanaren metodologia eta jakintza alorrak zehaztea, oinarri moduan erabiliko den termino zerrenda osatzea eta proiektuaren datu-basea diseinatzea izan dira lantaldearen aurreneko lanak. Xabier Kintana da zuzendaria.

### Egitasmoa

**Zuzendaria:** Xabier Kintana. **Idazkaria:** Inaki Irazabalbeitia. **Kideak:** Andres Alberdi, Xabier Alberdi, Kepa Altonaga eta Antton Gurrutxaga.



**Xabier Kintana**  
Zientzia eta Teknika Hiztegia  
Biltzeko egitasmoko zuzendaria

“ Euskaltzaindiak, oro har, literaturan (liburu, aldizkari, egunkariak...) gehien erabiltzen diren hitzak bildu eta hautatuz egin du orain arte bere Hiztegi Batua. Halere, hitz horiez gainera, gaurko munduan badira edozein pertsona eskolatuk erabili behar dituen nazioarteko teknizismo eta berba zientifikoak ere, horiek agerkarieretan gutxiagotan agertu arren (*akriliko, epizentro, hominido, infinitesimal, kardiobaskular, kolesterol, magmatiko, perigeo, pleistozeno, telehitza...*) baina kulturaren zein irakaskuntza-eta nahitaezkoak. Horiexek dira, bada, geuk bildu nahi genituzkeenak, Hiztegi Batua osatzeko.

.....

Euskara estandarra finkatzeko ortografi eta gramatika-arauez gainera, hori dira Orotariko Euskal Hiztegia, Euskara Batuaren hiztegia, Euskal Herriko eta Munduko toponimia lanak, pertsona-izenak eta deiturak euskaraz finkatzeko hiztegiak, (biek gure gizartean duten eraginagatik), Literatura hiztegia eta laster kaleratuko den Euskal Herriko Hizkeren Atlas, besteak beste. Kataluniako edo Israelgo Hizkuntz Akademiako kideek Euskaltzaindira egin dizkiguten bisitetan, adibidez, geure eskuarteko lanak ikusita, argi esan digute berenak ere oso antzekoak direla.

.....

Askotxo dira. Bidean dugu jada Akademiaren Euskara-euskara hiztegia, eta proiektuan Euskararen Hiztegi etimologiko eta historikoa. Baina ni neu bereziki kezkatzen nautenak hutsune sozial-praktikoak dira. Hor da yeismoaren arazoa (*mutiya, hiyabete...* palatalizatu gabeko *muti-la* eta *hi-labete* jatorragoen orde); edo j-ren ebakera bera (euskarazko tradizionala, ala espainolezkoa, ipar eta ekialdekoek ezin irentsia). Beste arazo bat, eta berez Euskaltzaindiak bakarrik ezin konponduzkoa, kale-idazki desegokiena da (*Txakoli eguna, Sardin egune, Durangoko pasiñue, Artxanda jatetxe, Gozotegi Marisa...*), horrek jendea nahasi eta okerbideetara beste



## Euskal Hiztegi Historiko eta Etimologikoa egitasmoa

Euskal Hiztegi Historikoa eta Etimologikoa egiten hasteko egitasmoa onartu du Euskaltzaindiak 2009ko Barne Jardunaldietan, eta lan taldea osatu. Euskal hitzen orain arteko ikerketa historiko eta etimologikoetatik abiatuta, eta Orotariko Euskal Hiztegiaren bildutako informazioa baliatuta, euskal hitzen jatorria eta historia modu sistematikoan aztertzea da asmoa, Euskal Hiztegi Historikoa nahiz Hiztegi Etimologikoa egitea ipartzat hartuta. Lehen fasean, lehenengo hiru urteetan, hitzen hautaketarako eta sarreraren egiturarako irizpideak finkatuko dituzte, eta mila hitz inguruko prototipoa osatuko. Joseba Lakarra da egitasmoaren arduraduna.

### Egitasmoa

**Zuzendaria:** Joseba Lakarra. **Kideak:** Bi teknikari.

“ Helburua hiztegi historikoan zein etimologikoan hiru bat urtean hizkuntzaren lexiko-altxorren muina ordezka lezakeen 1.000 bat hitzetako prototipoa osatzea litzateke, horiek osatzean honelako lan batek dituen arazo nagusiak (ikertutako hitzak hautatzeko irizpideak eta sarreraren egituraren alderdi ezberdinak) garatuz.

Badira noski, lan etimologikoak eta lexikografikoak *Eusker*a aldizkarian eta bestetan; baina bai egitekoetan lortutako emaitzengatik eta baita urrats berriak emateko den laguntza eta oinarri nabarmenagatik, Orotariko Euskal Hiztegia da aipagarriena. Nolanahi ere gure egitasmoa aski urruti gelditzen da OEHTik, bai helburuetan, bai tamainan eta baita metodoan ere.

Dagoeneko aipatutako biak: batetik, hitz hautaketarako irizpideak lantzea, ezinezko eta desegoki baita honelako lan batean A-tik Z-ra diren guztiak edo gehienak sartzea eta aztertzea. Horretarako, irizpide fonotaktikoak, hitzen jatorriari dagozkionak, kronologikoak, hedadurazkoak, erabilera eta mailari dagozkionak eta bestelakoak aztertu eta konbinatu gogo dugu. Bestetik, hiztegien sarrera-egiturak tentuz diseinatzea, ezinbestekoa baita homogeneotasun bat lan osoan zehar.



**Joseba Lakarra**  
Euskal Hiztegi Historikoa eta  
Etimologikoa egitasmo  
zuzendaria

## Lexikoaren Behatokia egitasmoa

Lexikoaren Behatokia egitasmoa UZEI, Elhuyar eta EHUko IXA taldearekin garatzen ari da Euskaltzaindia. Lexikoaren Behatokiak, ikerketarako testu-corpus etiketatu eta linguistikoki anotatu bat prestatzea du helburu. Euskaltzaindiak prosa arruntezko corpusa prestatu nahi du egitasmo honen bidez, bai lexikoaren erabileraren azterketak egiteko, bai eta lexikoari dagozkion arauak eta gomendioak dokumentatzeko ere. Corpus hori osatzeko hainbat hornitzaile aurreikusi dira, hedabideak bereziki, eta horien artean, besteak beste, interes orokorreko komunikabideak. 2008an *Berr*ia egunkariarekin hitzarmena sinatu zuen Akademiak, euskarazko egunkariaren testu guztiak Behatokiaren esku uzteko, eta 2009an EITBrekin egin zuen hitzarmena, euskarazko hedabide publikoek 2000. urteaz geroztik sortutako testu-masak Euskaltzaindiaren esku uzteko.

**Behatokia**

**Zuzendaria:** Iker sailburua (Andoni Sagarna). **Teknikariak:** Hitzarmen bidez (UZEI, Elhuyar, IXA).



**Andoni Sagarna**  
Lexikoaren Behatokia  
egitasmoaren zuzendaria

“ Gaur egun, hizkuntza bati buruzko ikerketak hizkuntza horren erabileran oinarritzen dira. Erabilera ezagutzeko, hizkuntza horretan idatzitako testu-masa handiak biltzen dira —corpusak— eta dauzkaten hitzak, esapideak eta abar haiek dituzten ezaugarri linguistikoez markatzen dira. Lexikoaren Behatokia gaur egungo euskara nolakoa den eta nola aldatzen ari den ezagutzea ahalbidetuko digun corpusa da. Bereziki komunikabideetako eta prosa arrunteko erabilera edukiko du.

.....

Egitasmoaren ezaugarri teknikoak 2007an zehaztu ziren eta bost urterako plan bat egin zen. 2008ko udaberrian jarri zen plan hori abian. Lehenbizi azpiegitura tekniko guztia prestatu behar zen, komunikabide batzuekin hitzarmenak egin dira horiek ekoizten dituzten testuak ikerketan baliatzeko, eta 2009aren bukaerarako lau milioi testu-hitzeako corpus etiketatu eta linguistikoki anotatu bat izango dugu. 2012. urtearen amaierarako, berriz, 49 milioi testu-hitzeako corpusa izango da. Euskaltzaindia beste hiru erakunderekin ari da lan hori egiten: Elhuyar Fundazioarekin, EHUren Informatika Fakultateko IXA ikerketa-taldearekin eta UZEIrekin.

.....

Bilketa hori guztia egin eta automatikoki tratatu ondoren, hainbat ikerketa egin ahal izango dira, adibidez, ikusi ahal izango da zenbaterainoko eragina duten Euskaltzaindiaren arauak, zer hitz edo adiera berri hasi diren agertzen euskaraz eta abar. Tratamendu automatiko hori ez da %100 akatsik gabea, beraz hizkuntzalariek berrikusi eta zuzendu egin beharko dute makinak egindakoa. Urrunago begiratuz, berriz, gauza asko daude egiteko, bereziki corpus hori etengabe eguneratzea eta, hizkuntzaren isla zehatza eskaini dezan, gai eta generoen arteko oreka lortzea.



## GRAMATIKA

### Lehenengo ahaleginak

Euskaltzaindia 1960an hasi zen euskal gramatika egiteko ahaleginean. Azaroko batzarrean esan zuen Luis Villasantek “Euskaltzaindiak bere gramatika bat egin bear leukeala”, proposamena onartu eta Villasanteri berari eskatu zioten lanaren ardura hartzeko, eta hurrengo hilabeteetako batzarretan Villasantek egindako lanak aztertu izan zituzten, baita oharrak egin ere, besteak beste Inazio Maria Etxaidek, Isidoro Fagoagak eta Eusebio Erkiagak. Baina lehen ahalegin hura bidean gelditu zen.

Baina urte asko joan ziren, 1975ean Koldo Mitxelena “gramatikazko ikerketak bizkortu beharra” adierazi zuen arte, eta Mitxelena eskaera ontzat hartuta, hurrengo urtean Gramatika batzordea izendatu zuen Euskaltzaindiak: Patxi Altuna, Joseba Intxausti eta Jesus Artzamendi batzordekide, Juan Antonio Letamendia idazkari eta hamalau aholkulari.

Gramatika lanei bultzada handia eman zion Akademiak 1979an, Arrasateko IX. Bilzarrean, gramatika hartu zutenean aztergai nagusitzat, bereziki sintaxia. Hurrengo urtean beste bilera bat egin zuten, 1980ko martxoan, Arrasateko txostengileak bildu eta lanei jarraipena nola eman aztertzeko, eta bilera hartan Gramatika batzorde berria sortu zen, Piarres Lafitte buru zela, eginbehar zehatzarekin: Euskaltzaindiaren gramatika izango zena taxutu ahal izateko langaiak bilduz joatea.



#### Piarres Lafitte

Piarres Lafitte buru zenean hasi zen Gramatika batzordea *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* egitasmoa lantzen.

### Oinarrizko gramatika: EGLU

Lehen bi urteak lanerako metodologia zehazten eman zituen batzordeak, eta 1982an ekin zion mende laurden baino gehiago iraun duen lan sistematikoari: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* (EGLU) izeneko egitasmo erraldoiari ekiteko.

Euskal gramatikaren azterketa zehatza egiteko, urraska joatea erabaki zuten, perpaus bakunarekin hasita, perpaus elkartuen azterketari gerora heltzekotan. Hiru urte behar izan zituzten lehenengo liburukia argitaratzeko. 500 orritik gorako liburuan, izen sintagma eta horren osagaiak izan ziren aztergai nagusiak, hala nola izena, izenordainak, determinatzaileak, adjektiboa, izenlagunak eta abar. Biltze lana egin zuten batik bat lehen liburuki hartan, han aurkeztu ziren gai gehienak lehendik aski aztertuak baitzeuden. 1985ean argitaratu zuten, baina 1987an lehen liburukiaren eranskina ere argitaratu zenez, 1991n berriro argitaratu zen EGLU-I, osaturik.

Bigarren urratsa aditza aztertzea izan zen. Hiru urte behar izan zituzten horretarako ere, 1984an lanean hasi eta 1987an argitaratu baitzuten. Txillardegik Euskaltzaindiarentzat prestatutako *Euskal Aditz Batua* (1979) izan zuten oinarri, baina EGLU-



### Patxi Altuna

Luzaroan izan zen Gramatika batzordeburu Patxi Altuna: 1985etik 2005era.

### Gramatika Jardunaldia

2005eko ekainaren 9an Gramatika Jardunaldia egin zen Bilboko egoitzan.

II liburukian aditzaren eta haren jokoaren ezaugarriak sakonago aztertu eta deskribatu ziren. Liburu hori prestatzen ari zirenean hil zen Lafitte, Gramatika batzordeburua. Patxi Altunak hartu zuen buruzagitza orduan, denbora luzerako hartu ere, 2005eko maiatzera arte izan baitzuen ardura hori. Pello Salaburu izendatu zuten batzordeburu orduan.

Bigarren liburuki horrekin bukatu zuten perpaus bakunaren azterketa. Handik sei urtera, 1993an, bi liburuki horien laburpena plazaratu zuten, Pello Salaburu batzordekideak moldatuta: *Euskal Gramatika Laburra. Perpaus bakuna*. Perpaus elkartuaren azterketaren bide luzeari ekin aurretik, lokailuak aztertu zituen bi urtez Gramatika batzordeak, eta 1990ean argitaratu zuen emaitza, EGLU-III liburukian.

80etan hasitako lanarekin jarraitu zuen batzordeak 90etan, baina lanerako askoz baliabide hobeekin, batik bat Orotariko Euskal Hiztegirako eginiko corpus handia eskuragarri izan baitzuen 1990etik aurrera. Azterketa esparrua zabaldu egin zuten baliabide berriek, eta azterketen sakontasuna eta kalitatea hobetu.

1991n ekin zioten perpaus elkartuaren azterketari, hamabost urtetik gora iraun duen lanari. 1991n maila bereko perpauzen elkarketa aztertzen hasi zen batzordea eta 1994an argitaratu zuen egindako lana, EGLU-IV liburukian. Mendeko perpau sak aztertzea izan zen hurrengo urratsa eta, ordura arteko aztergaien aldean, lan handiagoa eskatu zien batzordekideei, aztergaia bera konplexuagoa zelako, bategitik, eta euskal gramatikaren tradizioan gutxiago landu izan zirelako, bestetik. Bost urte behar izan zituzten mendeko perpausari buruzko lehen liburukia argitaratzeko (EGLU-V, 1999), eta beste sei bigarrena plazaratzeko (EGLU-VI, 2005).



### Bestelako lanak eta asmo berriak

Perpaus jokatugabeei buruzko azterketarekin EGLU-VII argitaratzen duenean, 1982an abiatutako egitasmo erraldoia bukatutzat emango du Gramatika batzordeak, eta 2005etik lantzen ari den proiektuari eskainiko dio ahalegin nagusia: Euskal Gramatika Orokorra (EGO). EGLU egitasmoa abiatu zutenean eta lehen liburukiak argitaratu zituztenean eskura ez zituzten baliabideak erabiliz, orain arte



egindako lana osatu, gaurkotu eta, behar den ataletan, zuzentzeko helburuarekin ekin diote EGO egitasmoari, Pello Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean.

EGLU bilduma izan da batzordearen lan nagusia urte hauetan guztietan, baina besterik ere egin izan du. Esaterako, Euskaltzaindiko XIII. Biltzarrak eskatuta, euskararen batasunerako aragaiak proposatzen hasi zen Gramatika batzordea, euskaltzainek batzarrean eztabaida eta onar zitzaten. Jagonet zerbitzuaren bidez iristen zaizkion kontsulta ugariei erantzutea ere bere zereginen artean du Gramatika batzordeak. Erantzunak ez dira arau, baina bai erreferentzia: erantzunak galdetzaileari berari bidaltzen zaizkio aurrena, eta *Euskara* agerkarian argitaratzen dira gero.

#### EGLU BILDUMAKO LIBURUKIAK

- *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* (1985). Izen sintagma izan zuen gai nagusia.
- *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II* (1987). Aditza izan zuen aztergai.
- *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak III. Lokailuak* (1990). Diskurtso mailako lotura hitzak aztertu zituen.
- *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak IV. Juntagailuak* (1994). Juntadura izan zen gai nagusia.
- *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V. Mendeko perpausak-1* (1999). Aditz jokatua duten perpaus osagarriak, erlatiboak, konparaziozkoak eta ondorio perpausak aztertu zituzten.
- *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak VI. Mendeko perpausak-2* (2005). Baldintza perpausak, denborazkoak, helburuzkoak, kausazkoak, kontzesio perpausak eta moduzkoak aztertu zituzten.
- *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak VII* (argitaratzear). Perpaus jokatugabeei buruzko liburukia bildumaren azkena izango da.

#### Euskal Gramatika Orokorra egitasmoa

Gramatika batzordearen etorkizuneko lan nagusia da EGO (Euskal Gramatika Orokorra). 2005eko maiatzean aurkeztu zituen Pello Salaburuk, Argomaizen egindako Barne Jardunaldietan, egitasmoaren nondik norako funtsezkoenak. Funtsean, EGLUn egindako lana gaurkotu, osatu eta, behar den ataletan, laburtu eta zuzendu egingo dute EGO bilduman.





**Gramatika batzordea**

Gramatika batzordearen bilera  
(2004-12-03), Donostiako egoitzan

**Gramatika batzordea**

**Burua:** Pello Salaburu. **Idazkaria:** Jesus Mari Makatzaga. **Kideak:** Iñaki Amundarain, Miren Azkarate, Piarres Xarriton, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Patxi Goenaga, Nora Iriarte, Alan King, Itziar Laka, Maria Pilar Lasarte, Celine Mounole, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Paskual Rekalde eta Karmele Rotaetxe.

**Pello Salaburu**

Gramatika batzordeko burua

“ Gramatika batzordeak 25 urte baino gehiago darama lanean. Euskararen gramatika deskriptibo zabal bat egiteko asmoarekin osatu zen taldea. Hasieran oso handia, azkenean dozena bat inguru lagunek hartzen dugu parte. Gramatika deskriptiboa da, hizkuntzaren datuak bildu nahi dituen. Tarteka Euskaltzaindiak eman dituen arauen berri ere ematen da, zeharka, baina, berez, ez da gramatika arauemailea, baizik deskriptiboa: hizkuntzaren datuak erakutsian uzten ditu, tradizioan oinarritutako lekukoetan, eta egungo euskalkien ezagutzan oinarriturik.

.....

Gramatika zabala da, inoiz ere egin den zabalena. Euskal gramatikaren hainbeste gai lehenbiziko aldiz tratatzen dira gramatikaren liburukietan. Lan komuna da, denen artean egina. Badira taldean gramatikaren atalen arduradunak, eta horiek idazten dituzte kapituluak, baina lan bakoitza lerroz lerro irakurtzen da gainerako kideen artean, eta lerroz lerro eztabaidatu. Anitzetan, kapitulu bakoitza zazpi eta zortzi aldiz berridazten da. Denboran zehar, iturrien informazioa ere aldatuz joan da: hasieran ez zegoen ia ezer ere informatizaturik, eta norberaren esperientzia eta ezagutzan oinarritzen ziren datuak. OEH eskura izateak gauzak aldatu zituen asko. Eta, gaur egun, eskura ditugun gainerako iturriek informazio handia ematen dute.

.....

Zazpigarren liburukia amaitu behar da. Pentsatzekoa da 2009ko amaieran inprentara bidaltzeko moduan izango garela. Gero, liburuki guztiak hartu, eta dena berregituratu behar da, urteen joan-etorriak gaien artean sortu dituen koherentzia ez horiek bideratzeko. Hori izango da EGO proiektua. Gramatikaren deskripzioa ez da inoiz ere agortzen, horretaz nekez konturatzen dira gai hauetan ibiltzen ez direnak. Norbaitek galdetuko balu ea estomaka behar bezala deskribaturik dagoen, edo bihotza, inor ere ez litzateke galdera honetaz harrituko. Gramatikarekin ere gauza bera gertatzen da. Gramatikaren puntuak deskribatzen segitu beharko da.




## DIALEKTOLOGIA

### Erizkizundi Irukoitzaren arrastoa

Euskalarien eta Euskaltzaindiaren aspaldiko ametsa da euskalkien mapa egitea, 1918an Julio Urkixok lehenengoz horren asmoa agertu zuenetik, eta 1921ean Resurreccion Maria Azkue euskaltzainburuak Akademiaren batzarrean *Erizkizundi Irukoitza* egiteko egitasmoa azaldu zuenetik.

Atlas linguistikoaren helburu bera zuen 1922tik 1925 bitartean Euskaltzaindiaren babesean eta Azkueren gidaritzapean hainbat euskalarik herriz herri egin zuten inkesta. Hiru atal zituelako zen *irukoitza*: Fonetika, Morfologia eta Hiztegia. Inkestagileen artean izan ziren Nikolas Ormaetxea *Orix*e, Odon Apraiz, Polikarpo Iraitzotz, Gerhard Bähr eta beste asko. Inkestaren zati eta ondorioekin idazlan batzuk argitaratu ziren hurrengo urteetan *Euskera* aldizkarian, gehienak Orixeren eskutik, baina lana bere osotasunean ez zen plazaratu 1984. urtera arte, Ana Maria Etxaide ikerlariaren eskutik. Inkestagile batzuen koadernoak galdu egin dira bitarte horretan, baina *Erizkizundi Irukoitza*-ren emaitza nagusia jasota gelditu da.

Hurrengo hamarkadatan ezer gutxi egin zuen, edo egin ahal izan zuen, Euskaltzaindiak arlo honetan. Egitasmoa ez zuten ahaztu, urtez urteko batzar agiriek erakusten dutenez: 1955ean Koldo Mitxelena eta Aingeru Irigarai atera zuten gaia,



**Erizkizundi Irukoitza**  
1921ean Azkue euskaltzainburuak egitasmoa azaldu zuen batzarrean.



**Nazioarteko Dialektologia Biltzarra**  
Nazioarteko Dialektologia Biltzarra, Bilbon, 1991ko urriaren 21etik 25era

1962an berriro Mitxelenak, Akademiaren 1964ko Biltzarraren gaia atlasa izatea proposatu zuen Juan San Martinek, 1966an “euskal gaiak magnetofoiak biltzeaz” eztabaidatu zuten euskaltzainek, 1967an Piarres Lafittek idazlan bat irakurri zuen atlasaren egitasmoaz, 1970ean Mitxelena atlaserako lanean jartzea aztertu zuten eta 1977an “euskara herrikoa” magnetofoiaren biltzeko ekimena aurkeztu zuen Jose Maria Satrustegik.

### Irizpideak finkatzen

Dialektologia batzordea, beraz, ez zen hutsetik hasi 1980. urtean eratu zenean, hizkuntz atlasa egitea helburu nagusi hartuta. Batzordeburu Patxi Ondarra zela, atlasa nola egin zehazteko azterlanak eta gogoetak egiten aritu zen batik bat batzordea lehen urteetan, Dialektologia jardunaldien eta bestelakoen bidez. Atlasa egiteko irizpideak IV. eta V. Jardunaldietan finkatu zituzten, 1984an eta 1985ean, hurrengo urtean inkestagileen taldea osatu zuten eta 1987an ekin zioten atlaserako grabazioak egiteari.

Atlasa izan da urte hauetan guztietan Dialektologia batzordearen lehentasuna, baina beste azpibatzerde bat ere lanean aritu zen, 1989tik 1995era, Euskalkien Ikerketa Arruntak izenekoak, dialektologiako bestelako lanei emana. Txomin Peillen izan zen azpibatzerde horren arduraduna.

Ondarrak 1993an batzordeburu izateari utzi zionean, batzordeko ardura ere bere gain hartu zuen Peillenek, bi urtez. 1995ean Beñat Oihartzabalek hartu zuen Dialektologia arloaren ardura; 2003an Andolin Eguzkitzari eman zion lekukoa baina, 2004ko martxoan hil zenez, berriro Oihartzabal izendatu zuten batzordeburu. Urte horren azaro inguruan Adolfo Arejitak hartu zuen egitasmoaren gidaritzia.

#### Andolin Eguzkitza

Dialektologia batzordeko burua zelarik hil zen Andolin Eguzkitza, 2004. urtean.

### Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa

#### Hizkuntz Atlasaren ezaugarriak

Beti sigla berberak izan ditu egitasmoak, EHHA, baina 2000. urtera bitartean Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa zen, eta geroztik Euskararen Herri Hizkeren Atlasa.

1987tik 1992ra bitartean Euskal Herri osoko 145 herritan egindako inkestetako grabaketek osatzen dute Atlasaren corpusa: Bizkaiko 36 herri, Gipuzkoako beste 36, Arabako bat, Nafarroako 27, Lapurdiko 15, Nafarroa Behereko 18 eta Zuberoako 12. 4.200 grabaketa ordu, guztira. Herri guztietan 2.762 galdera egin zituzten, eta beste 222 galdera ere bai itsas hegiko herrietan, itsas biziari lotutakoak. 2.162 galdera lexikoaz dira, 596 morfologiaz, 62 sintaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. Grabaketez gain, inkestaren ondorioak eskuz jaso zituzten inkestagileek, herriz herriko koadernoetan.

Galdera horiei guztiei inkestaleku bakoitzean eman zizkieten erantzunen nola-koak mapaz mapa agerian uztea da, azken batean, maparen funtsa. Egitasmoaren helburua, beraz, inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea da eta, oro har, ondorioak publikoaren eskuetan jartzea.

Datuen informatizazioa hedatu gabe zegoenean ekin zion Euskaltzaindiak Atlasaren egitasmoari, baina artean inkestagileak lanean ari zirenean ohartu zen datuak datu-base automatizatuan jarri beharraz. 1990. urtean hartu zuen erabakia, eta 1993an hasi ziren inkestatan jasotako datuak informatizatzen, base automatizatuan



### **Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia**

2000ko martxoaren 2an aurkeztu zen Bilbon *Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia*.

sartzen. Transkripzio idatziak datu-basean sartzeko lan eskerbarekin jarraitzen zuten bitartean, grabaketak digitalizatu eta disko konpaktuetan jarri zituzten 1996an, Atlasaren corpus fonikoa segurtatze aldera. 2000. urtean Atlasaren lanaren erakusgarri den liburua argitaratu zen, *Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia*, herri bakoitzeko minutu eta erdiko laginarekin.

1998an mapa-liburuak era automatizatuan argitaratu ahal izateko programa informatikoa prestatu zuten, eta geroztik argitalpeneko mapak prestatzen dihardu lantaldeak. Atlasaren lehen bi argitalpenak aurki plazaratzekotan dira.

### **ATLASA ZENBAKITAN**

Noiz egina: **1987tik 1992ra**

Zenbat herritan: **145**

Araba: 1  
Bizkaia: 36  
Gipuzkoa: 36  
Nafarroa: 27  
Lapurdi: 15  
Nafarroa Beherea: 18  
Zuberoa: 12

Zenbat galdera herri bakoitzean: **2.762 (222 gehiago, itsas hegikoetan)**

2.162 galdera lexikoaz  
596 morfologiaz  
62 sintaxiaz  
37 fonetika sintaktikoaz

Zenbat grabaketa ordu: **4.200**

### **Louis Lucien Bonaparte**

Bost bidaia egin zituen Euskal Herrira 1856 eta 1869 artean. Lan horren ondorioz, 33 lan argitaratu zituen, eta, besteak beste, hemen ageri den *"Cartes des Sept Provinces Basques montrant la délimitation actuelle de l'Euskara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés"* (1866).



## Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpusa egitasmoa


Euskararen Herri Hizkeren Atlasa da Dialektologia arloan Euskaltzaindiaren egitasmo nagusia, baina 2007az geroztik beste egitasmo bat ere badu eskuartean: Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpusa (ATHC) deritzan egitasmoa. Egitasmo honen helburua ahoz transmitituriko edukiak gorde, sailkatu, era selektiboz transkribatu eta ondoko ikerkuntzetarako oinarritzat eskaintzea da. Hizkuntz Atlaseko ondarea hitzetan dago oinarritua gehienbat, gramatikan ere bai neurri batean, edo esparru tematikoetan. Horregatik, Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpusa egitasmoan bestelako edukiak bilduko dira, hala nola lanbideak, ohiturak, ipuinak, pasadizoak, oroitzapen zaharrak, sineskerak, esaerak, jokoak, kantuak... Horretarako ahozko transmisioaren ondarea modu sistematiko eta metodologiko batzeko plan bat abian jarri du lantaldeak. Adolfo Arejita da egitasmo honen zuzendaria.

### Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa

**Zuzendaria:** Adolfo Arejita. **Arduradunak:** Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Bidegain. **Teknikariak:** Gorka Intxaurbe eta Amaia Jauregizar. **Aholkulariak:** Isaac Atutxa, Ana Maria Etxaide eta Jose Maria Etxebarria.

### Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpusa egitasmoa

**Zuzendaria:** Adolfo Arejita. **Teknikaria:** Aritz Abaroa.



#### Adolfo Arejita

Euskararen Herri Hizkeren Atlasa eta Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpusa egitasmoetako zuzendaria

“Tokian tokiko hizkuntza erregistroak bildu, sailkatu eta era kontsultagarrian erabiltzaileen eskura ipintzea da gure egiteko nagusia.

EHHA deritzaguna da helburu hori betetzeari buruz oraindino bideratu den egitasmorik mardulena. Nazioartean homologaturiko metodologia baten bidez, batez ere lexikografia alderdia, baina baita ere gramatika alderdia ukitzen duen inkesta erraldoi batez baliaturik burutu den lana. Argitaratze bidean dira lehen aleak, eta hurrengoak elaborazio prozesuan. Bilketa lana 80ko hamarkada inguruan burutua da. Balio ikaragarria du corpus honek, batez ere, ordutik 30 urtera bilketa bera egitea ezinezko litzatekeelako. Bestelako bilketa lanik ere bada arlo honetarako Euskaltzaindiaren esku, edo erakundeak berak bere kabuz, edo honen laguntzaileek euren aldetik eginiko lanez osatua. Eginkizun dagoena, hala ere, askoz gehiago da.

Helburua hirukoitza da: 1) Bilketa lana bultzatu, euskal hizkera guztietan, inkesta ondo taiutuen bidez. 2) Jasoriko corpusaren sailketa eroso eta praktikoa egin, kontsultabide erraza izan dezan. 3) Euskaltzaindiak hartu beharreko erabakietarako erreferentzia puntu bihurtzea ahozkotasanaren corpusa ere, idatzizkoaren osagarri.

## ONOMASTIKA

### ‘Lurrizenbatzaitik’ Udalen Izendegira

Euskaltzaindiak sorreran izan zituen bost batzordeetako bat toponimiari buruzkoa zen: *Lurrizenbatzailea* izena eman zioten batzordeari, eta hiru kide izan zituen: Raimundo Olabide, Nazario Oleaga eta Odon Apraiz urgazlea.

Beraz, betidanik izan ditu Euskaltzaindiak onomastika gaiak lan arloen artean, batzorde honen eskutik nahiz euskaltzainen batzarraren edo bestelako batzordeen eskutik. Esate baterako, 1920an “Euskalerriko basauri eta basetxeetan idazkunak” ipintzeko batzordea osatu zuten Ramon Intzagaraik, Pierre Lhandek eta Sebero Altubek. Urte berean, Bizkaiko Foru Aldundiak “uri ta auzo sar-bideetan ezarri dauzan izen-idazkunak” gainbegiratzeko eskatu zion Euskaltzaindiari, “uts ala okerren bat ba’lego, bete ala zuzentzeko”. Bizkaiko Aldundiaren eskaera aintzat hartu zuen Euskaltzaindiak eta, gainera, Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako Aldundiei nahiz udalei “uri ta auzo bazterretan edo sar-bideetan” euskarazko izenak jartzeko eskatu zieten, “Euskaltzaindiak bereturiko idazkeraz”.

1936ko gerrak ekarri zuen etena bitarteko batzarretako agerietan aipamen gutxi batzuk ageri dira toponimia lanei buruz, eta gerra ostean urte askoan ez da aipamenik ageri, 1960ko hamarkadaren erdialdera arte. 1965. urtean Editorial Planetak euskarazko herri izenen zerrenda eskatu zion Akademiari, eta argitaletxearen eskaerari erantzuteko, bost euskaltzain jarri zituzten lanean: Aingeru Irigarai eta Jose Mari Satrustegi Nafarroako herri izenekin, Alfontso Irigoien Bizkaikoekin, Koldo Mitxelena Gipuzkoakoekin eta Louis Dassance Iparraldekoekin.

1971n aurrerapauso handiagoa eman zuten toponimiaren alorrean, “euskara idatziaren arauak estudiatzeko jarri zen batzordeak” erabaki baitzuen lantaldearen helburutzat hartzea “herrien eta herritarren izendegia osatzea”. Luis Villasante euskaltzainak azaldu zuen zergatia: “Herri izendegi ofizial baten premia gorrion gaude, eta horren faltaz nahaspila handia ikusten da gure aldizkarietan”. Mitxelena jarri zuten buru, eta Jose Luis Lizundia idazkari. Zortzi urte egin zuen lanean batzorde honek, 31 lagun “fitxagintzan” aritu zirelarik, 1978an Udalen Izendegia bukatu eta Euskaltzaindiaren batzarrak onartutzat eman zuen arte. 100.000 ale argitaratu zituzten.

### Onomasticon Vasconiae

Toponimia eta onomastika ikerketak argitaratzen dira, 1986. urtetik, *Onomasticon Vasconiae* bilduman.





### Onomastika Jardunaldiak

Onomastika II. Jardunaldiak Urduñan egin ziren, 1987ko irailaren 23tik 26ra.

### Pertsonen izendegia

Herrien izendegia egitea bezala, pertsonen izendegia egitea hasierako kezka izan zuen Euskaltzaindiak. 1932an, “bikario jeneral Etxeguren jaunak” eskutitz bidez galdetu zion Euskaltzaindiari zer izen zen egokiagoa, “Josu edo Jesus”. Euskaltzaindiak “euskal izenen lana” bere gain hartu behar zuela erabaki zuten euskaltzainek eta, lan hori burutu artean, izenei buruzko erabakirik ez zutela hartuko erantzutea.

Auziak aurrerabide handirik ez zuen egin, 1960ko hamarkadan batzorde bat euskal izendegia osatzeko helburuarekin lanean hasi zen arte. 1972an Jose Maria Satrustegik hartu zuen izendegia taxutzeko ardura, eta urte berean argitaratu zuen *Euskal Izendegia*-ren lehen bertsioaren 50.000 ale. 1977an eta 1983an, berriro Satrustegiren ardurapean, izendegi osatu eta berrituagoak argitaratu zituen Euskaltzaindiak.

### Onomastika batzordea

1983. urtera bitartean herri izendegiaren eta pertsona izendegiaren batzordeek nork bere kasa jardun zuten: herri eta herrixka guztien eta auzo nagusien izendegia prestatzen ari zen orduan bata, eta pertsonen izendegiaren hirugarren bertsioa prestatzen, bestea. Eta 1983ko maiatzean, Euskaltzaindiaren egitura berritzearekin batera, bi lantaldeek bat egin zuten Onomastika batzorde berrian.

“Herri izendegia, pertsona izendegia, toponimia lanak, izen ikerketak eta dikta-menak” lantzeko helburuarekin jaio zen batzorde berria, maiatzaren 23ko batzarren aktan jasota gelditu zenez. Koldo Mitxelena izendatu zuten batzordearen buru, baina handik urte gutxira Henrike Knörrek hartu zuen buruzagitza; 1986an, behintzat, Knörr zen batzordeburu.

*Onomasticon Vasconiae* bilduma abiatzea izan zen batzordearen lehen lanetakoak: 1985ean onartu zen egitasmoa, 1986an argitaratu zen lehen liburukia —Jose Ma-

ria Jimeno Jurioren *Toponimia de la Cuenca de Pamplona* bildumako sei liburukietatik lehenengoa— eta, 2009. urtea bitartean, beste 28 liburu argitaratu dira, denak euskal onomastikari buruz.

Jimeno Jurio ikertzaile eta batzordeko kideak itzal berezia izan zuen Onomastika batzordearen hasierako lanetan. Besteak beste, batzordeak berak egindako eskaerari erantzunez, Jimeno Juriok toponimia bilketa-rako irizpide orokorrak finkatu zituen 1987an, “Guía para la recogida toponímica del País Vasco” txostenean.

Onomastikan egin beharreko lanen irizpideak finkatze aldera, Onomastikako I. Jardunaldiak antolatu zituen batzordeak 1986ko apirilean, Gasteizen. Topaketa emankorra izan zela ikusirik, jardunaldi gehiago antolatu zituzten hurrengo urteetan. II. Jardunaldietan (Urduña, 1987) gaur egun euskaraz mintzatzen ez den lekuetako onomastika izan zuten aztergai. III. Jardunaldietan (Lizarran, 1990) hurrengo urteotako lanaren irizpide nagusietakoa finkatu zuten, lehentasuna ikerketa gaiei beharrez material bilketa sistematikoari ematea erabaki baitzuten. IV. Jardunaldiak (Nevada, 1992), aldiz, Ameriketako eta Filipinetako euskal onomastikaz izan ziren.

Hurrengo urteetan toponimia arautzeko irizpideak prestatzeari ekin zion batzordeak, batik bat Patxi Salaberri eta Mikel Gorrotxategi batzordekideen eskutik. Horretaz gain, exonomastikaren arloa ere aztergai izan zuen batzordeak, baina, 1998tik aurrera, Euskal Herriko izendegiak finkatzeko lanari ekin zion berriro Onomastika batzordeak, Exonomastika azpibatzerdeak bere lanetan jarraitzen zuen bitartean: Zuberoako herrien izendegia onartu zuten batzarrean aurrena (1998an hasita), Lapurdikoa gero (2000), Nafarroa Beherekoa (2004), Gipuzkoakoa (2004), Bizkaikoa (2005), Arabakoa (2006ko martxoa) eta Nafarroakoa, azkenik (2006ko abendua). Toponimiako lanekin batera, antroponimia arloa sakontzen jarraitu zuen batzordeak eta horren lekuko dira bi argitalpen nagusi, *Euskal deituren izendegia* (1998) eta *Euskal izendegia*. *Ponte izendegia* (2001).

Onomastika arloan Euskaltzaindiak urte hauetan guztietan erabakitakoak eskuragarri daude Euskaltzaindiaren webgunean, Euskal Onomastikaren Datutegian. Lau atal ditu datutegiak: pertsona izenak, deiturak, toponimia (leku izenak) eta exonimia (kanpoko leku-izenak).

Henrike Knörr 2001eko otsailera arte izan zen Onomastika batzordeko buru. Geroztik, Andres Iñigo da burua.



#### Henrike Knörr

1980ko hamarkadatik 2001. urtera arte Onomastika batzordeko buru izan zen Henrike Knörr.

#### EUSKAL CORPUS ONOMASTIKOA EGITASMOA

Onomastika batzordeak lanerako beste tresna nagusi bat izango du aurki eskura: Euskal Corpus Onomastikoa (ECO). 2005eko maiatzean onartu zuen Euskaltzaindiak onomastika-lekukotza dokumental guztiak datutegi bakar batean biltzeko egitasmoa, arlo honetan hartu beharreko erabakietarako oinarri izan dadin, azken batean Onomastika batzordearen ahalmena eta lanen kalitatea hobetzeko asmoz. Corpusak lau atal nagusi ditu: ponte-izenak, deiturak, toponimoak eta exotoponimoak. Datu base handi honen iturri nagusiak lan dokumentalak, historikoak, etnografikoak, kartografikoak eta zientifikoak izaten ari dira. Patxi Galé da arduradun teknikoa, eta Andres Iñigo zuzendaria.

#### Onomastika Jardunaldiak

Urduñako Onomastika II. Jardunaldietan antolatutako mapa erakusketa






### Onomastika batzordea

**Burua:** Andres Iñigo. **Idazkaria:** Mikel Gorrotxategi. **Kideak:** Patxi Galé, Imanol Goikoetxea, Roberto Gonzalez de Viñaspre, Iratxe Lasa, Jose Luis Lizundia, Elena Martinez de Madina, Celine Mounole, Felix Mugurutz, Txomin Peillen eta Patxi Salaberri Zaratiegi. **Aholkulariak:** Jean Louis Davant, Jose Antonio Gonzalez Salazar, Jean-Baptiste Orpustan, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu, Bernardette Soulé, Patxi Uribarren, Amaia Usabiaga eta Luis Mari Zaldua.

### Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoa

**Zuzendaria:** Andres Iñigo. **Teknikaria:** Hitzarmena (Patxi Galé).



#### Andres Iñigo

Onomastika batzordeko burua eta Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoko zuzendaria

“ Euskal onomastika bildu, sailkatu, ikertu eta arautzea da gure egiteko nagusia, bai antroponimia alorrean (ponte izenak, deiturak...), bai toponimiarenean (toponimia nagusia, txikia, exonimoak, kale izendegiak...). Azken batean, euskararen normalizazio bidean, ortografia, hiztegia, gramatika... bezalaxe, izenak ere arautu behar dira hizkuntzaren kalitatearen eta duintasunaren mesedetan. Gainera, alor honetan badu Onomastika batzordeak erantzukizun berezi bat, kontuan izan behar baita, bai EAEn bai Nafarroan, Euskaltzaindia dela erakunde aholkulari ofiziala hizkuntza gaietarako eta espresuki toponimiarako.

Alde batetik, Batzordeak berak ikertu eta prestatzen dituen lanak. Toponimia alorrean argitara eman dituen herri izendegiak, 38 arau, irizpen sail handia, kale izendegiak eta bestelako kontsulten erantzunak. Antroponimiarenean, ponte izendegiak (hauen eragina ikusteko aski da azken hamarkadetan izandako izenen iraultza egiaztatzea), deituren izendegia (eragin handia euskaldunen deituren grafia egokitzapenetan). Eguneroko kontsulten erantzunak (ez da ahaztu behar Euskaltzaindira iristen diren kontsultarik gehienak onomastikari buruzkoak direla) Onomastika zerbitzutik bideratzen direnak. Beste aldetik, gobernu, diputazio eta udaletatik batik bat planteatzen diren toponimia lanetarako Batzordeak eskaintzen duen aholkularitza, orientazio akademikoa eta gainbegiratze lana. Horren lekuko dira, besteak beste, gobernu-diputazioen eta udal batzuen babespean egin diren toponimia lanak eta *Onomasticon Vasconiae* bilduman argitara eman diren beste zenbait ere.

Batzordeak planteatutako Euskal Corpus Onomastiko proiektua (ECO) da egiteko nagusietako bat. Bere xedea ahalik eta datu-base osoena sortzea da, izen bakoitzaren fitxarik osatuena eginez. Datu-base hau Batzordearen lan tresna garrantzitsua izatea espero da, Batzordearen lan propioetarako, etengabe iristen zaizkion kontsultei erantzuteko eta gobernu-diputazio-udalekin egiten ahal den toponimia zerbitzu sarea antolatu eta zerbitzu hori eskaini ahal izateko. Datu-base horren elikagai diren toponimia lan lokal sakonak bultzatzen eta laguntza eskaintzen (modu zuzenean, ikastaroen bidez...) segituko du Batzordeak, eguneroko eskari eta kontsultei erantzuteaz gain.

## Exonomastika batzordea

Euskal Herritik kanpoko leku eta pertsona izenei buruz irizpideak emateko lanari arreta berezia eskaini zion 1990eko hamarkadan Onomastika batzordeak, 1992ko urriaren 23an sortutako Exonomastika azpibatzerdearen bidez. Lehenengo bilkuran arlo horretan zeresana zuten hainbat erakundetako ordezkariak hartu zuten parte, hala nola Klasikoak SA, Lur eta Eusenor entziklopediak, UZEI, Itzultzaileen Elkarteak, Elhuyar, EAEE/IVAP, Liturgi batzordea, Biblia itzultzaileak, bikoiztaileak eta *Euskaldunon Egunkaria*. Exonomastikaren urtea izan zen izan 1992, azpibatzerdea sortzeaz gain bi jardunaldi antolatu baitzituzten urte berean: lantaldea sortu aurretik lehena, uztailean, eta ondoren bigarrena, abenduan.



Hurrengo urteetan Onomastika batzordearen “erabateko lehentasuna” exonomastikak hartuko zuela jakinarazi zuten Knörr Onomastika batzordeburuak eta Jose Luis Lizundia idazkariak 1993ko urriko batzarrean. Adierazi zuten, “ponte izenen, pertsonaia historikoen izenen eta munduko leku-izenen euskarazko formak arautzea” izango zen helburua. Onomastikako V. Jardunaldiak (Miarritze, 1994), hain zuzen ere, exonomastikari buruz izan ziren.

Geroztik, osoko batzar gehien-gehienetan izan zuten euskaltzainek exonomastika proposamenez eztabaidatu eta erabaki beharra: kontinenteak, geografia izenak, munduko estatu eta hiriburuak, hizkuntza ofizialak, Espainia-Frantziatako eskualdeak, Euskal Herriaren auzo eskualdeetako herri izenak, Espainiako Erresumako autonomia erkidegoak, probintziak eta probintzia hiriburuak, Europako eskualde historiko-politiko nagusiak, Europako hiri nagusiak, mundu zabaleko uharteak, santutegiko izenak, Greziako eta Erromako pertsonaia mitologikoak, antzinateko hirien euskarazko izenak... Onomastika batzordeak Euskara Batuko batzordearen bidez batzarrari proposatutako izendegi ugariak Euskaltzaindiaren arauen artean daude geroztik.

Henrike Knörr izan zen Exonomastika azpibatzerdeko buru 1992tik 2001era, Andolin Eguzkitza 2002tik 2003ra eta Jose Luis Lizundia da arduradun 2004tik.

### Exonomastika batzordea

Euskal Herritik kanpoko leku eta pertsona izenei buruz irizpideak finkatzen ditu.

### Exonomastika batzordea

**Burua:** Jose Luis Lizundia. **Idazkaria:** Alfontso Mujika. **Kideak:** Irene Arrarats, Mikel Gorrotxategi, Inaki Irazabalbeitia eta Xabier Kintana.

**Aholkulariak:** Gidor Bilbao, Patxi Galé, Asier Larrinaga eta Miren Lourdes Oñederra.



#### Jose Luis Lizundia

Exonomastika batzordeko burua eta Gasteizko Toponimia egitasmoko zuzendaria

“ Euskal Herritik kanpoko izenak, bereziki toponimoan, ikertzea, aztertzea eta normalizatzea da Exonomastika batzordearen egitekoa. Alde batetik, historian zehar, batez ere inguruko, baina, baita ere urruneko herrialde, hiri eta portuekin izandako harremanengatik, euskaraz erabili diren izenak eta, bestetik, alboko hizkuntzak eta nazioarteko usadioak ezagutzen. Norentzat, ordea? Gure bezeria nagusi biak, giza hedabideak eta irakaskuntza testuak dira, noski, euskal idazleen lagungarri ere.

Spainiaiko Erresuma eta Frantziako Errepublikako exonimoak arautu ondoren, munduko estatu izen, hiriburu eta hizkuntzak normalizatu ditu, baita ere beste izen geografiko asko. Europako herrialde, eskualde eta hiri nagusiak ere burutu ditu, azkena, karaktere zirilikotik latinezko euskal transliterazio araua tartean. Zerbait nabarmentzekotan EITB eta *Berria* egunkariarekin sinatutako hitzarmenak aipatuko nituzke, beraien eguneroko beharrezan mesedegarri. Orobat, euskal argitaletxeak eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Euskara Zerbitzua.

Asia Mendebaldean hasi eta gainontzeko kontinenteetan segi lanean, tartean, arabierako transliterazioa. Ahantzi gabe Amerika eta Filipinetako lurraldeetan, zeintzuetan euskal homonimo asko aurkituko ditugun. Urteetako lana du batzorde akademiko honek eskuartean, aipatu euskalgintza erakunde, elkarte, enpresa, talde eta gizabanakoen zerbitzuan. Ez ahantz, euskarak, ofizialtasun mailan, atera den heinean, hogeita sei urte besterik ez daramatzala.

### Gasteizko toponimia

Gasteizko udalerriko toponimo guztiak sistematikoki jasotzea da Gasteizko Toponimia egitasmoaren helburua, hala nola, galduta edota desitxuratuta dauden toponimo ugariak berreskuratzea. 1996an hartu zuen bere gain Euskaltzaindiak Gasteizko toponimia berreskuratzekeko lana, urte berean Gasteizko Udalarekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmenaren baitan. Henrike Knörr izan zen ekimenaren gidaria, 2008an heriotzak eraman zuen arte. Jose Luis Lizundiak hartu zion orduan lekukoa, egitasmoaren gaur egungo zuzendariak.



#### Henrike Knörr

Gasteizko Toponimia biltzeko ekimenaren gidaria Henrike Knörr izan zen 1996tik 2008an hil zen arte. Jose Luis Lizundiak hartu zuen jarraian honen ardura.

### Gasteizko Toponimia egitasmoa

**Zuzendaria:** Jose Luis Lizundia. **Teknikaria:** Hitzarmena (Elena Martinez de Madina). **Aholkularia:** Roberto Gonzalez de Viñaspre.

## LITERATURA

### Sariketen antolatzaile

Euskaltzaindiak lan eremuen artean izan zuen literatura hasieratik, 1920an onartutako barne arautegian Akademiaren helburuen artean aipatzen baita literatura sustatzea. Eta helburu horrekin sortu zuten urte berean, beste lau batzordeekin batera, *sariketa saila*. Ramon Intzagarai eta Pierre Lhande euskaltzain osoak eta Federiko Belaustegigoitia urgazlea izan ziren batzordekide.

1920. urtean bertan “euskal idaztietara sariketa” antolatu zuen Euskaltzaindiak, batzar agirietan aipatua agertzen baita, hari buruzko berriak *Euskalerraren Alde* agerkarian emango zirela ezagutzera. Urtetan ez zen beste sariketarik egin, ez behintzat batzar agirietan jasotakorik, 1950eko hamarkadara arte.

### Narratiba


Jarraipenik izan ez zuen sariketa bat egin zuten 1954an: Jon Etxaidek irabazi zuen lehen saria —Juan Aldamin ezizenez—, *Joanak joan* lanarekin, eta epaimahaiak “aitatugarritzat” jo zen Jose Antonio Loidi-ren *Amabost egun Urgainen*.

Handik lau urtera, 1958an, bide luzea egingo zuen lehiaketari ekin zion Euskaltzaindiak: Txomin Agirre eleberririk sariketa. Eta ez zituen nolanhiko irabazleak izan, lehen urtean bezala gero: Eusebio Erkiaga 1958an (*Araibar Zalduna*) eta 1961ean (*Batetik bestera*); Txillardegi 1958an (merezimenduzko aipamena *Peru Le-artzako lanari*) eta 1968an (*Elsa Scheelen*); Yon Etxaide 1962an (*Gorrotoa lege*); Txomin Peillen 1964an (*Gauaz ibiltzen dana*) eta 1966an (*Itzal herrian*); Mikel Zarate 1972an (*Haurgintza minetan*); Gotzon Garate 1977an (*Elizondoko eskutitzak*)...

### Poesia

1959an Loramendiren omenez antolatutako lehiaketan, poesiaren atalean, izen handiek eraman zituzten bi sari nagusiak: lehena, Gabriel Arestik (*Maldan behera*), eta bigarrena, Bitoriano Gandiagak (*Lelo xamurrak*). Luis Jauregi *Jautarkol* (*Loramendi olerkaria, aren garai barruan ikusia ta aztertua*) eta Eusebio Erkiaga (*Kanpaien atsekabez*) izan ziren beste irabazleak.

Sariketa hark ez zuen jarraipenik izan, baina bai lehenengoz 1961ean antolatutako Lizardi poesia sariak. Nikolas Ormaetxea *Orixe*-k irabazi zuen lehenengo urtean (*Lau urtaroak nere begietan*), Antonio Bilbaok 1962an (*Irribarre ta lore*) eta 1964an (*Loraen zugatza*), Gabriel Arestik 1965ean (*Euskal Harria*) eta Ibon Sarasolak 1966an (*Ez bat, ez bi, ez...*). Euskaltzaindiaren beste poesia sariketa bat ere irabazi zuen Arestik,



### Loramendiren omenez

Gabriel Aresti, Luis Jauregi *Jautarkol* eta Eusebio Erkiaga izan ziren, 1959an, Loramendiren omenezko sariketaren irabazleak.

1962an Orixeren omenez antolatutakoa hain zuzen, *Harri ta Herri* lanarekin. 1973an Eusebio Maria Azkueren omenez antolatu zuen poesia sariketa Euskaltzaindiak; Bitoriano Gandiagak irabazi zuen (*Txakolinaren 2. ospatze*), eta aipamen berezia egin zieten Xabier Leteri (*Hitz neurtuetan*) eta Arantza Urretabizkaiari (*Malko baten magalean*). Gerora, gaur egun arte, Felipe Arrese Beitia izena izan du Euskaltzaindiaren poesia sariak.

### Antzerkia eta beste

Txomin Agirre eleberria lehiaketa bezain zaharra da, kasik, Toribio Altzaga antzerki saria. Nobela saria bezala 1958an sortu zuen Euskaltzaindiak, nahiz eta 1961 arte ez zuten saririk eman, eta gaur egun ere antolatzen du sariketa hau. Gabriel Aresti nagusitu zen 1961ean (*Mugaldeko herrian eginekako tobera*), Augustin Zubikarai hiru aldiz irabazi zuen (1963, 1967 eta 1969), Lourdes Iriondok 1970ean irabazi zuen, Luis Haranburu Altunak 1964an eta Junes Casenavek 1980an, besteak beste.

1961ean hasita, luzaroan Xenpelar bertsopaper lehiaketa ere antolatu zuen Euskaltzaindiak. 1990eko hamarkadaren hasierara arte iraun zuen sariketak, tartean hainbat urtetan antolatu ez bazen ere.

Mikel Zarate saiakera sariak ez ditu horrenbeste urte, Zarate euskaltzain urgazlea 1979an hil ondoren erabaki baitzuen Euskaltzaindiak lehiaketa antolatzea. Jon Kortazar izan zen lehenengo irabazlea, 1981ean, *Zarateren prosa* lanarekin, eta gaur egun ere ematen da. 1971n literaturari buruzko saiakera lehiaketa berezia antolatu zuen Akademiak: Ibon Sarasola izan zen irabazlea, *Euskal Literaturaren Historia* lanarekin.

Resurreccion Maria Azkue gazteentzako sariketak gaur egun ere irauten du. 1991n sortu zen, idazle gazteentzako narratiba eta olerki lehiaketa da. Bi mailatan bereizten dira lehiakideak: 11 eta 14 urte bitartekoak, eta 15 eta 18 urte bitartekoak.



#### Federiko Krutwig

Literatura batzordea 1981ean sortu zenean Federiko Krutwig izendatu zuten batzordeburu. 1989. urtera arte izan zuen ardura.

### GAUR EGUNGO SARIKETAK


Txomin Agirre: eleberria. 1958tik.

Toribio Altzaga: antzerkia. 1961etik.

Felipe Arrese Beitia: poesia. 1961etik (Lizardi sariketa izenarekin).

Mikel Zarate: saiakera. 1981etik.

Resurreccion Maria Azkue: gazteak. 1991tik.



### Literatura batzordearen sorrera

1981. urtean sortu zen Euskaltzaindiaren Literatura batzordea. Urtarrilaren 23an eta 24an Loiolan egindako Barne Jardunaldietan proposatu zuen Juan San Martin Jagon sailburuak batzordea sortzea, 1920ko barne arautegian Euskaltzaindiak bere buruari euskal literatura sustatzeko eginkizuna jarri ziola argudiatuta. San Marti-

nen proposamena ontzat jo, eta hurrengo batzarrean sortu zen Literatura batzordea, otsailaren 27an. “Berezkoa du Euskaltzaindiak Literatur sorketaren eremua zaintzea eta bultzatzea”, irakur daiteke batzar hartako aktan, batzordea sortzearen arrazoiaz.

Jagon saileko batzordea izan zen lehen urteetan, 1989ra arte, eta Iker saileko batzorde da, geroztik. Federiko Krutwig izan zen batzordeburu lehen aroan, Juan Mari Lekuonak hartu zuen bere lekua 1989an, eta Jean Haritzelharrek hartu zuen lekukoa 2005ean.

### EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEAREN SORBURU


Euskal Idazleen Elkartearen sorrerarekin zerikusi zuzena izan zuen Euskaltzaindiak, Literatura batzordearen lehen urteetan. Izan ere, Euskaltzaindiaren babesean sortu zen elkarte, 1982ko uztailak 30ean Bilbon Bizkaiko Diputazioaren Bibliotekan egindako batzarrean. Federiko Krutwig Literatura batzordeko buruak idazleen elkartearen premiaz hitz egin zuen, eta Juan San Martin Jagon sailburuak elkartearen helburuen eta zehaztasunen berri eman zuen. Ondoren, behin-behineko zuzendaritza hautatu zuten, eta “bazkidegintzarako kanpaina” ireki.

## Literatura ikergai

Literatura batzordeak 1982an Euskal Idazleen Elkarte sortu zuenetik, literatura klasikoaren azterketa izan zen, hamarkada osoan, batzordearen eginkizun nagusia. 1989ko berregituraketarekin, Literatura batzordearen barruko azpibatzerdea bihurtu zen, Federiko Krutwigen ardurapean.

Gutxi iraun zuen, ordea, literatura klasikoari buruzko azpibatzerdeak, Euskaltzaindiaren batzarrak 1990eko ekainaren 29an hala erabakita: “Literatura Klasikoa Unibertsitatean emateko gaia dela eta, azpibatzerde honen helburu, oraiko lan plan-gintza eta kostuak funtsez moztea erabaki dute aho batez batzartuek”, dio aktak. Azpibatzerdea desegin egin zen. Literatura Ikerketa batzordeak bere gain hartu zuen, geroztik, literatura klasikoaren azterketa ere.

1989ko berregituraketarekin sortu zen Literatura Ikerketa azpibatzerdea. Literatura batzordearen ardurarekin batera, azpibatzerdearen ardura ere hartu zuen Juan Mari Lekuonak. Beste hainbat ikerketa, jardunaldi, omenaldi eta urteurren egin eta antolatu ditu Ikerketa Batzordeak urte hauetan guztietan, baina lan nagusia *Literatura Terminoen Hiztegia* egitea izan du. Lanaren helburua: literaturaren teoria, historia eta kritikaren berri emateko euskaraz garatu den lexikoa agertzea eta finkatzea. 1993. urtean ekin zioten lanari, Lourdes Otaegi Literatura batzordeko idazkariaren koordinaziopean, eta 2008an argitaratu zen. 623 hiztegi-sarrera ditu liburuak, hainbat arlori datxekion lexikoa bilduz, hala nola, Literaturaren Teoria, Kritika eta Historia, Estetika, Erretorika, Metrika edota Ahozko Literatura.



**Juan Mari Lekuona**

1989tik 2005era bitartean Literatura batzordeburu izan zen Juan Mari Lekuona.



**Literatura Terminoen Hiztegia**

2008. urtean argitaratu zen, Lourdes Otaegiren koordinaziopean.

### Literatura Ikerketa batzordea

**Burua:** Jean Haritzelhar. **Idazkaria:** Lourdes Otaegi. **Kideak:** Iñaki Aldekoa, Ur Apalategi, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Jon Casenave, Sebastian Gartzia Trujillo, Jon Kortazar, Maria Jose Olaziregi, Karlos Otegi, Txomin Peillen, Iratxe Retolaza, Ana Toledo eta Patri Urkizu.



**Jean Haritzelhar**  
Literatura Ikerketa batzordeko burua

“ Alde batetik, ikerketa lanak bultzatzen eta egiten ditugu, erran nahi baita bereziki gure ikasleek eta irakasleek behar dituzten literatura liburuen egiteko. Eta, bestetik, pentsatzen dugu ere behar ditugula ohoratu gure idazleak, bereziki zenduak direnak, haien lanak ikertuz eta ohorezko aipamenak eginez, kongresuen eta jardunaldien bidez, gure herritarrek behar dutelako jakin haien berri.

.....

Hor dago *Literatura Terminoen Hiztegia*. Nehork ez du halakorik egin. Baliatzen ahal dute ikasleek eta irakasleek. Kongresuak ere egin ditugu, hala nola Arnaut Oihenarti buruz, Jean Baptiste Elissanbururi buruz, Anton Abadiari buruz, Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* lanari buruz...

.....

Orain, nahi genuke antologia bat egin, baina behar den bezalako antologia. Horri buruz ere zenbait urte pasako ditugu. EHUko Udako Ikastaroetan ere bada Euskaltzaindiko Literatura batzordea: duela bi urte *Leturiaren egunkari ezkutua* izan genuen aztergai, eta aurten gerra zibila gure literaturan.



**Antonio Zabala**  
1985ean Bertsolaritza batzordea Herri Literatura batzordea bihurtu zenean, Antonio Zabala izendatu zuten buru.

### Bertsolaritzatik Herri Literaturara

1978an sortutako Bertsolaritza batzordean du jatorria Herri Literatura batzordeak. 1960, 1962, 1965 eta 1967 urteetako Euskal Herriko Bertsolari Txapelketak Euskaltzaindiak antolatu zituen eta, hain zuzen ere, bertso txapelketa berpizteko helburu nagusiarekin eratu zen Bertsolaritza batzordea. 1980ko eta 1982ko txapelketak antolatu ondoren, ordea, Bertsolari Elkarteak hartu zuen lehiaketa antolatzeko ardura. Ondorioz, 1985ean, ordura arte Bertsolaritza batzordea zenak Herri Literatura batzordea izena hartu zuen eta, bertsolaritzaz gain, Herri Literatura osoari buruzko ikerketa, bilketa eta zabalkundea egitea hartu zuen helburutzat, Antonio Zabala batzordeburu zela. Jagon saila utzi, eta Iker saileko batzorde bihurtu zen. 1997an Juan Mari Lekuona Literatura batzordeko buruak hartu zuen azpibatzo-dearen ardura ere, eta 2005etik aurrera Pello Esnal da buru.

Batzorde gisa aritu zen lehen lau urteetan, Literatura batzordetik berezita, baina 1989ko berregituraketarekin, Literatura batzordearen barneko hiru azpibatzo-deetako bat izatera pasatu zen, literatura klasikoari buruzko eta literaturaren ikerketarako azpibatzo-deekin batera. Lehengo eginkizunarekin jarraitu zuen herri literaturari buruzkoak, eta lehengo arduradunarekin, Antonio Zabala alegia.

Herri Literatura azpibatzo-dearen lan nagusia, urte haietan eta ondorengoetan, herri literaturari buruzko jardunaldiak antolatzea izan zen. 1989an Billabonan egin zituzten I. Jardunaldiak, kontapoesia gaitzat hartuta, eta geroztik beste zazpi edizio egin dituzte.



### Herri Literatura Jardunaldiak (1992-03-25)

Donostian antolatu ziren Herri Literaturari buruzko II. Jardunaldiak, 1992ko martxoaren 25etik 27ra.



## HERRI LITERATURARI BURUZKO JARDUNALDIK

- I. Jardunaldiak (Billabona, 1989): "Kontapoesia"
- II. Jardunaldiak (Donostia, 1992): "Herri narratiba"
- III. Jardunaldiak (Oiartzun, 1994): "On Manuel Lekuonaren omenez"
- IV. Jardunaldiak (Durango, 1996): "Paremiologiaz"
- V. Jardunaldiak (Tolosa, 1998): "Herri antzerkiak"
- VI. Jardunaldiak (Bilbo, 2000): "Euskal fraseologia"
- VII. Jardunaldiak (Eibar, 2002): "Mogelen *Peru Abarka*-ren bigarren mendeurrenean"
- VIII. Jardunaldiak (Donostia, 2005): "Herri Prosa eta ahozketasuna"

### Herri Literatura batzordea

**Burua:** Pello Esnal. **Idazkaria:** Joxe Ramon Zubimendi. **Kideak:** Antton Aranburu, Adolfo Arejita, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Maria Etxezarreta, Jose Mari Iriondo, Jabier Kaltzakorta, Emile Larre, Abel Muniategi, Xabier Perez *Euzkitze* eta Patziku Perurena.

### Herri Literaturaren Corpusa egitasmoa

**Zuzendaria:** Pello Esnal. **Kideak:** teknikari bat. **Aholkulariak:** Jose Mari Iriondo eta Jabier Kaltzakorta.





“ Batzorde honek, Iker sailekoa izanik, ikerketa du zeregin nagusi; hain zuzen, herri-literaturaren ikerketa. Baina ikerketa hori zabal ulertuta: corpusaren bilketa, lanketa, azterketa eta plazaratzea.

.....

Batik bat, eta beste ezeren gainetik, Euskal Herriko bertsolari-txapelketa nagusiak daude, horrek esan nahi duen guztiarekin. Lehenik, 1960, 1962, 1965 eta 1967ko txapelketak; gero, etenaldi baten ondoren, 1980 eta 1982koak. Gero, 1989tik aurrera, Herri Literatura Jardunaldiak antolatu ditu: zortzi, guztira.

.....

Euskaltzaindiaren gaurko egitasmo nagusien artean dago Herri Literaturaren Corpusarena. Egitasmo hori izango du batzorde honek erreferentzia nagusia, eta hiru zeregin eginkizun: corpusa bildu, aztertu (ikertu) eta plazaratu.

**Pello Esnal**

Herri Literatura batzordeko burua eta  
Herri Literaturaren Corpusa  
egitasmoko zuzendaria

# JAGON SAILA





## CORPUSA

### Kalitatearen jagole

Helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik, euskararen corpusa jagoteko eginkizuna eman zitzaion Jagon saileko Corpus batzordeari, 1999an sortu zenean. Miren Azkarate izendatu zuten batzordeburu. Handik bi urtera, Andres Urrutiak hartu zuen batzordearen ardura, eta gaur egun ere bera da arduradun.

Administratibotik, hedabideetatik eta beste hainbat arloetatik heltzen zaizkion galderei, zalantzei eta irizpen eskaerei erantzutea da batzordearen lan nagusia. Lan horri erantzun egokia emate aldera sortu zituen, esate batera, komunikabideen lantaldea eta euskalkien lantaldea 2001ean. Euskalkien lantaldeak bide propioa egin du geroztik, eta komunikabideen lantaldeak urte gutxi batzuk iraun zuen, baina alor hori lantzen jarraitzen du Corpus batzordeak berak. 2006tik, "Estrategia komunikatiboak" egitasmoa lantzen ari da, hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboaren barruan kokatzen diren estrategia eta gaitasunak aztertzen, alegia.



### Jagonet zerbitzua

Profesionalentzako kontsulta eta aholku zerbitzua da Jagonet. Orain arteko galdera-erantzunen datu basea eskura dago webgunean.



### Jagonet zerbitzua

Jagonet zerbitzua Bilboko egoitzan aurkeztu zen, 2000ko azaroaren 30ean.



### Jose Ramon Zubimendi

Jose Ramon Zubimendi da Jagonet zerbitzuaren arduraduna, 2001ean abian jarri zenetik.

## Jagonet zerbitzua

Jagonet ere, Euskaltzaindiaren kontsulta zerbitzua, Corpus batzordearen emaitza da. 2001. urtean jarri zen abian, Euskaltzaindiaren webgunean. Hitz hauekin laburbiltzen du Jagonet zerbitzuak berak, webgunean, Jagonet zer den: “Kontsulta- eta aholku-zerbitzua da, euskararen erabilera zuzena eta egokia eragitekoa profesionalentzat. Zerbitzu honen bidez hizkuntzaren arlo desberdinetako Euskaltzaindiaren erabakiak kontsulta daitezke: Gramatika, Onomastika/Toponimia, Lexikografia... Bilatzen duena aurkitzen ez badu, erabiltzaileak bere zalantza Euskaltzaindiari bidal diezaioke”. Euskaltzaindiaren erabakiak ez ezik, orain arte bidalitako galdera-erantzun guztien datu-basea ere kontsultagai dago Jagoneten.

Jose Ramon Zubimendi da Jagonet zerbitzuaren arduraduna, baina berriaz izendatutako euskaltzainen laguntza du, galderei erantzuteko: hala nola, Iker eta Jagon sailburuak, eta Hiztegitza, Gramatika, Onomastika batzordeetako ordezkariak.

## Corpus batzordea

**Burua:** Andres Urrutia. **Idazkaria:** Paskual Rekalde. **Kideak:** Joseba Butron, Henri Duhau, Pello Esnal, Igone Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Andres Iñigo, Patxi Iñigo, Xabier Mendiguren eta Patxi Uribarren.



### Andres Urrutia

Corpus batzordeko burua

“ Corpus batzordearen kezka nagusia da euskara modu komunikatibo batez lantzea. Izan ere, horrek eskatzen du bi alor desberdin uztartzea: lehena, komunikazioaren teoria sendoa, euskararen ezaugarrietatik abiatua; eta bigarrena, eguneroko aplikazioak, Euskaltzaindia iturri egokia izan dadin egun kezka iturri diren hainbat gorabehera linguistikoetan.

Hizkuntzak bere behar komunikatiboak badituela ulertzea eta ulertaraztea lortu du batzorde honek, eta behar komunikatibo horietan Euskaltzaindiak bere ekarpena egin behar duela. Lorpen garrantzitsua da hori, batez ere adierazkortasunaren eta erabileraren ikuspegitik.

Orain argitalpen bat atera dugu testu antolatzaileen alorrean eta euskararen erabilera estrategikoa aintzat hartuta. Bide horretatik jarraitu nahi dugu bizpahiru sistema erabiliz: bi edo hiru urtean behin liburu bat argitaratu, jardunaldiak egin eta gure lana gizarteratu, jendeak jakin dezan Euskaltzaindiaren iritzia eta azalpena zein den puntu hauetan.

# EUSKALKIAK

## Euskalkien ekarria aztertzen

Jagon saileko Corpus batzordeko atal gisa sortu zen Euskalkien lantaldea 2001. urtean. Helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik, euskararen corpora jagoetea da Corpus batzordearen helburua eta, ildo horretan, euskalkiek duten eta izan behar duten tokiaz gogoeta eta azterketak egitea da Euskalkien lantaldearen xedea. Pas-kual Rekalde izan da lantaldearen arduraduna, hasieratik. 2007. urtetik, Corpus batzordetik kanpoko izaera berezia du lantaldeak, Jagon sailaren barruan.

Lehen urteetan egindako azterketa lanaren emaitza nagusia 2004an onartutako adierazpena da: “Adierazpena euskalkien erabileraz irakaskuntzan, komunikabi-deetan eta administrazioan”. Funtsean, euskalkiak oro har zer irizpiderekin erabili behar diren adierazi zuen Euskaltzaindiak agiri honetan, eta irakaskuntzari, ko-munikabideei eta administrazioari buruzko jarraibide zehatzak eman zituen. Adie-razpen honen abiapuntu eta oinarri izan ziren Euskaltzaindiak bere garaian onar-tutako beste bi agiri: “Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak” (1979) eta “Euskalkien erabilera Administrazioako 1. eta 2. hizkuntz eskakizunetan” (1994).

Euskalkien lantaldeak prestatu zuen adierazpen zirriborroa, Euskaltzainditik kan-poko adituei aurkeztu eta beraien oharrez osatu zuen eta, azkenean, Euskaltzain-diaren osoko batzarrak onartu zuen, 2004ko martxoaren 26an, Lezamako udale-txean, Mikel Zarateren omenaldia zela eta. Euskaltzaindiaren Arauaren maila eman zioten: 137. araua da.


Geroztik, 2006. urtetik, euskalkiek euskara batuari egin diezaioketen ekarria az-tertzen ari da lantaldea, “Euskalkietatik euskara batua: nola osatu Hiztegi Batua” lan egitasmoarekin. Bizkaierari dagokion hitz zerrendaren azterketa egin zuen le-hen urtean, eta nafarrerari dagokion zerrenda lantzeari ekin zion ondoren.

## Hiru adierazpen

Euskaltzaindiak hiru agiri arauemaile onartu ditu euskalkien eta euskara batuaren harremanari buruz.

### 1979. Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak

“Euskaltzaindiak uste du, eta hori ez da uste hutsa, zehazki froga daitekeen iritzia baizik, badela oraindik, lehen ere izan den bezalaxe, euskara bakar bat euskalkien ñabardurak estaltzen eta itxuraldatzen ez duena [...]”. Horregatik, “a) Idatzian, or-tografia bakarra onartuko da batuan nahiz euskalkietan; izan ere, euskara hizkun-tza bakarra baita, ez hizkuntza asko [...]. b) Idatziz nahiz ahoz, hizkuntzaren azpie-turaren arabera (euskararen oinarri bakarraren arabera) jardun behar da beti [...]”.



### Agiriak

Euskalkien eta euskara batuaren arteko harremanari buruzko irizpideak hiru agiriren bidez eman ditu Euskaltzaindiak, 1979an hasita.

**1994. Euskalkien erabilera Administrazioko 1. eta 2. hizkuntz eskakizunetan**

Euskaltzaindiak agiri honetan, besteak beste, lagunarteko hizketan ohikoak diren laburtzapenak eta tokian tokiko fonetismo bereziak gaitzetsi zituen, batasunerako deklinabidea eta aditz-jokoa derrigorrezkotzat jo zituen baina euskalkietako zenbait forma ontzat eman zituen. Euskara batuko eta euskalkietako sintaxi-zuzentasuna bat bera dela adierazi zuen eta hitzen forma dialektal tradizionak ontzat eman zituen.

**2004. Euskalkien erabileraz Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan**

“Euskara batuko eta euskalkietako adierazpideek, idatzizkoek nahiz hitzezkoek, elkarren aberasgarri izan behar dute: zehatzago esanda, euskalkietako formek berezko bide izan behar dute euskara batuko formetara heltzeko [...]. Euskalkia erabiltzean, egoera eta eremua kontuan hartuta aukeratu behar dira formarik egokienak: eremu zabalerako, euskara batutik hurbil dauden formak, eta eremu mugatuagoetan, bertakoak ere bai”.

**Euskalkien lantaldea**

**Arduraduna:** Paskual Rekalde. **Kideak:** Kaxildo Alkorta, Jon Aurre, Henri Duhau, Jose Luis Erdozia, Nagore Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Andres Iñigo, Patxi Iñigo, Manu Ormazabal, Patxi Uribarren eta Andres Urrutia.



**Paskual Rekalde**  
Euskalkien lantaldeko arduraduna

“ Euskalkien lantaldea gaur egun ‘Euskalkietatik euskara batura: nola osatu Hiztegi Batua’ lan-egitasmoa lantzen ari da. Horretarako lantaldekideek prestatutako hitz-zerrendak aztertzen dira taldean, honako helburu honekin: hitz-zerrenda horiek adostu eta Euskaltzaindiko Zuzendaritzara bidaltzea.

Aspaldi esan zuen Euskaltzaindiak euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu behar direla, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz. Hala, ‘Euskalkien erabileraz irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan’ izeneko Adierazpena eman zuen 2004an. Adierazpen horren xedea da euskara baturako eta euskalkirako esparru eta joko-arau zehatzagoak ezartzea edo berrezartzea; horien bitartez euskaldun guztiak eroso eta erraz ari daitezen egunero euskara erabiltzen dutenean.

‘Euskalkietatik euskara batura: nola osatu Hiztegi Batua’ lan-egitasmoa lantzen segituko du aurrerantzean lantaldeak. Halaber, 2004ko Adierazpena garatzeko, Euskalkien lantaldeak alorrez alorreko gomendioak eta irizpenak prestatu eta Euskaltzaindiari igorriko dizkio.

## SUSTAPENA

### Sorrerako xedeetan

1999. urtean eratu zen Sustapen batzordea, Jagon sailaren barruan, euskararen estatusa babesteko helburuarekin. Hizkuntza-ren defentsaren eta sustapenaren eginkizunari ez zion Euskaltzaindiak orduan heldu, Akademiak sorreratik beretik hartu baitzuen helburu hori, eta hain zuzen ere horretarako sortu zuen Jagon saila —orduan *Yoursaila*—, Arturo Campionen eta Pierre Broussainen ardurapean.

1978. urtean Euskaltzaindiaren lan arloak batzordeka egituratu zirenetik, hainbat batzorde aritu ziren Jagon sailaren barruan, hala nola bertsolaritza, alfabetatze-euskalduntzea, irakaslegoa, oinarriko euskara, elebitasuna, literatura, euskalarien harremanak... Beste garai batzuk, beste behar batzuk. 1989. urtean Lazkaoko VI. Barne Jardunaldietan erabakitako egitura berriarekin, baina, batzorde bakarreko sail bihurtu zen Jagon saila, Juan San Martinen ardurapean. Ordura arteko batzordeek egiten zituzten lanak beste erakunde batzuek bideratzen zituztela-eta, hizkuntza-estatusa zaintzeko ardura hartu zuen Jagon sailak; azken batean, gerora Sustapen batzordeak bere gain hartuko zuen lan bera.

Hamar urte egin zituen Jagon sailak bere barnean beste batzorderik hartu gabe. 1999ko otsailean, Miren Azkarate Jagon sailburuak bi batzorde sortzeko proposamena egin zuen: bata, estatusaren batzordea esan ziona, hizkuntza-estatusaren sustapen arduratzeko; eta bestea, corpusaren batzordea, hizkuntza-estatusaren kalitatea jagoteaz arduratzeko. Proposamen haren haritik erabaki zen, martxoan, Baionako XI. Barne Jardunaldietan, Sustapen batzordea eratzea, eta Andres Urrutia izendatzea batzordeburu.

### Ofizialtasuna ipar

Batzorde sortu izanaren zergatiak handik sei hilabetera azaldu zituen Urrutia batzordeburuak, irailean, Aramaion. “Ukaezina da euskarak, oraindik ere, ez dituela hizkuntza oso bati dagozkion eremuak betetzen. Eraso eta aintzakotzat ez hartze ugaritxo dabilta gure artean euskararekiko. Hortik dator, etorri ere, arrangura berrri —edo eraberritu— eta kezka arduratsu hori. Hizkuntza bera, legez edo gizartez, non dagoen eta nora eraman dezakegun edo gaitzakeen”.

Egoera horri erantzuteko Euskaltzaindiak zer esan eta zer egin baduela gehitu zuen batzordeburuak: “Euskaltzaindiak, ostera, Euskal Herri osoan izan dezakeen



**Euskararen Legea**  
2007ko Jagon Jardunaldietan Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Legea izan zuten aztergai.



ospe eta itzala euskararen babeserako jarri nahi ditu eta, orobat, horren alde jokatu, berari dagokion ordezkaritza aurrera eramanez. Alor hori lan bertsuan aspalditik diharduten erakundeekin batera nahi du jorratu”.

Kontua ez zen hizkuntza politika egitea, hori erakundeei baitagokie, baizik eta “gogoetaren bidez Euskal Herriaren lurralde desberdinetan euskararen egoera aztertu eta, horren ondorioz, proposamenak egin, Euskal Herri osoan euskarak izan dezakeen estatusa hobea dadin”. Eginkizun zehatzei dagokionez, lehentasuna euskararen ofizialtasunaren alde egitea zela adierazi zuen Urrutiak, baina beste lanik ere bazela, hala nola lurraldez lurraldeko hizkuntza politiken artean zubi-lana egitea eta hizkuntza eskubideen defentsa egitea, beti ere Euskal Herriaren osotasuna aintzat hartuta eta erakundeekin elkarlanean jokotuta. 2005. urtera arte izan zen Urrutia Sustapen batzordeburu, eta Andres Iñigok hartu du ardura geroztik.

### Euskaltzaindiaren ahotsa

Euskararen estatusaren defentsarako Euskaltzaindiak mezuren bat gizarteratu nahi izan duenean, Sustapen batzordearen lana izan da adierazpenak prestatzea, batzordea sortu aurretik Jagon sailak egin ohi zuen eran. 2006. urtera bitarteko adierazpenak liburu batean argitaratu ditu Sustapen batzordeak: *Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2006)*.


#### EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENETAKO BATZUK

- 1979 [Espainiako] Hezkuntza Ministeritzari egindako eskea  
*Euskal-Herri* hitza ez baztertzeaz  
Nafarroako euskararen egoera
- 1981 Espainiako errege-etortzea
- 1983 Felipe Gonzalez Espainiako Gobernu Buruari Euskararen normalizazio legeaz
- 1986 Nafarroako Euskara Legearen aurreproiektuaz
- 1990 Autodeterminazioaz adierazpena
- 1991 Nafarroako Gobernuari eta jendarteko iritziari  
Arabako euskaltzainek Jagon Sailarekin egindako adierazpena
- 1995 Frantses Gobernuari Euskaltzaindiaren adierazpena  
Nafarroako Euskararen Foru Legearen gainean Parlamentuak erabaki duenaz
- 1997 Frantziako Estatu Kontseiluak hizkuntzei buruz eman duen iritziaz
- 1998 Nafarroako irratia baimenen gainean
- 2000 Miguel Sanz Nafarroako gobernuburuari
- 2002 Euskararen egoera Nafarroan
- 2003 *Egunkaria* ixtearen gainean
- 2004 *Euskal Herria* izena
- 2008 Frantses Akademiak 2008-06-12an egindako adierazpena dela eta



## Gogoeta eta azterketa

Euskararen estatusari buruzko gogoeta eta azterketa lanak egiteko Jagon Jardunaldiak baliatu ditu, besteak beste, Sustapen batzordeak: 2002tik 2005era arteko Jagon Jardunaldietan euskal elizbarrutietan euskarak bizi duen egoera aztertu zuten; 2006an, Europar Batasuneko hizkuntza aniztasuna eta euskararen hizkuntza politikak izan zituzten aztergai; 2007an Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Legea, 25. urteurrena zenez; eta 2008an, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak.




### Agiriak

1979an Euskal Herria hitzaz plazaratutako adierazpena eta 1983an Felipe Gonzalez i gorritakoa


## HIZKUNTZAREN LEGERIA

Sustapen batzordearen lanaren azkenetako fruitua hizkuntza-zuzenbideari buruzko liburua izan da: *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu bilduma euskaraz (2007)*. Hizkuntza-zuzenbidearen inguruko xedapen nagusiak euskaratu dira lan kolektibo honetan, bai Europakoak, bai mundu mailakoak; bereziki, Espainiako Erresumako eta Frantziako Errepublikako xedapenak. Azken batean, lurralde euskaldunetan aplikatu beharreko legeria laburbildu da euskaraz.



### Sustapen batzordea

**Burua:** Sagrario Aleman. **Idazkaria:** Erramun Osa. **Kideak:** Arabako ordezkaria, Gipuzkoako ordezkaria, Nafarroako ordezkaria, Iparraldeko ordezkaria, Erramun Baxok, Jean-Baptiste Coyos, Aingeru Epaltza, Patxi Juaristi, Santiago Larrazabal, Manuel Maria Ruiz de Urrestarazu, Patxi Uribarren eta Andres Urrutia. **Aholkulariak:** Xabier Erize, Juan Karlos Etxegoien *Xamar*, Karmele Rota-etxe eta Bernardette Soulé.



**Sagrario Aleman**  
Sustapen batzordeko burua

“ Sustapen batzordearen zereginetako espezifikoa da Euskaltzaindiaren Jagon sailari egokitu zitzaizkion euskara zaintzea eta euskararen erabilera eta erabileraren eremuak zertan diren ikustea eta aztertzea. Zeregin hau bi modutara gauzatu izan da: batetik, erabilera eremuak hausnarketaren eta gogoetaren bidez aztertuz; eta, bestetik, zenbait egoera larriren aitzinean batik bat, herri erakundeen aurrean adierazpen puntualen bidez Euskaltzaindiaren kezka agertuz.

.....

Azken urteotan euskararen erabilera eremuak modu nahiko sistematikoan aztertzen saiatu da batzordea urtez urte antolatu dituen Jardunaldien bidez. Lau urtez, 2002-05 bitartean, Eliza eta Euskara gaiaren inguruan, elizbarrutika antolatuta, tokian tokiko errealitatea aztertuz. Hurrengo hiru urteetan, honako gai hauek izan dira aztergai: Europar Batasuna eta euskararen aldeko hizkuntza politika, Euskararen egoera EAEko euskararen legearen 25. urtemugan, Euskara eta kontsumoa. Euskaltzaindiak urteetan zehar egin dituen adierazpenen bilduma osoa ere eskaini da edizio berezi batean.

.....

Azken urte hauetako bidetik jarraitzea da batzordearen asmoa, hots, euskararen erabilera eremuen inguruko azterketak eta hausnarketak egiten jarraitzea. Hurrengo jardunaldiak Euskara eta etorkinak gaiari buruzkoak izanen dira. Asmoa da beste zenbait erakunde edota elkarterekin batera egitea, datu eta esperientzien inguruan hausnarketak eta iradokizunak elkarrekin egitea eta, ahal bada, kanpoko esperientzien berri ere izatea. Horretaz gain, lehendik egiten ari den lanekin jarraituko du batzordeak, hala nola, euskararen inguruko testu juridikoak osatzen, eta abar.



## EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA

### Joanes Etxeberri egitasmoa

Euskararen Historia Soziala (EHS) ikertzeko eta idazteko egitasmoa 2007ko apirilean aurkeztu zuen Joseba Intxausti euskaltzain ohorezkoak, Etxalarko XV. Barne Jardunaldietan, eta osoko batzarrak onartu zuenez, lantaldea lanean da geroztik. *Joanes Etxeberri egitasmoa* izena hartu du proiektuak eta, Intxaustik asmoa aurkeztu zuenean adierazi zuenez, zera da proiektuaren muina: “Historia sozialaz dihardu Proiektuak; hortaz, ez da Linguistika edo Filologia, ez da Soziologia soil: gizarteko historia egin nahi du eta iraganetik denboran zehar datozen edukiak bilatu behar ditu, ikertu, ordenatu, aurkeztu eta hedatu”.

Intxaustiren zuzendaritzapean, 2007ko irailean hasi zituzten aurrelanak. Batetik, bilketa lana abiatu dute, eta euskararen historiari buruzko hainbat lan digitalizatzen hasi, hala nola Jose Estornes, Jose Maria Jimeno Jurio, Manuel Larramendi, Miguel Unamuno eta beste hainbaten lanak. Bestetik, Euskararen Historia Sozialaren metodologi eredu lantzeko lehen mintegia egin zuten, Donostiako Miramongo Parke Teknologikoan, urte bereko urriaren 15 eta 16an. 2009an onartutako egitura berriaren arabera, Joseba Intxausti zuzendari orokorra da orain, eta Mikel Zalbide Iker-saioen zuzendaria.


### Metodologiari buruzko I. Jardunaldiak

Metodologiari buruzko I. Jardunaldiak antolatu zituzten 2007ko urriaren 15 eta 16an, Donostiako Miramongo Parke Teknologikoan.



### Joanes Etxeberri egitasmoa

**Zuzendari orokorra:** Joseba Intxausti. **Iker-saioen zuzendaria:** Mikel Zalbide. **Bulegoburua:** Nicholas Gardner. **Informatika burua:** Alazne Gorrotxategi. **Kodetze-arduraduna:** Lionel Joly. **Markatzaileak:** Iratxe Gaztañaga, Julen Manterola eta Anton Ugarte.



#### Joseba Intxausti

Euskararen Historia Soziala  
egitasmoko zuzendari orokorra



#### Mikel Zalbide

Euskararen Historia Soziala  
egitasmoko iker-saioen zuzendaria

“ Helburua, historialariei, soziolinguistei eta beste hainbat berezilariri eta interesduni begira, euskararen historia soziala era sistematizatuan lantzea da. Horretarako, proiektuaren lehen aldian, 1980ra arte bertako hizkuntzen erabilerari buruzko une eta aldi jakinetako iker-saioak burutu nahi dira, aurrerago sintesi luze-zabalagoetara iritsi ahal izateko. Arlo jakinetan, gainera, materialak bildu eta berariaz aztertuko dira.

.....

Euskaltzaindiak bere bizitzan zehar arlo honetan egindako lana Intxaustik (*Euskera*, 2007, 1. 52, 248-251) laburtzen du. Egitasmoaren beraren lehen urratsak, 2007tik, lankideak eta bulegoa eskuratzetik aparte, honako hauek izan dira: Zalbidek irizpide soziolinguistikoetan oinarritutako metodologia-ereduaren lehen zirriborroa sortu ondoren, hura bertako eta atzerriko adituekin eztabaidatu zen. Orain horren bertsio definitiboa prestatzen ari da. Eredu hori praktikara eramateko, datu-basea eta thesaurusa garatu dira: hasi da EHS datu xeheak jasotzen.

.....

Epe ertaineko helburuen artean honako hauek daude: lehendabizi, garai eta gai desberdinei buruzko iker-saioak burutzea; gero, egitasmoarekin lotutako hainbat material (iker-saioak, bibliografia, oinarrizko lan-tresnak, aurrekariak diren lanak...) argitara ematea; datuen bilketarako prozedurak eta jokabideak behar bezala finkatzea, beharrezko informatizazio-bideak barne; elizaren arloan batzorde-lana abiaraztea. Epe luzeagora, beste iker-alorretako proiektuak eta lanak bideratzen hastea; oro har, jasotako datuak Interneten bidez publiko zabal baten esku jartzeko asmoa dago.

# EGITURAZKO BATZORDEAK ETA EGITASMOAK





## ARGITALPENAK

### *Euskera*, agerkari ofiziala

#### Bi aro

*Euskera* da Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala, eta bertan erakundearen akta eta erabakiak argitaratzen dira, hizkuntza eta literatur lanekin batean.


*Euskera* agerkaria Euskaltzaindia sortu zenetik argitaratzen da. 1920an kaleratu zen lehen zenbakia, 1919-1920 urteetako berriekin. Agerkariaren izen osoa beti bera izan da: *Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*. Gazteleraz eta frantsesez ere ematen du azpititulua azalean, lehen zenbakitik gaurdaino: *Trabajos y actas de la Academia de Lengua Vasca. Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque*.

Bi aro izan ditu *Euskera* agerkariak. 1920tik 1937ra arte hutsik gabe argitaratu zen: bina zenbaki kaleratu zituzten 1920an eta 1921ean, eta handik aurrera, hiruhilabetekari bihurtu zuten, urtean lau zenbaki ateratzea zen helburua, nahiz eta urte batzuetan zenbaki bakarrean bildu zituzten urteko aktak eta lanak, eta noizbait bi urteko zenbakia ere atera zuten (1923-1924). Pierre Lhande izan zen lehen zenbakien arduraduna, eta ondoren Nazario Oleagak eta Sebero Altubek hartu zuten ardura, lehen aro honetan, gerrak etenaldia ekarri zuten arte.

1937an 64 orriko zenbaki solte bat baino ez zen argitaratu, eta gainera ez zen zabaldu. *Euskera* agerkariak argirik ez zuen ikusi hurrengo hamabost urtean: 1953an argitaratu zen hurrengo zenbakia, eta 1956tik hasi ziren berriro urtero kaleratzen, Alfontso Irigoien atontzaile zela. 1971n agerkaria eraberritu egin zuten, eta batzorde bat izendatu zuten agerkariaren arduradun, Luis Villasante buru zela, euskaltzainburu zenez.

#### Irizpide berriak

*Euskera* agerkariari buruz hainbat erabaki hartu zituen Euskaltzaindiak 2008an. Batetik, urtero-urtero hiru zenbaki argitaratzea. Horietatik lehenean eta hirugarrenean Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa bilduko dira: Instituzioaren kide berrien sarrera-hitzaldiak, erakundearen lanak, agiriak, hizkuntza-arauak, Iker eta Jagon sailtako jardunaldiak eta antzekoak. Bigarrenean, aldiz, Euskaltzaindiaren intereseko jakintza esparruetako ikerketa-lanak, liburu-aipamenak eta an-



#### *Euskera* agerkaria

1920. urtean argitaratu zuten Euskaltzaindiak *Euskera* agerkariaren lehen zenbakia eta, 1936ko gerraren ondorengo eten luzearen ondoren, 1956an hasi zen berriro urtero plazaratzen.



tzekoak jasotzea erabaki zuten, eta lan horiek zer gaietara buruz izan behar duten ere zehaztu zuten: euskal filologia; hizkuntzalaritza orokorra; gramatika; dialektologia; lexikografia/lexikologia; literatura; toponimia/onomastika; fonetika eta fonologia; semantika eta pragmatika; hizkuntzalaritzaren historia; hizkuntzaren normatibizazioa; hizkuntzaren normalizazioa; soziolinguistika; teknologia berriak eta hizkuntza; iurilinguistika eta hizkuntza-zuzenbidea; itzulpenegintza; zientzia arlo desberdinetako euskara teknikoak eta “orobat, aintzat hartuko dira beste hainbat esparrutako diziplinak, euskararekin zerikusirik duten neurrian”.


*Euskera* agerkariko ikerketa-artikuluak eta liburu-aipamenak “Euskal Herriko mundu akademikoan erabiltzen den edozein hizkuntzatan” idatzita izan daitezke, baina, gehienbat, euskaraz idatzitakoak hobesten dira, 2008an onartutako irizpideen arabera. Orobat, egilea edozein izan daiteke, baina euskaltzainen (oso, ohorezko, urgazle) eta Euskaltzaindiko batzordekideen ikerketa-artikuluak eta liburu-aipamenak hobesten dira.

1981ean Argitalpenen batzordea sortu zenetik, batzorde horren ardurapean egon da *Euskera* agerkaria, Euskaltzaindiaren gainerako argitalpen guztiak bezala. 2009. urtean, ordea, *Euskera* agerkariaren Idazketa Kontseilua eratu da, agerkariaren arduraz izateko. Euskaltzainburua da Idazketa Kontseiluko burua, Argitalpenen batzordeko burua bezala.

#### **Euskera agerkariaren idazketa kontseilua**

**Burua:** Argitalpenen burua (euskaltzainburua). **Idazkari akademikoa:** Ana Toledo.

**Idazkari teknikoak:** Argitalpen eragilea. **Kideak:** Adolfo Arejita, Jean-Baptiste Coyos, Joseba Andoni Lakarra, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri eta Mikel Zalbide.



#### **Arauak**

Karpetatan argitaratzen dituzten arauak Euskaltzaindiak.

#### **Bildumak**

*Euskera* agerkariaren gain, Euskaltzaindiaren xedeei dagozkien beste hainbat argitalpen kaleratzen ditu Akademiak, hainbat bildumatan banatuta. 2009an argitaratutako *Euskaltzaindiaren argitalpenen katalogoa*-n jasota daude denak.

#### **Euskaltzaindiaren arauak**

Akademiak onartutako arauen bildumak, karpetatan argitaratuak: 1. Karpeta, 1-75 arauak (1995-97); 2. Karpeta, 76-102 arauak (1998-99); eta 3. Karpeta, 103-144 arauak (2000-05). Bildumaren arduraduna: Euskaltzaindiko idazkaria.

#### **Iker bilduma**

Euskaltzaindiko Iker sailaren lan berezien bilduma da. Lehenengoa 1981ean argitaratu zen —*Euskalarien Nazioarteko Jardunaldietako agiriak*— eta, 2009ko Katalogoaren arabera, Iker 22 da azkena, *Intelektuala nazioa eraikitzen: R.M. Azkueren pentsaera eta obra*, Jurgi Kintanak idatzia. Hainbat euskaltzainen eta idazleren omenezko zenbaki bereziak argitaratu dira bilduma honetan, hala nola Piarres Lafitte (Iker 2, 1983), Luis Villasante (Iker 6, 1992), Federiko Krutwig (Iker 10, 1996), Txillardeggi (Iker 17, 2005) eta Jean Haritzelhar (Iker 21, 2008). Bilduma honetan plazaratu da, halaber, *Erizkizundi Irukoitza* ere (Iker 3, 1984), Azkueren gidaritzapean 1920ko hamarkadan egindako hizkuntza inkestaren emaitzak, alegia. Arduraduna: Iker sailburua.



## Hiztegiak

Bilduma honetan argitaratu dira Euskaltzaindiaren argitalpen garrantzitsuenetakoak, hala nola Orotariko Euskal Hiztegiaren 16 liburukiak (1987-2005), eta Hiztegi Batua (2008). Azkueren hiztegiaren berrargitalpena (*Diccionario Vasco-Español-Francés*, 1984), Lexikologi Erizpideen Finkapenerako batzordearen hainbat lan eta *Literatura Terminoen Hiztegia* (2008) ere bilduma honetakoak dira. Arduraduna: Iker sailburua.

## Gramatika

Gramatika batzordeak egindako lanak ari dira argitaratzen bilduma honetan, besteak beste *Euskal Gramatika*. *Lehen Urratsak* sortako orain arteko sei liburukiak. Arduraduna: Gramatika batzordeburua.

## Izendegiak

Onomastika arloko hainbat izendegi argitaratu dituzte sail honetan, hala nola *Euskal izendegia* (1972), *Euskal Herriko udalen izendegia* (1979), *Euskal deituren izendegia* (1998) eta *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle entitateak* (2001). Arduraduna: Onomastika batzordeburua.

## Hizkuntz atlasak

Bilduma honetan argitaratu zen *Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia* (2000), dagoeneko agortua, eta bilduma honetan argitaratzekoak dira Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren lehen bi liburukiak. Arduradunak: Beñat Oihartzabal (lehen liburukia) eta EHHA egitasmoaren zuzendaria (hurrengo liburukiak).

## Onomasticon Vasconiae

Toponimia eta onomastika ikerketak argitaratu dituzte 1986an sortutako bilduma honetan. Jose Maria Jimeno Juriok Iruñerriko toponimiaz egindako sei liburukietako lehenengoarekin abiatu zen bilduma, eta Henrike Knörr eta Elena Martinez de Madina ikerlariak Gasteizko toponimiaz egindako bigarren liburukia da, 2009 artean, azkena. 28 zenbaki argitaratu dira bilduma honetan 24 urte honetan. Arduraduna: Onomastika batzordeburua.

## Euskaltzainak

Bilduma berriena da, 2007. urtean abiatua. Euskaltzain izan direnen eta direnen obrak, eurei buruzko azterketak eta Euskaltzaindiaren historiarako esanguratsu izan diren hainbat egileren lanak kaleratzeko asmoz sortu da bilduma. Bederatzi liburu plazaratu dira hiru urtean. Arduraduna: Argitalpenen batzordeko burua.

## Literatura

Literatura arloko lanen bilduma da. Axularren *Guero*-ren berrargitalpena izan zen bildumako lehenengoa (1988). Arduraduna: Literatura batzordeburua.


## Sariketak

Euskaltzaindiak antolatu eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak diruz babestu eta argitaratutako literatura obrak argitaratu dira bilduma honetan. Arduraduna: Argitalpenen burua.



### Iker bilduma

Euskalarien Nazioarteko Jardunaldietako agiriak plazaratu zituzten, 1981ean, Iker bildumaren lehen zenbakian.



### Jagon bilduma

1982ko Bertsolari Txapelketako bertsoak jaso zituzten Jagon bildumako lehen zenbakian, 1983an.

### Plazaberi

Euskaltzaindiarekin zerikusia duten berriak plazaratzen ditu *Plazaberi* agerkari digitalak 2006tik.

## Euskararen lekukoak

Idazle ezagunagoekin batera, hain ezagunak ez diren autore zaharren idazlanak berreskuratu eta plazaratzen dira aspaldiko bilduma honetan: 1979an argitaratu zen lehen zenbakia, Joakin Lizarraga Elkanokoaren lanekin, eta Aita Agustin Kardaberazen *Eusqueraren berri onac* (2004) izan da orain arteko azkena, bildumako hogeita hirugarrena. Arduraduna: Joseba Lakarra.

## Jagon

Jagon sailaren lanak argitaratzen dira bilduma honetan. 1982ko Bertsolari Txapelketako finalerdietako eta finaleko bertsoen bilduma izan zen bilduma honetako lehen argitalpena (1983), *Testu-antolatzaileak: erabilera estrategikoa* liburua (2008), Corpus batzordeak ondua, orain arteko azkena. Arduraduna: Jagon sailburua.

## Mendaur

Nafarroako Gobernuarekin egindako hitzarmenaren ondorioz plazaratutako lanak biltzen ditu sail honek. Zazpi liburu argitaratu dira, 2005. urtean bilduma sortu zenetik. Arduraduna: Nafarroako ordezkaria.

## Argitalpen solteak

Argitalpen solteen artean nabarmentzeko modukoak dira, besteak beste, trantsizio garaian Siadecorekin elkarlanean argitaratutako *El libro blanco del euskara* sonatua (1977) eta haren euskarazko itzulpena (1978); *Bases para un futuro plan de actuación en favor de la normalización del euskara* (1978); *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* (1979) eta *Conflicto lingüístico de Euskadi* (1979); euskara ikasteko *Hitz egin* metodoko liburuak, Imanol Berriatuak onduak (1978-82) eta garai bertsuan euskara ikasleentzako argitaratutako hainbat irakurgai; edota Pedro de Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar vasco* obra erraldoiaren 14 liburukiak. Arduraduna: Argitalpenen batzordeburua.



## Plazaberi

2006ko apiriletik, Euskaltzaindiari buruzko berriak plazaratzen ditu *Plazaberi* agerkari digitalak. Hara *Plazaberi* agerkariaren izateko arrazoia, Andres Urrutia euskaltzainburuak lehen zenbakiko agurrean idatzi zuenez: "Sarritan esan ohi da Euskaltzaindiaren zereginetan eginkizun dagoela bere lana egoki plazaratzea eta zabaltzea. Begien bistakoa da, bestalde, eskura dituela Euskararen Akademiak, xede hori betetzeko ahaleginetan, egungo teknika berriek eskaintzen dituzten baliabideak. Horretarako dator *Plazaberi* agerkari digitala, Akademiaren prentsa-bulegoaren eskutik. Horixe da, izan ere, horren helbururik behinena: Euskaltzaindiaren eta Euskaltzaindiari buruzko informazio-xehetasunak modu erraz, arin eta adierazgarrian ematea, guztion zerbitzari eta laguntzaile".



## ERLEA

Euskaltzaindiaren egitasmo berriena da *Erlea* kultura aldizkaria. Joseba Irazu *Bernardo Atxaga* idazleak euskaltzain oso izendatu zutenean aurkeztu zion proiektua Akademiari, eta egitasmoa dagoeneko onartua dago. *Bernardo Atxaga* da egitasmoaren zuzendaria eta hitzarmen bidez gauzatuko da. Hizkuntzari buruzko aldizkaria izango da, baina ez linguistikari buruzkoa, hizkuntzaren ikuspegi poetikoaren erakusgarria baizik. *Erlea* aldizkarian lekua izango dute, besteak beste, idazleek hizkuntzarekin edo hizkuntzekin duten loturari buruzko gogoetek, kanpoko idazleek Euskal Herriarekin duten harremanari buruzko idatziek, argitaratutako liburuei buruzko iritziek, jardun kulturalari buruzko kronikek... Urtean hiru edo lau zenbaki argitaratzeko asmoa du Euskaltzaindiak.

### Argitalpen batzordea

**Burua:** Euskaltzainburua (Andres Urrutia). **Idazkaria:** Argitalpen eragilea (Ricardo Badiola). **Kideak:** Diruzaina (Jose Luis Lizundia), euskaltzainburordea (Beñat Oiartzabal), idazkaria (Xabier Kintana), Iker sailburua (Andoni Sagarna), Jagon sailburua (Andres Iñigo), bi euskaltzain oso (Jose Antonio Arana Martija eta Joan Mari Torrealdei). **Aholkulariak:** Pello Telleria eta Juan Jose Zearreta.

“ Hiru helburu nagusi ditu argitalpen batzordeak: *Euskera* aldizkaria berritu, argitalpen-bildumak programatu eta koordinatu eta argitalpenen zabalkundea hobetu.

Hiru helburuen artean, banan-banan. *Euskera* agerkariari dagokionez, hiru zenbaki atera dira urtean, bi akademiaren albiste eta arau-gomendioekin eta hirugarrena ikerketari emana. Bildumen aldetik, berriz, *Jagon* bilduma berreskuratu da eta egungo edukiak eman zaizkio. *Euskaltzainak* bilduma ere sortu da eta abiadura onean doa.

Zabalkundearen aldetik, berebiziko hitzarmenak egin dira, gure argitalpenak egon daitezen guztion eskura, dela modu elektronikoan, dela ohiko liburu dendetan. Horretarako ere aparteko ahaleginak egiten dihardu Akademiak bere argitalpenak komunikabideetan ager daitezen.

Lehen-lehena da *Euskera* agerkariaren tradizioari eustea, baina gaurko parametroetara ekarrita: behar-beharrezkoak ditugu indexazioak-eta, beste aldizkari zientifikoek bezala. Jakinik ez dela agerkari zientifiko hutsa, akademiaren buletina ere badela, normatibizazioaren ikuspegitik. Bitasun horretan jokatu behar dugu. Zentzu honetan, Euskaltzaindiaren lanak eta agiriak bereizi egin behar ditugu: batetik, buletinak, agiri ofizialak; eta bestetik, ikerketa lanak. Horretara sortu da agerkariaren Idazketa Kontseilua. Bildumetan, aldiz, aldaketak egin behar ditugu, bai itxuraz eta bai mamiz, baina batez ere itxuraren ikuspegitik. Eta bildumak eguneratu egin behar ditugu, bilduma berriak sortu. Zabalkundeari dagokionez, bi bidetan egin beharoko genituzke hobekuntzak: zabalkunde elektronikoa, IKTren bitartez, eta paperezko zabalkunde komertziala.



**Andres Urrutia**  
Argitalpen batzordeko burua

## AZKUE BIBLIOTEKA



**Georges Lacombe**  
1921ean, *gutunzain* kargua hartu zuen Georges Lacombek.



**Alfontso Irigoien**  
Luzaroan izan zen Alfontso Irigoien bibliotekaren arduradun, 1954tik aurrera aldi batez, eta 1970etik aurrera beste aldi luze batez.

### Azkueren liburuak

Sorreratik diru partida garrantzitsuak bideratu zituen Euskaltzaindiak liburuak erosi eta biblioteka osatzen hasteko. Eta, lehenengo zuzendaritzan, 1920an aukeratutakoan, Julio Urkixo aukeratu zuten *gutunzain*, artxiboaren ardura har zezan. Hurrengo urtean, 1921ean, Georges Lacombek hartu zuen *gutunzain* kargua, eta 1947an hil zen artean eutsi zion ardurari. Ordurako, Euskaltzaindiaren egoitzara eraman zuen bere liburutegia Resurreccion Maria Azkue euskaltzainburuak eta Lacombek, artxibozain zela, hainbat liburu erosten ere jardun zuen. 1921ean bertan liburutegia deitzeko moduko argitalpen multzoa bazuten, liburutegiaren erabile-rarako araudia prestatu baitzuen Lacombek berak.

Azkue 1951n hil zenerako, Juan Gorostiaga zen liburutegiaren arduraduna. Handik bi urtera, Azkueren testamentua betez, euskaltzainburuaren liburutegia dohaintzaz hartu zuen Euskaltzaindiak, Akademia desagertzen bazen Diputaziora eramateko baldintzarekin. Azkueren liburutegiarekin aberastu egin zen, beraz, Euskaltzaindiak ordurako bazuen biblioteka-hemeroteka. Ordurako, besteak beste, hizkuntzalaritzako bilduma esanguratsua zuen Euskaltzaindikoko bibliotekak, Bonaparteren edizioak barne.

1954an Alfontso Irigoienek hartu zuen liburutegiaren ardura, 1963an Lino Akesolok, 1966an atzera Juan Gorostiagak, eta 1970ean berriro Irigoienek.

### Kanpainak eta egoitza

Liburutegia berritzeko helburuz dirua biltzeko kanpaina egin zuen Euskaltzaindiak 1971n, besteak beste *Euskaltzaindiari laguntza. Liburutegiaren arazoa* goiburuko iragarkiarekin bidez. Orduan bildutako diruarekin jarri ziren irakurle gelan mahaiak, apalategi berriak eta abar. Hura baino kanpaina handiagoa izan zen 1978koa, *Bai Euskarari* goiburukoa. Euskaltzaindiaren alor gehiagotara ere bideratu zen kanpainan lortutako dirua, baina liburutegia antolatzeko eta osotzeko gastuetara bideratu zen zati garrantzitsu bat.

Erriberako egoitza osorik bibliotekarako gelditu zelako ere garrantzitsua izan zen 1978. urtea, Bizkaiko Diputazioak Arbieta kalean utzitako egoitza berrira eraman baitzituzten Euskaltzaindiaren administrazio bulegoak. Urte berean kontratatu zuten, artean liburuzaina Alfontso Irigoien zela, Jose Antonio Arana Martija "liburutegia ordenatzeko eta gaurkotzeko". Eta Arana Martijak proposatuta jarri zioten, azaroan, bibliotekari Azkue izena.

Hamar urtez aritu ziren elkarlanean Irigoien, bibliotekari akademiko gisa, eta Arana



### Erribera kalea

Bilboko Erribera kaleko egoitza osorik bibliotekarako gelditu zen 1978an, eta han iraun zuen, 1992an Plaza Barriko egoitza nagusira eraman zuten arte.

### Azkue Biblioteka

Plaza Barriko egoitza



Martija, bibliotekako zuzendari gisa, 1989an Pello Salaburu izendatu zuten arte bibliotekari akademiko, Arana Martija bibliotekaren arduradun zelarrik. Handik bi urtera ekin zioten biblioteka Plaza Barriko gaur egungo egoitzara eramateari, eta 1992an egin zuten inaugurazio ofiziala. 1993an bibliotekaren erabilerarako barne erregela berriak onartu zituzten, egoitza berriari egokituak. Eta urte berean Arana Martija izendatu zuten Azkue Bibliotekako bibliotekari akademiko.

### Katalogazioak eta digitalizazioak

1995. urtean ekin zion Euskaltzaindiak Azkue Bibliotekaren Katalogazioari (ABK). Herri Agintekin hitzarmena sinatu, katalogazio-programa erosi, lau katalogatzaile kontratatu, eta bost urtean egin zuten katalogazio estandarizatua, euskara hutsean egin den lehenengo katalogo bibliografikoa. 2000. urtean bukatu zuten katalogazio orokorra. Geroztik, sartzen diren liburu eta argitalpen berriak katalogatzea da ABKren lana.

Behin katalogazio orokorra bukatuta, bi egitasmo osagarri abiatu zituen 2002an Azkue Bibliotekak. Batetik, Azkue Bibliotekaren Artxiboa katalogatzen hasi ziren: helburua Azkue Bibliotekan zaintzen diren artxibo historiko guztien katalogoak egitea da eta ikerleen kontsultagai jartzea, Internet bidez, Euskaltzaindiaren webgunean. Bestetik, Dagerre egitasmoa izena jarri zitzaion lehenetik hasiak zeuden digitalizazio lanei. Lacombe ondarea digitalizatuz ekin zioten egitasmoari, eta bibliotekako ondarearen digitalizazio lanei etenik ez dute izan geroztik.





### Ateak zabalik

Azkue Biblioteka Euskaltzaindiaren liburutegia da eta beronen zerbitzura dago; baina, horretaz gain, zabalik dago ikerle ororentzat eta bere ahalbideen neurrian euskal kultura gaien ikerkuntza eta hedapena sustatzen eta laguntzen saiatzen da. Jose Antonio Arana Martija da bibliotekari akademikoa eta hortaz Biblioteka batzordeko burua, 1993tik, eta Pruden Gartzia Bibliotekako zuzendaria, 1997tik. Euskaltzaindiko egoitza nagusian dago biblioteka, Bilboko Plaza Barrian.

#### Azkue Biblioteka

Azkue Bibliotekaren inaugurazio ekitaldia, 1992ko ekainaren 26an, Bilboko Egoitzan



Azkue Biblioteka humanitateetan espezializatuta dago. Euskara da bere ondarearen muina, euskarazko testuak eta euskarari buruzkoak. Baina horretaz gain euskal gaiei buruz, zentzu zabalean, erreferentzia ugari ditu, bai Historian, Antropologian, Musikan, Zuzenbidean, Folklorean edota Erligioan. 2009an, 75.000 liburu eta 2.000 aldizkari zeuden Bibliotekako funtsetan, artxiboetako funtsez eta ondare digitalizatuz gain.



Azkue Biblioteka  
Digitalizatutako lanak

### Azkue Biblioteka batzordea

**Burua:** Jose Antonio Arana Martija bibliotekaria. **Idazkaria:** Pruden Gartzia zuzendaria. **Kideak:** Kepa Altonaga, Gidor Bilbao, Sebastian Gartzia Trujillo, Joseba Lakarra, Gerardo Luzuriaga eta Joan Mari Torrealdai. **Aholkulariak:** Joseba Agirreazkuenaga eta Bernardo Atxaga.

“ Azkue Biblioteka batzordearen eginkizun nagusia da Azkue Bibliotekaren jarduerari sostengu akademikoa ematea. Honek esan nahi du, funtsean, haren lanak gainbegiratzea, ekimenak proposatzea edota onartzea eta haien segimendu akademikoa egitea; halaber, Azkue Bibliotekaren lan-hizkuntza euskara denez gero, alor tekniko horretan sostengu akademikoa ematea beharrezkoa den neurrian.

Azkue Bibliotekak eginkizun bikoitza du: batetik, Euskaltzaindiaren jarduera akademikoari sostengu bibliografikoa eta dokumentala ematea; bestetik, euskararekin eta euskal kulturarekin (zentzu zabalean hartuta biak) lotutako ondare bibliografiko, artxibistiko eta dokumentala biltzea. Alor bietan lortutako emaitzak onak direlakoan gaude.

Lan ildo nagusiak aurreko galderan marraztutakoak dira eta horretan ez da aldaketarik aurreikusten. Aldiz, erronka nagusia teknologia berriak erabiltzea da. Ez dezagun ahantz teknologia berrien inpaktua izugarria dela biblioteken munduan eta honekin lotutako sektore guztietan; gure ustez, egokitze-prozesua oso sakona eta, era berean, luzea izango da hemendik aurrera eta ez da batere garbi ikusten hamar edo hogeitaz berru zer izan daitekeen biblioteka bat. edo hogeitaz berru zer izan daitekeen biblioteka bat.



**Jose Antonio Arana Martija**  
Azkue Biblioteka batzordeko burua



# IKT BATZORDEA



## Garai berriak, batzorde berria

Informazio eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ardura duen batzordea 2007ko apirilean sortu zen, Etxalarren, XV. Barne Jardunaldietan. Oro har, Euskaltzaindiaren lanetan teknologia berriak behar bezala erabil daitezzen da batzorde honetan ardura nagusia. Besteak beste, Akademiak arauak emateko eta ikerketak egiteko behar dituen testu-corpusak antolatzekeo tresna teknologiko egokienak baliatzea eta emaitza horiek gizarteratzeko behar bezalako baliabide informatikoak garatzea da batzorde honen egitekoa. Andres Urrutia da batzordeburua, euskaltzainburu denez, eta Andoni Sagarna batzordeko arduradun.

Egiturazko batzordea da IKT. Hau da, zeharkakoa, arlo eta batzorde guztiak kontuan hartu behar dituzenez, eta iraunkorra, orain arte sortu denaz, une honetan sortzen ari denaz eta gero ere sortuko denaz arduratuko baita.

Andoni Sagarna XV. Barne Jardunaldietan batzordea sortu beharraz mintzatu zenean, testu-corpusak elikatu, egituratu, bateragarri bihurtu eta gizarteratzeko lanei lehentasunik handiena emateaz jardun zuen, eta batzorde berriak egiteko horri heldu behar ziola azaldu: "Edukiak gizarteratzeko planaren barruan, leku berezia izan beharko lukete, alde bate-tik, euskarazko testu-corpusak elikatze-ko, egituratzeko, estandarizatzeko eta erabiltzaileen eskueran jartzeko lanak koordinatzeak eta bestetik Euskararen Erreferentzia-Corpusa lantzeko oinarriak jartzeak". Lan ildo honen ondorioz, euskarri digitalean dira gaur egun Oro-tariko Euskal Hiztegiaren testu-corpusa, XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa, Euskal Onomastika Corpusa eta beste hainbat



**Sarean**  
Euskaltzaindiaren hainbat zerbitzu eta datu-base eskura daude Akademiaren webgunean.

datu-base, hala nola Euskaltzaindiaren Arauak, Hiztegi Batua, Jagonet datu-basea, Ikertegia eta Jagontegia...

Gainera, Euskaltzaindiaren informatika arloko Segurtasun Plana landua du IKT batzordeak, eta e-AEB zerbitzu elektronikoa abian jarri du. Zerbitzu horren bi-

dez, Euskaltzaindiaren webgunean kontsultagai dauden arauak eta gomendioak norbere ordenagailura jaitsi ahal dira, guztiz eguneratuta: Arauak, Izendegiak, Hiztegi Batua, eta abar.

### IKT batzordea

**Burua:** euskaltzainburua. **Idazkaria:** Euskaltzaindiaren informatikaria.  
**Arduraduna:** Andoni Sagarna. **Kideak:** Diruzaina eta kudeatzailea.  
**Aholkulariak:** batzordeburuak, egitasmo-zuzendariak, lantaldeen arduradunak, Xabier Artola eta Miriam Urkia.


“ IKT batzordeak egiteko hauek ditu: Euskaltzaindiak dagoeneko garatua duen segurtasun-plana behar den bezala beteko dela bermatzea; edukiak euskarri digitalean gizarteratzea; egitasmoetan erabili beharreko IKTak egoki erabiltzeko aholkuak ematea; gizartearekiko alde bietarako komunikazioa areagotzea.

Segurtasun-plana diseinatu du. Eduki batzuk webgunean jarri ditu. Euskararen Historia Soziala eta Lexikoaren Behatokia egitasmoen sistema informatikoak diseinatzeko eta abian jartzeko ekarpenak egin ditu.

Etorbizuneko asmoak gaur egun dituen berberak dira eta, gainera, zaintza teknologiko egokia egitea, berrikuntzari eusteko.



**Andoni Sagarna**  
 Informazio eta Komunikazio  
 Teknologien batzordeko arduraduna



**Corpusak**  
 XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa sarean dago kontsultatzeko moduan.



# IRAGANEKO BATZORDE SUNTSIKORRAK







**A**ldi batez lan egin ondoren desegin egin diren batzorde asko izan ditu Euskaltzaindiak bere historian. Batzordeak oso ugariak izan dira, eta adibide esanguratsuenak besterik ez dira honako hauek.

### **Aditz batzordea**

Euskara baturako aditz formak erabakitzeko batzordea izan zen. Koldo Mitxelena buru zela, 1972an lanean hasi eta 1979an bukatu zituen lanak. *Euskal aditz batua* (1979) liburuan jaso zituzten erabaki guztiak.

### **Ahoskera batzordea**

Ahoskera baturako bidean azterketa lanak egin zituen. 1993. urtean sortu zen, Pxtxi Altuna buru zela, eta 1998. urtean agertu zen azkenengoz Euskaltzaindiaren organigraman, Lourdes Oñederra buru zela.

### **Alfabetatze batzordea**

1966. urtean hasi zen lanean Euskaltzaindiko Alfabetatze batzordea, Rikardo Arregi eragile nagusi zela, alfabetatze kanpainak antolatzen, 1975. urtean, hain zuzen, alfabetatzeari euskalduntze ikastaroak gehituz, Alfabetatze-Euskalduntze batzordeen Koordinakundea sortu zela Akademiaren babespean, hots, horregatik, AEK akronimoaz ezagutzen duguna. AEK-k lehen urteak Euskaltzaindiaren babesean egin zituen, 1981 arte.

### **Bertsolaritza batzordea**

1960, 1962, 1965 eta 1967 urteetan Euskal Herriko Bertsolari Txapelketak Euskaltzaindiak antolatu zituen eta, hutsarte luzearen ondoren, 1978ko abenduan Bertsolaritza batzordea eratu zuen, txapelketak berpizteko. 1980 eta 1982 urteetako txapelketak antolatu zituen Akademiak, Bertsozale Elkarteak lekukoa hartu zion arte. Bertsolaritza batzordeak izenez eta helburuz aldatu zuen 1985ean, Herri Literatura azpibatzerde bihurtuta.

### **Irakaslego batzordea**

1972an sortu zen Irakaslego batzordea, irakasleentzako euskara gaitasun azterketak egiteko. Etsaminen batzordea izena ere hartu zuen, gerora. 1981ean Eusko Jaurlaritzak hartu zuen bere gain Euskararen Gaitasun Agirirako azterketak egitea eta 1985ean Nafarroako Gobernuak ere bai. Beste bi urte iraun zuen batzordeak, Administrazioako hainbat azterketatarako epaimahaikideak eskatzen zizkiotelako. Ipar Euskal Herrian 2008ra arte antolatu ditu azterketak Euskaltzaindiak. 2009tik, Euskal Kultur Erakundeak egingo ditu.



### **Elebitasuna batzordea**

1978an sortu zen batzordea, elebitasunari begira lege ikuspegitik eman ziren lehen pausoetan aholkularitza lana egiteko, besteak beste Eusko Kontseilu Nagusiak eskatuta. 1981ean desegin zen batzordea, Eusko Jaurlaritza osatu ostean.

### **Oinarrizko Euskara batzordea**

Euskara ikasteko *Hitz Egin* metodoaren liburukiak eta euskara ikasleentzako moduko irakurgaiak argitaratu zituen Oinarrizko Euskara Batzordeak, 1977tik 1987ra bitartean. Imanol Berriatua izan zen arduradun 1981 arte, eta Juan San Martin, ondoren.

# 90 URTE EKIN JARRAITUAN









## Xedeak arautegian

Edozein erakundek bezala, Euskaltzaindiak ere bere helburu behinenak Arautegian ematen ditu. Euskal Akademiak bere lehen Sortarauak 1920an eman zituen argitara. 1976an, erret akademia egitean, izaera eta xedeak birformulatu ziren bezalatsu daude gaur indarrean, aldaketatxoren bat tarteko.

Aldaketak eta birmoldaketak barne erregeletan egin ohi dira maizago, egoera berrietara egokitzeko ahaleaginean.

### Euskaltzaindiaren Sortarauak

1920

Elburu ta izapidea

1. Izkeraketz eta gizarteketz, euskera ayolaz landu ta yagoten zain egotea, Bazkun aunen elburua da: andik ere bere izena.

2. Zainbide bioi dagokienez, Sail bitan ere bereizturik euskaltzaiñak beren arloan diardukete; euskal-ikerleen saillean, ta yagoleenean, lagun bakoitza bietan dagokelarik.


3. Ikerkideak berena dute; yakinbide orotaz euskera izkeraketz aztertzen ekitea, uskal-itzen aots, ikur, ogutz, tankera ta elkar-yokerarie dagokiena azterrenez garbaitzeko; edota, gure eliztiaren arau oro ikerri; ta euskal-itz oro, iñongo mintzotik ta idazkitik atera, soildu ta iztegi egokian ikur-aidegotz moltzokatuta biltzea.

4. Artarakoxe Sail onek, aots-ikertallu ta itz-biltzerako lantegiak atonduko ditu; bere lanbidearentzat dogozkiokela leritzazken lankide, irakasle ta ikasle guziak bertara atotsi ditzakelarik.

5. Yagokideak berena dute: Euskera edolako bizipide ta gizartekoetan azkar ta garbi eutsi ta zabaltzea, ta euskal-idazkuntza agerbide orotan pizkortzea.

6. Artarakoxe Sail aunek:

a) ekingo du euskalgi oroen odolez azitako euskal-eredu bat gertutzen, itzez, itz-yoskeraz ta idazkeraz albait erabate-tsuen, euskaldun guziak idatz-irakurketan erabiltzekoa.



b) Iztegia atontzen ikerkideei lagun datorkieke.

d) ikasgoan idatziz oi diran gutun, lauko, bilkin-izen, txartel ta edotariko ikaspideak euskeraltzeko urgazia guziei damayeke; berebat, eleiz ta erri-agintariei ayen argitarakizunetan; baita edonori ere, izparringietan, bidetan ala gutunetan ageri oi diran saleroste-iragarki, naiz yai-deyak, edota idatziz nabari nai luken edozertarako ere bai.

e) Euskal-idazleei sari-deyak noizik bein dagizkie.

g) Idazteunak, eta giza-gutunetakorik omen diran ospatsuenak, euskerara itzulerazten ekingo du.

h) Gure idazkun beñolakoak, argitara len etorriak eta beñere ez argitalduak, ayolaz bilduko ditu, ta ayetako egokienak argitalduko ere bai.

i) Euskera ta euskal-elertiaren ezaguntzarako irakasguak zabalduko ditu.

**Euskaltzaindiaren arautegia**

2009

Xedeak eta izaera

*Lehen artikulua.* Euskaltzaindia Institutio bat da, 1918. urtean, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko lau Diputazioen babespean sortua. Honako xede hauek ditu helburutzat:

- a) Euskeraren gramatika legeak ikertu eta mamitzea.
- b) Hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea.
- c) Hiztegia biltzea.
- d) Bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere, literatur hizkera batura heltzeko lan egitea.
- e) Euskeraren enplegua aitzinatzea.
- f) Hizkuntzaren eskubideak zaintzea.
- g) Hizkuntza, gizarte maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea.
- h) Literatur eta ikas lehiaketak eragitea.
- i) Filologia eta linguistikako estudioak sustatzea, euskara eta euskal literaturaren katedrak bultzatuz.
- j) Euskarari dagozkionetan erakunde aholku-emaile ofiziala denez, agiriak eman eta irizpide eta diktamenak luzatzea.

**Jardunmoldea historian**

Euskaltzaindiak, bere izaera propioaren arabera eta bere-bere dituen helburuak lortzeko bidean, nola jokatu duen argitze aldera hiruzpalau lerro nagusi azaltzen dira hemen. Zertan esanik ez da, beste hainbeste ezaugarri ere badaudela Euskaltzaindiaren ibilbidea egoki marraztu dutenak.

**Euskararen Erakundea**

Euskaltzaindia erakundea da, eta ez elkarte edo gisako zerbait. Herri aginteez, Aldundiek, sortu zuten euskara ikertu eta babesteko. Euskararen unibertsoan talde eta elkarte asko egon daitezke, asko egon dira eta daude orain, baina ezaugarri propioak ditu Euskaltzaindiak sortze egunetik. Estatus berezi hori aldarrikatu beharrean ikusi du bere burua behin baino gehiagotan kondairan zehar. Institutioen aurrean, ez ziotelako aitortzen, ez legez eta ez egitez, behar zuen maila; eta lehiakideen artean, ez ziotelako autoritatea onartzen, hizkuntzaren munduko talde bat gehiagotzat joz.

Gobernu autonomikoez hizkuntza politika egiten dutenean edo unibertsitateak Linguistika edo Filologia fakultateak dauzkanean, orduan Euskaltzaindiaren zeregina ez da desagertzen, aldatu baizik, sakondu.

1979ko une batean honela esplizitatu zuen lehiakortasunaren ulerkera orduko euskaltzainburuak: monopoliorik ez baina zeregin propio-propioa bai.

No se trata evidentemente de que la Academia reclame para sí el monopolio del campo de los estudios vascos. El campo de los estudios y de la investigación científica es y será siempre libre y estará a disposición de todo el que lo quiera cultivar. Tampoco se trata de un monopolio en el campo del fomento, apoyo y cultivo al euskera.



Pero hay una cosa innegable y que no se puede silenciar ni desconocer: la Academia fue creada por las cuatro Diputaciones del país, únicos legítimos representantes del mismo, como una Institución de orden público y oficial; ellas le confirieron un mandato, una misión, y por ende, una autoridad y un derecho en un campo que sólo a ella corresponde. Este campo es el que se refiere a la normativa de la lengua y a la formación de la lengua literaria común. Esta autoridad en este campo le viene a la Academia de las Diputaciones, y ha sido confirmada y reconocida últimamente por la máxima autoridad del Estado.

Es, pues, claro que hay un campo específico que corresponde a Euskaltzaindia: el de dar la normativa de la lengua. Que sus decisiones en este terreno gozan de una autenticidad, carácter o rango público y oficial [...]. No se trata de un privilegio tonto que nos arroguemos, sino de un deber y de un derecho que el país nos confirió. Euskaltzaindia no es una sociedad o asociación o grupo más o menos privado. Es una institución pública, a la que la autoridad ha conferido un cometido concreto, dotándole para ello del correspondiente derecho.

2005ean estreinatu berri zen Zuzendaritzak honela birformulatu du leku propio hori:

konkurrentziak gorabehera, Euskaltzaindiak badu bere leku propioa euskararen munduan, hain justu ere, goi mailako ikerketa-bideak eta horien aplikazioak uzartu eta gizarteratzea, euskararen normatibizazio eta normalizazioa bultzatu nahian.

### Beregaintasun instituzionala

Beregaintasunaren kontzientzia lehen ordukoa da. Gauza jakina da nola sortu zen Euskaltzaindia: Oñatin Eusko Ikaskuntzak 1918an bere Lehen Kongresua egin zueanean. Nola ulertu behar da sorrera hori? Eusko Ikaskuntzak sortu al zuen Euskaltzaindia?

Sorreraren kronika *Euskera* aldizkarian idazten duen euskaltzainak (ustez, Azkuek) Euskaltzaindiaren sortzaile Bizkaiko Diputazioa jotzen du, eta harekin batera gainerako Aldundiak.

Euskaltzaindiaren barne arauetan Euskaltzaindia Eusko Ikaskuntzaren alabatzen hartzen da:

La Academia es una filial de la Sociedad de Estudios Vascos, aunque con plena autonomía en la actuación literaria que sus Estatutos propios la señalan.

Eta Euskaltzaindiak egin zuen aurreneko bileran gogo bera biltzen da, harremanak adiskidantza osokoak izan behar dutela esateko, eta hor berriz errepikatzen da ikuspegi bera: “Euskaltzaindia Eusko Ikaskuntzaren alaba (naiz askatua)” dela. Kezka hori, independentziarena, hasieratik dago nonbait, zeren eta alabatasuna aipatzen denero askatasuna eransten da.

Institut d’Estudis Catalans-en eredura ere izan zitekeen, alegia, Eusko Ikaskuntzako Sail bat izan zitekeen Euskaltzaindia. Baina ez zen eredu hori hartu. Katalunian IECK hainbat Sekzio ditu eta horietako bat da Hizkuntzari dagokiona: “Secció Filològica”. Lau sail gehiago ditu: Secció Histórico-Arqueològica, Secció Ciències Biològiques, Secció Ciències i Tecnologia, Secció Filosofia i Ciències Socials.

Erlazio mota hori birformulatuz joan da denborarekin. Luis Villasantek erlazio hori beste formula batez adierazi zuen, agian egia historikoari hurbilen datxekiona: sortzaile, Diputazioak; eta Eusko Ikaskuntza, amagina.



**Eusko Ikaskuntza**

1918an onartutako lehen ikurra



**Euskaltzaindiaren adierazpenak**  
2006an bildu ziren liburu honetan 1976tik aurrera Euskaltzaindiak plazaratu zituen adierazpen mamitsuenak. Euskara babestea eta sustatzea helburu, aginte politikoarekiko independentziaren isla ere bada liburua.

### Ikurrak ikur

Euskaltzaindiaren hasierako ikurra Antonio Gezalak egina omen da. Gurutzea, haritz ostoa sinbolo gisa eta zinta gisa "Ekin eta Yarra" lelo gisa agertzen dira. Gurutzea eta haritz ostoa (Gernikako arbola) heraldikan sartzea Amantzi Urriolabeitia euskaltzain lekeitiarraren proposamena izan zen nonbait. Geroztik hastapeneko ikur hura aldatuz joan da, baina beti ere jatorrizko itxura eta osagaiak leialki mantenduz.



Euskera aldizkaria, 1920

## Independentzia ideologiko-politiko

Independentzia, dela egiturazkoa, dela politikoa, estimu handitan eduki du Euskaltzaindiak.

Euskaltzaindiari aitortu ohi zaio ideologia desberdinekiko, ideologia horien instituzioekiko eta alderdi politikoekiko morrontzan erori gabe mantendu izana. Harremanak ugari izan ditu, presioak jasan ditu, onartu ditu batzuk, baina ez da desbideratu. Kolaboratzaile salakuntza merkerik ere jasan du.

Positibista eta posibilista izan dela Euskaltzaindia? Bai. Malgua. Urte luzetan Azkuek asko markatu duela ez dago dudarik. Badira Azkueren pare bat esaldi, haren eta harekin batera Euskaltzaindiaren jarrera oinarritzkoa markatzen dutenak.

Honela idatzi zion Dogsoni:

Quando se trata de servir a nuestra lengua, yo no miro si el que me pide algún servicio relativo á ella es judío ó vecino de Sodoma. Cuando presto un servicio de esta naturaleza, lo hago a la lengua y no al sodomita, ni al judío, ni al turco, ni al católico!

Jarrera bera agertzen du Unamunori zuzenduriko testu honetan:

Pactaría con tirios y troyanos para apoyar nuestra lengua.

Bada anekdotatik harago doan gertakaritxo bat, 1932koa. Ondarroan sortu zen istilua, Josu ala Jesus jarri behar ote zen eliz ikurrinen batean. Hori dela eta Etxebeguren bikario jeneralak kontsulta luzatzen dio Euskaltzaindiari. Hona erantzuna, inork espero ez zezakeena: "Arazo ontan *politica* dabillega iñork ezin ukatu lezake: orregatik Euskaltzaindiak erretiratu bear du".

Kondairan zehar Euskaltzaindiaren independentzia politikoa adierazten duten esamoldeak ez dira falta.

Villasantek esandakoa, Euskaltzaindiko buru zela, 1979an, hots, une historiko berezian aginte autonomikoa bideratzen ari zelako, hori da asko horietarik bat. Carlos Garaikoetxea Eusko Kontseilu Nagusiaren aurrean esan zituen hitzek balio handia dute. Kultura eta politikaren harremanez ari da, kulturarentzat autonomia eskatzen du. Eta ondoren Euskaltzaindiaren tradizioa berretsiz erakundearen posizioak argitzen ditu.

Okerreko bidea hartuko genuke euskal kulturaren gidaritzaren alderdien eskuetan utziko bagenu edo haien irizpideak kulturaren dogmatzat ezarriko bagenu. Edo zinezko euskal kulturarik ez da sekula egonen —behintzat izen hori merezi duen kulturarik— edo kultura horrek autonomia bat beharko du bere zeregina libreki aurrera eraman dezan. Dauden instituzioei lan egiten utzi, lagundu, baina ez inolaz ere aurre iritziak inposatu. Hori uste dut dela bidea.

[...]

Alderdiei buruz zein den Euskaltzaindiaren jarrera garbi dago. Berez, Euskaltzaindi denez, ez dago ezin alderdiri lotua; beste maila bateko sorkaria da, kultur mailakoa, eta kultura eta alderdi politikoak ez daude lerro berean. Horrek ez du esan nahi euskaltzainak partikulari politika edo alderdi batekoak edo beste tekoak izan ez daitezkeela, baina Euskaltzaindia bera politikatik ate gelditzen da. Uste dut hau izan dela Euskaltzaindiaren jarrera gerra aurreko garaian ere, eta orain jarrera berbera du.

Ez du bere burua bat egiten alderdi honekin edo horrekin, baina horrek ez du

esan nahi kontra dagoenik ere. Bera bere mailan irauten saiatzen da. Euskaltzainak, aldiz, pertsonalki alderdi batekoak edo bestekoak izan ziren lehen ere eta orai ere izan daitezke.

Euskaltzaindiak bereizkeriarik gabe hartzen ditu bere lankideak. Euskara maite duena, lantzen edo aztertzen duena, eta alor honetan merezimenduak dituen, beste gabe, gai da Euskaltzaindiko izateko, gainerakoan, politika arazoetan joera batekoa edo bestekoa bada ere. Euskarak biltzen gaitu eta bat egiten gaitu. Eta hala jokatzean uste dut zerbitzurik ederrena egiten diogula geure herriari, zeren euskara guztiona baita, herri baten altxorra, alegia.

1978an Bergarako Biltzarrean, azken hitzaldian, handik gutxira Euskerazaintza sortuko zuten haiek politikakeriaz egindako salakuntza zuzengabeei Villasante euskaltzainburuak hauxe erantzun zien sinpleki, "Euskaltzaindiak ez duela beste politikarik, euskararena baizik".

Urteak geroago euskararen gaia dela eta bere posizionamendu politikoa argitzeko parada izan zuen Euskaltzaindiak. Euskaltzain multzo batek, 1990ean, autodeterminazioaren aldeko adierazpena egin zezala eskatu zion erakundeari. Eta Euskaltzaindiak, 1990eko apirilaren 20an Zarautzen egin zuen bilkuran, lau puntutan eman zuen erantzuna:

1. Euskaldun guztien ondarea da euskara, zeinahi diren haien usteak eta sines-teak, haien jaioterria, bizilekua eta gainerako ingurumenak.
2. Euskaltzaindiak 1918. urtean sortzetik beretik ikerlanak burutzeaz gainera beste xede hau du: euskararen sustatzea eta jagotea. Horrexegatik mintzatu izan da Erakunde hau argi eta garbi zenbait alditan euskara gure ustez oker tratatu izan denean; hala nola, Espainiako Konstituzioan (1978), 3.1 artikuluan, eta Nafarroako Foru Hobekuntza Legean (1983), 9. artikuluan.
3. Euskaltzaindiak uste du, Erakunde Akademikoa den aldetik ez dagokiola bere iritzirik ematea Euskal Legebiltzarrak berriki Autodeterminazioaz hartu duen erabakiaz.
4. Euskaltzaindiak adierazten du eta aldarrikatzen beti eta nonahi defendatzen dituela eta defendatuko euskara ahalik gehiena hedatzeko eta garatzeko, bai eta Euskalerriko eremu osoan zuzen onez zor zaion "status" eta egoera hobere-na erdiesteko, baliabiderik egokienak.



Euskera aldizkaria, 1921



Euskera aldizkaria, 1922



Euskera aldizkaria, 1956



Euskera aldizkaria, 2008

### Ekin eta Yarai

Antonio Valverde Ayalde-k egindako frogia



## Babes ekonomikoa

Herri erakundeek sustatuta dihardu Euskaltzaindiak lehen egunetik.

Lauki eta grafikoek erakutsi nahi dute babes edo laguntza ekonomikoa zenbatekoa izan den eta zeinek emana.

Batzar agiriak lekuko, Euskaltzaindia diruz sobratuta sekula ez da ibili. 1920ko hamarkadan bileren maiztasuna gutxitu beharra aipatzen da, diru eskasia dela eta. Esanguratsuak dira lehen hamarkadako diru sarrerak. Urte asko pasatu eta geroko egoera ere esanguratsua da: 1960an 33.000 pezeta edo 200 euro jasotzen ditu Euskaltzaindiak guztira. Esanguratsua da, orobat, diruzainaren iruzkina: “kalkulatu ditteke urtero bear ditugula etorbide seguruak baiño ogetamazazpi milla peseta geiago”.

1995eko martxoan Henrike Knörrek batzarrean “kezka bizia azaltzen du Herri Agintariak Euskaltzaindiarengana azken urteetan erakusten duten jokabideagatik”. Jose Luis Lizundiak batzar berean dio aspaldiko egoerarik larrienean aurkitzen dela. Juan Jose Zearretak dio “Akademiarik zor zaion begirunerik eza nabarmena dela Herri Aginteengan”. Ekonomiaz ari dira hirurak.



2003ko otsailean H. Knörrek “Larrialdi-gelatik behingoz atera” izeneko txostena irakurri zuen batzarrean. Biltzar berean Haritzelhar euskaltzainburuak gogoratu zuen aurreko urteko irailean lehendakariari zera esan ziola, Euskaltzaindia *de iure* onartua dela bai, baina ez *de facto*. Legez bai baina ekonomikoki ez, alegia.

Egungo Zuzendaritzak bestelako protokoloa proposatzen zuen karguaz jabetzean.

Grafikoetan bi informazio mota agertzen dira. Bateko, aurrekontuaren kopuruaren ondoan zenbatekoa den herri agintari guztiek ematen dutena. Eta besteko, babesle bakoitzak zenbateko laguntza eman duen urtero.

Erakunde laguntzailea	1922	1924	1925
Eusko Ikaskuntza	3.000	5.000	5.000
Bizkaiko Aldundia	15.000	5.000	5.000
Gipuzkoako Aldundia	5.000	10.000	10.000
Nafarroako Aldundia	5.000	5.000	2.000
Bilboko Udala	2.500	2.500	2.500
Donostiako Udala	1.000	1.000	1.000
Bilboko Aurrezki Kutxa		500	500
Gipuzkoako Aurrezki Kutxa			1.000
Gasteizko Aurrezki Kutxa			150
Ameriketako Laurac Bat			2.000
<i>Euskera</i> -ren arpide ta idaztiak			300
Lehendik		7.014	11.342,05
Diru irabazpenak			350
Guztira	31.500	36.014	41.142,05

\*Kopuruak pezetatan emanak daude.







**Langileak**

Egoitzetako langileez gainera egitasmoetakoak ere bildu dira Bilboko egoitza nagusian 2009ko udaberrian, 90. urteurrenaren kariatara.





## 90. urteurrena argazkitan

2009ko urriaren bederatziko ekitaldi nagusiaren aurretik, urteurrenaren kariaz lau ekitaldi egin ditu Euskaltzaindiak.

- 2008ko urriaren Iruñeko Baluartean, Nazioarteko XVI. Biltzarra, Pirinioetako hizkuntzei buruz.
- 2009ko apirilean Arabako Foru Aldundian.
- 2009ko ekainean Hazparneko Elgar Kultura Etxean.
- 2009ko uztailean, Euskaltzaindiaren egoitzan Espainiako Estatuko Erret Akademiaren bilera: Real Academia Española (RAE), Real Academia Galega (RAG), Institut d'Estudis Catalans (IEC), Euskaltzaindia.

Lau Akademiek azalpen hau plazaratu zuten:

2009ko uztailaren 16 eta 17an, Euskaltzaindiaren 90. urteurrenaren ospakizunean, gure hizkuntzetan aragintza ahalmena aitortu ohi izan zaien erakundeak bildu dira: Real Academia Española (RAE), Real Academia Galega (RAG) eta Institut d'Estudis Catalans (IEC) eta Euskaltzaindia.

Gure erakundeek, hizkuntzalaritzaren esparru zientifikoan dihardute, bestelako asmorik gabe. Haien xedea gure hizkuntzak bizkortzea da, aniztasuna onartzetik abiatuz, eta begirune eta babes berezia zor zaizkion kultura-ondare direla uste izanik.

Historian zehar, erakunde horien arteko harremanak adiskidetsuak eta arinak izan dira —eta dira—, baina desiragarria litzateke beren arteko elkarlana hizkuntza ikerketa eta kodetze-lanera hedatzea. Akademia bakoitzaren ikerketa zientifikoak, metodoak eta baliabideak aztertzeak esperientzia trukaketa mesedegarria ekarriko du, zalantzarik gabe. Hortik abiatuta, hizkuntza guztiei eragiten dieten xedeei elkarrekin ekiten aukera zabaltzen da.

Horregatik guztiagatik, ospakizun honen barnean, lau Akademien arteko harremanak sendotzeko hartu dugun erabakia jendaurrean aldarrikatzen dugu, elkarlaguntzako esparru-hitzarmen baten bidez, ondoren bestelako konpromiso bereziekin osatu ahal izango dena.

Horrela, elkarren arteko harremanak sendotzen lagunduko lukeen egitasmo bat izan daiteke hiztegi elebidunak egitea, hizkuntza batetik bestera zubi zuzena eraikitzea ahalbidetuko luke tenak.

Hizkuntza arteko material lexikografikoak eta gramatikazkoak onura handiko tresnak dira, eta Akademiek —duten izaeragatik eta itzalagatik— bere erantzukizun bezala hartu behar dituzte, horrela, gure hizkuntzak lotzen dituzten elkarguneak zehaztuz eta bilatuz, eta denona den kultura altxorrean parte hartuz.

Bilbon, 2009ko uztailaren 17an

### Lau Akademietako buruak

Ezkerretik eskuinera: Joan Martí (Institut d'Estudis Catalans), Víctor García de la Concha (Real Academia Española), Andres Urrutia (Euskaltzaindia), Xosé Ramón Barreiro (Real Academia Galega)

Iruñeko Baluartean



Hazparneko Kultura Etxean



Arabako Foru Aldundian



Euskaltzaindiaren egoitzan lau Akademiako ordezkariak euskaltzainekin



# EREMU URRIKO HIZKUNTZEN AKADEMIAK








**H**izkuntzak eta hizkuntzak dauden bezala, akademiak eta akademiak daude. Mendeetan zehar estatuaren babesia izan duten hizkuntzetako akademia askok mendeetako historia dute, eta mendeetan batere babesik gabe iraun duten eremu urriko hizkuntzetako erakundeak askoz berriagoak dira, eta xumeagoak, txikiagoak. Italiararen Akademia 1583an sortu zen, Frantsesaren Akademia 1635ean, Espainiararen Akademia 1713an eta Suediararen Akademia 1786an. Ingelesak, jakina denez, ez du erakunde arauemailerik.

Mende batzuk geroago etorri dira Euskaltzaindia bezalako erakundeak, eremu urriko hizkuntzen akademiak: Galiziararen Akademia, bere zaharrean, 1905ean jaio zen, Kataluniakoa 1911n, Frisiakoa 1938an... Baina gehienak XX. mendearen bukaerakoak dira: Irlanda (1968), Gales (1988), Britainia (1999)... Alde batetik, historia luzeko akademia handien parekoak dira, hizkuntza handiek bezala norbere hizkuntzaren normatibizazio beharrei erantzuten dietelako; baina, beste aldetik, oso bestelako erakundeak dira, hizkuntza nagusiek ez dauzkaten arazoei eta beharrei aurre egin behar dietelako.

Eremu urriko hizkuntzen akademien edo erakunde arauemaileen artean ere ezberdintasun handiak daude, ereduari dagokionez. Batzuek, Euskaltzaindiak bezala, akademia klasikoan tankeran normatibizazioa dute ardatz, hizkuntzaren normalizazioa eta sustapena ere eginkizunen artean dituzten arren. Eta beste batzuek, aldiz, hizkuntzaren sustapena dute helburu nagusi, normatibizazioaren arloan ere lan eginagatik.

Ondokoa ez da eremu urriko hizkuntza guztietako akademia guztien zerrenda, Euskaltzaindiarekin parekatzeko moduko eredu aukeratu batzuen zerrenda baizik: Europako hamar hizkuntzako akademiak, eta kasu berezi bat, Frantsesaren Quebeceko Bulegoa. Zaharrenetik, berrienera.







## GALIZIERAREN AKADEMIA

**Izena:** Real Academia Galega.

**Sorrera urtea:** 1905.

**Izaera:** Erret Akademia denez, Estatuaren aitortza ofiziala du. Erakunde arauemalle ofiziala da, 1983tik, Galiziako Hizkuntz Normalizaziorako Legearen arabera.

**Kideak:** kide osoak, urgazleak eta ohorezkoak.

**Egoitza:** Coruña.

1905ean sortua, eremu urriko hizkuntzetan akademiarik zaharrena da Galizieraren Erret Akademia. Euskaltzaindiaren antzeko xedeak ditu: hizkuntzaren normatibizazioa du helburu nagusi, baina hizkuntza sustatzea eta hizkuntza eskubideak zaintzea ere bere eginkizunen artean du.

Akademiaren eginkizunak, Barne Estatutuen arabera, hauexek dira: galizieraren erabilera zuzenerako arauak zehaztea —gramatika, ortografia eta fonetika arauak—; lexikoaren inbentarioa eta lexikoaren modernizatzea eta eguneratzea; onomastika galiziarra ikertzea eta ezartzea; hizkuntza eskubideak babestea; hizkuntza babestu eta sustatzea; hizkuntzari dagokion gaietan erakunde publikoei aholku ematea; Akademiaren literatur eta agiri ondarea ikertu eta ezagutaraztea; eta Letra Galegoen Eguna urte bakoitzean zein pertsonalitateri eskaintzen zaion erabakitzea —1963tik antolatzen du Akademiak Letra Galegoen Eguna—.

Akademiko osoak, urgazleak eta ohorezkoak ditu Galizieraren Akademiak. 30 kide numerario izan daitezke, gehienez. Osoko bilkuran aukeratzen dituzte, eta izendapena bizi artekoa da. Kide oso izateko, derrigorrezkoa da galiziera mintzatzen den lurraldean bizitzea. Urgazleak Akademiaren lan zientifikoetan parte hartzeko izendatzen dituzte eta ez daukate, akademiko osoek bezala, galiziera mintzatzen den lurraldean bizi beharrik. Ohorezko kide, beste hainbat akademiatan bezala, hizkuntzaren aldeko lanean nabarmendu diren pertsonalitateak izendatzen dituzte.

Hiru sail ditu Akademiak: Hizkuntza, Literatura eta Historia. Akademiko osoen batzarra da erabakigune nagusia, eta bost laguneko Batzorde Eragileak egiten ditu zuzendaritza lanak: presidentea, idazkaria, diruzaina, liburuzaina eta idazkariordea. Lau urterako aukeratzen dituzte eta, gehienez, lau urteko bi aldi baino ezin dituzte egin kargu berean. Presidentea, 2009an, Xosé Ramón Barreiro Fernández da.

## IKASKETA KATALANEN INSTITUTUKO SAIL FILOLOGIKOA

**Izena:** Institut d'Estudis Catalans. Secció Filològica.

**Sorrera urtea:** 1911.

**Izaera:** 1976ko azaroaren 26ko Erret Dekretuak aitortza ofiziala eman zion, eta Kataluniako Generalitateak 2001eko maiatzaren 17ko ebazpenaren bidez berretsi zituen estatutuak.

**Kideak:** 37 akademiko oso eta 23 urgazle.

**Egoitza:** Bartzelona (egoitza nagusia), Perpinyà, Castelló, Alacant eta Lleida.



Institut  
d'Estudis  
Catalans



Ikasketa Katalanen Institutua 1907an sortu zen, Bartzelonako Diputazioaren erabakiz, eta Institutuaren barruko Sail Filologikoa (Secció Filològica), hizkuntza akademiaren funtzioak betetzen dituena, 1911n. Hizkuntza akademia baino erakunde zabalagoa da Institutua. Erakunde akademiko, zientifiko eta kulturala da, eta Kataluniako “kulturaren osagai guztiak” ikertzea du eginkizun nagusi. Estatutuen arabera, Institutuaren arduren artean dago katalanari buruzko arauak ematea, hizkuntza normalizazioa lurralde osoan koherentzian egin dadin zaintzea eta hizkuntza katalanari buruzko ikerketak egitea.

Hizkuntza eta kultura katalana duten lurralde guztiei begira egiten du lan. Institutuaren Sail Filologikoak eskumen arauemaile aitortua du Katalunian, Balear Irtetan, Andorran eta Ipar Katalunian. Valentzian akademia arauemaile propioa dute, Valentzieraren Akademia.

2009an, 37 akademiko oso ditu Sail Filologikoak, kide numerarioen eta emerituen artean, eta 23 kide urgazle. Presidenteak, presidenteordeak, diruzainak eta idazkariak osatzen dute Sail Filologikoko zuzendaritza. Joan Marti i Castell da presidentea.

Sail Filologikoaz gain, beste lau sail ditu Ikasketa Katalanen Institutuak: Historia-Arkeologia; Zientzia biologikoak; Zientzia eta Teknologia; Filosofia eta Zientzia Sozialak. Eta sail bakoitzak bere kide numerarioak eta urgazleak ditu: gehienez 28 numerario (gehi emerituak) eta 30 urgazle. 2009an, Ikasketa Katalanen Institutuak 128 kide numerario eta 54 emeritu ditu. Sail bakoitzak bere zuzendaritza taldea du, baina Institutuak ere badu berea, presidenteak —Salvador Giner, 2005etik—, bi presidenteordek eta idazkari nagusiak osatua.

Gainera, Institutuko kideak dira elkarte filialetako buruak ere. Institutuak sortutako erakunde akademiko edo zientifikoak dira elkarte filialak, jakintza arlo bakoitzeko bat. 28 elkarte dira guztira. Modu autonomoan egiten dute lan, baina lotura organikoa dute Institutuarekin. Sail Filologikoak lau elkarte filial ditu: Ikasketa Klasikoen Elkarte Katalana, Soziolinguistika Elkarte Katalana, Hizkuntza eta Literaturaren Elkarte Katalana eta Terminologia Elkarte Katalana. Lau elkarte horietako buruak Sail Filologikoko kideak dira.

## FRISIERAREN AKADEMIA

**Izena:** Fryske Akademy.

**Sorrera urtea:** 1938.

**Izaera:** erakunde publikoa da, Herbehereetako Gobernuak eta Frisiako Administrazioak lagundua.

**Kideak:** 2.226 bazkide eta 355 kide.

**Egoitza:** Leeuwarden.



Frisiako hizkuntzaren, herriaren, historiaren eta kulturaren ikerkuntza du xede Frisieraren Akademiak, baina ardura berezia du mendebaldeko frisieraren normatibizazioan, bera baita erakunde arauemailea. Erakundeko sailen artean, Linguistika Saila eta Gizarte Zientzien Saila arduratzen dira hizkuntzaren normatibizazioaz.

Bere argitalpen nagusien artean dago, besteak beste, frisieraren hiztegi nagusia, 25 liburukitan plazaratua (*Wurdboek fan de Fryske taal*). Bi aldizkari argitaratzen ditu

Frisieraren Akademiak: *Ut de Smidte*, agerkari informatiboa, eta *It Beaken*, agerkari akademikoa.

Kuota ordaintzen duten bazkideak dira erakundearen oinarria. 2009. urtean, 2.226 bazkide ditu. Bazkideen artean, 355 kideak dira, Akademiaren babesean lan egiten duten erakundeetan parte hartzen duten ikerlari eta zientzialariak, alegia. Horietako 65ek Frisieraren Akademian egiten dute lan, zuzenean. Akademiaren zuzendaritzak aukeratzen ditu kideak, Frisiako hizkuntzaren, herriaren edo kulturaren ikerkuntzan nabarmendutako pertsonen artean.

Zuzendaritza egitura nagusia Gainbegiratze Kontseilua da, bost kidek osatua, eta bertako presidentea Marten F. Koopmans da. Kontseilu horren menpe dago zuzendaria, Reinier Salverda. Organigramaren hurrengo mailan sailtako buruak daude.

## FRANTSESAREN QUEBEC-EKO BULEGOA



**Izena:** Office québécois de la langue française.

**Sorrera urtea:** 1961.

**Izaera:** erakunde ofiziala da, Quebeceko Gobernuak sortua.

**Kideak:** zortzi kide, Quebeceko Gobernuak izendatuak.

**Egoitza:** Office québécois de la langue française.

Quebeceko Gobernuaren menpeko erakunde da Frantsesaren Bulegoa. 1977an onartutako eta 2002an moldatutako Frantsesaren Kartak zehazten du, legez, Bulegoak zer helburu dituen. Oro har, hizkuntza politika eta hizkuntzaren normalizazioa ditu eginkizun nagusi, hizkuntzaren normatibazioa baino gehiago, nahiz eta Quebeceko frantsesaren terminologia zehaztea eta batzea ere baduen eginkizunen artean.

Hizkuntzaren Kartaren arabera, hauek dira Bulegoaren betebeharrak: hizkuntzaren ofizialtasunaren, terminologiaren eta Administrazioaren nahiz enpresen frantsesaren arloetako hizkuntza politika gidatu; lan arloan, hedabideetan, merkataritzan eta Administrazioari aferetan ohiko hizkuntza frantsesa izan dadin zaindu; legeak aurreikusitako frantsese egitasmoak zehazten eta lantzen lagundu, eta horien gauzatzaren jarraipena egin; Quebeceko hizkuntza bilakaera aztertu eta bost urtean behin txostena egin dagokion ministroarentzat; Frantsesaren Karta errespetatzen dela ziurtatu, bai ofizioz jardunda, bai salaketak aintzat hartuz; legea ezartzeko beharrezkoak diren ikerketa lanak bideratu; frantsesa sustatzeko egoki irizten dituen neurriak hartu; frantsesaren zuzentasunaz aholkuak eman Administrazioari, enpresei, banakoei eta taldeei; hizkuntzaren kalitateari buruzko eta Frantsesaren Karta betetzeko zailtasunei buruzko iritziak eta iradokizunak jaso, eta horien berri eman dagokion ministroari.

*Hiztegi Terminologiko Handia* da, normatibazioaren arloan, Frantses Hizkuntzaren Quebeceko Bulegoaren argitalpen nagusia. Arloz arloko terminologiari buruzko beste hainbat argitalpen ere plazaratu ditu, hala nola Elikadura Terminologia, Aseguruen Terminologia, Eraikuntzaren Terminologia, Edizioaren Terminologia, Kudeaketaren Terminologia, Informatikaren Terminologia eta Osasunaren eta Gai Sozialaren Terminologia.



Zortzi kidek osatzen dute Frantses Hizkuntzaren Quebeceko Bulegoa, denak Quebeceko Gobernuak izendatuak. Bost urtean behin egiten ditu izendapenak Gobernuak. France Boucher da gaur egun presidentea.

Bi batzorde ditu Bulegoak bere baitan: Hizkuntzaren ofizialtasunerako Batzordea eta Hizkuntzaren egoeraren jarraipenerako Batzordea. Batzorde bakoitzak bost kide ditu, Bulegoak izendatutakoak. Gainera, Bulegoaz aparte beste bi erakunde ofizial ere badira hizkuntzaren arloan, Frantsesaren Kartaren arabera eratutakoak hauek ere: Toponimiaren Batzordea eta Frantses Hizkuntzaren Kontseilu Nagusia.

## IRLANDERAREN ERAKUNDEKO TERMINOLOGIA BATZORDEA

**Izena:** Foras na Gaeilge. An Coiste Téarmaíochta.

**Sorrera urtea:** 1968.

**Izaera:** izaera ofiziala du Hego nahiz Ipar Irlandan.

**Terminologia Batzordeko kideak:** 22 kideko Batzorde Iraunkorra.

**Egoitza:** Dublin eta Belfast.



1999ko abenduaren 2an sortu zen Foras na Gaeilge erakundea, lehendik sakabandututa ari ziren beste erakunde batzuen bat egitetik, hala nola Bord na Gaeilge (Gaelikoaren Bulegoa), An Gúm (Argitalpenak) eta An Coiste Téarmaíochta (Terminologia Batzordea). Terminologia Batzordea, hizkuntzaren normatibizazioaz arduratzen den egitura, 1968an sortu zen, Hego Irlandako Hezkuntza Ministerioaren eskutik. Gaur egun ere Terminologia Batzordea arduratzen da gaeliko irlandarraren normatibizazioaz, baina Foras na Gaeilge erakundearen barruko saila da orain.

1998ko Ostiral Santuan Belfasten sinatutako bake akordioetan du jatorria Irlanderaren Erakundeak. Irlandako hizkuntzez arduratzeko Ipar-Hego erakundea eratzeko hitzartu zuten akordio horietan, eta erakunde horren barruan bi egitura sortu ziren: Foras na Gaeilge, irlandaraz arduratzeko, eta beste egitura bereizi bat, Ulster-Scots hizkuntzaz arduratzeko. Jardun eremua, beraz, Irlandako irla osoa du.

Hauek dira Foras na Gaeilgeren helburu orokorrak: irlandera edo Irlandako gaelikoa sustatzea; irlandera ahoz edo idatziz publikoan nahiz pribatuan erabilia izan dadin erraztea eta bultzatzea; aholkulari lana egitea Irlandako bi gobernuentzat, beste erakunde publikoentzat eta baita elkarte pribatuentzat ere; hizkuntzaren alorreko proiektuak babestu eta, behar izanez gero, diruz laguntzea; ikerketak egitea; sustapen kanpainak egitea; terminologia garatu eta hiztegiak egitea; irlandarazko eta irlanderaren irakaskuntzak babestea.

Terminologia Batzordearen eginkizun zehatzagoak, aldiz, honako hauek dira: irlanderaren terminologia estandarizatua onartu, garatu eta zabaltzea, hizkuntza gizarte modernoan erabilgarria izan dadin helburuarekin; hezkuntzaren alorren, zerbitzu publikoen eta publiko orokorraren terminologia beharrak asetzea; irlanderaren lexikografia eskuragarri jartzea, corpus terminologikoen datu baseen bidez; eta irlanderaren ahozko eta idatzizko tradizioaren aberastasuna eta dibertsitatea ikertzea, terminologiaren garapenerako oinarri gisa.

Zortzi sail ditu guztira Irlanderaren Erakundeak: Terminologia Batzordea; Hizkuntzaren Sustapena; Hezkuntza; Argitalpenak; Liburuen Zabalkunderako Agentzia;

Sektore Publikoak eta Arteak; Komunitatea eta Enpresa mundua; eta Komunikazioa eta Marketinga. Hamabost kideko Zuzendaritza Batzordea du eta, 2007tik, Liam Ó Maolmhichíl da presidentea.

Terminologia Batzordeak 22 kideko Batzorde Iraunkorra du, denak ere irlandareren ikerlari eta adituak. Terminologiari buruzko irizpideak eta plangintzak zehazten dituzte, azpibatzerdeen lanaren jarraipena egiten dute eta zerrenda terminologikoak onesten dituzte. Hilero egiten dute bilkura. Foras na Gaeilge erakundeak Zuzendaritza Batzordeak izendatzen ditu Terminologia Batzordeko kideak, hiru urtean behin. Izendapen proposamenak Terminologia Batzordeko kideek beraiek egin ohi dituzte. Batzorde Iraunkorraz gain, arloz arloko azpibatzerdeak ditu Terminologia Batzordeak. Azpibatzerde horiek hitz teknikoek zerrendak egin eta onesten dituzte, nork bere arloan, eta hiztegi espezializatuak argitaratzen dituzte.

## ASTURIERAREN AKADEMIA



**Izena:** Academia de la Llingua Asturiana.

**Sorrera urtea:** 1980.

**Izaera:** Asturiasko Gobernuaren menpeko erakunde ofiziala da.

**Kideak:** 23 akademiko oso, 15 ohorezko eta 18 urgazle.

**Egoitza:** Oviedo.

Asturieraren Akademiak 1920an sortutako akademian du jatorria (Arteen eta Letren Erret Akademia Asturiarra), baina gaur egungoa 1980ko abenduaren 15ean sortu zen, autonomiaren aurreko Kontseilu Erregionalaren eskutik.

Hizkuntzaren normatibazioa, ikerkuntza eta sustapena ditu helburu nagusien artean, hala nola: gramatika legeak ikertu eta formulatu; erabilerarako arauak eta irizpideak eman; lexikoaren inbentarioa egin; hizkuntzaren erabilera, irakaskuntza eta hedapena sustatu; hizkuntz eskubideak babestu; literatur sariketarik eta lehiaketarik didaktikoak antolatu; ikerketa linguistikoak bultzatu; eta galiziera-asturiera hizkuntz aldaera sustatu eta zaindu. Eginkizun horiek betetzeko, sei sailetan egituratuta dago Akademia: lexikografia; araugintza; toponimia; pedagogia; literatura; eta etnografia eta kultura.

Akademiko osoak, ohorezkoak eta urgazleak ditu Asturieraren Akademiak ere. 23 akademiko oso dira 2009an, eta gehienez 25 izan daitezke. Kide berriak hautatzeko, gutxienez hiru akademiko osok egin behar dute proposamena, eta osoko bilkurak izendatzen ditu, gehiengo osoz. Hautaketa bizi artekoa da. Ohorezkoak 15 dira. Ohorezko kideen artean dago Euskaltzaindiko presidentea, Kataluniako, Galiziako eta Espainiako Akademiataro buruak bezala. Eta urgazleak 18 dira. Osoko bilkurak izendatzen ditu, gutxienez bi akademikoren proposamenez. Izendapenak iraunkorrak dira.

Erabakigune nagusia akademiko osoen batzarra da, eta zuzendaritza organo nagusia, gobernu batzordea. Presidentea, presidenteordea, idazkaria, idazkariordea eta diruzaina dira batzordeko kide. Osoko bilkuran aukeratzen dituzte, eta lau urtean behin berritzen dira karguak. 2001ean eta 2005ean Ana Cano aukeratu zuten presidente.

Nabarmenezkoak dira, Asturieraren Akademiaren argitalpenen artean, Akademiaren lehenengo lan normatiboa (*Normes Ortográfiques y Conxugación de Verbos*,



1981), asturieraren gramatika nagusia (*Gramática de la Llingua Asturiana*, 1998) eta hiztegia (*Diccionariu de l'Academia de la Llingua Asturiana*, 2000).

Agerkari ofiziala *Lletres Asturianas* da, eta Akademiak argitaratzen ditu, halaber, *Cultures* (*Revista Asturiana de Cultura*), *Lliteratura* eta *Entrambasauguas* (*A revista del Navia-Eo*). Liburu bilduma hauek ere baditu: *Toponimia*, *Llibrería llingüística*, *Preseos* (hiztegiak), *Cartafueyos normativos* (testu arauemaileak), *Llibrería académica* (literatura), *Escolín* (haurrentzako liburuak), *Lliteratura xuvenil* eta *Mázcara* (antzerkia).

Ekitaldi antolatzaile ere bada Asturieraren Akademia. 1982tik, urtero antolatzen du *Día de les lletres asturianas*, maiatzeko lehen ostiralean. Nazioarteko ikerketa jardunaldiak ere antolatzen ditu, urtero (*Xornaes Internacionales d'Estudiu*) eta bi urtean behin (*Alcuentru Llingua Minoritaria y Educación*).

## FAROEERAREN KONTSEILUA

**Izena:** Føroyska málnevndin.

**Sorrera urtea:** 1985.

**Izaera:** aitorpen ofiziala du, Gobernuaren erakunde aholku-emailea da.

**Kideak:** bost kide, Faroe Uharteetako Gobernuak izendatuak.

**Egoitza:** Tórshavn.

Faroeeraren iraupena eta garapena du helburu Kontseiluak, eta faroeeraren erakunde arauemailea da. Administrazio publikoaren eta bestelako erakunde aholku-emailea da, faroeerari dagozkion gaitetan.

Kontseiluak bost kide ditu. Faroe Uharteetako Gobernuak izendatzen ditu, erakunde hauen proposamenez: Hezkuntza Nazionalerako Saila, Faroetako Hizkuntzaren eta Literaturaren Institutua, Faroeeraren Irakasleen Elkarte, Faroera Idazleen Elkarte eta Faroerazko Hedabideen Batasuna. Lau urtean behin aukeratzen dituzte kideak. Beraien artean aukeratzen dute presidentea: Jógvan í Lon Jacobsen aukeratu zuten 2005ean presidente, 2009ko iraila bitarterako.

Kontseiluak gutxienez hilean behin egin behar du batzarra. Urtearen bukaeran, egindako lanaren txostena egin beharra du Kontseiluak, urtean zehar emandako hizkuntza irizpide eta gomendio guztiak barne.

*Oroafar* aldizkaria argitaratzen du Kontseiluak. Hizkuntzalaritzari buruzko lanak eta faroeeraren erabilerari buruzko aholkuak jasotzen dituzte aldizkarian.



## GALESERAREN BULEGOA

**Izena:** Bwrdd yr iaith gymraeg.

**Sorrera urtea:** 1988.

**Izaera:** aitortza publikoa du eta Galeseraren Legeak zehazten du hizkuntzaren arloan zer eskumen dituen.

**Egoitza:** Cardiff.



Erresuma Batuko Administrazioaren babesean sortu zen Galeseraren Bulegoa 1988an, eta, handik bost urtera, 1993an, Erresuma Batuko Parlamentuak Galeseraren Legea onartu zuenean —Bulegoak berak proposatu eta landutakoa—, hizkuntza politikari edo normalizazioari buruzko irizpideak emateko eskumena hartu zuen.

Hizkuntzaren normatibazioan baino gehiago, hizkuntza politikaren, hizkuntza zerbitzuen eta sustapenaren arloan egiten du lan. Galeseraren erabilera sustatzea du eginkizun nagusi, Galeseraren Legeak ezarritako irizpideen arabera. Galeserari buruzko gaietan Administrazioari aholkuak emateko ardura du. Hezkuntzaren arloan galeserazko irakaskuntzaren gaineko erantzukizuna ere badu. Meri Huws da presidentea, 2004tik.

## BRETOIERAREN BULEGOA



**Izena:** Ofis ar brezhoneg.

**Sorrera urtea:** 1999.

**Izaera:** Bretainiako Erregio Kontseiluaren ekimenez sortua, aitortza ofizialdun elkar-  
tea da.

**Kideak:** ehundik gora bazkide, Administrazio Kontseiluan hogeiki kide, Batzorde Zien-  
tifikoa hamahiru kide.

**Egoitzak:** Kawan, Karaez, Roazhon, Planvour eta Naoned.

Hizkuntza akademia klasikoa baino, hizkuntzaren sustapena eta garapena xede duen egitura tekniko-profesionala da Bulegoa, bazkide gisa parte hartzen duten herritarren sostengua duena. Baina lan arloan artean du hizkuntzaren normatibazioa ere, besteak beste ortografiaren eta gramatikaren estandarizazioa, hiztegi-  
gintza eta toponimia.

Bi sail nagusi ditu Bulegoak: ikerketa eta garapen saila, batetik, eta hizkuntzalaritza saila, bestetik. Ikerketa eta garapen sailak bi zerbitzu eskaintzen ditu: Bretoieraren Behatokia eta Garapenerako Agentzia. Behatokiak bretoieraren egoera aztertzea du xede, ikuspegi soziolinguistikotik, eta Garapenerako Agentziak gizarte-  
sektore guztietan bretoiera erabil dadin sustatzea du eginkizun.

Hizkuntzalaritza sailak, aldiz, hiru zerbitzu ditu: Itzulpelgintza eta Aholkularitza, Hizkuntza Ondarearen Zerbitzua eta Terminologia (TermBret). Lehen zerbitzuak bizitza publikoan bretoiera zuzen eta egoki erabilia izan dadin du helburu nagusi, eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen du horretarako. Hizkuntza Ondarearen Zerbitzuak bretoieraren ahozko eta idatzizko ondarea jasotzea, gordetzea eta hedatzea du helburu, eta toponimia irizpideak ematen ditu gainera. Eta TermBret zerbitzuak jakintza arlo berrietako terminologia zehaztea eta eguneratzea du xede, eta hiztegi berezituak egiten ditu horretarako.

Bulegoko bazkideak ez ditu inork aukeratzen. Izena ematea (eta kuota ordaintzea) aski da bazkide izateko, eta ehundik gora dira bazkide. Bazkide horiek aukeratzen dituzte, Batzar Orokorrean, Bulegoko Administrazio Kontseiluko hogeiki kideak. Eta Administrazio Kontseiluak aukeratzen du Bulegoko Zuzendaritza. Presidenteak, bi presidenteordek, idazkariak eta diruzainak osatzen dute Zuzendaritza. Lena Louarn da presidentea 1999tik. Gainera, Batzorde Zientifikoa ere badu Bulegoak, Bretainiako unibertsitateetako ordezkariak eta hizkuntzaren arloko adituek osatua; 13 kide daude Batzorde Zientifikoa.



## KORNUBIERAREN ELKARTEA

**Izena:** Keskowethyans an Taves Kernewek.  
**Sorrera urtea:** 2005.  
**Izaera:** aitortza publikoko elkarte da.  
**Kideak:** Elkarteko bazkide diren erakundeetako ordezkariak.  
**Egoitzak:** Truru.



Kornubiera sustatzeko eta garatzeko helburua du Kornubieraren Elkarteak. Normatibizazioaren arloan, kornubieraren idazkera estandarraren arauemaile nagusia da. 2008. urtean argitaratu zuen, hain zuzen ere, kornubieraren ortografia batua, ortografia irizpide desberdinen artean batasuna ezartze aldera.

Kornubieraren aldeko hainbat elkartetako, Kornuallesko elkarte kultural eta ekonomikotako, eta administrazio publikoko erakundetako ordezkariak osatzen dute Elkarteak. Europar Batasunak, Erresuma Batuko Gobernuak eta Kornuallesko Kontseiluak finantzatzen dute.

Kornubieraren Elkarteko bazkide diren erakundeetako ordezkariak dira Elkarteko kide. Elkarteko presidentea Kornuallesko Kontseiluko ordezkaria da, Jeremy Rowe. Elkarteko kide dira, halaber, Kornuallesko bost barrutietako kontseiluetako ordezkariak eta beste 11 elkartetako ordezkariak. Urtean lau batzar ireki egiten dituzte.

## ARAGOIERAREN AKADEMIA

**Izena:** Academia de l'Aragones.  
**Sorrera urtea:** 2005.  
**Izaera:** elkarte kulturala, Aragoiko Gobernuaren aitortza ofizialik gabea.  
**Kideak:** 20 akademiko oso, 6 akademiko ohorezko eta hainbat urgazle.  
**Egoitza:** Sabiñanigo.



Oso akademia berria da, 2005eko uztailaren 15ean sortua. Euskaltzaindiaren eta eredu klasikoko beste hainbat akademien oso antzekoa da, bai funtzioetan eta bai egituran.

Hizkuntzaren normatibizazioa du eginkizun nagusia, baina hizkuntzaren ikerketa eta sustapena ere helburuen artean ditu. Barne estatutuen arabera hauexek dira Aragoieraren Akademiaren xedeak: aragoieraren ahozko eta idatzizko adierazpenak ikertzea; lexikoaren inbentarioa egin eta eguneratzea; toponimia eta onomastika zehaztea; gramatika, ortografia eta fonetika arauak ikertu eta formulatzea; hizkuntza estandarra finkatu, garatu eta hobetzea; aragoiera defendatu eta sustatzea; eta hiztunen hizkuntza eskubideen errespetua zaintzea.

Akademiko osoak, ohorezkoak eta urgazleak ditu Aragoieraren Akademiak ere. Osoak, 2009an, hogeitaz dira, eta gehienez 30 izan daitezke. Egindako merituetan oinarrituta aukeratzen dituzte ohorezko kideak, eta kopuru mugarik ez dute. Urgazleak Akademiaren lanetan parte hartzeko izendatzen dituzte; aldi baterako izen-





dapenak dira, lan jakinetarako izendatuak direnez, baina behar bestetan berritu daitezke. Osoko bilkurak izendatzen ditu akademiko osoak, ohorezkoak nahiz urgazleak. Euskaltzain osoek bi herenen baino gehiagoren babesari behar dute aukeratuak izateko.

Zuzendaritza bederatzi akademikok osatzen dute: presidentea, presidenteordea, idazkaria, diruzaina eta bost sailtako buruak (Koordinazioa, Araugintza, Ikerketa, Dokumentazioa eta Soziolinguistika). Osoko bilkurak aukeratzen ditu guztiak, hiru urteko agintaldirako. 2006an Manuel Castán aukeratu zuten presidente. Erabakigune nagusia osoko bilkura da, akademiko osoen batzarra alegia. Gutxienez urtean hirutan egin behar du bilera.





Euskaltzaindiaren 90. urteurrenean idatziriko  
liburu hau 2009ko irailaren 29an, San Migel  
egunez, bukatu da Leitzaran Grafikak S.L.  
inprimategian.

